



*Demografia  
eta Herri  
Politikak*



**EMAKUNDE**  
EMAKUMIAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

---

*Demografia  
eta Herri  
Politikak*

EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 1994

**IZENBURUA:** "Demografia eta Herri Politikak"

**EGILEA:** EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea  
Manuel Iradier, 36. 01005 VITORIA-GASTEIZ

**DATA:** Apirila 1994

**ALE ZENBAKIA:** 1.000

**DESKRIPTOREAK:** Demografia, politika demografikoa, ugalkortasuna, bikote harremanak, familia ereduak, lan partaidetza, datu estatistikoak

**IRUDI DISEINUA:** Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia

**ILUSTRATZAILEA:** M.º José Gamboa

**FOTOKONPOSAKETA:** RALI, S.A.  
Particular de Costa, 12-14. 48010 BILBAO

**INPRIMATZAILEA:** Gráficas Santamaría, S.A.  
Bekolarra, 4. 01010 VITORIA-GASTEIZ

**ISBN:** 84-87595-23-5

**LEGE GORDAILUA:** VI-788-93

---

## **AURKIBIDEA**

<b>AURKEZPENA</b> .....	7
-------------------------	---

### **MENDEBALDEKO HERRIALDEEN BIGARREN IRAGANALDI DEMOGRAFIKOARI BURUZKO AZALPENA**

Ron Lesthaeghe .....	9
----------------------	---

### **GIZARTE POLITIKAK ETA ONGIZATEAREN GIZARTEEN KRISIA**

Raimundo Cagiano de Azevedo .....	61
-----------------------------------	----

### **DEMOGRAFIA ETA FAMILIAREKIKO POLITIKA ESPAINIAN**

Juan Antonio Fernández Córdón .....	89
-------------------------------------	----

### **GIZARTE ETA FAMILIA-POLITIKOEN ERAGIN DEMOGRAFIKOA EUROPAN**

An-Magritt Jensen .....	113
-------------------------	-----

### **LAN IHARDUERA ETA FAMILIAREN ERAKETA. ERKAKETA AZTERLANA ELKARTEKA**

Montserrat Solsona Pairó .....	137
--------------------------------	-----

### **EUSKADIRAKO POLITIKA DEMOGRAFIKO BATERANTZ?**

Begoña Arregi Gorospe .....	171
-----------------------------	-----

### **EMAKUMEEN EREMUAN ERAGINA DUTEN GIZARTE-POLITIKEI BURUZKO GAUR EGUNGO BIRPLANTEAMENDUAK**

Gotzone Mora Temprano .....	197
-----------------------------	-----

## *Aurkezpena*

Mendebaldeko herrialdeetako demografiak azken hamarkadetan izan duen bilakaera kezka-kabide eta aztergai bihurtzen ari da gure gizarteko hainbat sektoretan. EMAKUNDE/ Emakumearen Euskal Erakundeak ere gogoeta horretan parte hartu nahi duela eta, "Demografia eta Herri-Politikei buruzko Mintegia" antolatu du. Mintegiko txostenak horregatik agertzen dira argitalpen honetan, izan ere, gure ustez, interes handia du beste herrialde batzuetan dauden demografia-joerak ezagutu eta hartutako politikei buruz ikuspuntu zabala izateak, gai horrek gizarte osoa ukitzen baitu.

Bizi-itxaropenaren gehikuntzak eta azken urteotan gertatzen ari den jaiotze-tasaren jaitsierak biztanlegoaren zahartzea ekarri du arian-arian.


Gaiaz jabeturik, zenbait herrialdetan jaiotze-kopurua areagotzeko pizgarriak bultzatu dituzte. Estatistikek diotenez, Euskal Autonomi Elkartearen emakume bakoitzaren batezbesteko seme-alaben kopurua 2,3koa zen 1963an, 1988an 1,1ekoa eta, azkenik, 1993an 0,97ra jeitsi da.

Hainbat faktorek eragiten dute demografiaren gorabeheretan, besteak beste, ekonomia-egoerak, erlijio-sinesmenek, gobernuen politikek, eta beste gizarte-ezaugarri batzuek ere, hala nola, lanaren aldibaterakotasunak, etxebizitza-ezak, zerbitzu-sararik ez izateak, eta abar luze batek. Inguruabar horiek guztiek baldintzatzen dute seme-alabak izateko erabakia. Egoerak, honenbestez, azterketa behar du: noraino den egokia gobernuak parte hartzea gai honetan; mendebaldeko Europako zenbait herrialdetan burutu diren jaiotzaren aldeko politiken eraginkortasuna; eta zer-nola eragiten duten inguruabarrok emakumeak gizarteratze-ko prozesuan.

Bizi dugun unean, familiaren eginkizunen ezaugarriak aldatu eta berrantolatzen ari direla gauza nabaria da. Aldaketa horrek, gainera, zerikusi zuzena du gizarte-antolamenduko arlo publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketa hertsia hausturarekin. Ugalketarekin zerikusirik duten eginkizunen pisua, alegia, betidanik familiaren gain eta ia-ia bakarrik emakumeen gain egon dena, ezin beregana dezakete oraingo familiek baldintza berdinetan.

Zenbait adituk diotenez, erabat bateratu behar dira lan-bizitza, aitalasuna/amatasuna eta norberaren garapena. Helburu horrek, beraz, gaur egun ezartzen diren demografia-politiken ardatz nagusi izan behar du.

Gizarte-politika egokien barruan, umeak zaindu eta arreta eskaintzeko nahikoa zerbitzu sortzeak lagundu egingo luke jaiotza-tasa handitzen, bestela ikustea besterik ez dago Europako iparraldeko herrietan gertatu dena. Jaiotzak areagotzeko erabiliko den ekimena edozein dela ere, ez du traba izan behar emakumeak esparru guztietan behar bezala sartu ahal izateko.



Txaro Arteaga Anso  
EMAKUNDE/ Emakumearen  
Euskal Erakundeko Zuzendaria

---

**RON LESTHAEGHE**

**Soziologia, Zientzia Politikoak  
eta Sozialetako Fakultatea.  
Brussela-ko (Belgika)  
Unibertsitate Librea**

*Mendebaldeko*

*herrialdeen*

*bigarren*

*iraganaldi*

*demografikoari*

*buruzko*

*azalpena*

**Eskerrona:** Egileak eskerrak eman nahi dizkie L. Bumpass, T. Burch, P. McDonald, L. Day eta I. Pool-i EE.BB., Canada, Australia eta Zelanda Berriari dagozkien azken datu demografikoak igortzeagatik. Eta Gino Verleye-ri bere azterketa estatistiko baliotsuengatik.

## *Sarrera*

Mendebaldeko familian 60ko hamarkadatik aurrera gertatu den aldaketaren norabidea aski ezaguna da. Hasieran, 1955.etik 1970.era bitartean gutxi gorabehera garrantzizko hiru faktore izan ziren. Lehenengo eta behin, dibortzioen goranzko joera nabarmen gehitzen da. Bigarrenik, jaiotze-kopurua ere mugatu egiten da. Ugalkortasun urriagoa nabari da adin-tarte guztietan, ezkontzen iraupena ere gutxitu egiten da. Hau guzti hau, hormonazko antisorgailuetan eta DIU delakoaren berraurkikuntzan oinarritutako iraultzarekin batera gertatzen da, ernalkuntza galerazteko metodoen iraultzarekin alegia. Hirugarrenik, 1880.etik 1920.era bitartean hasi zen ezkontzeko batazbesteko adinaren beherakada ere gelditu egiten da. Aitzitik, 25 urte bete baino lehen ezkontzen diren emakumeen portzentaia nabarmenki gutxitzen da. 60ko hamarkadaren amaieran, berriz, zenbait herrialdetan haurdun izateagatik ezkontza-kopurua gehitu egiten da denboraldi batez: ezkondu aurretiko sexuharremanak gehituz doaz 60ko hamarkadan zehar eta antisorgailuak ez dira horren eraginkorrak oraingoz. Herrialde hauetako gehienetan, ordea, faktore hori desagertu egiten da 70ko hamarkadaren hasieran. Beste batzutan, aldiz, nerabe haurdunen arazoak bere hartan dirau.

Geroago, 1970.etik 1985.era bitarteko bigarren fase batetan, ezkondu aurretiko elkarbizitza hedatzen da ipar-herrialdeetatik beste hainbat herrialdetara. Europan, elkarbizitza-portzentaiek ezkontza-portzentaia beherakada konpentsatzen dute hein handi batez. Estatu Batuetan, Kanadan edo Australian, aldiz, ez da halakorik gertatzen, herrialde hauetan gutxitze garbia nabari baita 25 urte bete baino lehenago elkartzen diren pertsona-kopuruari dagokionez. Geroago, adostasunezko elkartze hauen umegintza hasten da, eta ezkongai-alditzat jo zitezkeen elkartze hauek "paperik gabeko ezkontza" bihurtzen dira. Adostasunezko elkartzeen ondorioz jaiotako umeek, bestalde, ez-legebidezko jaiotzen portzentaia hazkundera dakarte, jakina. Hala ere, horrek ez dakar 25 urtez beherakoen ugalkortasun-tasaren gorakadarik. Alderantziz gertatzen dela esan daiteke.

80ko hamarkadaren erdialdera hirugarren fase bat hasten da. Fase honen ezaugarri nagusia, hain zuzen ere, portzentaia oso handietara heldutako herrialdeen dibortzio-tasaren egonkortasuna litzateke. Hau horrela izanik ere, aipatu beharra dago berriro ezkontzeko aukerak, bai alargunentzat eta bai dibortziatuentzat, behera egiten ari zirela 60ko hamarkadaz geroztik. Bizimodu berriak sortzen dira, hala nola, ezkontzaren osteko elkarbizitza eta LAT harremanak, ezkontza berri baten ordezkotzat hartzen direnak. Horrez gainera, 30 urtez

---

gorakoen ugalkortasun-tasa sendotu egiten da. Zenbait herrialdetan, berriz, gazteenen ugalkortasun-tasaren beherakada eten egiten da, oro har behereneko mailetara iritsiak zirelako edo gazteen ugalkortasun-arazo iraunkorrenengatik. Guzti honen ondorioz, 30 urtez gorakoen ugalkortasunaren sendotzeak aldi honetako ugalkortasun-tasaren hazkunde txikia daukar. Dena den, mendebaldeko zenbait herrialde ez dira oraindik fase honetara iritsi. Europan, herrialde aurreratuak eta atzeratuak, funtsean, Ipar-Hego ardatz baten ingurura biltzen dira, Mediterraneo aldeko herrialdeak bigarren fasean ageri direlarik.

Garapen hauen ondorioetako bat guraso bakarreko —gehienetan ama— familien hazkundera izan zen. Gauzak horrela, txirotasuna feminizatu egin zen. Eta arazo horiek familia hauen seme-alabengan ere eragina dute. Hala ere, gizarte-eragin hauek oso ezberdinak dira herrialde batetik bestera, eta gizarte segurantzaren prestazioei lotzen zaizkie, batez ere. Beste ondorio bat, pertsona bakarreko etxeen gehikuntza izan daiteke. Heldutako gazteen artean ere familia-etxea uzteko joerak aldatu egin dira.

Labur esateko, bizitza-zikloaren aldaketak, gaur egun, sarriago gertatzen dira eta nahasiagoak dira eta eredu aldakorragoak ageri dira. 60ko hamarkadatik hona izandako aldaketarik bat ere ez zen aldeztu aurretik igarri. Gerora antzeman zitzaien, estatistikak eskuratu ondoren.

## *Bi iraganaldi demografiko?*

Egile batzuek zenbait aldaketa somatu zituzten eta aurretiko eskemekin alderatu zituzten. Hortik sortu zen 60. hamarkadatik izandako aldaketak bigarren iraganaldi demografikoaz mintzatzeko adinako garrantzia bazutelako ideia. Puntu honetan, ordea, hainbat demografo ez datoz bat (Cliquet, 1991).

Lehenengo eta behin, E.Shorter-ek (1975) bi sexu-iraultza somatzen ditu. Lehenak, bikotekidea aukeratzeko zioen aldaketa: gizartearen homogamiak eta gurasoek duten homogamia horri eustearen aldeko jarrera direla medio, aukeraketa erakargarritasuna eta gerorako laguntza oinarritzat harturik egitea dakar. Bigarren sexu-iraultzan, berriz, sexu-alderdiak gailentzen dira, eta erotismoak toki garrantzitsuagoaz jabetzen da giza-harremanei dagokienean. Lehenengo sexu-harremanak lehenago, gazteago, zertzen dira, eta ezkontza eta bestelako batzeetan sexu-atsegina, gazte nahiz adinekoentzat, garrantzizkoa eta beharrezkoa dela aitortzen da.

Beste batzuek antisorgailuen ondoriozko bi iraultzak azpimarratu dituzte. Lehenak, eraginkortasunik gabeko metodoetan oinarritua, ugalkortasunaren iraganaldi historikoa sortarazten du Mendebaldean. Bigarrena, aldiz, metodo eraginkorren sarrerari dagokio (Ryder eta Westoff, 1977), eta Westoff-ek "antisorgailu hobezinen gizartea" deitzen diona ekarriko du. Mendebaldeko gizarteak irrikan zeuden endokrinologia arloko ezagutza berriak erabili eta natura kontrolatzeko era berri bat edukitzeko. Bikoteek zalantza eta arazo-iturri horretatik aske geratu ziren. Emakumeek zeresan gehiago zeukaten ugalkuntza-gaian.

Ariès-en azalpenaren muinean (1989), berriz, motibazioa agertzen da. Mendebaldeko kultur eta gizarte-historiaz egiten duen azterketa zehatzean, Ariès-ek bi motibazio ezberdin somatzen ditu ugalkortasunaren beherakada historikoari eta oraintsukoari dagokienez. Lehenengoa, gurasoek seme-alabei bizimodu hobea eskaini nahi izatearen ondorio da. Sarritan adierazten da hau XVIII eta XIX. mendeetako ugalkortasun-iraganaldiari dagokienez. Arsène Dumont-ek berorretan oinarritzen du bere gizarte-kapilaritateari buruzko teoria, eta Sauvy-k "iraganaldi altruista" deitzen dio. Garai honetantxe, halaber, burgesiaren familia-eredua sartzen da beherenengo mailetakoen artean. "Burgesamendu"-garaia dugu, beraz. Izan ere, etxea kalitateari buruzko iradokizun-toki nagusian bilakatu zen, gizonak diru-baliabideak eta laguntasuna eskaintzen zuten bitartean, emakumeak etxeke pertsona guztien bizimoduaren kalitatea areagotzen edo zeukatenari eusten, behintzat, ahalegintzen zirela-

---

rik. Kalitatearen inguruan zertzen den eredu hau, funtsean, genero-rol asimetrico eta erakundetu batzutan oinarritzen dira. Ugalkortasunaren bigarren beherakadak, 60 eta 70. hamarkadetan suertatzen denak, Ariès-en "umea-errege" delako garaiaren amaiera mugatzen du. Eta horrenbestez, helduaren inguruko kezkei dagokien garaia hasten da, norberaren bizimoduari eta bikoteko harremanen kalitateari, batez ere, begiratzen diona. Umeak garrantzitsuak dira orain ere, baina, lehenago ez bezala, ez dira beti piramidearen gailurrean. Eta horren adierazgarri gisa aipa genezake seme-alabak dagoeneko ez direla gurasoen dibortziorako eragozpenzat jotzen (ikus 1. taula jendeak gai honetaz pentsatzen duena ezagutzeko). Van de Kaa eta Lesthaeghe-k (1986; Van de Kaa, 1987) baieztu egiten dute Ariès-en tesia, eta "bigarren iraganaldi demografikoa" deitu zioten mendebaldeko familian arestian izandako aldaketa-multzoari. Shorter-ek, Ariès-ek eta antisorgailuen ondoriozko iraultzez mintzatzen diren egileek somatutako faseak eta bi iraganaldi demografikoen ideia eta denbora nahiko bateragarriak dira.

Baina ekonomiariek ere antzeman zituzten garai ezberdinak zirela 1960.a baino lehenago eta geroago. Eskola neoklasikoak, esate baterako, seme-alabekiko kalitatea eta zenbaitzekoaren arteko oreka aipatzen du lehen aldaketa demografikoaren ardatz gisa, hau da, Ariès, Sauvy eta beste hainbat gizarte-historialarien interpretazioekin guztiz bat dator. Era berean, Mendebaldeko herrialderik gehienetan 80. hamarkadatik argi eta garbi nabari den ezaugarri bat dela medio, hau da, gizonen benetako soldataren gehikuntzaren ondorioz, ezkontzak eta aitasuna/amatasuna lehenagotu egiten direla adierazten dute. Berrito ere, gertaera hau 1880.etik 1960.era bitarteko ezkontza-tasen aldaketari lotzen zaio. Bigarren fasea, ordea, emakumearen ekonomi autonomiari lotuta dago. Emakumeen enplegukopuruaren hazkundeak eta soldaten igoerak etekin-murritzapena dakarkio ezkontzari eta aukera-kostuen gehikuntza emakumeari (G. Becker, 1981). Horrenbestez, ezkontza berandutu egiten da eta ugalkortasuna urritu. Hauxe da bigarren iraganaldiaren gakoa.

Jaiotzeen gehitze itzelari eta beherakadari dagokienez, Easterlin-en iritziz (1976), belaunaldiarteko diru-sarrera maskulinoen indizeak eta gizarteratzean hartutako kontsumo-nahikundeak garrantzi handikoak dira. Oraintsuko ugalkortasun-beherakada belaunaldiarteko diru-sarreraren murriztapenarengatik eta lan merkatuaren baldintzen okertzearengatik gertatu da. Izan ere, egoera hori jasan behar izan zuten belaunaldietako gazteenek jokabide demografiko berriari jarraitu zioten, ezkondu gabe edo seme-alaba gutxiago izatera, euren gurasoekin edo beste pertsona batzuekin bizi izatera, legeztatu gabeko batasunak egitera eta emakumearen lana amatasunari lotzera beharturik (Easterlin et al., 1990). Easterlin-en

---

dinamika, hau da, kontsumo-nahikundeen eta baliabideen arteko lehia ez dagokie zehatz-mehatz bi iraganaldi ezberdini. Teoriak, berez, eredu demografikoaren alderanzketa bat onartzen du, baldin eta baliabide maskulinoak eta aukera-egiturak berriro hobetuko balira, edo kontsumo-nahikundeak egonkortuz gero. Azken baldintza honek, inoiz baino zailagoa dirudi, Crimmins, Easterlin eta Saito-k (1991) Estatu Batuetako irakaskuntza ertaineko institutuetako garduatuen eta Unibertsitateko lehen ikasturteko ikasleen artean jasotako datuak (ikus 1. taula) aztertu ondoren adierazitakoaren arabera. Gauzak honela, badirudi kontsumo-mismoa bigarren iraganaldi demografikoan ere funtsezko osagaia dela.

Politikaren ikuspegitik ere arrazoitu daiteke bi iraganaldien hipotesia. Horretarako, 1500.etik 1950.era bitarteko aldia, erakundearen aldetiko kontrol nabarmenagoa erakusten duena, Estatuaren eta Elizarena, batez ere, munduko bigarren gerratearen ondoren amaitzen delako argudioa hartzen da oinarritzat. Erakundearen kontrola areagotzeko joera gordinki agertzen da XVI. mendean, hala sektore katolikoetan, nola protestanteetan. Garai honetan herri-kulturaren adierazpen guztien eta jendearteko portaera "ez zibila" deritzanaren zapalkuntza nagusitzen da (Muehbled, 1978; Otis, 1985; Roper, 1989; Lis et al., 1985; Flandrin, 1984; Delumeau, 1983; Lesthaeghe, 1989), eta "kristauen moral berria" ezartzen da (Aries, 1973). Eredu berri honek, genero-rol asimetriko batzuk ezartzeko, sexualitatea deuseztatzeko, txiroen artean ordenari eusteko, norberaren kontrol morala eta erkidego edo komunitatearen aldetiko zaintza ezartzeko (hots, ospe onaren politika), soldatapekoak zigortzeko eta astialdiaren erabilera araupetzeko balio du. XVIII. mendeko burgesiaren idealak - kristauen moral berriaren eragin nabarmena zutenak - 1850.az geroztik heltzen dira gizartearen beheerengo mailetara. Baina hori garai atzerakoietan gertatzen da, Victoria erreginaren Ingalaterran, Bismarck-en Alemanian, berrezarkuntza katolikoaren Frantziaren. Eredu honek autodisziplina goratzen du, etsipena, esanekotasuna, eraspina eta aber-tzaletasuna. Sexualitateak ez du deus ere balio. Baina, lehenago ere esan dugun bezala, eredu honetan ezkontideen arteko laguntasuna eta etxeko bizimoduaren kalitatearen hobekuntza ere sartzen dira. Munduko lehen gerratearen ondoren, hala ere, aginkeriazko ezau-garriak azaltzen dira faszismoaren menpe egon ziren herrialdeetan.

Ugalkortasunaren lehen iraganaldiak argi eta garbi erakusten du norberaren autonomia gero eta garrantzitsuagoa dela (hau da, norberak erabakitzeko aukera, bestelako agintaritzaren edo moralitatearen onartu gabe). Antisorgailuen erabilpena sekularizazioari erabat loturik dago (Lesthaeghe, 1983). Ildo horretatik, Frantziako ugalkortasunaren iraganaldia, inon baino lehenago suertatu zena, ez da salbuespena (Lesthaeghe, 1989). Honek zera erakus-

---

ten du, gizarte-klase guztiek onartu zutela eredu burgesak etxeko bizimoduari erasten zizkion kalitate-aldeak, alabaina, pribatuki ez zituzten antisorgailuen erabilpenarekiko erlijio-eragozpenak onartzen. Norberaren autonomia, beraz, aldagai demografiko garrantzitsua dugu, baina, "bat ez etortzea" intimitatean ageri da. Lehen iraganaldi demografikoa isiltasunean zertzen da.

Bigarren iraganaldian, berriz, norberaren autonomia jendaurrean agertzen da. Eta agerrialdi hori sakonagoa da, kanpo-erakundeek aginkeriazko adierazpen guztien aurka baita go. Familiari, sexualitateari eta abarrei dagokienez, erlijio-agintaritzaren (Simmons, 1980; Glenn, 1987), balore politikoek (Inglehart, 1977, 1990) sozialkuntzaren garaia da (Khon, 1969, 1976; Alwin, 1984, 1988, 1989). 60. hamarkadan sortutako teoria filosofiko eta psikologiko guztiak aginperiaren kontrakoak dira oso. Gai honi dagozkion estatistika-datuak, Estatu Batuetakoak eta Holandakoak, batipat, balore libertariak Munduko bigarren geratearen aurretik han-hemenka sortuz joan zirela eta 1955.etik 1975.era bitartean, batez ere, zabaldu zirela erakusten digute (Alwin, 1984, 1988, 1989; Glenn, 1987; Thornton, 1988; Van de Kaa, 1980) (ikus 1. taula). Gerora, egonkortasun-aldia nabari da, 1985.az geroztik erantzunkizun publiko txikiagoa eta norberekeria handiagoa nagusitu dela badirudi ere (Marini, 1990; Crimmins et al., 1991; Van Ryssel, 1989). Beste modu batze esanda, 60. hamarkadaz geroztiko aldaketa demografikoak Inglehart-en "Iraultza Isila"-ri guztiz lotuta daude. Baina, iraultza ez zen isila izan 60. hamarkadan: eliza katolikoaren agintaritzaren aurkako erreazioak oso argiak izan ziren, ikasleen burrukek mundu osoko egunkariaren lehen orrialdeak bete zituzten, alderdi "berdeak" legebiltzarretara heldu ziren eta "bigarren uhin feminista" kontutan hartu beharreko indar bihurtu zen.

Aginperiaren aurkako joeraren eraginak eta norberaren autonomiaren areagotzeak, Mendebaldeko balore eta joera demografikoez gainera, Ekialdeko Europan eta Sobiet Batasunean berrikitan gertatu dena esplikatzen ere balio dute. Honek erakundeek kontrola eta erlijio zein politika-doktrinekiko derrigorrezko adostasuna nagusi zireneko garaia amaitua dela argudiatzen duen tesira garamatza. Bost mendetan zehar luzatu zen garaia, alegia. 60. hamarkada eta 80. hamarkadako azken urteak funtsezko abagadune historikoak dira Mendebaldeko herrialdeetan eta Ekialdeko herrialdeetan, hurrenez hurren. Mendebaldeko aldaketa demografikoekiko erlazioa ez da kointzidentzia bat.

## 2.

# *Arken joera demografikoen sustraiei buruzko azterketa zehatzagoa*

Demografiaren ezaugarri berrietan aurkitutako berezitasunek eta baloreei buruzko azterketatik atera direnek aztertzen ari garen prozesuaren nolakotasuna sakonago ezagutzeko aukera ematen digute.

### 2.1

#### **BIKOTE - HARREMANEN KALITATEA**

Lehenengo eta behin, bigarren iraganaldian zehar nabari den dibortzio-kopuruaren gehitze azkarrak argi eta garbi erakusten du pertsonarteko harremanen kalitatearen ebaluazioa dela eta gertatzen ari den aldaketa. Clicquet-ek (1991) iradoki bezala, altruismoa, norberaren autonomia eta indibidualismoa direlako kontzeptuak azterketatik at uztearen aldeko argudioak ez dira egingarriak, zeren kalitatearen kontzeptua ere, geroago ikusiko den bezala, alde batera utzi bailitzateke. Elchardus-ek (1990) defendaturiko tesia, hau da, aldaketa demografikoak kalitate-maila gero eta handiagoekin baino ez dutela zerikusirik eta nahikundeekin nahiz norberaren autonomiarekin inolako erlaziorik ez dutela dioena, osagabea da eta errealismorik gabea. Ondoren zenbait definizio ematen dira interpretazio okerreki ekiditeko.

Becker-ek (1981) altruismoaz eta indibidualismoaz ematen digun definizioari lotuko gaitzaizkio. Hitz hauek Bestearen ongizate-gaiak Neure baliogarritasun-funtzioari generatzea edo ez generatzea adierazten dute. Burges-familiari dagokion ereduko aspaldidaniko laguntasunaren arabera, esate baterako, senarrek euren emazteen zenbait ongizate-gai generatzen zizkioten beren baliogarritasun-funtzioari, generoen asimetriazko esparruan beren emazteek erakundeen bidez eskainitako altruismoaren truke. Altruismoak iturburu ezberdinak ditu: zirrara (adb.: maitasuna), elkarrekiko altruismo eta etekin-igurikapena, transakzio-kostuen murriztapena (adb.: Ben Porath-en "inbertsioa nortasunean" delako teoria, 1980), edo sozialkuntzaren bidez besterenganatutako erakunde-rolen barruratze argia, besteak beste. Norberaren autonomia delako kontzeptuak, berriz, berorretaz emandako definizioaren arabera, berez ez du zerikusirik indibidualismoarekin edota portaera egozentriko bate-

---

kin. Norbanakoak dagoeneko ez dituela kanpotik ezarritako arauak eta moralitatea onartzen baino ez du adierazten, berak aukeratzeko askatasuna erakusten duela, alegia. Norberaren autonomia, beraz, zirrara-arloan ere ager daiteke, hala nola, arrazionalitate ekonomikoan eta baliogarritasunaren hobekuntzan. Bikote baten barruko harremanen kalitatea "eman eta hartu" delakoari hertsiki loturik dago, hau da, bikotekideek baliogarritasun-funtzioak batu nahi izateari eta, beraz, alde bakoitzaren jarrerari eta elkarrenganako altruismoaren presentziari ala gabeziari (Reszoghazy, 1991). Beste modu batez esanda, jarrera hauek eta harreman horrek norbanakoarentza dituen onurek mugatzen dute kalitatea. Hortaz, nola ken daitezke altruismoa eta indibidualismoa azterketatik?

Gauzak horrela, ez da harritzekoa, 80. hamarkadako balore-azterlanetan, "elkarrenganako ulerkotasuna eta begirunea" jotzea ezkontza zorionsua izateko baldintza nagusizat (Harding et al., 1966). Ezkontzak lehengo eredu asimetriko eta erakundeek mugatu hartatik aldentzen diren neurrian, gero eta gehiago azpimarratzen da "elkarrenganako ulerkotasuna eta begirunea". Mendebaldeko gizarteetan ezkontza zorionsua lortzeko baldintzak dira eta, "fideltasuna" (ezkontza-fideltasuna) eta "ulerkotasuna eta jasankortasuna edo tolerantzia" aipatzen dira ondoren. Berrero ere, batasunak iraungo badu, bestearen ongizate-gaiak ezagutu beharko dira norberaren baliogarritasun-funtzioari eransteke. Fideltasun-eza traizioa da, umilazioa eta ezkontidea errefusatzeko. Jakina, ezkontide baten nahikunde adierazi gabeak eta aitortu gabeak beste ezkontidearen jasankortasun-maila gaitzeko moduan hazten badira, harremanaren kalitateari kalte egingo dio. Hortaz, negoziazio-prozesua eta jarreraren arteko elkarrekintza dira harreman berdinagoen ezaugarri nagusiak (England eta Farkas, 1986). Van der Avortekin (1985) bat etorritik, prozesu hauek dira harreman modernoaren ardatza eta jarreraren mugapena beharrezkoa da beti ere komunikazio arazorik ez izateko. Prozesu hauen dinamika eta ondorio ezberdinak dakartzaten "jolasak" zabal-zabal azaltzen dira "gizarte elkartrukea"-ri buruzko literatura soziologikoan eta "transakzio kostuen" teoria ekonomikoan (Pollak, 1985).

Dibortzio-kasuen lehen gehikuntza ezkontza bizitza osorakoa konpromisua zela "onerako eta txarrerako" sinesturik gizarteratutako taldeen artean gertatu zela esan behar da. Honek, arazoaren oinarrian bikotearen gutxienezko kalitate-mailaren hobetzea eta portera onartezinekiko jasankortasun txikiagoa zeudela adierazten du. Baina, nazio-legerien xedapen ezberdinei erreparatuz gero, "errudunik gabeko" dibortzioa nagusitu zaigu (Dumon, 1977). Honek zera esan nahi du, nortasunen bateraezintasuna eta bion helburuak bat etorri ezina oso garrantzitsu bihurtu direla. "Bikotearen maitasunik eza", nortasunen bateraezintasuna"

---

eta "sexu harreman desatseginak" dira belaunaldi gazteenek, sekularizatuenek eta ezker-alderdiei botua ematen dietenek dibortziazko arrazoitzat aipatzen dituztenak 80.eko urteetako baloreei buruzko azterlanetan (Harding et al., 1986). Ezaugarri hauek ia guztiz bat datoz Europako joera demografiko berrien abangoardian ageri direnekin (de Feyter, 1991). Oppenheimer-ek ere (1988) kalitatearen gutxienezko mailen hobekuntza aipatzen du ezkontzaren geroratzea arrazoitzeko. Emakume honek errefusatu egiten du emakumearen autonomia ekonomikoak ezkontzak sortarazitako onuren murriztapen orokorra dakarrela Becker-ek dioten bezala. Oppenheimer-ek beste tesi batez azaltzen zaigu, hots, ezkontza geroratzeko arrazoia nagusia ezkontza bera onargarria izan dadin kalitate-maila oinarritzat hartzen duen esplorazio arretatsuan datzala, eta ezkontza, erakunde gisa, ez dela zalantzapean ez eta mehatxupean. "Gutxienezko kalitate-maila"-ren argudioa, bestalde, Easterlinen diagnostikoaren, hots, ezkontzaren geroratzea lan merkatuaren baldintzak okerrerantz egin dutelako gertatu dela diotenaren alternatiba bezala ageri zaigu. Kalitatearen teoria, alabaina, norberaren helburuak betetzea eta norbere egokitzapena bakoitzari komeni zaiona arreta handiagoz eginiko hautalanaren bidez gizarte-harremanetan gauzatzen direla diotenaren tesiarekin ados dago. Ezkontideen edo adiskideen bateragarritasunaren norainokoa nahikunde edo asmo amankomunen araberakoa izango da, eta haien bilaketa norberaren baliagarritasunaren optimizazioa besterik ez da. Oppenheimer-en iritiz, bizikidetzak, Estatu Batuetan behinik behin, ezkongaialdia da funtsean; eta tesi honekin bat datoz Rindfuss eta Vanden Heuvel (1990) ere. Hau da, bizikidetzak ezkongaialdi luzatua den aldetik, bi baliagarritasun-funtzio batzeko ahalegina dela batez ere esan nahi da.

Adostasunezko batasunen banantze-portzentaia txit adierazgarria da alde horretatik. Interesgarria litzateke herrialde ezberdinen arteko eta, batipat, gizatalde ezberdinen arteko konparazioa egitea. Gainera, elkarrekin bizi izan ondoren ezkondu zirenen dibortzio-indizea zuzenean ezkondu zirenena baino handiagoa da (Bennett et al.; 1988). Suedian, adibidez, adostasunezko batasunen banantze-portzentaiak zuzenean ezkondu zirenenak baino handiagoak dira elkarrekin denbora jakin batez bizi izan direnen artean (Hoem eta Rennermalm, 1985; Hoem eta Hoem, 1988). Badirudi, beraz, Suedian, norbanakoen aukeratzeko prozesua, batasun-motaren arabera, pertsonarteko harremanen kalitatearen gutxienezko baldintzak, jasankortasun-maila ezberdinak edo "eman eta jasotzeko" gaitasun-mailak ulertzeko modu ezberdinei ere lotuta dagoela. Hortaz, nekez onar dezakegu Trost-en teoria, Suedian ez dela ezberdintasunik bizikidetzaren eta legezko ezkontzen artean dioena, alegia (Trost, 1978). Argi dago diferentzia nabarmenak somatzen direla bizikidetzak gizarte

---

ezberdinetan duen eraginari dagokionez —seme-alaben kopuruari begiraturik ikus daitekeenez—, baina, nolahi ere, bizikidetza “teneur institutionelle” ahulagoa (Roussel-en hitzez, 1983) erakusten duen akordioa balitza bezala ageri zaigu toki guztietan.

Adostasunezko batasunetan gertatzen diren banantzeetarik indize handiena, seguruenik, bi baliogarritasun-funtzio ezberdin batzeko zailtasunari datzekion hutsegiteetan datza. Belgikako baloreei buruzko azterlanean, 1990. ingurukoa, bizikidetzan ari diren gazte helduak (20 eta 29 urte bitartekoak) ezkondurik daudenak baino urduriago sentitzen direla, errazago haserretzen direla eta euren burua laguntasunik gabe eta adorea galdurik gehiagotan ikusten dutela. Bizitzaren nondik-norakoaz eta heriotzaz gehiagotan pentsatzen dute eta, oro har, daramaten bizimodua ezkonduktakoei baino gutxiago atsegin zaie. Laudorio eta go-raipamen gisako konpentsazio gehiago behar izaten dituzte (Lesthaeghe, argitaratzekoa). Guzti honek esanahi ezberdinak izan ditzake: nortasun-ezaugarri jakin batzuk dituzten pertsonak errazago jotzen dituztela batasun hauetara, *modus vivendi* bate lortzea zailagoa gertatzen dela, goragoko kalitate-helburuak dituztela, edo faktore guzti hauek bateratzen direla. Azken honek ematen du bidezkoena: bizikideturiko bikoteek ezkondukoek baino maila egokiagoak lortzen dituzte “elkarrenganako begirune eta onespena”, “nahikunde eta interes amankomunak”, “jasankortasuna eta ulerkotasuna” eta “sexu-harreman atseginak” eta abarrei dagokienez. Batasun-mota hori aukeratu duten pertsonak ezkondukoek baino gehiago eskatzen dioten bizikideari, konpentsazio oparoagoa jasotzea espero dute bizikidearekiko harremanarengandik. Eta honen adierazgarri litzateke, nolabait, frogaldi atsegionagoa edota espero zituzten konpentsazioekiko jarrera errealistagoa izan dutenek izan ohi direla euren batasuna ezkontza bihurtzera jotzen dutenak.

Laburbilduz, Ariès-ek egia zioen helduen arteko bikote-harremana etxe barruan sortu zela eta seme-alabei emandako lehentasuna ahultzen ari zela adierazi zuenean. Dena den, hau ez da dramatizatu behar, baina, kontutan hartu behar da. Bikotearen harremanetako kalitate-kontzeptua “eman eta jasotzeko” gaitasunari hertsiki loturik dago, eta jarrerak egokitu arren, badirudi genero-rol asimetriko eta erakundetuak barneaturik zeudenean baino zailagoa dela orekara heltzea. Ezkontzak zerbait gehiago eskaini behar die ezkontideei. Gutxienezko kalitate-mailak igo direnetik —norberaren ebaluzio dela bide—, eginkizuna zailagoa da eta ezkontzek porrot egiteko arrisku gehiago daukate. Herralde askotan, bizikidetza bi norbanakoren baliogarritasun-funtzioak moldatzeko ibilbideko proba-fasetzat jo daiteke. Adostasunezko batasunak, bestalde, erakargarriagoak suerta da-kizkieke arriskurik nahi ez dutenei, jakina. Adibidez, gurasoen edo gurasoekiko arazoak

---

ezagutu dutenei. Batasun hauetan familia-arazoak izan dituzten pertsonen portzentaia handia denetik, eta helburu pertsonal handiagoak dauzkaten bikoteetan norberaren autonomiari aitortzen zaion garrantzia dela medio, adostasunezko batasunak ez-egonkorragoak izaten dira.

Eztabaida honetatik zera atera dezakegu, “kalitatearen argudioa” ez dagoela lehen iraganaldi demografikoa norberaren helburuak lortzeko gogo handiagoari hertsiki loturik dagoelako hipotesiaren aurka. Alderantziz: kalitateaz hitz egiten hasiz gero, norbanakoen jarretara eta batasun horretan lortu nahi dituzten helburuetara helduko gara (cf. Schmid, 1984). Jendeak zerbait gehiago espero du bere sistema politikoarengandik —horregatik eusten dio oinarrizko demokraziari— eta, halaber, zerbait gehiago eskatzen die bere harreman pribatuei.

## 2.2

### KONFORMAGAIZTASUNA AGINKERIAREN AURKAKO JARRERA GISA

Mendebaldeko hainbat herrialdetako gazte helduen arteko adostasunezko batasunak agertu izanak Inglehart-en “Iraultza Isila” delakoaren beste ezaugarri batekin ere badu zerikusirik. Bizikidetza, hasiera batean, agintearen, oro har, eta konformismoaren eta “burgesia txikiaren ezkontzan” oinarritutako konbentzionalismoaren aurkako protesta bizia izan zen (Dumon, 1977). Bizikidetza, beraz, “belaunaldi protestaria”-ren erritu iragankor berria zen. Konnotazio hau, noski, ahulduz joan da bizikidetza hedatu den neurrian. Eta gauza bera gertatu da protestarekin ere. Baina, hasieran, 70. hamarkadan Herbeherean bizikidetza oso zabaldurik zegoen ezker berri konformagaitzari botua ematen ziotenen artean, nahiz eta, aldi berean, erlijio-alderdien botu emaileen artean zeharo ezezaguna izan (Centraal Bureau voor de Statistiek, 1984; Lesthaeghe eta Van de Kaa, 1986).

Gaur ere, oraingoz, bizikidetza ohizkoagoa da Holanda, Belgika eta Frantziako gizatalde sekularizatuenen artean (Liefbroer, 1991; Lee et al., 1987; Villeneuve-Gokalp, 1990). Erlijio-praktikaren (erlijio-motaz bereizi beharrekoa) arabera diferentzia berberak azaltzen zaizkigu Estatu Batuetan (Tanfer, 1987; Goldscheider and Goldscheider, 1988), Kanadan (Rao, 1989) eta Australian (Khoo, 1987). Elkarrekiko lotura da: bizikidetzak sekularizazioa suspertzen du (Thornton and Camburn, 1987). Horrez gainera, bizikidetzan ari diren biko-

---

teek aginkeriaren aurkako sozialkuntza-ezaugarrienganako joeraz ageri zaizkigu (Lesthaeghe, argitaratzekoa).

Bizikidetzaren eta sekularizazioaren arteko lotura hau behin eta berriz agertzea, ezin azaldu daiteke Becker-en ekonomi egituraren teoriak, ez eta Easterlin-en lan merkatuaren baldintzen teoriak. Sekularizazioa norberaren autonomiaren adierazpena da, dagoeneko mende bat bete duena, eta bigarren iraganaldi demografikoan zehar ere nabarmendu denetik, ekonomia hutsean oinarritutako teoriak osagabeak (ez, ordea, okerrak) direla erakusten du. Yankelovitch-ek (1981) "eskailera mugikor Maslowiarra"-ren azeleraziotzat jotzen duena, ordea, zehaztu beharra dago, 50. hamarkadaren azken aldera eta, batez ere, 60. hamarkadan zehar gertatu eta aginkeriaren aurkako bolada bezala agertu zena, alegia.

## 2.3

### MERKATU - ORIENTABIDEEN SENDOTZEA

80. hamarkadako lehen urteetako baloreei buruzko azterlanek eta 1. taulan azaldutako lehen joerek erakusten dutenez, 60. hamarkadaren hasieran orientabide amankomunak gero eta garrantzitsuagoak ziren. Prozesu bikoitza nabari zen: norberaren autonomia (ez indibidualismo hutsa), batetik, eta komunitatearekiko konpromisuaren etengabeko birbalioztatzea. Norbanakoaren eta bere gizarte-ingurunearen arteko harremanak, konformismoa eta kanpotik ezarritako jokabideen baitaratzeaz gaindi, norberaren erantzunkizunean oinarritzen dira. Gizarte-orientabidea, aldiz, gizarte-etiketa, erlijio-betebeharra edo abertzaletasunaren adierazpena baino zerbait gehiago da, norbanakoaren bihotzean sortzen da. Bellah-ren (1967) erlijio zibila "banakotu" egiten ari da.

Estatu Batuetan berrikitan egin diren gazte helduei buruzko (bigarren mailako irakaskuntzako graauatuak eta unibertsitateko lehen ikasturteko ikasleak) azterlanetan azaltzen denez, komunitatearekiko erantzunkizunari gero eta balio gutxiago aitortzen zaio eta handinahia eta kontsumismoa, aldiz, gero eta baliotsuago ageri zaizkigu (Crimmins et al., 1991; Marini, 1990). Datu hauek 1. taulako F atalean agertzen dira. Marini-ren diagnostikoa argia da: joera honek indibidualismoaren eta merkatu orientabideen hazkundera erakusten du. Izan ere, emaitza hauek bat datoz kontsumoarekiko adorazio berriarekin eta, beraz, indibidualismo hutsaren adierazpen materialarekin. XIX. mendeko aberatsek adierazpen berberak

---

erakusten zituzten, hilobi ponposoak ere eraikiz (Corbin, 1990). Baina, Estatu Batuetan joera hau ez da oso aberatsengan bakarrik somatzen: belaunaldi guztiengan antzeman daiteke eta aldaketa hau 70. hamarkadatik gertatu da.

Crimmins, Easterlin eta Saito-ren (1991) interpretazioa diagnostiko hau baino haruntzago doa: hauen iritziz, 60. hamarkadatik izandako aldaketa demografikoak esplikatzeko ez dago "eduki" delakoan oinarritutako lehentasunetatik "izan" delakoan oinarritutako lehentasunetara doan aldaketa Maslowiarrari dagokion hipotesira jo beharrik. Sarreran adierazi dugun bezala, Easterlin-en iritziz, helburu materialen gehikuntza da, aukera-egituren gabeziarekin batera, ezkontza eta aitasuna/amatasuna geroratzeko kausa nagusia.

Crimmins et al. direlakoek aurkeztutako datuak ez datoz bat mugimendu Maslowiarra funts-gabea delako tesiarekin. Izan ere, gero eta arrakastatsuago den azalpena norbere helburuak lanbidean gauzatzeari dagokiona dugu (ikus 1. taula), eta hau guztiz bat dator ikuspegi Maslowiarrarekin. Bildutako datuen arabera, bestalde, mendebaldeko herrialdeetan 60., 70. eta 80. hamarkadetan zehar "balore postmaterialistak" garatuz joan direla ere jakin dugu (Inglehart, 1985, 1990), eta aldaketa hauek belaunaldizko eredu bati, batez ere, jarraitzen diotela. Berrero ere, nahasmendua Inglehart-en "postmaterialista" eta "materialista" etiketen zioz sortzen ote denaren susmoa dut. Gainera, Crimmins et al. direlakoek erabilitako denborazko saldoa adin-talde finko batentzat da eta, beraz, bata bestearen ondorengo belaunaldientzat. Honek ere interpretazio okerrak ekar ditzakeelakoan gaude.

Van Rysseltek (1989) Holandako datuez egindako analisiak eskaini dezake argitasunik. Hark bi dimentsio neurtzen ditu aldi berean hainbat belaunaldi-taldetan eta epe batetan zehar (1970.etik 1985.era bitartean). Lehenengo dimentsioa "dimentsio libertarioa" da. Beraz gure norberaren autonomia delako kontzeptuari hurbiltzen zaio eta baita Inglehart-en "postmaterialismoa" delakoari ere, adierazpen askatasuna, aginkeriaren aurkakotasuna, genero-rolen simetria, desbideraketekiko jasankortasuna eta antzerakoak sartzen baititu. 1. irudian ikus daitekeenez, dimentsio honi dagokionez, Holandan izan diren aldaketak ohizko talde-profilez azaltzen zaizkigu behapen-aldietan zehar. Hau guztiz bat dator Inglehartek azaldutakoarekin (1985). Van Rysselten bigarren dimentsioa, berriz, ekonomi politikari dagokio eta merkatu askearen aldeko jarrerak gizarte-klaseen berdintasuna, Gobernuaren esku hartzea fiskal politikan eta errenten politikan, Ongizate Estatuaren neurri zuzentzaileak etab. aldarrikatzen dutenak baino onartuagoak direla erakusten du. Talde guztiek, adin guztietakoak, "eskuinaldeko" ekonomia hobesten dute datuok barruhartutako 15 urteetan: denek nahi dituzte "merkatu askeko politika gehiago" eta "sozialismo gutxiago" (ikus 2. iru-

---

dia). Nire iritziz, Rysselt-en bigarren dimentsioa gazteria amerikarrak, handinahari eta diru-sarrera handiagoak nahi izateari dagokionean, erakutsitako merkatu-orientabideei lotzen zaio.

Holandari buruzko datuak 3. irudian agertzen dira laburbildurik. Belaunaldi-taldeak anarkismoari buruz, norberaren autonomiari buruz... (I. dimentsioa) agertzen dituen jarrerak behapen-aldi ezberdinei (irudiko marra horizontalak) lotzen zaizkie zuzen-zuzenean; eta horrela, taldea zenbat eta gazteago izan eta datuen bilketa-data zenbat eta hurbilagoa, orduan eta nabarmenagoa da balore libertarioagoen aldeko joera. Belaunaldi-taldeek merkatu askeko ekonomiarekiko duten jarrera (II. dimentsioa) bigarren diagraman azaltzen da. Hemen, marra horizontalak talde guztiek jarrera kontserbadoreagoak izateko joera dutela erakusten digu (ezkerreranzko desplazamendua irudian). Aldaketa hauek denborari baino ez zaizkio lotzen eta berdinak dira belaunaldi-talde guztientzat. Hortaz, joera libertarioen areagotzea (edo norberaren autonomiarena, edo "postmaterialismoa"-rena...) merkat-orientabideen, lanbide-haundinaharen eta kontsumismoaren areagotzearekin batera gertatzen da. Diagonalean Crimmins et al.ek erabilitako datuak azaltzen dira kronologikoki ezarriak Atik Bra. Bigarren diagrama, berriz, ardatz horizontalaren interpretazio bat da. Neurri hauek, beraz, denboran zehar merkatu orientabideei begira izandako jarrera-aldaketak azaltzen dituzte, ez ordea, belaunaldi-talde bakoitzak norberaren autonomia eta bere korrelazio Maslowiarrak direla eta izandako jarrera-aldaketak. Arrazoi dute kontsumismoaren eta nahikunde materialen areagotzeari dagozkionean, baina agnostiko agertu beharko lukete beste dimentsioari dagokionean.

Azkenean, Elchardus-ek esandakoa, hau da, aldaketa demografikoek ez dutela kontsumismoarekin eta negozioen "Realpolitik" delakoarekin zerikusirik, ez dator bat Estatu Batuei eta Holandari buruzko aurreko datuekin. Emakume enplegatuak gehitu direnetik eta emakumearen hezkuntza hobetu denetik, lanbide-bizitza eta etxekoa bat bihurtuz joan dira, haien arteko hesia desegin delarik. Aldeen (gizonaren/emakumearen) jarrerak etxeko zereginei nahiz lanbide-mailakoei dagozkien erizpideak aintzat harturik orekatu beharra daukate, bakoitzaren baliogarritasun-funtzioetan. Ez dirudi emakumeek gizonaren karrerari lehentasuna emateko prest izango direnik. Bikotean bi profesionariak izatetik eratorritako "Realpolitik" delakoak ez du batasunaren egonkortasuna errazten, eta ez du gurasotasuna arintzen.

Galdera honek bi gai dakarzkigu gogora: konpromisuaren indarra eta arriskuarekiko gaitzespena. Goode-entzat (1984), ezkontzaren eta gurasotasunaren geroratzeak, hau da, bigarren iraganaldiko bi ezaugarri nagusiek, konpromisuaren ahultzea erakusten dute. Elchardus-en iritziz (1990), aitzitik, joera hauek ezkontza eta gurasotasuna gaur egun inoiz baino seriotasun handiagoz aintzat hartzen direla eta konpromisuak sendotu egin direla erakusten dute. Adostasunezko batasunetan nabari den banantze-indize nabarmenak eta dibortzioen gehikuntzak, berriz, Elchardus-ek proposaturiko konpromisuaren sendotze hori ez dela aski pertsonarteko harremanen kalitate-eskakizun handiagoen ondorioak konpentsatzeko ematen digute aditzera. Seme-alaba txikiak direnean dibortzioa onartu ote datekeen ala ez aztertzerakoan, baiezekoaren aldeko joera arian-arian hazten doala ikus daiteke hurrenez hurrengo azterlanetan. Estatu Batuetan, esate baterako, seme-alaba txikien gurasoak elkarrekin gaizki atontzen direnean dibortzioa bidezkoa dela uste duten pertsonen portzentaia 60. hamarkadan % 51era iristen zen bitartean, 70. hamarkadaren amaieran % 80a josten zuen eta 80. hamarkadaren amaieran % 82a (Glenn, 1987; ikus 1. taula ere bai). Hollandan, alderantzizko iritzia zutenen portzentaia, hau da, seme-alabak etxean bizi diren bitartean dibortzioa ez dela bidezkoa diotenena, 60. hamarkadako % 48tik 70. hamarkadako hasierako % 13ra eta 1980.eko % 6ra jaitsi zen (De Feiter, 1987; ikus, halaber, 1. taula). Jakina, gurasotasuna itzulezina da eta sarritan dibortziaturiko gurasoak ados jartzen dira seme-alaben ongizatea lortzeko. Alabaina, akordio horiek betetzen ez dituzten gizonen portzentaia oso nabarmena da, emakumeen ardurapean dauden guraso bakarreko etxe-kopuru handiei buruzko datuek erakusten duten bezala. Konpromisuaren urratze horrek gizar-te-arazo latzak sortarazi ditu hainbat herrialdetan. Horrez gainera, guraso bakarreko etxetan edo birmoldatutako familien barruan (hots, aita edo ama berriz ezkondu edo beste pertsona batekin bizi denean) bizi izaten diren seme-alabak, oro har, ez omen dira gaintzekoak bezain kontent: seme-alaba hauek aldatu gabeko familietakoek baino lehenago eta gehiagotan alde egiten dute gurasoen etxetik. Eta lehen bikotea eratzerakoan bizikidetzatza aukeratu ohi dute (Kiernan, 1991; Liefbroer, 1991; Villeneuve-Gokalp, 1990; Thornton, 1991). Belaunaldi-eredua iraunarazten dela ematen du.

Honek ez du esan nahi gizonaren konpromisua gaur egun handiagoa denik, nahiz eta dibortziatu diren aita gehienak seme-alaben arazoez seriotasun handiz arduratzen diren. Konpromisua ez dago oraingoz krisialdian, baina arazoak ditu. Hala ere, konpromisuaren esa-

---

nahi osoa zertan datzan ulertu duen gizarterik sekula ere ez dela izan aitortu beharra dago. Beraz, ustezko joeraren garrantzia neurtzea zaila da.

Arriskutik ihes egiteak eta legeztaturiko konpromisu berriaren beldur izateak ere ba omen dute zerikusirik berriro ezkontzen diren alargun eta dibortziatuen portzentaiaren gutxitzearekin. Alargunei dagokienez, arriskutik ihes egitea maizago agertzen da aseguruak, pensioak eta metaturiko baliabideak direla eta diru-sarrerak gehitu zaizkielako. Dibortziatutako emakumeen hautabideak ere beren ekonomi autonomiari zuzen-zuzenean loturik daude. Hortaz, egoera hauetan arriskutik ihes egite hori ez da konpromisuaren ahultze orokorraren adierazle fidagarritzat hartu behar. Alargundu edo dibortziatutako emakumeen ekonomi autonomiak, ezkontzaz aparte, ez zuen hautabide askorik eskaintzen, 60. hamarkadararte ez, behinik behin. Gauzak horrela, berriro ezkontzen diren emakumeen portzentaiaren beherakada, gure ustez, emakumearen ekonomi autonomiaren gehitzeari esker gertatzen da konpromisuaren krisialdiarengatik baino gehiago.

Oro har, ez da erraza seme-alaben gurasoen dibortzioen gehikuntza eta, batez ere, gizonak dibortzatu ondoren bere eginkizunak ez betetzea, batetik, eta ezkontza eta gurasotasuna, gaur egun, inoiz baino ardu handiagoz hartzen direlako kontzeptuak, bestetik, elkarturik arrazoitzea. Alabaina, gai hau ez da orokortu behar eta, horrenbestez, "konpromisuaren krisialdi orokorra" gertatu dela esan. Abandonua (adb.: haurdun zeuden emakumeak eta seme-alabak) aztertu duten iraganeko azterlanetan ikus daitekeenez, konpromisuak lehen ere ez ziren horren irmoak (cf. Flandrin, 1984).

## 2.5

## ONDORIOZTAPENA

Atal honen ondorioztapena zera da, norbanakoek zerbait gehiago eskatzen diotela bizitzari, oro har, eta bakoitzaren pertsonarteko harremanei, bereziki. Hauxe da, Ariès-ek uste duen moduan, bikote heldua garrantzitsuagoa bilakatzeko arrazoi nagusia. Hau ongi egokitzen zaio norbere helburuak betetzeari buruzko teoriei eta "eta berorien adierazten den beharrizan "existentzial"-en areagotzeari. Halaber, kalitatearen areagotzearekin eta genero-erokiko berdintasunezko baloreekin ere bat dator. Aginkeriak ez du tokirik, ez eta XVI. mendetik XX. mendearen erdialdera arte nagusitu zen eredu zaharraren genero-rol asimetrikoak ere.

---

Eskakizun eta nahikunde berriak, aitzitik, nekezago gauzatzen dira bikote simetrikoen baitan. Errazago urratu daitezke gutxienezko kalitate-maila berriak ezartzen direnetik. Horretan datza dibortzio-indizearen gorakadaren arrazoia, batasuna eratzeko saio-aldiarena eta baita euren finantza-burujabetasunak aukera eman bezain laster berrezkontzen diren pertsonen portzentaiaren beherakadarena ere.

60. hamarkadan hasi zen bilakaera azkar honek ez zuen norberekeriaren hedapen izugarririk sortarazi. Hasiera batean alderantzizkoa suertatu zen hain justu, aldi berean komunitatearenganako baloreak goraiatuak izan baitziren. Gainera, bikoterik gehienak "elkarri ulertzeko" estrategia berrietara egokitzen dira eta, ezkontzaren edo adostasunezko batasunen onurei dagokienez, zentzuzko igurikapenak dituzte. Bikote helduaren harremanen kalitateari eusteko, seme-alabarik ez izatea ere bidezko hautabide bihurtu den arren (Veevers, 1980; eta bereziki Campbell, 1985), bikoterik gehienek garrantzizkotzat jotzen dute seme-alabak munduratzea. Hortaz, 30 urtez geroztiko ugalkortasunaren berreskurapenak eta 70. hamarkadaren amaieran eta 80.ean zehar adostasunezko batasunetan seme-alabak munduratzeko hasi izanak, gurasotasuna eta konpromisua, oraindik ere, gehiengoarentzat estimagarriak direla erakusten dute.

Hala ere, badira garrantzizko akats batzuk eredu berrian ere. Horietako bat guraso bakarreko familiak agertu izana da, mendebaldeko zenbait herrialdetan ondorio nabarmenak sortarazi dituena. Era berean, Ipar-ameriketako gazteen azken joerak norberekeriaren areagotzea erakusten du. Alde horretatik, negozioetako "Realpolitik" delakoa gero eta nabarmenago sartzen ari da familiaren bizitza pribatuan, baina badirudi gehienak hartara moldatzeko gertu daudela.

## *Bigarren iraganaldi demografikoa mendebaldeko herrialdeetan*

Atal honetan, makromailan erabiliko dira estatistika-erlazioak. Herrialdea hartzen da behaketa-unitatetzat. Herrialdeak testuinguru esanguratsuak dira, garapen historiko ezberdinak eta hizkuntza berezia dauzkatelarik, dentsitate handiko barne-komunikazioa baitute. Argi dago Mendebaldean baitaratze handia gertatu dela, batez ere munduko bigarren gerrate-tik hona. Horrela arrazoitu daiteke bigarren iraganaldi demografikoaren aldaketak zergatik gauzatu diren lehenengoarenak baino askoz ere azkarrago herrialde ezberdinetan.

Behaketa-unitatearen aukeraketa dela medio, hipotesi eta emaitza guztiak ere makromailan zehaztu beharra dago. Beraz, munduko bigarren gerrate-tik izan diren garapen historiko ezberdinek nazio-eredu demografikoak eta berauen aurrerapen edo atzerapenak nola bidez-kotzen dituzten jakitea interesatzen zaigu. Herrialdekako parametro demografikoen zerren-datze hutsa baino zerbaite gehiago egingo dugu. Horren orde, kultur eta ekonomi inguruabarrek aldaketa demografikoen garapenean duten eragina dokumentatzen duten bi LISREL-eredu proposatzen ditugu. Azterketa 24 herrialdetara mugatzen da, denak dira estatu egonkorak eta mendebaldeko blokean integratuak. Horrela, bestelako garapen bereziak saihesten dira. Horren kariaz, baita ere, estatistika ereduak aldagai-kopuru oso mugatua barruhartu ditzakete. Azkenik, herrialde handi eta ñabarrak, Estatu Batuak bezalakoak, eta herrialde txiki eta bateratuak, Islandia kasu, berdin-berdin haztatzen dira. Beraz, makromailako azterketa hauek ez dira horren zehatzak.

Hipotesi guztiak eredu demografikoaren aldagaien zabalkundearen eragina izan duten inguruabar edo faktoreei buruzkoak dira. Emakumearen ekonomi autonomiari dagozkion egiturazko aldaketen ondorioz, Becker-en aldagaietako garrantzitsuenetarikoa, nola arrazoitu daitezkeen nazio-egoerak jakin nahi dugu, bereziki. Edo hautabide gisa, nazio bakoitzean somatzen diren aurrerapen edo atzerapenetan zenbaterainoko eragina duten sakoneko kultur aldagaiek (adib.: protestantismoa), edo erdi-mailako kultur aldagaiek (adib.: Inglehart-en "posmaterialismoa" eta autonomia politikoa).

Zenbait ezaugarri historiko ere aintzat hartzen dira, eskualde nahiz gizarte-klase jakin batzuek adostasunezko batasunekiko eta ez-legebidezko jaiotzeekiko erakutsitako jasankorta-

---

suna. Azkenik, 1975.etik 1985.era bitarteko ekonomi krisialdiaren ondoreak neurtzea interesatzen zaigu, herrialde hauei oso era ezberdinez ikutu baitzien.

Behin inguruabarrok azaldutakoan, hondarren banaketa aztertu beharko genuke, aldagai demografiko zehatzetatik sistematikoki urruntzen diren kasuak eta bereziak baino ez direnak mugatzeko.

Ondoren aztertuko ditugu zehazkiago eredu hauek, eta bigarren iraganaldi demografikoaren adierazpen ezberdinak gertatu direneko uneen arabera bereizketa egingo dugu.

### 3.1

### LEHEN ALDAKETA DEMOGRAFIKOAK

Hemen, aldatu ziren lehen aldagai demografikoak aztertuko ditugu. 1975-85 bitarteko krisialdiaren aurretik aldatu zirenak, hain zuzen. Hasierako fase honetarako adierazleak hauek dira:

- 1966.eko mailaren aldean, aldi honetako ugalkortasunaren guztizko tasan (UGT) % 10eko beherakada gertatzen deneko data. Herrialde gehienetan, jaiotzeen hazkunde itzelak 60. hamarkadaren erdialdera jo zuen goia. Zenbait herrialdetan, lehenago gertatu zen, baina ez zen berehalako beherakada nabarmenik antzeman. Beste herrialde batzutan, jaiotzeen hazkunde itzela, ugalkortasunaren beherakadazko aldi askoz ere luzeagoaren barneko egonkortasun-aldi bat bezala ageri da.
- Ez-legebidezko jaiotze-proporzioaren gorakada 1965-75 epealdian zehar. Hainbat herrialdetan 1970a baino lehenago ere nabari da portzentaia honen gorakada (Eskandinaviako herrialdeetan, Estatu Batuetan, Australian, Kanadan, Zelanda Berrian, ikus 2. taula). Eskandinaviako herrialdeetan, hain zuzen ere, adostasunezko batasunak lehenago zabaldu zirelako gertatzen da hau. Beste faktore bat ere kontutan hartu behar da, hau da, adin gutxiagoko sexu-harremanetatik eratorritako ezkotza aurretiko sorkuntzak ote dakarren ezkontzaz kanpoko jaiotzeen gehikuntza edo haurdun izateagatiko ezkontza gehiago.
- Ezkontzeko batazbesteko adinaren gehitzea, bai gizonei eta bai emakumeei dagokienez, 1970-1980 epealdian zehar.
- Dibortzio tasen gorakada 1950-75 epealdian zehar. Gure neurketaren abiapuntua 1950. urtea da, seguraski dibortzioen gehikuntza izan baitzen bigarren iraganaldiaren aurre-

---

neko adierazpena. Alabaina, 1975.ean oraindik ere zenbait herrialdek ez zeukaten dibortzio legerik (Espainia, Irlanda, Malta, Txipre).

Aldagai hauen balioak 2. taulan erakusten dira. Bateraturik, lehen LISREL-ereduaren menpeko aldagai ezkutua (F2) osotzen dute (ikus 4. irudia). Dimentsio honen adierazlerik hoberenak dibortzio eta jaiotze aldagaiak dira, eta ondoren ez-legebidezko jaiotzeen proportzioaren igoera. Ugalkortasunaren guztizko tasan (UGT) % 10eko jaitziera gertatzen deneko data, berriz, demografi dimentsio ezkutuari koerlazio ahulena da, seguraski neurketa desegokia egitearen eta antisorgailu berrien berehalako eraginaren ondorioz.

Demografi dimentsioa (F2) lau adierazleri lotzen zaie. Lehenengo hiruak (W1etik W3ra) herrialdeen arteko berezitasun historiko nabarmenei dagozkie. Laugarrena (F1, berriz, bitarteko aldagai da, emakumeak, oro har, 1965.etik 1970.era zeukan ekonomia-egiturazko egoera agertzen duena.

Aldagai historiko nabarmenetarik lehena (W1) 1950.eko per capita NEG (nazio ekoizkin gordina) da, Estatu Batuetako NEGaren portzentaiaz adierazia. Hau, gure iritziz, eskuratzeko ahala zein munduko bigarren gerrateaz geroztiko ekonomi garapenaren erakusgarri da. Gure hipotesiak, herrialde ezberdinetako bizitza-mailak —garai hartan gorabehera nabarmenak erakusten zituen— demografiaren aldaketetan eragin zuzena eta positiboa izan zuela hartzen du oinarritzat (W1 eragin zuzena F2an). Bizitza-mailaren igoerak kontsumo-nahikundeak areagotu egiten ditu (Easterlin) eta gutxienezko kalitate-mailak igo egiten ditu beharrian materialei zein ez-materialei dagokienez (Maslow). Aberastasun gehiago izate-ra, finanatza-autonomia ere gehitu egiten da eta ahalbide-eremua ere zabaldu egiten da.

Ekonomi garapenaren nazio-mailak ere herrialdeen demografi aldaketan eragiten du bitarteko aldagaiaren bidez, hots, emakumearen hezkuntza maila handiagoa eta sektore tradizionalerik edo kualifikazio gutxikoez kanpo lan egiten duten emakumeen kopuruaren gehikuntza. Easterlin-ek dioenez, emakumeen esku lanaren erabilpenaren gehikuntzak, gerratearen ondoren adinez nagusitzen diren eta gizonezkonetzako aukeren ez-ugaritzea aurkitzen duten belaunaldi gizarteratuen kontsumo-nahikundearen gehitzearekin ere badu zerikusirik. Bitarteko aldagia (F1) bi adierazlez osotzen da, batetik, bigarren mailako ikasketak egiten dituzten emakumeen portzentaia delako adin-tartearen % 50era iristen deneko dataz, eta bestetik, 1970.ean 25 eta 35 urte bitarteko emakumeen enplegu-indizeez.

Lehenago ere adierazi dugun bezala, emakumearen ekonomi egoerari dagozkion egiturazko alderdi hauen eta demografi aldagaien arteko erlazioa Becker eta Easterlin-ek iradokitako bideei jarraituz azaldu daiteke. Emakumearen enpleguaren gehikuntzak eta soldaten igo-

erak (igoera hau toki guztietan izan ez bazen ere), ezkontzarentzako etekinak murrizketa ekarri zuen eta aukera-kostuan "agertarazi" zituen. Kostu hauek ezkutuan zeuden eredu zaharrak iraun bitartean, hots, emakume asko etxeoandreak izanik, errentarik urrienak zituzten taldeetatik lan merkatuan sartzen zirenak beren familien diru-sarrerak soldata bakarra zeukaten beste familia batzuekin parekatzeko laneratzen zirenean. Emakumeen enplegua hobe hezitako erdi-mailako klaseko emakumeen artean gehitu zenean, ordea, soldata bakarreko etxeen eta bi soldatakoen arteko aldea nabarmendu egiten da. Orduantxe antzematen zaio desabantailari, aukera-kostuen "aurkikundea" suertatzen da. Aukera-kostuen igoera, hau da, Becker-en aldagai nagusia, Easterlin-en bi aldagai nagusietako bat osotzen duten kontsumo-nahikundeei loturik dago. Hau da, mekanismo hauek ezkontza geroratzen eta ugalkortasuna urritzen laguntzen dute.

Ekonomi ezaugarri hauek F2ren gainontzeko bi osagaietan ere eragina dute, hau da, dibortzioaren gehikuntzan eta ezkontzaz kanpoko jaiotzeen proportzioaren igoeran. Ezkontzarentzako onuren murrizketak, hura geroratzeaz gainera, dibortzioen gehikuntza eta berriro ezkontzen diren bikote-kopuruaren gutxitzea dakartza. Bestalde, ezkontzaren geroratzea bestelako aukerazko konponbidez konpentsatzen da, bizikidetzaz edo etxea eta gastuak beste norbaitek inpartituz, esate baterako. Sexualitateari ezarritako kateak askatzen direnetik, hots, bigarren iraganaldi demografikoaren ezaugarri nabarmenetakoa den hau suertatzen denetik, batasun horien baitan jaiotako ume-kopurua gehitu egiten da eta baita ezkondu gabeko amena ere. Esan beharra dago, nolana ere, balitekeela Eskandinaviako herrialdeen gizarte ongizateko politiken bidez adostasunezko batasunen baitako jaiotzeak faboratu ahal izatea, amei aukera-kostuak arindu egiten zaizkielako. Lehenagoko Alemaniako Errepublika Demokratikoaren jaiotzeen aldeko politika ere antzeko mekanismo batez baliatzen zen, horrela arrazoitu daitekeelarik, hein batez behinik behin, Mendebaldeko Alemanian baino askoz ere ez-legebidezko jaiotze gehiago izatea.

Bi kultur aldagai ere sartzen dira. Hots, Protestantismoaren eragin historikoari dagokiona (W2) eta bizikidetzaz eta ez-legebidezko jaiotzeak direla-eta historian zehar nabarmendu den jasankortasun edo tolerantziari buruzkoa (W3). Azken honi dagokionez, Suediari buruzko argudioa (Trost, 1978) adostasunezko batasunek gerora izan zuten zabalkundea bultzatu zuen eredu bat izatean datza. Alabaina, beste gizarte batzutan Suedian baino tradizio errotuagoa eta handiagoa izan dute bizikidetzari dagokionez. Coales eta Watkins-en Princeton Fertility Project (1986) delakoan Europako herrialde guztientzat bildutako ez-legebidezko indizeari (Ih) erreparatzea baino ez dago horretaz jabetzeko. 3. taulan indize ho-

---

nek 1990. urtean erakusten zituen nazio-mailak agertzen dira, hala nola, indize horrek 0,075a, gutxienik ere, jo zueneko herrialdeetako bakoitzaren administrazio arloen kopurua (Europako guztizko banaketaren gailurrean dagoen % 20a mugatzen duena). Datu hauen arabera, oso argi dago Suedia ez zela inola ere aintzindaria izan ezkontzaz kanpoko ugalkortasunari dagokionez. Ekialdeko Europan, Rumania eta Hungarian ez-legebidezko jaiotze-maila oso nabarmenak ageri ziren. Austria, Islandia eta Portugal oso hurbil zeuden. Alemanian ere ez-legebidezko indize nabarmena zeukaten eskualde asko zeuden, zerrenda orokorrean Suedia baino lehenago ageri zirenak. Hortaz, egokitzen jotzen dugu ezugarri hauek azteketan sartzea. Hau, 1960.eko guztizko jaiotzeetan ez-legebidezko jaiotzeei dagokien proportzioaren bidez egiten da. Aldagai honek eragin zuzena du menpeko F2 dimentsio demografikoan. Hala ere, 3. taulan ikus daitekeenez, herrialde ezberdinen kokalekua aldatuz joan da 1900.etik 1960.era bitartean. 1960.erako, Suedia sailkapenaren zortzigarren tokitik hirugarrenera pasa da, Islandia eta Austrariaren ondoren. Hungarian, aitzitik, ez-legebidezkotasunaren gutxitze nabarmena ageri da. Beraz, zenbait herrialdetan joera ezberdinak suertatu ziren munduko bigarren gerratearen aurretik. Dena den, gehiengotan ez-legebidezkotasun indize txikia nagusitu zen mendeko guztian zehar. Gure iritziz, 1960.ean antzemandako ez-legebidezko jaiotzeen proportzio handiagoak adostasunezko batasunen geroko zabalkundea eta batasun hauen barneko ugalketa faboratzen ditu.

Protestantismoaren eragin historikoak trikotomia bat erakusten du: guk protestantismoa erabat edo ia erabat nagusi deneko herrialdeak (2 puntu), biztanleria protestantea zein katolikoa dituzten herrialdeak (puntu 1), eta tradizioz batez ere katolikoak edo ortodoxoak diren herrialdeak (0 puntu) sailkatu genituen. Protestantismoak aldaketa demografiko berriak arindu egin dituen bitartean katolizismoak oztopatu egin dituela defendatzen du gure hipotesiak. Lehenik, Erreformaren ondorioz, ekonomiaren modernizazioa eragozten zuten tradiziozko kultur oztupoak deuseztatu ziren. Herrialde protestanteen ekonomi iharduera katolikoena baino azkarragoa izan zela argi eta garbi ikusten da 1950.eko protestantismoaren eta per capita NEGaren arteko koerlazioari erreparatuz gero (ikus 4. irudia). Bigarrenik, protestantismoak hezkuntza bultzatzen zuen eta batez ere emakumearena. Alde honetatik, herrialde katolikoekiko ezberdintasunak hainbat mendetan zehar iraun du. Emakumeak hezkuntza hobea izanik, azkarrago askatu zen. Inglehart (1990) ohartzen denez, herrialde protestanteetako emakumeek herrialde katolikoetakoek baino maizago esku hartzen dute eztabaida politikoan. Honek gizonentzat ere balio du, eta ezaugarri orokor hau deserdiratutako erlijio-komunitateek aspaldidanik erakutsi duten konpromisu-tradizioaren ondorio izan

---

daiteke. Hortaz, protestantismoa positiboki elkartzen da hiriko-politikazko kultura sendoago batekin. Hirugarrenik, protestantismoa egonkortasun demokratikoari atxekitzen zaio, eta oro har protestanteak diren herrialdeak "Ongizatearen Estatu" delakoaren aintzindariak ditugu. Haien sistema politikoak gizarte-bakea eta ekonomi garapena eragotzi litzaketen gizarte-tirabirak arintzen ahalegintzen diren alderdietan oinarritzen dira. Eredu hau oso argi dago Eskandinaviako herrialdeetan, baina ez horrenbeste Britainia Haundian. Gainera, herrialde hauetan ez dago erlijioan oinarritutako alderdirik, ez eta erlijio-alderdien eta alderdi erabat sekular-tuen arteko burrukarik. Hau ohizkoago da tradizio katoliko-protestante mistoa duten herrialdeetan eta herrialde katolikoetan. Guzti honetatik ideologiaren eta erlijioaren araberrako alderdien polarizazioa eratorri zen batzutan, eta beste batzutan burruka biziak ere bai, aginkeriazko botere-aldiak sortarazi zituztenak. Polarizazio-eredua zeukaten herrialdeek (Herbeherak, Suitza, Austria, adibidez) politika baketzeko mekanismoak garatu zituzten arren, bertako biztanleria katolikoak eta beronen indar politikoak norbanakoen autonomia eragozten zuten, hala ere. Herrialde hauetan sekularizazio-bolada bat nabari 60. hamarkadan, erreakzio gisa. Holandan, batez ere, erreakzio gogor eta iraunkorra sortzen da. Katolikoek, bestalde, euren eliza demokraziaren printzipioen inguruan berrantolatu nahi zuten. Gerratearen aurretiko garaian baketze-sistematik sortu ez zuten herrialdeetan, berriz, totalitarismo-aldi batek atzeratu zituen askatasun politikorako prozesu hauek. Herrialde hauetako zenbait laster eguneratu ziren gerratearen ostean, baina beste batzuek eragin katoliko handiko aginkeriazko erregimenei eutsi zieten 60. hamarkada arte.

Lehenengo LISREL-ereduan, Protestantismoari 60. eta 70. hamarkadetako aldaketa demografikoan zor zaion eragin onuragarria zuzeneko bide batez eta zeharkako beste bide batez bideraturik dago, F1 delakoaren bidez edo emakumearen ekonomi eta hezkuntza-egoe-raren bidez, alegia. Autonomia politikoa, ordea, ez da berariz aukerazko bitarteko aldagai gisa sartzen. Dimentsio hau neurtezina suertatu zen, 60. urteetan nazioarte-mailan konparagarriak izan zitezkeen adierazleak falta baitziren. Aurrerago aipatu ditugu gabezia honen ondorioak.

Lehenengo LISREL-eredu honen zenbatekoketa koerlazioko matrizea oinarritzat harturik egin zen. Koerlazio koefizienteak, berriz, 19-22 behaketetan oinarritzen dira. Txipre eta Malta azterketaz kanpo geratu dira, datu-eza dela kausa. Ereduaren egokitzapena bikaina da (0,97) eta F2 delakoaren auresana ere oso ona ( $R^2$  egokitua = 0,97).

---

Ez-legebidezkotasanaren banaketa historikoak du eraginik ahaulena (+0,14) dimentsio demografikoan. Eragin honen zentzua bat dator gure hipotesiarekin, baina koefizientearen ahuleziak zera erakusten du, Trost-en Suediari buruzko hipotesia ezin orokortu daitekeela mendebaldeko gainontzeko herrialdeetara. Era berean, 60. hamarkadako emakumearen ekonomi zein hezkuntza egoeraren eragina nahiko txikia da: +0,28. Hau harrigarria da eta zalantzan jartzen du lehenengo iraganaldi demografikoari dagokionez herrialdeen egoera arrazoitzeko Becker eta Easterlinengandik hartutako ekonomi mekanismoak behar bezala erabili ote ditugun. 1950.eko per capitako NEG delakoaren bidez neurtutako ekonomi garapenaren maila eta bizimodu materialaren mailaren eragina zertxobait handiagoa da (+0,33). Hemen aldagai honen eguneroko eragina adierazten da eta ez emakumearen egiturazko egoeraren bidezko zeharkako eragina, hau ahulagoa baita. Protestantismoaren eragin historikoa da eraginik handiena duena, bai zuzeneko eraginari eta bai zeharkakoari dagokionez. Eredua gehiago erraztu beharko balitz, azken bi eragin hauek baino ez lirateke geldituko. Honek zera erakusten du, bigarren iraganaldi demografikoaren abiapuntuan argiago somatzen direla sakoneko bi aldagai historikoak (W1 eta W2) 60. hamarkadako emakumearen bigarren mailako hezkuntzaren eta enpleguaren areagotzea baino. Hortaz, honetan ez dago ekonomi teoriarekiko desadostasunik, baina teoria hauen akatsak azaldu eta indar historiko garrantzitsuak alde batera utzi izana bistaratzen du.

Eta puntu honetan, protestantismoa eta per capitako NEG direlako rolak bitarteko beste aldagai batzuk sartuz zehaztu ote daitezkeen planteatzen da berriro ere. Hau ondorengo LISREL-ereduan egingo da 80. hamarkadaren hasierako baloreei buruzko azterlanetatiko neurriak oinarritzat harturik. Baina, aldaketa demografiko berrienei dagozkien ereduaz eztabaidatu aurretik, F2 adierazle demografikoetariko bakoitzaren aurrean eta hondarren banaketaz zertxobait adierazi beharra dago.

4. taulan, bost adierazle demografikoetariko bakoitzaren erregresioaren emaitzak ematen dira. Azterketa, adierazle horien erregresioa lehenengo LISREL ereduaren (A ereduaren) aldagai guztiekin aurkatuz eta emakumearen enplegu eta hezkuntza-aldagaiekin aurkatuz (B eredu) eta sakoneko aldagai historikoekin aurkatuz (C eredu) egiten da. LISREL-emaitzetan aurrean zen bezala, C eredu B eredu baino dexente hobea da azaldutako bariantzari dagokionez. Honek bost aldagai demografikoentzat balio du. Nolanahi ere, per capitako NEGaren eta protestantismoaren eragina aldatu egiten dira. A eta C ereduaren, protestantismoak eragin handiagoa du ezkontza eta ez-legebidezkotasan aldagaiekin.; per capitako NEG delakoak, berriz, eragin handiagoa du ugalkortasunaren beherakada-datan

---

eta dibortzioaren gehikuntzan. Dena den, ez da ahaztu behar protestantismoaren eta per capitako NEGaren arteko lerrokidetasuna ( $r= +0,57$ ). Era berean, ugalkortasunaren behe-rakada-datari buruzko aurreratea ez da gainontzeko adierazle demografikoena bezain egokia. Banakako erregresio hauetatik atera daitekeen ondorioztapen nagusia zera da: sako-neko bi aldagai historikoak ezinbestekoak direla oraindik ere herrialdearen egoerak aurrerateko bigarren aldaketa demografikoaren hasierako fasearen osagaietako bakoitzari dagokionez.

Hondarren banaketa aztertu zen A ereduak mugatutako bost erregresioetan. Egoera orokorra honako hau da:

- Ipar-herrialdeen artean, Suedia eta Danimarkan aurretik doaz 5 adierazle demografikoe-tariko 4rentzako aurreranez dagokienez. Finlandia, aldiz, hondar negatiboz ageri zaigu bost adierazleetan.
- Europako mendebaldeko herrialdeen artean, Frantzia da aurrena 4 hondar positiboz. Erdi-mailako taldean Benelux-eko herrialdeak, Mendebaldeko Alemania eta Austria ageri dira. Suitzan, berriz, aurrikusi baino bilakaera geldoagoa izan zen bost adierazle demografikoetan.
- Herrialde anglosaxoniarren artean, Kanada eta Australia dira lider erlatiboak; Britainia Handia, Estatu Batuak eta Irlanda, aldiz, hondar negatiboz ageri zaizkigu lau adierazle. Salbuespenak: aurrikusitakoa baino ez-legebidezkotasun indize handiagoa Estatu Batuetan eta Irlandan, eta aurrikusitakoa baino dibortzio tasa handiagoa Britainia Handian.
- Herrialde mediterraniarrei dagokienez, Italiak hondar sistematikoki positiboak dauzka. Gainontzeko herrialdeetan egoera ezberdinak nabari dira. Grezian ageri da aldaketa er-labitorik geldoena.

### 3.2

## ALDAKETA DEMOGRAFIKO BERRIENAK

70. eta 80. hamarkadetan gehien hedatu ziren aldaketak bizikidetzeta eta adostasunezko ba-tasunen baitako ugalketa izan ziren. Guraso bakarreko etxeen gehikuntza ere azken bi ha-markaden ezaugarri berezia da. Dibortzio tasak, aldiz, 1975-85 bitarteko ekonomi krisial-dian jo zuen goia eta harrez gero, herrialde askotan, dibortziorako joera egonkortu edo

---

zertxobait gutxitu egin da. Ugalkortasunaren eskemak ere 80. hamarkadan aldatu ziren. 30 urte bete ondorengo ugalkortasunaren beherakada amaitu egiten da eta haren ordeztu goranzko joera antzematen da. Salbuespenak salbuespen, 25 urte bete aurretikoen ugalkortasunaren urritzeak bere hartan dirau. Baina, mendebaldeko herrialde gehienetako gazteen artean ugalkortasun-tasa oso txikiak ageri direnez gero (Estatu Batuetan izan ezik), jaitsiera hau laster bukatu daiteke eta, orduan, epealdiko ugalkortasun orokorraren neurketak, funtsean, 30 urte baino gehiago dituztenen goranzko joeraren arabera izango dira. Suedian, Norwegian eta Danimarkan horrela da jadanik.

Ezaugarri hauek hurrengo adierazleon bidez agertzen dira:

- 1985.etik 1990.era adostasunezko batasunetan bizi diren 20 eta 24 urte bitarteko emakumeen portzentaia;
- ez-legebidezko jaiotzeen portzentaia, jaiotze guztiei dagokienez 1988.ean;
- guraso bakarreko familien portzentaia, menpeko seme-alabak dituzten familia guztiei dagokienez 1985.ean;
- 25 urte baino gutxiago eta 30 baino gehiago dituztenen ugalkortasunaren gehikuntzaren urteroko portzentaia. Portzentaia hauek adin-multzo jakinen (talde bakoitzaren artean 5 urtetako tartez) ugalkortasun-tasen batuketak oinarritzak harturik kalkulatu dira. 1982/83 eta 1987/89 bitarteko bilakaera azaltzen dute.

Aldagai hauen balioak 5. eta 6. tauletan erakusten dira. Eskandinaviako herrialdeak oso aurreraturik daude, oraingoz, adostasunezko batasunei dagokienez. Baina, diferentzia nabarmenak daude sailkapen buruko Suedia eta Danimarkaren eta gainontzeko herrialdeen artean. Era berean, Holandan, Britainia Handian eta Frantzia adostasunezko batasunari atxekitako 20 eta 24 urte bitarteko emakumeen portzentaia % 20a gainditzen zuen. Mendebaldeko Europako gainontzeko herrialdeek, Kanada eta Zelanda Berriarekin batera erdiko multzoa osotzen dute. Australian eta Estatu Batuetan, berriz, bizkidetzari atxekitako emakumeen portzentaia ez da % 10era iristen. Irlandan eta herrialde mediterraniarretan oso urriak ziren adostasunezko batasunak 1990.a baino lehen.

Adostasunezko batasunetako gurasotasunaren hazkundea ere adierazgarria da. Aldaketa bat suertatzen da bizikidetzaren nolakotasunean, eta ezkongaialdia zena konpromisu irmoago batetan oinarritutako batasun bihurtzen da. Dena den, hainbat eredu-mota daude:

- Suedian, Danimarkan eta Islandian, adostasunezko batasunetako ugalkortasuna handia zen jadanik 70. hamarkadan. Gaur egun, herrialde hauetan, jaiotze guztien % 50 ezkontzaz kanpo suertatzen dira. Horrenbestaraino heldu gabe, Noruegan, Britainia Handian, Fran-

---

tzian eta Kanadan ere jaiotze gehiago nabari dira adostasunezko batasunetan. 1988.ean, herrialde hauetan jaiotako ume guztien % 20k ezkondu gabeko gurasoak zituen.

- Bigarren multzo bateko herrialdeetan, bizikidetzaz asko ugarritu zen, nahiz eta batasun hauetako ugalkortasuna ez zen horren azkar gehitu. Kasu honetan daude Mendebaldeko Alemania eta Herbeherak. Suitzan, berriz, oso urria da ezkontzaz kanpoko ugalkortasuna, eta ez da ezagutzen bizikidetzaren batazbesteko eragina.
- Hirugarren multzoko herrialdeak ezkontzaz kanpoko ugalkortasun tasa nabarmenez ageri zaizkigu, herrialde hauetan adostasunezko batasunek zernolako eragina duten aintzat harturik. Egoera honetan daude Italia, Portugal, Australia, Zelanda Berria eta, batez ere, Estatu Batuak.
- Lehenago adierazi dugun bezala, Mediterraneoko herrialdeak oraintsu ekin diote fase honi. Nolanahi ere, bereizketa bat egin daiteke: alde batetik Grezia, Txipre eta Malta —non emakume gazteekiko ohizko kontrola dela medio apenas nabari den ezkontzaz kanpoko ugalkortasun tasarik— eta bestetik Portugal eta Espainia, % 5etik gorako portzentaiaz ez-legebidezko jaiotzetan.

Adinez nagusienak diren taldeen ugalkortasunaren sendotzea herrialde guztietan nabari da Irlandan eta Mediterraneoko herrialdeetan izan ezik (ikus 6. taula eta 5. irudia). Holandan, Danimarkan, Suedian, Britainia Handian, Frantzia eta Zelanda Berrian nabari da ugalkortasunaren hazkunderik handiena 30 urtez gorakoen artean. Baina 25 urte bete gabekoen joeren konpentsazio bat izan zen Islandian, Finlandian, Frantzia, Austriar, Belgikan eta Australian, batez ere. Oro har, epealdiko ugalkortasunaren gehitze garbia antzeman zen Suedian, Danimarkan, Norvegian, Holandan eta Britainia Handian. Hau 80. hamarkadaren bigarren erdian gertatu zen. Baliteke joera hau beste herrialde batzutarra hedatzea, 25 urte bete gabekoen ugalkortasuna beheko mailetan egonkortzeko joera erakusten baitu. Irlanda eta Mediterraneoko herrialdeak aurreneko fase batean daude oraindik: ugalkortasun tasak behera egin zuen adin-multzo guztietan 80. hamarkadan zehar, zenbait herrialdetan ugalkortasun indize oso urrietara heldu arte (Italian, Espainian eta Portugalen, bereziki).

Mendebaldeko herrialdeen posizioa, gertaera hauei dagokienez, sakoneko aldagai eta bi-tarteko aldagai zenbaiti loturik dago berriro ere (ikus 6. irudia). Bigarren LISREL eredu honetan protestantismoaren eragin historikoa (W2) sartu dugu berriro. Sakoneko beste bi aldagaiak per kapitako NEG delakoa, Estatu Batuetakoaren aldean, baina 1978.ean neurtua (W1), eta aurreko LISREL ereduaren hondarrak (W3) dira. Bigarren iraganaldiaren hasierako fasean antzemandako aurrerapen eta atzerapenak, hein batez behinik behin, bi-

---

garren behaketaldian somatutako posizio erlatiboak arrazoitzeko baliagarriak izan daitezke. Bitarteko aldagaiak honako hauek dira: generoen arteko diferentzia gutxiago 25 eta 34 urte bitarteko gazteen enpleguan (X2), politika arloko autonomia indibidualaren egituratze-maila emakumearen desmenpetze politikoaren adierazleekin batera (F1), eta 1975.etik 1985.era bitarteko ekonomi krisiladiaren astuntasuna, langabezi indizeen gehinkuntzaren bidez neurtua (X1).

Generoen arteko ezberdintasunen murrizketa, enplegu mailan, 1970.etik 1984.era 25 eta 34 urte bitarteko emakumeen enplegu indizeak izandako gehikuntza 1970.ean ahalgarriztat jotzen zenaren gehikuntzarekin erkatuz neurtzen da. Gehienezko muga, generoen arteko ezberdintasun honen deuseztapena, alegia, % 90ean ezarri zen. Harrigarritzat har daiteke, hasieratik emakumeen enplegu-maila handiak zituzten herrialdeek generoen arteko ezberdintasun hori hein handiagoz murrizteko joera dutela 1970.ean emakumeen enplegu-maila txikiagoak zituzten herrialdeen aldean. Aldagai hau, bestalde, emakumearen ekonomi autonomiaren gehikuntzari dagokion adierazle eragiletzat jotzen da.

Bigarren bitarteko aldagaia (F1) hiru adierazletan oinarriturik eraikitako aldagai ezkutua da. Lehenengo adierazlea Inglehart-en "posmaterialismo" delakoaren indizea da, 1981-1983 epealdiari dagozkion balore-azterketetan neurtua (Inglehart, 1990). Iturri honexek, halaber, generoen arteko banaketa eztabaida politikoan ere eskaintzen du, hau da, politikan esku hartzen duten gizonen proportzioa, dagokion emakumeen proportzioa kenduta. F1en hirugarren osagaia, berriz, nazio-parlamentuen behe-legebiltzarretan dauden emakumeen portzentaia da, berrikitan neurtua (1987-1991). Interpretazio okerrei ekidin asmoz, Inglehart-en posmaterialismo-indizeak ez du bistako kontsumoaren edo dirusarrera gehiagorekiko irrikaren bidez adierazitako norberekeria hutsa neurtzen. Autonomia politikoa neurtzen du, batez ere, adierazpen askatasuna eta oinarrizko demokrazia, batetik, eta legea eta ordena eta ekonomi segurtasuna, bestetik, kontrajarritzat. Hortaz, ez da harrizkoa posmaterialismorako joera nabarmenagoa duten herrialdeak izatea, aldi berean, generoen arteko berdintasunarenganako begirunerik handiena agertzen dutenak. Posmaterialismoa beste jarrera batzurekin ere badu zerikusirik (Inglehart, 1990, Lesthaeghe and Surkyn, 1988), autonomia indibidual handiagoa eta agintearekiko konfidantza urriagoa erakusten duten jarrerekin, alegia. Eta horren adibide dira: esanekotasunarekiko atxekimendu eskasagoa eta burujabetasunarekiko atxekimendu sendoagoa (sozializazioaren ezaugarriak), erakundeen agintea gutxiago onartzea, dela erlijio-mailakoa dela laikoa, protesta eta konpromisu politikoranzko joera nabarmenagoa —batez ere ezker berrian, giza-eskubideen al-

---

deko mugimenduetan eta ekologiaren aldeko alderdietan—, nazionalismo ahulagoa eta jokatibide ezberdinekiko jasankortasun handiagoa. Moraltasunaren ardatza ez da jadanik onaren eta txarraren arteko bereizketa erabatekoa, inguruabarren eragina ere kontutan hartzekoa baita. Hortaz, F1 aldagai aipatzean, "emakumearen autonomi indibiduala eta desmenpetzea"-ri dagokion aldagaiaz ari gara. Aurreko LISREL-ereduan ez zegoen honen antzeko aldagairik, oro har, 1975.aren aurretiko epealdirako adierazle egoki eta alderagarririk ez zegoelako.

Eredua eta zenbatezko emaitzak 2. irudian ikus daitezke. Hautatu den LISREL-ereduaren egokitzapen-maila aurreko ereduarena baino zertxobait txikiagoa da, nahiz eta 0,90ean ezarri ohi den erizpidea betetzen duen. Era berean, dimentsio demografikoaren auresana nahiko egokia da ( $R^2$  egokitua = 0,76).

Ereduaren ezaugarri nagusia "protestantismo"-tik "emakumearen autonomia indibiduala eta desmenpetzea" delakoaren bidez menpeko aldagai demografikoetara doan eragin positiboko marra zuzena da. Bide hau beste edozein konexio zuzen edo zeharkakoa baino askoz ere sendoagoa da. Beste modu batez esanda, F1 dimentsio politikoak aurreko LISREL-ereduan falta zen faktore argigarria eskaintzen du. Hortaz, protestantismoaren dimentsio demografikoarekiko eragin zuzena erabat ezabatu liteke. Eragin positiboko bigarren marra ere protestantismotik abiatzen da, emakumeen enpleguko diferentzien deuseztapenaren bidez, aldagai demografikoetara iristeko. Hau aurreko LISREL-ereduan antzemandakoarekin erabat ados dago. Herrialde protestanteek, 60. hamarkadan zehar, biziki bultzatu zuten emakumearentzako bigarren mailako hezkuntza eta enplegua, horrela, bigarren aldaketa demografikoaren hasiera erraztuz. Protestantismoak, gaur egun, enplegu arloan oraindik ere sexuen artean dauden ezberdintasunak murriztearen alde agertzen da. Emakumearen autonomiari dagozkion alderdi ekonomiko eta politikoen arteko edozein erlazio (hau da, F1 eta X2ren arteko erlazioa) protestantismoak historian zehar izandako eraginaren ondoriozko kontrolari zor zaio. Hala ere, ez dugu ahaztu behar emakumearen autonomia politikoak autonomia ekonomikoak baino eragin askoz handiagoa izan duela aldagai demografikotan izandako azken aldaketetan. Honek berriro egiaztatzen du teoria ekonomikoak ez direla desegokiak, osagabeak baizik; eta hau indar handiko faktore historikoak behar bezala kontutan ez hartzeagatik gertatu da.

1979.eko per kapitako NEG delakoaren eragina ez da zuzena edo bitarteko aldagai hauen bidezkoa. Eragin hori 1975.etik 1985.era bitarteko ekonomi krisialdiaren zamaren bitartez bideratuta dago. Per kapitako NEG delakoaren eta langabeziaren gehikuntzaren arteko er-

---

lazio negatiboak, oro har, herrialderik aberatsenak langabeziaren arazotik at gelditu zirela eta haietako askok, gainera, inflazioari eutsi ahal izan ziotela adierazten du. Izan ere, Suediak, Norvegiak, Alemania Federalak, Luxemburgek eta Suitzak 1975.ean Estatu Batuetako percapitako NEG delakoa gainditu egin zuten eta ia ez zuten krisialdirik jasan. Austrian ere hala izan zen.

Gainontzeko herrialdeetarik askotan langabezia edo inflazio tasak askoz ere latzagoak izan ziren. Beste alde batetik, ekonomi krisialdiak desbideratu egiten du emakumearen desmenpetze politikoarekiko arreta. Inglehart-en indizea zaurgarri oso ageri da inflazioa gehitzean: inflazio handia denean, ekonomi segurtasunaz arduratu eta autonomia indibiduala alde batera uzteko joeraz ageri zaizkigu adin-tarte guztietakoak (Inglehart, 1985). Langa-bezia handia denean, gauza bera gertatzen da emakumearen autonomia ekonomikoa eta politikoari dagokionez: gizonak uste dute eurek lehentasuna izan beharko luketela hutsik dauden lanpostuak betetzerakoan. Generoen arteko lehia biziagotzea ez zaie onuragarri suertatzen enpleguaren bila ari diren emakumei eta haien promozio-aukerak murriztu egiten dira. Gizarte gastuaren kostuen hazkundera geldiarazten da, familia bakoitzeko pertsona bati, gutxienez, enplegua bermatuz, horrela gizona ere onuratu gertatzen delarik. Ezin harritu gaitzke, beraz, langabeziaren hazkundera emakumearen desmenpetzeari kalte egiten diola eta krisialdi latzena nozitu zuten herrialdeetan jarrera atzerakoiagoak agertzen direla antzematean.

Ereduaren ezaugarri orokortzat jotzen da, halaber, sakoneko aldagaiek (hau da, 2. irudiko W aldagaiak) zuzeneko eragin eskasa izatea. Bitarteko hiru aldagaiak ( $X_1$ ,  $X_2$  eta  $F_2$ ) baino ez dituen eredu murriztuak adierazle demografikoen bariantzaren proportzio alderagarria azaltzen du. Erregresio laburtu hauek, bestalde, "politika eta emakumearen autonomia" delako aldagaiak adierazle demografiko ezberdinetan antzerako eraginak ote zituen egiaztatzeke egin ziren. 7. taulan ikus daitekeenez, ez zen hala gertatzen. 1970.etik 1984.era-ko epealdian 25 eta 34 urte bitarteko adin-multzoetan emakumearen enplegu arloko ezberdintasunak desagertu izanak balore posmaterialistek baino eragin askoz handiagoa izan zuten ez-legebidezko jaiotzeen proportzioarekiko eta guraso bakarreko familien portzentaiarekiko herrialdeei dagokien pozizioetan. Bi aldagaiek antzerako eragina izan zuten emakume gazteen bizikidetzarekiko. Azkenik, dimentsio politikoak eragin handiagoa izan zuten 25 urte bete gabekoen ugalkortasunaren beherakada geldiarazterakoan eta 30 urte bete gabekoen ugalkortasunaren berreskurapenean. Genero-rol berdintzaileak lehenago ga-

---

ratu zireneko herrialdeek, bestalde, ordezkatzeko-ugalkortasuna bermatzera zuzentzen ari direla ematen du. Baliteke Ongizate Estatuaren xedapenak ere horretarako lagungarri izatea. 8. taulan hondar-ereduaren eskema bat, herrialdeka eta aldagai demografiko bakoitzaren araberakoa agertzen da. Lehenengo herrialde-multzoan (A multzoa) hondar negatiboak dira nagusi, horrek aldagai gehienetan espero baino aldaketa azkarragoak suertatu zirela adierazten du. Multzo honetan daude hiru herrialde eskandinaviarrak, Suedia, Norvegia eta Danimarka. A multzoan ageri diren Mendebaldeko Europako herrialdeak Austria, Frantzia eta Britainia Haundia dira. Mediterraneoko herrialdeei dagokienez, Italia eta Espainia aurrean aurretik ageri ziren.

Bigarren multzoan, B deritzan multzoan, alegia, erregresioei ondoen egokitutako herrialdeak sartzen dira. Herrialde hauetan hondar positiboak eta negatiboak proportzio berdinsuaz ageri dira. C multzoan, berriz, aurreanetara iritsi gabe gelditzeko joera duten herrialdeak daude. Mediterraneoko herrialdeen artean, Grezia eta Portugalen antzematen da halako joera, eta gainontzekoei dagokienez, Suitzak eta Finlandiak hondar negatiboz ageri zaizkigu sistematikoki.

Azken multzoa, daturik ez izatera saldoa ebaluatzeko eragozpenak dituzten herrialdeek osotzen dute. Australia B multzoan sar liteke, baldin eta legebiltzarkide diren emakumeen proportzioa Inglehart-en posmaterialismo-indizearen ordezkotzat onartzen badugu.

Delako aldagaiaren desbideraketa standarraren gainetik dauden hondarrak zeinu bikoitaz (++) edo (--) markaturik daude. Hauek herrialde baten berezitasunik nabarmenenak adierazten dituzte. Ezkontzaz kanpoko ugalkortasunaren hazkundeari dagokionez, Suedian gehikuntza oso azkarra izan zen 1960.etik 1975.era, eta Austrian, ez-legebidezko-tasun indize nabarmenak izan ohi dituen beste herrialde bat izanik, portzentaia oso handietara itzultzen da 1975.az geroztik. Suitzan, ordea, ezkontzaz kanpoko ugalkortasun indize oso eskasak ageri dira. Guraso bakarreko familiei dagokienez, Estatu Batuak, espero zitekeena baino halako familia-kopuru askoz handiagoaz, eta alderantziz, espero baino kopuru azkoz urriagoa daukaten Frantzia eta Irlanda dira kasurik deigarrienak.

Gainerako salbuespenak ugalkortasunaren beherakada-datari eta adin-multzo berezien ugalkortasunaren azken joerei dagozkie. Grezian, Irlandan eta Finlandian aurrakusi baino geldiroago gertatzen dira ugalkortasunaren joerak epealdi osoan zehar, Espainian, ordea, alderantzizkoa gertatzen da. Era berean, Britainia Haundian 1983.etik 1988.era bitartean 25 urte bete gabekoen ugalkortasunaren beherakadarik ez izatea bertako berezitasun gisa agertzen da.

Bigarren iraganaldiaren lehen osagai azpimarragarria zera da, batasunen eraketarako eta ugalketarako jokamoldeak lehenengo iraganaldi historikoan baino azkoz ere azkarrago aldatzen direla. Eta hau ez da komunikabideen bitartez egindako baitaratzeagatik soilik gertatzen, aldaketa demografiko berriak kultura eta ekonomi faktore amankomun batzuri ere erantzuten baitiete. Aldaketa demografiko hauek direla eta, nazio bakoitzaren aurrerapen zein atzerapenak aldagai-multzo txiki batez arrazoitu daitezke LISREL-ereduek erakusten duten bezala.

Bigarren ezaugarria, berriz, zera da, autonomia indibidualarekin eta emakumearen desmenpetzearekin zerikusirik duten elementu politikoak (hau da, Inglehart-en "Iraultza Isila") makromailan ezinbesteko osagaiak direla. Honek, halaber, makromailako datuetan (Lesthaeghe eta Meekers, 1986; Thornton, 1988, esaterako) behin eta berriz antzemandakoa baieztatzen du. Hots, ideologi aldaketetan edo egiturazko ekonomi faktoretan bakarrik oinarritzen diren azalpenak ez-erredundagarriak direla eta, beraz, osagabeak.

Kontutan hartu beharreko hirugarren elementu bat ere bada, hots, protestantismoaren joko-era historikoak norbanakoen autonomia bultzatu eta emakumearen ekonomi autonomia azkarrago garatzearen aldeko politikari jarraitu ohi izan diola. Bitarteko azken bi aldagaiak garrantzi handiko sustrai historiko amankomuna dute.

Indar bultzagileen itxurazko kohesio hau izanik ere, herrialdeek euren berezitasunez ageri zaizkigu oraindik ere, LISREL-ereduetan erabilitako faktoreen bidez argitzen ez direnak. Hau ulergarria da, gizarte politikaren inguruabarrei loturiko aldagai bat ere ez baitzen sartu (adib.: gizarte segurantzaren prestazioak, familiarentzako laguntzak, lan xedapenak, etxebizitzaren egoera, eguneko laguntza zerbitzuak, etab.) Horrezaz gainera, berarizko hainbat ezaugarriak eredu historikoen iraupena isladatzen dute. Irlandako ez-legebidezko jaiotzeak, esate baterako, herrialde horretan ohizkoa den ezkontza berantiarrari loturik dago eta baita antisorgailu eraginkorrak berandu onartu izanari ere. Azkenik, zenbait herrialdetan eredu demografiko bereziak dituzten gutxiengo etnikoak daude. Heterogenotasun hau ere ez zen kontutan hartu gure azterketan. Baina, lehenengo iraganaldi demografikoan zehar ere agertzen dira berarizko ezaugarriak, ez-legebidezko jaiotzeen arloan, batez ere. Hortaz, aurrerantzean komenigarria litzateke lehenengo iraganaldi demografikoari buruzko azterlanetan baino arreta gehiagoz erreparatzea adostasunezko batasunei eta ugalketari buruzko eredu hauei.

## *Iraganaldien erazko ezaugarriak*

Aldaketa kontzeptuak bere baitan darama prozesuak garrantzizko berrikuntzak dauzkala, joerak koherenteak direla, metatze historikoa dagoela, eta aldaketa itzulezina dela. Erazko erizpide hauek erabiliko ditugu aldaketa demografiko berrien jokamoldeak ebaluatzerakoan. Lehenengo eta behin, prozesuaren berritasunak aipatuko ditugu: a) sexualitatearen gizarte onspenari buruzko joera historikoaren iraulketa, b) erakundeen aldetiko gizarte kontrolaren ahultze azkarra, edo bestela, norberaren autonomia moral handiagoa, c) antisorgailu oso eraginkorrak eta emakumeek jaiotzak hobe kontrolatzea, d) bikote heldua garrantzitsuagoa izatea eta batasunen onuren aldean norbere nahikundeak areago kontutan izatea, e) batasunen baitako elkartruckerako eredu simetrikoagoen garapena, f) emakumearen ekonomi autonomia areagotzearen ondorioz, aukera-kostuen "aurkikundea", eta g) bikotearen alderdi profesionalak eta etxeokak batzea familia-transakzioetan. Aipatu den bezala, berrikuntza guzti hauek auresan ez ziren aldaketa demografikoak ekarri zituzten.

Argi dago aipatu berri diren puntuak elkarloturik daudela eta ereduaren kohesio-maila handia dagoela indar bultzagileen artean. Horrezaz gainera, emaitzako aldagai demografikoak denboran zeharko garapenean ere erabat elkarloturik daude. LISREL-ereduek zeharreko ebaletako analisi gisa adierazi duten hedapen-molde geografikoak ere baieztu egiten du puntu hau. Hortaz, bigarren aurrebetekizuna, hau da, egiturazko kohesioa bete egiten dela uste dugu eta, gutxienik, lehenengo iraganaldi demografikoaren kasuan bezala bete ere.

Hirugarrenik, metatze historikoa delako kontzeptuak aldaketa hauek lehenago moldatuak direla darama bere baitan. Berrikuntza bakoitza funtzio mailakatu baten maila bat da. Maila bakoitza, bestalde, aurrekoetan oinarritzen da, eta hortik dator metatze legea. Lehenengo aldaketa ere aurretiko beste aldaketa batzuek moldatua da. "Coitus interreptus" delakoa, adibidez, biztanleriak, oro har, jaiotzeak kontrolatzeko baliabide eraginkor gisa erabiltzen hasi aurretik ere oso ezaguna zen. Beste adibide bat: Mendebaldeko gizartearen proletarizazioa ere ezkontza-adinen ondorioz Maltus-en muga zaharrak hautsi baino lehen hasi zen. Era berean, 60. hamarkada baino lehenago ere antzematen dira autonomia indibidualari dagozkion ezaugarriak, nabarmenduz joango direnak. Alabaina, ezaugarri hauek apurka-apurka sortzen ari ziren joerak baino ez ziren, eta joera hauek gerora baino ez zuten ekarriko eredu demografikoaren aldaketa orokorra. Metafora bat erabiliz, sagarrak sagarrondoan garatzen dira lehenengo, gero umatu egiten dira eta orduantxe daude prest banatu eta jateko.

---

80. hamarkadaren azken urteetan, zenbait aldagai demografikoaren aldean (adib.: ugalkortasunaren suspertzea, dibortzioaren egonkortze berria), aldaketaren abiada moteltzen bada ere, gertaera hori ez du haren mailaz mailako garapena hausten. Berrero ere, 60 eta 70. hamarkaden berezitasuna nabarmentzen zaigu. Beste herrialde batzuk urrats hau ematen ari dira oraingoz, eta herrialde hauentzat 90. hamarkada garrantzizkoa izango da. Azkenik, aldaketa itzulezina delako kontzeptua funtsezkoa da. Honen ondorioz galdera bat planteatzen da, hau da, ea norbanakoak, berrero, euren bizimodu pribatuaren antolaketa mugatu dezan moraltasuna kanpo-erakundeek ezarria, berrero onartzeko, antisorgailu eraginkorrek zokoratu eta batzuek beste hiru seme-alaba izateko, generoen arteko harreman zeharo asimetrikoei berriz heltzeko, edo oso gazterik ezkondu eta dibortzio indize urri batera itzultzeko prest ote dauden. Ekonomi teoriek ez dute ahalbide hau baztertzen. Easterlin-en taulan, belaunaldi gazteenetako gizonen soldaten igoera handi batek ezkontza eta gurasotasun gazteagoak ekarriko lituzke. Nolanahi ere, taula horri autonomia indibiduala delako aldagai nagusia erantsiz gero, lehengoratzeko horrek oso gertagaitza dirudi. Hortaz, gure ustez, batasunen eraketarako eta familia sortzeko eredu demografiko berria finkaturik dago eta, horrenbestez, ia ez dago lehengo egoerara itzultzeko ahalbiderik. Mendebaldean gertatutakoa ez zen bolada baten ondorio hutsa izan, bigarren iraganaldi demografiko berezia baizik, bai funtsean eta bai moldean, XVIII. eta XIX. mendeetako aldaketa demografikoarekin alderagarria.


---

**5.**

## *Ondorioztapen orokorra*

Txosten honen gai nagusia zera da, Inglehart-en “Iraultza Isila” delakoari oso loturik dauden aldagai ideologikoak ezin daitezkeela aldaketa demografikoen garapenari dagokion irudi historikotik. Autonomia indibidualaren egituraketan eta norbanakoen aukeratzeko eskubidean dago gakoa. Orain ekialdeko Europan —eta baita munduko beste hainbat tokitan ere— nabari den demokrazia eskea sortarazten duenak jorratu zuen, halaber, bigarren iraganaldi demografikorako bidea. Politika zein erlijio-doktrinek norbanakoen bizimodua gero eta gehiago kontrolatzearen aroa, Mendebaldean Erreforma eta Kontrarreformarekin gogorki hasi eta XX. mendearen bigarren erdialderarte iraun zuena, bukatua da jadanik. Gertaera honek garrantzi historiko handia du, dudarik gabe.


**1. IRUDIA Belaunaldizko aldaketa holandar lagineko, "tradizionala (konformista) - libertaria" delako dimentsioari dagokionez, 1970-1985**



Taldeen jaiotze-datak:

1 = 1901-1905	4 = 1916-1920	7 = 1931-1935	10 = 1946-1950
2 = 1906-1910	5 = 1921-1925	8 = 1936-1940	11 = 1951-1955
3 = 1911-1915	6 = 1926-1930	9 = 1941-1945	12 = 1956-1960


**2. IRUDIA. Denboran zeharko aldaketa holandar laginean, ezkerre-eskuma dimentsio ekonomikoari dagokionez (gobernuaren eskuhartzea versus merkatu askearen indarrak), 1970-1985**



Iturria: Van Rysselt, 1989

### 3. IRUDIA Balore libertarietaranzko belaunaldizko aldaketa eta merkatu askeko ekonomiaranzko aldaketa denboran zehar, Van Rysseel-en bertsio erraztua

I. DIMENTSIOA  
Autonomia indibiduala (Lesthaeghe)  
libertaria (Van Rysseel)  
postmaterialista (Inglehart)



Konformista (Lesthaeghe)  
tradizionala (Van Rysseel)  
materialista (Inglehart)

II. DIMENTSIOA

Merkatu askeko indarrak, gobernuaren eskuhartzerik ez, ekimen pribatua (Van Rysseel)

II DIMENTSIOA


Berdintasunezko gizarte baloreak egokitzapenak merkatuari begira gobernuaren eskuhartzea, ekimen publikoa

Norbanakoak merkaturantz, dirurantz eta lanbiderantz zuzentzea (Marini, Crimmins et al.)

II bis DIMENTSIOA

Norbanakoak komunitatearen zerbitzurantz zuzentzea

**4. IRUDIA Mendebaldeko herrialdeetako lehen aldaketa demografikoak azaltzen dituen LISREL eredu**




1. EREDUA


Egokitzapenaren doitasuna = 0,986  
Zuzendutako egokitzapenaren doitasuna = 0,972  
Lisrel 7

VERLEYE & LESTHAEGHE, VUB 18.7.91

**5. IRUDIA 25 urtetik beherako eta 30 urtetik gorako ugalkortasun-indizeen urteroko batzbesteko aldaketa mendebaldeko herrialdeetan, 1982/83 - 1987/89 (eskuragarria den azken data)**



**6. IRUDIA Mendebaldeko herrialdeetako azken aldaketa demografikoak azaltzen dituen LISREL ereduak**



2. EREDUA

Egokitzapena doitasuna = 0,943  
Zuzendutako egokitzapenaren doitasuna = 0,900

VERLEYE & LESTHAEGHE, VUB 18.7.91

# 1. TAULA Baloreen aldaketa Estatu Batuetan eta Herbehereetan 20. hamarkadatik 80. hamarkadara bitartean

	1924	1945	1950 -54	1955 -59	1960 -64	1965 -69	1970 -74	1975 -79	1980 -84	1985 -89
A) SEXUALITATEA										
a) Estatu Batuak (Gen. Soc. Surveys, Gallup)										
- Ezkondutako aurretiko sexuan ez dago gaizki	—	—	—	—	—	24	28	37	41	40
- Ezkondutako aurretiko sexua beti dago gaizki, emakumeak IT 30	—	—	—	—	—	50	14	14	13	14
- Ezkondutako aurretiko sexua beti dago gaizki, gizonak IT 30	—	—	—	—	—	48	10	10	14	11
b) Herbehereak (Soc. Cult. Planbureau)										
- Sexu harremanak onartuak ezkontzeko asmoa izanez gero	—	—	—	—	—	21	60	59	72	—
- Senarraren desleialtasuna onar daiteke	—	—	—	—	—	20	46	49	—	—
- Birjintasunari ez zaio ezkondutako arte eutsi behar	—	—	—	—	—	29	62	—	—	—
- Homosexualarekiko onarpena	—	—	—	—	—	56	69	84	—	—
B) SOZIALKUNTZA										
a) Estatu Batuak (Alwin)										
— Esanekotasuna (17tik 3)										
Middletown	45	44	—	—	—	—	17	—	—	—
Naziokoa (13tik 3)	—	—	—	—	42	—	30	—	33	—
— Burujabetasuna										
Middletown (17tik 3)	25	34	—	—	—	—	76	—	—	—
— Erantzukizuna										
Naziokoa (13tik 3)	—	—	—	—	12	—	32	—	—	35
— Elizarekiko leialtasuna										
Middletown (17tik 3)	50	35	—	—	—	—	22	—	—	—
C) DIBORTZIOA ETA SEME-ALABAK										
a) Estatu Batuak (Gen. Soc. Surveys)										
- Seme-alabak izan arren, gurasoek ez diote elkarbizitzari eutsi behar gaizki atontzen badira	—	—	—	—	51	—	—	80	82	82
b) Herbehereak (Soc. Cult. Planbureau)										
- Dibortzioa onartezina da seme-alabek etxean badira	—	—	—	—	—	48	13	9	6	—
D) SEME-ALABARIK GABEKO BIKOTEA										
a) Estatu Batuak (Ameriketako Familiari buruzko Azterlana)										
- Ezkondutako emakume emankor guztiek seme-alabak izan behar dituzte (emakumeen erantzuna)	—	—	—	—	84	—	—	—	43	43
b) Herbehereak (Soc. Cult. Planbureau)										
- Seme-alabarik ez izateko erabakia onargarria da	—	—	—	—	—	22	60	70	83	86

## 1. TAULA (Kont.)

	1924	1945	1950 -54	1955 -59	1960 -64	1965 -69	1970 -74	1975 -79	1980 -84	1985 -89
E) GENERO-ROLAK										
a) Estatu Batuak (Ameriketako Familiei buruzko Azterlana)										
- Gizonak mantendu ahal duenean emakumeak lan egitearen aurka					—	—	33	29	24	17
- Erabaki garrantzitsuak gizonak hartu behar dituenaren aurka (emakumeen erantzuna)					32	—	—	68	71	78
- Umeak hazi baino lehen ere emakumeak etxetik kanpo lan egitearen alde (emakumeen erantzuna)					44	—	—	59	65	72
- Lan batzuk gizonentzat eta beste batzuk emakumeentzat izatearen eta haiek hauen lanetan ezin ihardutearen aurka					57	—	—	77	67	75
F) MERKATUAREKIKO ETA KOMUNITATEAREKIKO ORIENTABIDEA										
a) Estatu Batuak (CIRP-Unibertsitateko lehen ikasturteko ikasleen erantzunak)										
- Finantza egoera sendoa izatea oso garrantzitsua/funtsezkoa da					—	43	39	53	65	74
- Norberaren lanarengatik lankideen begirunea lortzea oso garrantzitsua da					—	25	18	31	40	42
- Gaizki daudenei laguntzea funtsezkoa/osoa garrantzitsua da					—	70	64	63	63	56
- Bizitzari zentzua eman diezaion filosofiaren bat garatzea funtsezkoa/osoa garrantzitsua da					—	83	68	60	48	46
b) Estatu Batuak (Unibertsitateko azken ikasturteetako ikasleak)										
- Status eta ospe handiko lana lortzea oso garrantzitsua da					—	—	—	19	28	31
- Beharrezkoak ez diren gauzen publizitateak ez dauka ezer txarrik (ez datoz bal)			—	—	—	44	43	27		
- Diru asko edukitzea oso garrantzitsua da					—	—	—	15	17	26
- Gizarte zerbitzu batean lan egitea desiragarria da (emakumeen erantzuna)					—	—	—	31	24	21

Iturriak: Glenn (1987), Thornton (1988), Alwin (1988, 1988, 1989), Van de Kaa (1980), de Feyter (1987), Marini (1990), Crimmins et al. (1991).

## 2. TAULA Aldaketa demografikoaren adierazleak, 1960-1980

HERRIALDEA	U.G.T.	EZ-LEGE.KO	EZ-LEGE.KO	EMAKUMEEN	GIZONEN	DIBORTZIO
	1966KOAREN	JAIOTZEEN	JAIOTZEEN	E.B.B.A.REN	E.B.B.A.REN	TASAREN
	ALDEAN % 10EAN JAITSI ZENEKO DATA	% 1960	HAZKUNDEAREN % 1966-75	HAZKUNDEA 1970-80	HAZKUNDEA 1970-80	HAZKUNDEA 1950-75
Islandia	1968	25,3 %	7,6 %	—	—	1,00
Suedia	68	11,3	21,1	3,9 urte	3,8 urte	1,93
Danimarka	67	7,8	13,9	3,6	3,3	1,09
Norvegia	70	3,7	6,6	2,1	1,4	0,81
Finlandia	68	4,0	6,1	2,1	1,1	1,14
Herbehereak	71	1,4	0,7	0,1	1,0	0,96
Britainia Haundia	72	5,2	3,8	1,8	1,4	1,83
Frantzia	70	6,1	2,4	1,4	0,8	0,49
A.E.F.	69	13,0	-0,2	2,2	1,9	0,88
Austria	70	3,8	0,5	1,6	1,0	0,14
Suitza	69	3,2	-0,1	2,4	1,9	0,50
Luxemburg	68	2,1	1,0	1,7	0,6	0,49
Belgika	69	1,6	1,0	0,9	0,6	0,62
Irlanda	84	0,5	2,1	-0,1	-1,6	—
Portugal	75	2,3	-2,3	-1,2	-1,1	0,05
Espainia	72	2,4	-0,3	-0,6	-1,5	—
Italia	73	1,2	0,2	0,6	-0,1	0,19
Grezia	82	0,7	0,1	-1,4	-0,8	0,11
Malta	—	0,2	0,5	—	—	—
Txipre	75	5,3	0,5	—	—	—
Estatu Batuak	69	4,3	8,9	1,8	1,7	2,52
Kanada	68	4,8	9,7	1,1	0,8	1,83
Australia	73	5,3	5,4	2,0	1,3	1,03
Zelanda Berria	73	—	12,0	1,5	1,0	0,86

*Iturriak:* Nazio Batuen Demografi Urtekariak; Europako kontseiluak "Recent Demographic Developments in Members States" delakoari buruz eginiko zenbait argitarapen, Nazio Batuak (1990).

E.B.B.A. = Ezkontzaren Bataz Besteko Adina.

U.G.T. = Ugalkortasunaren Guztizko Tasa.

### 3. TAULA "Ez-legebidezkotasuna"-ren eragin historikoa Europan, 1900.etik 1960.era

HERRIALDEA	"EZ-LEGEBIDEZKO" UGALKORTASUNAREN INDIZEA, 1900	EUROPEAN FERTILITY PROJECT DELAKOAK BARRUHARTUTAKO ARLO-KOPURUA	EH ≥ 0,075 DUTEN ARLOEN KOPURUA 1900	EZ-LEGE.KO JAIOTZEEN % 1960
Rumania	0,216	4	3	—
Hungaria*	0,118	74	63	5,5
Austria*	0,106	18	11	13,0
Islandia	0,076	1	1	25,3
Portugal	0,073	22	8	9,1
Alemania*	0,066	72	21	6,3 (Mend.) 11,4 (Eki.)
Danimarca	0,059	20	3	7,8
Suedia	0,058	25	5	11,3
Polonia	0,050	10	0	4,5
Belgika	0,050	41	0	2,1
Italia	0,048	18	4	2,4
Finlandia	0,044	9	0	4,0
Frantzia	0,044	90	5	6,1
Espainia	0,041	54	4	2,3
Norvegia	0,040	20	1	3,7
Eskozia	0,033	33	0	4,4
Serbia	0,031	17	0	—
Suitza	0,023	25	0	3,8
Luxemburg	0,023	1	0	3,2
Ingalaterra eta Gales	0,021	45	0	5,4
Herbehereak	0,016	11	0	1,4
Grezia	0,015	19	0	1,2
Irlanda	0,009	32	0	1,6

\* Lurralde zabalagoak 1900.ean.

Iturriak: A.J. Coale & S.C. Watkins (1986); Nazio Batuen Demografi Urtekariak.

#### 4. TAULA Mendebaldeko herrialdeetako lehen aldaketa demografikoaren bost adierazleen mugatzaileak: erregresio eredu alternatiboak

	MENPEKO ALDAGAIK/BETA KOEFIZIENTEAK				
	UGALKORTASUNA % 10EAN JAITZI ZENEKO DATA	E.B.B.A.REN HAZKUNDEA 1970-1980		EZ-LEGEBIDEZKO JAIOTZEEN HAZK. 1960-75	DIBORTZIOETAN HAZK. 1950-75
		GIZONAK	EMAKUM.		
EREDU OSOA					
Protestantismoa	-0,25	+0,49	+0,42	+0,49	+0,26
1950eko N.E.G. per capita	-0,41	+0,35	+0,37	+0,30	+0,58
1960ko ez-legebidezko jaiotzeen %	+0,06	+0,11	+0,21	+0,09	+,-0,09
Emakumeak bigarren mailako hezkuntzan partehartzearen data = % 50	-0,15	+0,23	+0,31	+0,07	+,-0,32
25-37 urteko emakumeen enplegu-indizea, 1970 (%)	-0,33	+0,39	+0,46	+0,14	-0,09
<b>R<sup>2</sup> zuzendua</b>	<b>0,26</b>	<b>0,70</b>	<b>0,75</b>	<b>0,43</b>	<b>0,72</b>
EREDU LABURTUA: HEZKUNTZA ETA EMAKUMEAREN EGOERA EKONOMIKOA					
Emakumeak bigarren mailako hezkuntzaren partehartzearen data = % 50	+0,19	-0,22	-0,11	-0,34	-0,71
25-35 urteko emakumeen enplegu-indizea, 1970	-0,37	+0,44	+0,51	+0,18	-0,11
1960ko ez-legebidezko jaiotzeen %	-0,09	+0,25	+0,33	+0,30	+0,13
<b>R<sup>2</sup> zuzendua</b>	<b>0,16</b>	<b>0,45</b>	<b>0,52</b>	<b>0,26</b>	<b>0,39</b>
EREDU LABURTUA-ALDAGAI HISTORIKOAK					
N.E.G. per capita, 1950	-0,45	+0,37	+0,38	+0,31	+0,66
Protestantismoa	-0,29	+0,49	+0,40	+0,50	+0,41
1960ko ez-legebidezko jaiotzeen %	0,07	+0,20	+0,32	+0,08	-0,13
<b>R<sup>2</sup> zuzendua</b>	<b>0,30</b>	<b>0,64</b>	<b>0,65</b>	<b>0,50</b>	<b>0,70</b>

E.B.B.A. = Ezkontzako Bataz Besteko Adina.

**5. TAULA Familiaren eraketan eta etxearen moldaketan izan diren aldaketa berrien adierazleak, 1975-1990**

<b>HERRIALDEA</b>	<b>BIZKIDETZARI ATXEKITAKO 20-24 URTEKO EMAKUMEEN % 1985-1990</b>	<b>EZ-LEGE.KO JAIOTZEEN % 1988</b>	<b>EZ-LEGE.KO JAIOTZEEN HAZKUNDEA 1975-1988</b>	<b>GURASO BAKARREKO FAMILIAK SEME-ALABEKIN 1985</b>
Islandia	—	52	19	—
Suedia	44	52	19	32
Danimarka	43	45	23	26
Norvegia	28	34	23	23
Finlandia	26	19	9	15
Herbehereak	23	11	8	19
Britainia Haundia	24	25	16	14
Frantzia	24	26	18	10
A.E.F.	18	10	4	13
Austria	—	23	8	15
Suitza	—	6	2	9
Luxemburg	—	12	8	18
Belgika	18	10	7	15
Irlanda	4	13	8	7
Portugal	7	14	7	—
Espainia	3	8	6	11
Italia	3	6	3	16
Grezia	1	2	1	—
Malta	—	2	1	—
Txipre	—	1	0	—
Estatu Batuak	8	26	12	28
Kanada	15	21	14	26
Australia	6	19	7	15
Zelanda Berria	12	25	9	—

- Iturriak:*
- Txosten pertsonala, L. Bumpass (Estatu Batuak), P. McDonald, L. Day (Australia), T. Burch (Kanada), I. Pool (Zelanda Berria).
  - Nazio Batuen Demografi Urtekariak & "Recent Demographic Developments...", zenbait argitarapen.
  - Baloreei Buruzko Europar Azterlanak, 1990. ingur.
  - H. Moors & N. Van Nimwegen (1990).
  - Nazio Batuak (1990).

**6. TAULA Adin-talde jakinen ugalkortasunaren urteroko batazbesteko aldaketa, 1982/83tik 1987/89ra**

<b>HERRIALDEA</b>	<b>25ETIK BEHERAKOAK</b>	<b>30ETIK GORAKOAK</b>
Herbehereak	-2,8	+6,6
Danimarka	-1,7	+6,5
Suedia	+1,7	+5,8
Zelanda Berria	-2,3	+5,3
Britainia Haundia	0,0	+5,0
Frantzia	-5,5	+4,8
Norvegia	-1,0	+4,6
Suitza	-3,0	+4,5
A.E.F.	-2,4	+4,4
Islandia	-5,4	+4,2
Australia	-5,0	+3,8
Luxemburg	-1,2	+3,0
Estatu Batuak	0,0	+2,8
Belgika	-5,8	+2,5
Malta	-2,2	+2,3
Kanada	-3,4	+2,2
Austria	-5,2	+1,8
Finlandia	-5,8	+0,3
Txipre	-1,4	0,0
Italia	-7,3	-0,3
Grezia	-11,6	-2,0
Portugal	-8,4	-4,2
Espainia	-8,0	-4,7
Irlanda	-7,0	-9,0

Indize hauek adin-talde jakinaren (adin-talde bakoitzak 5 urteko tartea du) ugalkortasun-indizeak batuz kalkulatu ziren, 1.000 emakumezko multzoka. Bi behaketen arteko diferentziak denbora-tarteez zatitzen dira.

*Iturriak:* Nazio Batuen Demografi Urtekariak & "Recent Demographic Developments...", zenbait argitarapen; US Vital Statistics - Natality 1988 (1990); Txosten pertsonala P. McDonald (Australia), T. Burch (Kanada), I. Pool (Zelanda Berria).

**7. TAULA Mendebaldeko herrialdeetako aldaketa demografiko berriaren bost adierazleen mugatzaileak: erregresio eredu laburtua**

	BIZIKIDETZARI ATXEKITAKO 20-24 URTEKO EMAKUMEEN % 1985-1990	EZ-LEGE.KO JAIOTZEEN % 1988	GURASO BAKARREKO FAMILIAK 1985	UGALKORTAS. HAZKUNDEA 19-24 URTEKOEN ARTEAN 1983-89	UGALKORTAS. HAZKUNDEA 30-49 URTEKOEN ARTEAN 1983-89
Emakumearen enplegu arloko ezberdintasunen deuseztapena, 25-34 urtekoen artean; 1970-84	0,71	0,64	0,62	0,20	0,19
Inglehart-en posmaterialismo indizea, 1981-1983	0,52	0,14	0,15	0,62	0,64
Langabeziaren gehikuntza, 1970-85	0,09	-0,18	-0,25	-0,23	-0,22
<b>R<sup>2</sup> zuzendua</b>	<b>0,70</b>	<b>0,46</b>	<b>0,53</b>	<b>0,51</b>	<b>0,51</b>

## 8. TAULA (Eredu osotua) eta 7. tauletan erakutsitako erregresioen hondarrak

	E.B.B.A.REN HAZK. EMAKUMEENGAN 1970-1980	E.B.B.A.REN HAZK. GIZONENGAN 1970-1980	U.G.T. % 10 BAT GUTXITU ZENEKO DATA (*)	EZ-LEGE.KO JAIOTZEEN HAZKUNDEA 1960-75	DIBORTZIOEN HAZKUNDEA 1950-75	BIZIKIDETZARI ATXEKITAKO 20-24 URTEKO EMAKUMEAK 1985	EZ-LEGE.KO JAIOTZEEN % 1988	GURASO BAKARREKO FAMILIEN % 1985	15 ETA 24 URTE BITARTEKOEN UGALK. HAZK. 1983-89	30 ETA 49 URTE BITARTEKOEN UGALK. HAZK. 1983-89
A) Suedia	+	+	--	++	+	+	+	+	--	
Austria	+	+	+	--	--	..	++	+	+	
Norvegia	+	+	+	--	--	+	+	+	+	
Danimarka	+	+	+	+	--	+	+	--	--	
Britania Handia	--	--	--	--	+	+	+	+	++	
Frantzia	+	+	+	+	--	+	+	--	--	
Espania	+	--	++	+	..	--	+	+	+	
Italia	+	+	+	+	+	--	--	+	--	
B) Holanda	+	+	+	--	--	--	--	+	--	
A.E.F.	--	+	+	--	+	+	--	--	--	
Belgika	+	+	+	--	--	+	--	--	--	
Estatu Batuak	--	--	--	--	+	--	+	++	+	
Kanada	--	--	+	+	+	--	--	+	--	
Luxemburg	+	+	+	--	--	..	--	--	+	
Irlanda	--	--	--	+	..	+	+	--	+	
C) Grezia	--	--	--	+	+	--	--	..	--	
Portugal	--	--	+	--	+	--	--	..	--	
Suitza	--	--	--	--	--	..	--	--	--	
Finlandia	--	--	--	--	--	--	--	--	--	
D) Australia	+	+	--	+	+	(--)	(+)	(+)	(--)	
Zelanda Berria	..	..	..	..	..	(+)	(+)	..	(+)	
Islandia	..	..	+	--	--	..	..	..	..	

Oharrak: (\*) alderantziz jarritako zeinua taulako gainontzekoari egokitzeko.

++ y -- delako aldagaiaren aldean desbideraketa standar 1 baino gehiago daukan hondarra; + eta - delako aldagaiaren aldean desbideraketa standar 1 baino gehiago ez daukan hondarra.

(+) (-) erregresioaren, hondarra Inglehart-en posmaterialismo indizearen ordezkari gisa.

.. erregresioan balorerik ez dagoenetik ez dago hondarririk.

E.B.B.A. = Ezkontzaren Batz Besteko Adina.

U.G.T. = Ugalkortasunaren Guztizko Tasa.

---

**RAIMUNDO CAGIANO  
DE AZEVEDO**  
Erromako Ekonomia Fakultatea.  
(Italia)

*Gizarte*

*politikak eta*

*ongizatearen*

*gizartean*

*krisia*

## *Familia-politikak Europar: eraberritutako tradizio bat?*

Industrializaturik dauden hainbat herrialdetan garatu dira emakumearen rolei eta familiaren demografiari eragiten dioten gizarte zein familia arloetako politikak. Familia-laguntzak, seme-alabengatiko prestazioak eta familia-ongizate arloko bestelako jokabideak barruhartzen dituzten politikak, hain zuzen. Berrikiago, zenbait herrialdek jaiotzeen aldeko jokabideak bultzatzen hasi dira.

Elkarteko herrialdeek familia eta demografiari dagokienez aurrera eramanez jokabideen azterketa xumea egin eta Europako beste zenbait gizarteetatik datozkigun argibideei erreparatuz gero, gizarte aurreratueta berriki hartutako neurri eta egitarau politiko ezberdinei buruzko ideia bat izan dezakegu. Horretarako, ezinbesteko agiri bat dugu, hau da, W. Dumonen Txostena (1991).

Belgika beti agertu da familia-politikaren alde, eta 1980.eko konstituzio erreformak arlo hori ere ikutu zuen. Erreforma horren ostean, eskualde-gobernu bakoitzak bere politika bereziari ekin dio familia-politika ukiezina deitzen zaionari dagokionez; eskualde bakoitzak, bestalde, familia-politikaz arduratzen den Kontseilaria duela.

Belgikaren bilakaera demografikoan, gaur egun, Ongizate Estatuari eragiten dioten zenbait arazo ageri dira. Belaunaldiarteko elkartasuna delako printzipioan oinarritzen dira hainbat sektore: hezkuntza, osasun laguntza eta pentsioen araupeketa. Gobernuak jaiotzeen aldeko jokabideari jarraitu behar ote dion ala ez erabaki ezinik dabil. 1987.ean landutako agiri politiko batean aitortzen denez, gobernuari ezinezkoa zaio jaiotze-tasari nahiz hilkortasunari zuzenean eragitea, baina familiaren aldeko giroa bultzatzea, nolana ere, belaunaldiarteko elkartasunari eusteko. Seme-alabak munduratzeko erabakia hartzerakoan, ekonomi inguruabarrek ezezik, emantzipazioak ere badu zerikusirik. Badirudi ugalkortasun-tasak ez dituela hainbaten nahiak asetzen, hau da, emakume askok seme-alaba gehiago izan nahiko lituzketela. Gutxiagizko ugalkortasun hau familia ugariaren gehiegizko kostuari zor zaio, batez ere, baina enplegua eta seme-alaben zaintza bateratzeko arazoei ere bai. Gobernuari dagokio bateragarritasun hori errazteko bideak eskaintzea.

---

Egungo politikagintzan, aspaldiko ekonomi laguntzen birpiztea nabari da, familiaren aldeko joera, alegia, eta aldi berean, emantzipazioaren bigarren bolada bat, hirurogeigarren-hirurogeitamargarren hamarkadetako emantzipaziozko helburuen ondorioz.

Azkenengo neurri politikoak familia dute ardatz eta ez norbanakoa. Aldaketa hau, banakako politika ekonomiaren aldetik bidegabekoa delako gertatu da. Hortaz, finantza transferentziaren hiru arlotako neurriak hartu dira, hots: zergak, gizarte segurantza eta gizarte laguntza.

Danimarkan, politikariek familia-politikaz kezkatu izan arren, ez dago politika demografikorik. Danimarkako familia-politikaren helburua gurasoei guraso izaten laguntzean datza. Dibortzioen gehikuntzaren ondorioz, bi familia eredu berri sortu dira: guraso bakarreko familia, heldu batek eta seme-alaba batek edo gehiagok osotzen dutena, eta berreratutako familia, hau da, dibortzioen ostean eratutako familia berrien ondoriozkoa.

Frogaturik dago 17 urte edo gutxiago dituzten seme-alabetarik %78 beren guraso biologikoekin bizi izaten direla, % 11 ordezkotako familia batekin bizi izaten direla eta gainontzeko % 11 guraso bakarreko familiaren baitan.

Gaur egun gero eta maizago nabari den ugalkortasun-urriaren gakoa, seme-alabak dituzten emakumeak gero eta gehiago lan merkaturatzean egon daiteke. Beraz, familiei dirulaguntzak eskainirik ere, ez litzateke seme-alaba gehiago izateko gogoia areagotuko. Danimarkako familia-politika, beraz, gurasoei guraso izaten laguntzean datza.

Frantzian, berriz, familia-politika eta politika demografikoa gizarte-politikari eta erakundeei dagozkien fenomeno oso konplexuak dira. Baina hau denok dakigunez ez dugu hemen aztertuko, ondorengo orrialdeetan baizik.

Alemaniko Errepublika Federalak familia-politika berezia dauka, beste hautabide batzuren ondoan familia-bizitza, seme-alabak, nahiz etxeko eginkizunak aukeratzeko askatasuna bermatzeko baldintzak sortzera zuzendutako politika, alegia. Guzti honek familia gazteengana arreta berezia dakar, hala nola, seme-alabak hazteko baja-aldietarako pentsioak, familientzako etxebizitza egokiak, familientzako aholkularitza zerbitzuak eta jaiogabekoen bizitzak babesteko neurriak. Erantzunkidetasunaren printzipioa familiaren baitan, eta gizonak nahiz emakumeak familia eta lanari dagokienez nahi dezaten bizimoduak aukeratzeko askatasuna dira politika honen oinarriak. Eskubide-berdintasuna erditsiko bada, erabakiak askatasun osoz hartzeko eragozpenak deuseztatu beharra dago.

Alemaniko Errepublika Federalean ez da politika demografikorik izan.

---

Gobernu federalak zera adierazi zuen: "ez da gure eskumenen artean etorkizuneko jaiotze-tasari begira helburu bat ezartzea. Seme-alaben kopurua eta seme-alaba berri bat izateko tartea erabakitzekeo gurasoen askatasunari eutsi behar zaio".

Familia-politikazko zenbait neurri, seme-alabengatikoa laguntza ezberdinak edo amatasunagatikoa baimen ordaindua, besteak beste, jaiotzeen aldekotzat jo litezke.

Erresuma Batuan ere ez dago politika demografikorik, ezta gobernu mailan mugatutako familia-politikarik. Politikari britainiarren ustez, familiaren tamainua zein jaiotze-tasaren maila eremu pribatuko gaiak dira eta, beraz, gurasoek erabaki beharrekoak.

Erresuma Batuko jaiotze-tasaren historia bezalako hainbat arrazoi direla medio, familiaren tamainua eta biztanleriaren tamainua ez dira nazio-boterearen adierazletzat jotzen herrialde honetan.

Ez daude eragina duten antolakunderik, Frantzia eta Belgika dauden bezalakoak. Politikagintzan diharduten alderdiek ez dute familia-politika argi eta zehatz bat, eta haien jokabideek eragin neutroa izango dute, beti ere, ugalkortasunari eta familiaren tamainuari dagokienez. Badira seme-alabak dituzten familiei laguntzeko politikak, baina, era berean, bikoteei beren familiaren tamainua mugatzen laguntzen dieten zerbitzuak ere bai.

Familia britainiarrarengan nabari diren interes, balore eta ideologia ezberdinak, hala nola, haren askotariko osakera nahiz funtzionamenduak aintzakotzak harturik, bai politikariek eta bai legegileek muzin egiten diote familia-politika berezi bat formulatzeari. Neurri bereziagoak taitutzea baino nahiago izaten dute familiarentzako eta familiaren bizimoduarentzako laguntza orokorraz mintzatzea.

Greziak ez du inoiz izan familiari nahiz demografiari buruzko politika berezirik. Politika demografikorako ekinbideak konplexuegiak eta koordinazio eta bateratasun gabeak dira.

Gabezia honen jatorria Grezia Berriaren historia konplexuan egon daiteke, izan ere, jendeak eguneroko eta epe laburreko arazoei aurre egin behar izaten baitio.

1983.errete, Greziako legeriarentzat emakumea ez zen bere buruaren jabe familiaren baitan. 1983.az geroztik, familiari buruzko lege berriari esker, emakumeak berdintasuna erdietsi zuen, gizonaren eskubide eta burujabetasun berberak.

Gizarte zerbitzuak desegokiak direnez gero, emakumea arduratzen da, oraindik ere, seme-alaben hezieraz eta pertsona nagusien zaintzaz.

Etxebizitzak eraikitzekeo dirulaguntzak, laguntzak eta kredituak bezalako finantza laguntzak, hala nola, gizarte segurantzaz eta pentsioak, era ezberdinez banatzen dira biztanleen artean, hainbat sektore inolako laguntzarik gabe daudela.

---

Ez dago gizarte politikarako egitarau ezberdinen ebaluaziorik. Sistemak metodo zaharretan oinarriturik dirau, ideia nahiz egitarau berriei jaramonik egin gabe.

Irlandako gizarte politikaren ezaugarri nagusia koordinazio eta plangintzarik eza da. Hor-taz, familia-politikari ere, gizarte politikaren ataltzat jotzen denez, ikuspegi koordinatu ba-ten gabezia antzematen zaio.

Familia-politikaren osagaiak hauek dira: errenta egokia, osasun laguntza, hezkuntza, etxe-bizitza, eta beste alde batetik, emakumearen statusa eta seme-alaben babesa. Administra-zioari dagokio neurri hauek gauzatzea.

Hazkunde demografikoak eta ugalkortasunak gaur egun erakusten duten tasei eusteko, go-bernuak seme-alaba bakoitzeko laguntza-egitaraua erabili dute. Badira jaiotzeen aldeko beste zenbait bultzagarri ere, amatasunagatikoko dirulaguntzak eta amatasunagatikoko baime-na esate baterako.

Irlandako alderdi politiko nagusiek ideologiaren aldetik ezberdintasun nabarmenik ez dute-nez, familia-politikarako egitarauetan ere ez zaie garrantzizko berezitasunik antzematen. Familiarekiko konstituzio-konpromisua jotzen da familia-politikaren oinarritzat. Gizarte ho-rretan ez da familia-politikaren aurkako gizatalderik nabari.

Nolanahi ere, familiarengan eragina duten gizarte aldaketa garrantzitsuak gertatu dira, hala nola, guraso bakarreko familia-kopuruaren gehitzea, lan merkatuan gero eta emakume gehiago izatea (ezkonduetako emakumeak, batez ere), eta familiaburuen langabezia.

1980.az geroztik langabezia asko gehitu da eta horrek, familiaburua langabezian egonik, errenta gutxiko etxeak gero eta gehiago izatea ekarri du. Langabeziak familien pobretzea sortarazten ari da.

Italian, egungo familia-politikak Europako beste herrialde batzutan, eta bereziki Erdialdeko Europakoetan, nabari diren bezalako aldaketa demografikoak isladatzen ditu.

Izan ere, familiak, erakunde gisa, garrantzi handia du oraindik ere italiarrentzat, bai kultu-raren aldetik eta bai egituraren aldetik. EEEko beste herrialde batzuren aldean, ez-legebi-dezko jaiotze oso gutxi izaten da, ezkondu gabeko bikoteak ere gutxi dira eta dibortzio-tasa ere urria da. Familiaren zatiketa gero eta nabarmenagoa da, baina horrek ez du esan nahi familiaren erakunde-zko izaera krisialdian dagoenik, eguneroko bizimoduan autonomia han-diagoa behar duen familia-eredu berri bat sortu dela baizik.

Italiako familia-politikak zenbait kontraesan erakusten ditu. Ofizialki familiaren alde dago, baina praktikan ez du familia aintzakotzat hartzen hainbat arlotan.

---

Italiak ez familiarekiko berezitasunik egiten bere politika fiskalean. Errenta, familia-zamengatiko kenkari fiskalen bidez, familien artean birbanatzerakoan, Estatuak ez die familiei ematen beraiengandik horretarako jasotakoa.

Eztabaida bizia sortu da, bestalde, gizarte eta legearen aldetik ezkondu gabeko bikoteei zor zaien tratamenduari buruz. Europan joera argi bat nagusitu da gai honi dagokionez, hots, ezkondu gabeko bikote guztiei gizarte babespen osoa (gizarte laguntza guztiak) bermatzekoa, legebidezko familiak balira bezala. Legebidezko familiak gizartearen azpisis-tema gisa betetzen duen gizarte eginkizuna ahazteko arriskua dago, agian; baina garrantzitsuena zera da, harreman hauen baitako lokarri eta legezko konpromisuen bidez, pertsonak elkarrekikotasunean oinarritutako pertsonarteko harremanak ezartzen ikasten dutela.

Luxemburg-eko familia-politika ere gizarte politika bat da, egoera demografikoren menpe ez dauden ekinbideetan oinarritua. Alderdi sozial-kristauak (gobernuko bi alderdietako bat) eta elkarte katoliko batek, Familia eta Herri Ekintza deritzona, familiak gizartearen osagai gisa duen garrantzia azpimarratzen dute, eta horrexegatik, hain zuzen ere, familia-politika gizarte politika hutsa da eta ez demografiari lotua, nahiz eta demografiaren egoera nahiko kezkaigarria izan.

Luxemburg-eko familia-politika ekinbide ugari izan da, ideia ezberdinetan oinarritzen da, konpromisu bat eskatzen dutenak, eta ez da jaiotzeen aldeko politika argia. Jendeak ez du arazo honekiko ekimen nabarmenik erakusten eta egoera hau hobetzeko egitarau politikoak ere nahasi samarrak izan dira beti; gauzak horrela, ez dirudi aldaketa handirik izan daitekeenik.

Holandak ez dauka osoko familia-politikarik edo sustrai historikoak dituen politika demografikorik. Holandako gobernuak hezkuntza eta ekonomi politika zehatzei jarraitzen badie ere, ez dauka familia-politika garbi bat. Holandan ez dago osoko familia-politika bat, hau da, politika koordinatua, familiaren egoerari nahiz bere familiakideekiko eta gizartearekiko eginkizunei dagozkien inguruabar guztiak barruhartzen dituena.

Holandako gobernuak ez du eskuhartzeko asmorik erakusten hazkunde demografikoaren arazoari dagokionez. Behin eta berriz aipatzen da holandarren "familia kontzeptu" itxia eta autonomia: kanpokoek ez dute familia arazoetan esku hartzeko inolako eskubiderik. Eta honen erakusgarri, legeak nola babesten duen gurasoen aginpidea aipa daiteke.

80. hamarkadan arreta gehiagoz begiratu zaio emantzipazioari, banakatzeari, kultur gutxiengoaren egoerari eta biztanleriaren adin-egituraren aldaketa gero eta nabarmenagoari.

---

Gobernu holandarraren helburua biztanleria egonkortua da, baina ez du argibiderik agertzen helburu hori nola lortuko den azaltzerakoan.

Portugaleko familia-politikak familiaren bizimoduan eragin zuzena edo zeharkakoa duten Estatuaren eskuhartze guztiak barruhartzen ditu. Familiek Estatuaren babesia izan behar dute, baina, aldi berean, beren eskubideak eta erantzunbeharrak dituzte. Hortaz, familia portugaldarrek gero eta gehiago parte hartzen dute dagozkien egitarauetan eta erabaki-gu-neetan. Familia-politika, beraz, ekonomi, gizarte eta kultur politikei halako familia-kutsu bat erastean datza.

Portugaleko familia-politika teoriari lotu zaio erabat, ondorio praktiko edo benetakorik ekarri gabe.

Espainiak, berriz, 1975.ean onartu zuen familia-politika berria. Honek ez du esan nahi familia-politika berezia garatu denik, legegintz erakundeek, apurka-apurka, familia-bizimodua araupetzen duten arau batzuk aldatuz joan direla baizik. Familia espainiarrak gizartean ere antzematen diren oinarritzko aldaketa batzuk bizi izan ditu.

Berdintasuna eta sexuen arteko bereizkeriarik eza direlako konstituzio-printzipioen eta etxetik kanpo lan egiten duten emakume ezkonduentzako lege onuren bidetik, 1989.ean, emakume guztientzako amatasunagatiko baja-aldia 14 astetatik 16 astetara luzatu eta lanean gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzen zuen legea onetsi zen. Praktikan, emakume guztietarik % 40 dira biztanle aktiboak.

Lege berriak, halaber, gurasoek beren seme-alaben ongizatea zaindu beharra daukatela ezartzen zuen, haiek sortu eta jaio ziren unean zuten harremanaren lege-egoera edozein izanik ere.

Familia babesteko hainbat lege aurrikusi diren arren, ez da aski. Horrela, esate baterako, legeak hileroko 375 pezetatako laguntza baino ez du ezartzen emakumearentzat eta 250 pezetatakoa seme-alaba bakoitzarentzat 18 urte egin artean, 4. seme-alabarengandik hasita diru-kopuru hori % 25etik % 35era eta gehiago gehitzen delarik.

Errentaren gaineko zergaren aitorpenean ere seme-alaba bakoitzarengatikoen kenkariak ez dira seme-alaba asko dituzten familiei behar bezalako laguntza emateko modukoak. Jendea ere gaur egungo lege sistemaren zenbait alderdiren aurka agertzen da, lanean diharduten emakumeei haurtzaindegi gehiago eskaintzeko dirulaguntzarik ez izatea, etxebizitza-gabezia eta horren garestia izatea, eta seme-alabak ikastetxe pribatuetara bidaltzen dituzten familiak seme-alaben hezkuntza bi aldiz ordaintzen dutela, besteak beste, aipatzen dutelarik.

---

Politikari batzuek ugalkortasun-tasaren beherakada eta jaiotze-tasa maila egonkortu bate-raino igotzeko neurri egokiak hartzeko ahalbidea aztertzen dute. Aldi berean, langabeziak eta txirotasunak herrialdearen zenbait tokitan duten eragin latza dela medio, eskualdeko hainbat gobernuak familia babesteko lege bereziak moldatu dituzte.

Azterlan ugari erakutsi duten bezala, gizarte politikan, helburu nagusitzat ugalketa eta en-pleguaren arteko auzia arintzea duten neurriak, materialak, diruzkoak zein zerbitzu maila-koak, onuragarriak suertatzen dira, nahiz eta eragin handirik ez izan. Hortaz, oso nabar-menak ez izanik ere eragin onuragarriak espero ote daitezkeen eta gizarte politikan helburu eta lehentasunak banatzeko inbertsio garrantzitsuekin bateragarriak ote diren neur-tu beharra dago.

Azpimarratu beharrekotzat jotzen dut gaur egun horren aipatua den Suediaren kasuan, gi-zarte politika ulertzerakoan, ez dela iraganaldiaren alderdia behar bezala kontutan hartua izan. Orokortasunera zuzendutako nazioarteko ikuspegiak (Olof Palmek 1984.eko Mexiko-ko Konferentzian azaldutakoa, adibidez) eta erabat indibidualista den etxeko ikuspegiak la-burbil lezakete Suediak 80. hamarkadan jarraitutako gizarte-bidea. Suediaren kasuan, urte gutxiren buruan, jaiotze-kopuruaren beherakadari buruzko eztabaida, lehenik biztanleriaren adin-egituraren eraginari eta, bigarrenik jaiotze-kopuruaren beherakadak lan merkatuan sor-tarazitako ondoreei lotutako eztabaida, eskulanaren inportazioak dakartzen ondorioei bu-ruzko eztabaida bihurtu da, Suedian oso bizia izan den eztabaida, alegia. Ugalketari lotu-riko gizon eta emakumearen rolen arteko bateragarritasuna geroago hasi zen aintzakotzat hartzen, hasiera batean emakumearen emantzipazioarekin, ondoren rolen bateragarritasu-na, geroago rolen arteko berdintasuna, eta azkenik, indibidualizazioa, azken hau, E. Nas-man-en iritziz (1990) garrantzizkoenena. Europako herrialde ezberdinak etapa horietako zeinetan dauden erabaki beharko banu, eta horien artean Italia, esate baterako, ez nuke le-henengo mailan jarriko egiturari dagokionez, noski; baina, azkenengoan ere ez, indibi-dualizazio handiagoari loturik. Gaur egun prozesu honek garrantzi handia duela dirudi: Suediaren kasua ikurtzat har daitekeelako, tradizioz gizarte politika zabal eta bizia izanik, bertan bateratasun demografiko eskasa dago; eta azken finean, Estatuak hiritarraren bere-zitasunak isladatzen dituelako. Gizarte politiken banakatzea lortuko bada, beharrezkoa da prozesu logiko eta koherente bat, beti ere, hobetu daitekeena, jakina. Indibidualizazioari baino gehiago pertsonalizazioari jarraitzen diona A. Marc-ek (1990) diona lortzeko, hau da: "pertsonalismoaren eta indibidualismoaren arteko nahasmendua, zenbaitek ezkutuko as-moz sistematikoki eragiten duen nahasmendua behin-betiko argitzeko".

---

Hiri handietan eta Europako gainontzeko herrialdeetan prozesu hau martxan da jadanik; Europako herrialde askotan kategoriatuak diren gizarte politikan proposaturiko ekintzen oinarria. Suedian, adibidez, familiaren sorreran adostasunezko batasunen eta ezkontzen artean bereizketarik ez dagoenez gero (adostasunezko batasunen dibortzioa ere aipatzen da), ezkontza barruko eta kanpoko ugalketa erkatzea alperrikakoa da eta Suediako ezkontzaz kanpoko jaiotze-kopurua EEEko herrialdeetakoarekin erkatzea ere bai. Bi gertakariok erkaezinak dira, bilakaera honen ondorio zuzena.

Amatasuna eta lana batera eramateko beste era batzuk aipatu behar dira edo, suediarrek esaten duten bezala, "Lan iharduera, aitasuna/amatasuna eta norberaren garapena sinkronizatu eta batera eramateko artea". Sinkronizazioari buruzko ideia honek, ugalkortasuna eta lanaren bidean denbora aldagai gisa sartzen duela, etorkizun handikoa ematen du familia-politikei dagokienez. Denbora partzialeko enpleguaren hedapen masiboa, asteko egun jakin batzutan soilik edo ihardunaldiaren laurdenean bakarrik lan eginez, erakundeen malgutasunaren ondorioz lortu da, Europako beste herrialde batzutan oraindik lortu behar bada ere. Herrialde hauetan ere antzerako bideari jarraitu behar zaio eta egungo iraganaldia ezberdina da, izan ere, tradiziozko faktoreak direlakoan eragina oraindik ere oso nabarmena baita. Bere norabide politikoa nahiko aurreratua den arren, Suedian, oraindik ere, balore erabat tradizionalak isladatzen dituzten jokoak somatzen dira: seme-alabetarik % 80 bere guraso naturalekin bizi dira, Europako eta Mediterraneoko herrialdeetan bezala gutxi gora behera; bestelako egoera dakusagu, aitzitik, batasun askeen dibortzioari edo ihardunaldiaren laurden bateko denbora partzialeko lanari dagokienez. Dibortziaturiko gurasoen seme-alabetarik % 8 baino ez dira aitarekin bizi, hau da, % 92 amarekin edo bakarrik bizi dira. Dibortzio gehiago izaten da adostasunezko batasunetan ezkontzen artean baino; eguneroko etxeko lanak emakumeak egiten ditu eta ez gizonak (Italia bezalako beste herrialde batzutan bezala, 6. taulan azaldutako ondorioekin); emakumeek ihardunaldiaren erdia erabiltzen dute lan egiteko, gizonak ez; honek emakumearen iharduera-maila handia erakusten digu; eta beste hainbat ezaugarri, kontzeptu mailan nahiz eragin mailan Europako beste herrialde askotakoa baino aurreratuagoa eta ezberdina den bilakaera batean erabat tradiziozkoak diren faktoreek dirautela erakusten duten ezaugarriak alegia.

Arauzko parentesi bat egin beharko banu, bide hauek bakoitzaren ezaugarriekin batera aintzat hartu behar direla esango nuke, baina beti ere haien merituek neurtuz. Hau da, indibidualizazioaren prezioa Europako gizarte guztientzat onargarria ote den galdetu beharra dago. Demografiaren ikuspegitik, ekonomi joeren datuek aukera horri eusten diotela di-

---

rudi, halako neurri bat ezkontzaren, norberaren, lanaren amatasunaren bizimoduaren malgutasunari lotzen baitzaio, malgutasun horrek ahalbidetzen duen sistema antolatua, babestu eta iraunkor baten barruan. Hortaz, malgutasuna eta banakako aukeren gehikuntza garrantzizko bi mezu dira, Suediako esperientziaz hartutakoak.

Zebait herrialdetan, ordea, Suedian gizartearen onura dakarren indibidualizazio orokorra krimen bat bailitzan hartzen da. Beste batzutan, berriz, aukera indibiduala sarritan norberak nahi duena egiteari lotzen zaio. Gizartearen interesa aintzat hartzen duen aukera indibiduala bultzatzen dueneko gizarte-motaranzko bilakaera nabari da. Malgutasunaz gainera, Europako gizartearen bilakaera garaikideari dagokion erronka ere hor dagoela uste dut, izan ere, gaur egungo Europan, indibidualizazioaren aldeko aukera baldintza jakin batzutan gauzatzen baita, hoberenak ez izan arren, daudenenen artean hobetsiak diren ongizate, askatasun, kultur tolerantzia eta demokrazia-baldintzetan alegia. Erakundeetako eta kulturazko erronka bat da Europarentzat eta, oro har, mundu aurreratuarentzat, gainontzeko tokietan ez baitirudi epe luzerako hautabide berri eta konplexuak proposatu eta gauzatu daitezkeenik.

Eta amaitzeko, neurri hauen ondorio garbia emakume bakoitzeko bi seme-alaba izatea ote den eta abarrez gairi, prezio handi samarra ordainduta emaitza xumeak lor daitezkeelako susmoak ditugu; indibidualizazioaren prezioa, alegia, herrialde askotan aldaketa psikologiko eta sozial nabarmenak sortarazi dituena, beste batzutan iraganaldi edo saioaldi bat erakusten duen bitartean. Europako herrialde guztiek, maila ezberdinez, luzaro jarraitu izan dioten finantza eta laguntzazko jokabideak emaitzak izan ditu, dudarik gabe, baina akatsak ere bai. Enpleguaren eta ugalketaren arteko bateragarritasuna errazteko gizarte politikak arrakasta eta harrera zabala izan du estatistika adierazlearen arabera; demografiaren aldetik, ordea, eta ugalkortasunari dagokionez, bereziki, nahi ez bezalako ondorioak ekarri ditu. Azkenik, jaiotzeen eta ugalketaren alde eta seme-alabak nahiz amatasuna babestera zuzendurik dagoen testuinguru psikologiko eta kulturalaren zantzuak nabari direnean, aurreko neurriez gainera, gizarte politika bereziak eskatzen direla ematen du: hauxe izan daiteke erronka nagusia ugalketari dagokionez aukera indibidualaren nahiz bikotearen arloetan ere eskuhartze politikoa bidezkoa dela aldarrikatzen dutenentzat.

## *Lana eta familiaren arteko bateragarritasunari buruzko gogoetak*

Familia-rolen birmoldaketa dela eta, gizarte modernoetan gaur egun martxan dagoen prozesuaren helburu nagusiak dimentsio publikoaren eta pribatuaren arteko zatiketa zurruna deuseztatu eta lehena bigarrenaren mesedetan luzaroan mugaturik eduki dituzten baldintzak ezabatzea. Azterketa honen bidez, emakumeak lanaren eta familiaren arteko bitartekari gisa eta balore sistemaren irakasle eta iraurarazle gisa betetzen duen zeregin garrantzitsua azaldu eta azpimarratu da.

Peter Laslett-en (1991) azken planteamenduen arabera, ohizko familia tradizionala hautsi egin dela esan genezake, eta horrenbestez, familia politika berriek ezin dutela hura erabat berrantolatzen ihardun, ez eta behar ere. Egoera bestelakoa da gaur egun: familia ez da, dagoeneko, norbanakoen elkarrekin bat soziologia modernoak familia nuklearraren ideiaz iradokitzen duen moduan, eta gainera ez da familia-motarik arruntena Europan. Jakina, europar familia-eredua ez da eredu tradizional absolutua, ez eta eredu nuklear absolutua; batez ere, biztanleriaren zahartze-prozesua dela medio, pertsona bakarreko familiak gutxitu egin direlako (ikus, adibidez, Italia 1888, 1. taula). Europar familia tradizional berri batez mintza gintezke, familia txikiagoak eta baita familia-taldeak eratzeko joeraz. Dibortzio tasa, esate baterako, aztertzen badugu, ezkondu aurretiko elkarbizitzak ez duela ezkontzarako egonkortasun gehiago bermatzen ikusiko dugu: dibortzio indizerik deigarrienak dituzten herrialdeak (Danimarka, Suedia, Britainia Handia, Alemania, Holanda), hain zuzen ere, ezkondu aurretiko elkarbizitza eta bizikidetzak, hala nola, ezkontzaz kanpoko jaiotzeak, jokabide gisa errotuago daudeneko herrialdeak dira (2. taula). Herrialde hauetako batzutan, gaur egun, ezkontzaz kanpoko jaiotzeak estatistika datu bihurtu dira, adostasunezko batasunak familiak bezalako statusa baitu lege, erakunde, gizarte nahiz psikologi mailan; Europako beste herrialde batzutan, aitzitik, bide luzea egin beharra dago oraindik parekidetasun horretara heltzeko. Estatistikek erakusten digutenez, Europan 10 urte baino gutxiago duten umeetarik % 90 gutxi gorabehera euren aita eta amarekin (edo zenbait kasutan alargundutako aitarekin edo amarekin) bizi izaten dira; % 5 dibortziatu nahiz bananduriko amarekin, eta gainontzekoak bestelako baldintzetan: Alemaniako esperientzia hau (3. taula) Europako egoeraren ezohizko sintesi bat da, gertaeren normaltasun estatistikoa hirurogeitamar

---

eta larogeigarren hamarkadetako ikuspegi eta printzipio ideologikoena ez bezalako maila batean ezarriz.

Laslett-ekin bat etorritik, seme-alaben munduratzeari gurasoek gizartearekin duten harremana erabateko heldutasunera iritsi ez denean gertatzen da: erabat gizarteratu gabe daudenean eta, beraz, lehenengo seme edo alabaren hezkuntzari aurre egiteko arazo gehiago dituzte, gaur egungo jaiotzerik gehienak lehen seme edo alaba direlarik. Jokaerei dagokienez, ezkondu aurretiko sexualitatearen eta hezkuntza-mota horren ondorioz, umezaroa laburtu egin da, M. Livi Bacci-k zioen bezala, "gizartearen nerabezaro luzatua" sortaraziz hortik datozen ondorioekin: ikasketaldi eta goi-mailako heziketa luze eta bukaezinak familiaren tentsura, familia egonkor baten sorrera atzeratzea, etab., lanari dagokionean gertatzen den bezala, beste era batzuetako elkarbizitza aske eta batzutan prekarioez konpentsatzen direnak. Horrela bada, nerabezaro luzatuak, jaiotzeen kontrol egokiagoarekin —oraindik ere hobe badaiteke ere— batera, amatasunari eta ugalkortasunari uko egitea dakar, aurrerapenaren eta garapenaren ondorio naturalizat jotzen dena.

Horrez gainera, mugapen estatistiko berria behar duten egungo baiezpeneren artean, lanean diharduen emakumeak ez duela seme-alabarik izaten dioena aipatu beharra dago. Europari dagokionez Charlotte Hohn-ek eskaini dituen datuen arabera ("L'enfant et la famille", Luxemburg, 1991.eko maiatzak 27-29), (ikus 4 eta 5. taulak), 5 urtez beherako seme-alabak dituen emakumearen enplegu maila, EEEen, Grezia eta Holandako % 30 eskasetik, Danimarka eta Portugalako % 60raino doazela ikus daiteke. Honek zera erakusten digu, Europako Ipar eta Hegoaldea ezin daitezkeela sailkapen hau egiteko oinarritzat hartu. Horrez gainera, 10 urtez beherako seme-alabak dituzten emakumeen enplegu mailari erreparatuz gero, batzabesteko langabezia mailatik behera daudela ikus dezakegu EEEko herrialde guztietan.

Azken ikerlan enpirikoek azaltzen dutenez, "harrigarria gerta badaiteke ere, lehenago lan egiten zuten eta lehen seme edo alaba munduratu ondoren lanari eutsi zioten emakumeen eta etxekoandreak ziren edo izan zirenen arteko ezberdintasunak oso txikiak dira. Emakumeak ihardunaldi osoan edo ihardunaldi erdian lan egiteari dagokionez ere ez zen diferentzia nabarmenik antzematen" (E. Bernhardt, 1988).

Estatistika datuek, batetik amatasuna eta seme-alaben hezkuntza eta, bestetik, amen lana bateraezinak direlako baiezpenera ezeztatzen egiten dutela dirudi; alabaina, horrek ez du esan nahi bateragarritasun hori arindu denik, ez eta emakumeari erraza gertatzen zaionik.

*Beste dogma  
batzuri buruzko charrak:  
geldikortasuna eta askatasuna  
harreman-sistema baten aurrean*

Testuinguru honetan topiko ugari nagusituz joan dira. Horietako bat, seme-alabarik gabeko familiak edo pertsona nagusien presentzia nabarmena duten familiak gizarte arduratsua, antolatua, baketsua eta zaintzailea, gorabeherarik, arazorik, desorekarik eta etsipenik gabeko gizartea eratzen dutela dioena da. Nahikoa arrunta den beste topiko batek emakumearen emantzipazioa etxetik kanpo lan egitean datzala dio. Era berean, antisorgailuak ez omen dira seme-alaba gutxiago izateko erabiltzen noiz izan behar diren erabakitzeko baik. Hortaz, seme-alabak munduratzeari buruzko erabakiak lasaiago hartuko dira. Seme-alabak munduratu belaunaldiak ordezkatzeko, hauxe omen da demografoen mezu inplizituetako bat. Seme-alabak munduratu biztanleria ordezkatzeko, horrela interpretatzen dute politikariek mezu berbera, geldikortasun demografikoa gizartearen egonkortasuna eta dau den erakundearen egokitasunaren isla izan daitekeela uste izateko joera ageri ohi dutelarik. Mezu horrek badu akatsik, ordea, hala politikaren aldetik, nola demografiaren aldetik, izan ere, argi baitago geldikortasuna beste faktore batzuri loturik dagoena, eta gaur egungo biztanle-kopuruari eutsiz gero, ekonomiaren, gizartearen nahiz erakundearen egoera ezin hobeari eusten zaiola esatea gezur hutsa baita.

Eztabaida honetan gauza asko esan dira emakumeaz eta gazteen "askatasunaz". Nolanahi ere, emakumeari eta seme-alabei dagokien rola baldintzak eta alde ahulak garrantzizko eztabaidagaia dugu oraindik ere. Zorionez, estatistika-adierazleek ez omen dute faktore hau egiaztatzen herrialde aurreratuetan: hezkuntza luzeagoa eta trinkoagoa; ongizate handiagoa eta lan gehiago; osasun hobea, zer esanik ez; luzaroago bizi izateko itxaropena; presentzia handiagoa gizartean eta egitarau gehiago emakume nahiz gazteentzat; elkarte gehiago; politika gehiago, etab. Agian, aurkakoaz mintza gintezke gizonen kasuan. Hala ere, aldean iraulketa, gizarte "ahulezia"-ri dagokionez, urruti samar dago oraingoaz. Hortaz, arazoa ez da estatistika arlokoa, ez da estatistika ezberdinei loturiko arazoa, edo, beste modu batez esateko, ez da gizon, emakume edo umeen arazoa, harreman mailakoa baizik, eta beraz, baita harremanei dagozkien estatistika eta politika mailakoa. Bikotearen harre-

---

manak, ama eta seme-alaben artekoak, seme-alaben eta familiaren artekoak, harreman iraunkorren eta iragankorren artekoak.

Politikari dagokionez, P. Donati-k (1991) zioen bezala: "90. hamarkadarekin batera sentsibiltate berria etorri zaigu. Umeen beharrezane hobeto erantzuten dien gizartea sortarazi nahi badugu, beharrezko arretaz aztertu behar dugu familientzako laguntzarik ezak umeean duen eragina. Familiak gizarte-erakundeen (eta bereziki gizarte segurantzaren) eta gobernuen solaskide egokiak izango dira maila guztietan. Zehazkiago esanda, familiarekiko politikak eta umeekeko politikak ez dira ezkutatu behar. Gaur egun, iraganean ez bezala, badakigu gizarte segurantzaren arloko politikek, umeen eskubideak eta familiarenak tarteko direnean, bannandurik ez dauden arren, bereiziak diren eskubidetzat hartzen dituztela, nahiz eta eskubideok elkarri egokitu elkartasunean eta osoko giza-garapenean oinarritutako jokabideak moldatu ahal izateko. Eskubideok "erlaziozkoak" izan beharko dute, aldi berean gizakiaren osoko garapena bermatuz. Europako gobernuak, gaur egun, iraganekoak ez bezalako gizarte politika egokiak moldatu beharraz jabetu dira".

Familiari doazkion neurri politiko ugari dago, hala nola, bikoteari, gurasoei edo per capita errentari doazkionak; oso gutxi dira, ordea, umeei zuzenduak. Demografian ere sarritan aipatzen eta aztertzen dira "dibortziatuen seme-alabak, baina, hau hala izanik ere, zenbat ume txiro dago? edo zenbat umek jasaten dute lan ihardunaldi bikoitzaren, langabeziaren edo ezkutuko ekonomiaren zama, zenbat ume bizi dira etxerik gabe edo bizikidetzan, edo behe-auzuneetan, edo diru-sarrerarik gabe?"

Hortaz, estatistikak ez dira aski, edo zehazkiago esateko, egitura demografikoa (naturala den ala ez) eta mugimendu demografikoa (naturala den ala ez) bereizteko ohitura duen demografiari arlo berri eta ezberdina ageri zaio, hau da, orain harreman demografikoak azterteari ekin dion noraezean eta arrisku handiz. Arlo honetan ere, demografiak bere jatorriaren eta bere zeregin zientifikoaren eraginaren menpe ageri zaigu: batetik, genetiko-biologikoa eta, bestetik, sozioekonomikoa. Alde bietatik, harreman demografikoen analisia zehaztu gabea da, hala definizioei dagokienez, nola datu estatistikoei dagokienez.

Gérard Carlot-ek dioenez, estatistika-gutxiegitasunari aurre egiteko erronka, definizioei aurre egiteko erronka da, hau da definizio berriak behar ditugu, gaur egun dauzkagunak gutxiegi baitira. Lehenago ere aipatu ditugu ezkontzaz kanpoko jaiotzeak, ezkontza-tasak nola eragiten dion ugalkortasunari, harremanak eta seme-alabak behar bezala kontutan hartzen ez dituzten familia-politikak, demografiaren ikuspegitik aztertutako seme-alabak, helduen menpeko gisa eta ez aparteko aztergai gisa hartzen direnak, etab.

Familiaren, ekonomiaren eta Estatuaren arteko harremanetan egonkortasun berria erdietsi beharra gera eta nabariagoa da gizarte guztietan. Hau politikaren eraldaketa prozesu baten ondorioa da, ongizatearen mugen eta familiei atxekitako zeregin berrien arteko oreka aurkitzeko prozesuaren ondorioa, alegia.

Ongizatearen gizarteak jasaten ari diren krisialdiaren ondorea. Hirurogeitamargarren hamkadaren amaieratik, herrialde askok euren gizarte politikak eraldatu beharrean aurkitu dira sektore publikoaren hazkundeak sortarazitako gehiegizko gastuaren kariaz.

Horren gaizki hartuak diren zergetara jo ezinik, bestelako neurri berriak proposatu dira, nola edo hala familiaren lanaz eta etxeetako malgutasunaz baliatu nahi izan dutenak familiakideei laguntza eta arreta eskaintzeko.

Illo horretatik, gizarte eta familia-politiken auzira heltzen gara: zeini doazkio politika hauek?, eta zergatik? Bikote, norbanako, familia-gutxiengo bati? Gizarte helburua betetzen al dute? Helburu demografikoa? Bestelako helburuak? Non daude seme-alaba eta familia gehienentzako politikak? Eta non daude, nolabait esateko, familia-mota estatistikoarentzako eta gizarte-egoera estatistikoentzako politikak?

“Gizarte garaikideetan, gurasoen eskubide indibidualak gehitu ahala, seme-alaben eskubideak murriztu egiten dira. Eskubidea etxeko atarian gelditu behar da”, hala mintzatu zen Pariseko Sorbonako Unibertsitateko Jean Carbonnier irakaslea, “Umea, Familia eta Gizartea” izenburupean Luxenburg-en izan zen Mintegian (1991.eko maiatzak 27-29). Bidezkoa al da jarrera hau? Etxeko hormek, legearen erasoz zulaturik ere, zutik diraute.

Legeen ikuspegitik, familia talde bat bezala hartu behar da eta ez pertsonarteko harreman-multzo bat bezala; giza-azpisistema bat (W. Dumon, 1991), edo elkartasunezko talde bat, edo belaunaldiarteko harremanetarako baliabide bat, edo eskubide eta lege-arazo bat, halako adierazpideetako edozeinetan familia, dagoeneko, ez baita norbanakoen batuketa hutsa bezala hartzen teoria berrietan.

Honek nazioarteko Konbentzio handietarako ere balio du, berrietan ere oso gutxitan bannandu baitira guraso eta seme-alaben arteko harremanak. Demografiaren aldetik, ordea, oso ezaguna ez bada ere, salbuespen nabarmen bat ageri zaigu Nazio Batuen Biztanleriari buruzko Nazioarteko Konferentzian (Mexiko, 1984) zera adierazten denean: “Gobernuei familien eraketarako eta famili-bizimodurako baldintza egokiak sortarazteko gomendioa lu-

---

zutzen zaie, seme-alabek, beste gauza batzuren artean, beren garapen fisiko, psikiko eta sozialerako ingurune aproposaz baliatzeko aukera izan dezaten bermatuz" (26. gomendioa). Denboraren erabilera eta banaketa eztabaidagai bizia da gaur egun. Umeez, helduek, zaharrek, denek egiten dituzte behar ez den unean beste adin batzutan egin beharrekoak, eta inork ere ez du egiten bere sasoirako egokiena litzatekeena. Hortaz, ikasleek derrigorrezko heziketa-aldi gogaikarriak jasaten dituzte, eta gazteek, sarritan arrazoi ekonomikoen poderioz, ezkontza, familia egonkor baten sorrera eta ugalketa atzeratu beharra izaten dute. Heldutako gazteek berehala sartu litezke lan merkatuan, alabaina, gizarte aberatsetan, gaztelangabeziak itxarotera behartzen ditu. Enpleguren bat duten helduek ere, eta bereziki erabateko enplegua duten adin-talde batzuek, beren kultur zaletasunak eta bestelakoak alde batera utzi beharrean aurkitzen dira, lanaren eskakizunekin eta tentsioarekin bateraezinek baitira. Eta azkenik, zaharrek, sarritan lanari goizegi utzi behar izan diotenak, ezer egin gabe egotera beharturik izaten dira, bazterreko zereginen bat betetzeko prest izan arren eta, agian, ikasi edo eguneraturik egoteko asmoa eta nahia izan arren.

Egoera hau are latzagoa da emakumeen kasuan, lan arloan sartzea nekezagoa zaiela, seme-alabak munduratu eta hazteko gero eta denbora gutxiago dutela eta, goiz jubilatu eta luzarago bizitzeko igurikapenak izanik, lanari utzi ondoren iharduerarik gabe luzaro egon behar izaten dutela kontutan harturik.

Oro har, biztanleriaren eta, bereziki, emakumeen "adina" eta "egutegia" aldagaiak estatistikoki neurtu eta sozialki sinkronizatu beharra argi dago. Hipotesi eztabaidagarria bada ere, borondatez eta garaiz balia litekeen erretiro bat interesgarria izango litzateke gizonen aldean gehiago bizi izango diren emakumeentzat, batazbesteko zazpi urte horiek egokietsi dezaten sasoi hartu eta seme-alaben munduratzeko eta hezkuntza hobetzen emateko, jubilatzeko adina era berean atzeratuz. "Seme-alabak munduratzeko borondatez eta sasoi hartutako erretiroa" eztabaidagarria izan daiteke, baina ez da alde aurretik baztertu behar.

Legeen eta gizarte sistemen akatsak direla eta, eztabaida biziak sortu izan dira sarritan, kasu honetan arazoa zera da, legeak eta politikek lehendik diren egiturak zaintzen dituztela, adin, familia eta gizatalde ezberdinetako gizon nahiz emakumeei beren bilakaera zibil eta sozialean sortzen zaizkien beharrezan zehatzetara eta, halaber, gero eta mugatuagoetara egokitu gabe.

Hau modernismoa al da? Ez du familia-rolen kontzeptu tradizionalen birnagusitzea iradokitzen testuinguru ekonomiko, politiko eta sozial oso ezberdin batean? Azterlan enpirikoan

---

eta ikerlanen emaitzak tesi bien aldeko erantzunak eskaintzen dizkigute, horregatik da interesgarria politika moderno ezberdinei buruzko azterketa konparatiboa eta haien ebaluazioa egitea XXI. menderunzko gizarte bilakaerari begira.

Alderaketari ekin zaio dagoeneko. Alde batetik frantziarren esperientzia eta berorretan oinarritu zirenak daude. Ukaezina da, nire iritziz, esperientzia honek jaiotzeen aldeko politika baten sorrera adierazten duela kultur ikuspegi etengabe eta iraunkor baten testuinguruan, jatorri iraultzailea duelarik, eta orain 200 urte baino lehenagoko hondar politiko-kulturalarekin, biztanleriarengan oso errotua, eta, orain, gaur egungo egoerara egokiturik, ezagutzen dugun familia politikan isladatzen dena. Hau garrantzi handiko gertaera omen da, bi gogoeta iradokitzen baititu: lehena, "eredu" hau aukeratuz gero, epe luzerako iharduketa pedagogikoa eta hezkuntza arlokoa beharko litzatekeela, eta iharduketa horretan egitura guztiak sartuko liratekeela, hots, zahartzeari, jaiotze-tasari eta emigrazioei hertsiki loturik daudenak ez ezik, herrialde horretako politika mundua, gizartea eta erakundeak oro har. Demografia arloko neurriek, beraz, biztanleriari dagokion epe luzerako ikuspegi kultural iraunkor bati egokituak izan beharko dute; gaur egun, nazio-izaerarik ez daukana, Europa mailako dimentsioa baizik, eta seguru aski azpinazioko dimentsio etniko edo eskualdekoa. Ikuspegi honetatik, elkarre-prozesuaz gaindi, garrantzi handiagoa du gertaera hau tokian-tokian bereiztea, norbanakoen beharrianak eta gizartearenak, emakumearen beharrianak eta lanarenak, norbanakoen ekintzak eta kolektiboak bateratu eta elkarri egokitu ahal izateko. Bide honi jarraitu diezaiokegu, nahiz eta, baliabide eta erakundeen bitartez, bi dimentsioen topagunera hurbildu gaitezkeen: topagune hau bikotearen, emakumearen, jaiotzeen eta familiaren dimentsioari gehien hurbiltzen zaiona da. Gure herrialdeetan, topagune hau ez da Estatua izaten. Herrialde atzeratuenetan, familiek, leinuek, etnia bereko taldeek eta abarrek osotzen dute; eta mundu aurreratuan, toki botereak deitzen zaienek. Ikuspegi honen arabera, gizarte politikaren, erakundeen eta erantzunkizunen bereizketak zenbait aurrerapauso ematea ahalbidetuko luke.

Honek azken aztergai garrantzitsu batera garamatza: familia eta demografia-politiken malgutasuna.

Hortaz, lau puntu aztertu behar dira. Lehena zenbatekoari dagokio. Biztanleriaren zenbatekoa eta guztizko tamainua ahaztu behar ez den gaia dela deritzot, biztanleriaren tamainua ez da politika demografikoei buruzko iradokizunen oinarri bihurtu behar, batez ere maila guztietako geldikortasuna lortzeko abiapuntu gisa erabili nahi bada. Hala ere, arrakasta

---

izango badute, argi dago tokian-tokiko biztanlerien tamainuak aintzat hartu eta gizarte eta familia-politika ezberdinei ekin behar zaiela.

Bigarren puntua emakumeei eta lanari buruzkoa da, funtsezko arazoa, alegia. Hirugarren seme edo alabaren jaiotzea errazten duen politika formula teknikoa eta gizarte neurria da. Politika hau, oro har, seme-alabak izateagatik jendeari eta bereziki emakumeei ordainduz gauza liteke, munduko beste toki batzutan emakumeei seme-alabarik ez izateko ordaindu nahi izan dieten bezalaxe. Denok dakigu langabetuei gizarte-liskarrak ekiditearren ordaintzen zaiela, adinekoei, berriz, ongizate-zerbitzuak ez direlako horren egokiak, eta nire herrialdean ezinduei ere bai, nahiz eta benetako ezinduak ez izan, bestela arazo gehiago sortuko lituzkete eta. Hauexek dira, hain zuzen ere, dagoen sistemaren malgutasun-eza ikutu gabe, aukeraketaren lehenetako faboratzeko joera duten gizarte politiken ondorioak.

Emakumea eta lana delako gaia aztertzerakoan, denbora faktorea erabakiorra da. Diruaren aldetik oso ezberdinak diren neurrien inguruan ari gara eztabaidatzen, alabaina, amatasuna zein aitatasunagatiko baimenei dagokienez oso antzerakoak dira, egun edo aste gutxi batzutan baino ez dira ezberdintzen, oso denbora gutxi, alegia, lehenengo, bigarren edo hirugarren semea edo alabaren jaiotzea bezalako arazoaren aurrean. Gertaera honek familiarentzat eta gizartearentzat horren garrantzitsua izanik, aste bat edo bi ez ezik, gurasoen bost edo sei urtetako dedikazio eskusiboa beharko luke.

Txosten honetan lehenago ere aipatu den moduan, hau demografia mailan ere litekeena da, bizitza-igurikapen berriak kontutan harturik batez ere; eta eredu gisa, bikoteek eta emakumeek borondatezko erretiroaz balia litezke urte batzutan zehar, ugalketari buru belarri ekiteko. Teoria eta teknika mailan, arazo honek konponbidea izan dezake lanbide sistemaren malgutasun-eza ikutu gabe; Suedian nolabait aurre egin diote arazo honi, baina, Italian, Frantzia bezala, ez dago amatasuna dela eta enplegua kolokan jartzerik. Bigarren puntu honi amaiera emateko, Europako Kontseiluari familia erregulazioez egindako lehenengo txostena aipatuko dut, 1974.ean Jacqueline Hecht-ek egin zuena, alegia. Erregulazio horien etorkizuna European aztertzerakoan, Hecht And.ak baliogarriak diren zenbait ondore azaldu zituen: neurriek, berez, ez dute ugalkortasunaren bilakaera aldaraziko, horretarako, umearen gizarte-onartzea aldatu beharko da. Edo beste modu batez, familiak bere hiritasuna galdu duenetik, jaiotze berriak onartzeari muxin egiten dion gizarte-eremu bat sortu da (P. Donati, 1991).

Amaren lana eta umearen onespeneraren ildotik, berriro ere, norbanakoen aukeraketaren eta gizarte interesaren arteko auzia azaltzen zaigu. Batetik, norbanakoen aukeraketa gizarte in-

---

teresari naguzitzen zaiola esaten da; bestetik, gizarte interesa norbanakoen aukeraketari naguzitzen zaiola esaten da. Baiezen bietan nabari dira kontraesanak, norbanakoak eta gizarteak gauza berbera baitira. Bai norbanakoen aukeraketa eta bai taldearena gizarte aukeraketa da. Arazoa bateratzerakoan sortzen da, ezberdintasunak asmatu eta arindu egin behar direlarik. Hortaz, beharrezkoa denean, hala gizarteak nola norbanakoak amore eman beharko dute, norbanakoak, berak aukeratutakoa gizartearekin erabat edo hein batez desados dagoenean; eta gizarteak, norbanakoen aukeraketa, gure herrialdeetan izan beharko lukeen bezala, ia erabateko askatasun, ongizate eta hezkuntza-baldintzez edo aukeratzeko gehinezko askatasuna bermatzen duen garapen maila batez hartzen denean.

Jorratu beharreko azken puntua, berriz, gizarte politikak gizarte eremuaren neurriei dago-kienez dugu. Nazioak Europaren zutabe nagusienetakoak dira, eskualdeekin eta talde etnikoekin batera; Europaren aberastasunik ederrena kultura ezberdinetan datza, eta ez dago Europaren batasunak edo talde etnikoen susperketak Europaren txirotzea ekarriko dutenik sinisteko arrazoirik. Dena den, berriro ageri zaigu arazo ezagun bat, hots, bateraezintasuna. Politika mailan bezala, gizarte mailan ere Europa ez da talde etnikoen aurka agertu behar, ez eta azken hauek nazioen aurka. Elkartearen batze-prozesuak, Akta Bakarrean ere ezarrita zegoena, ez du bateraezintasuna edo osagarritasuna aipatzen, sorospidetasun printzipio aipatzen da esplizituki. Gizarte politiketan ez dago sorospidetasun printzipiorik oraingoz, eta demografiari eragiten dioten gizarte politiketan oso nekez aurki daiteke Europako herrialde ezberdinetan dauden hautabideen artean. Printzipio honek, agian, gizarte eta familia-politikak gizarte aurreratuenen garapen-mailara egokitzeko proposamenak aztertu eta moldatzeko baliabideren bat eduki dezake bere baitan.

---

## *Bibliografia*

- AA. VV. (1989), "Familles et politiques familiales en Italie". Material di studio e ricerche, 22. alea. Dipartimento di Scienze demografiche, Università degli studi di Roma "La Sapienza", Erroma, apirila.
- AA. VV. (1990), Family change and future policy. Family policy study Centre eta J. Rowentree Memorial Trust (Argit.). York.
- ANDORKA, R. (1990), "Models of demographic policy: the Ungarian case". "Popolazione, società e politiche demografiche per l'Europa" batzarrean aurkeztutako txostena. Fondazione Giovanni Agnelli, Turin, apirila.
- BERNHARDT, E. (1988), "Fertility and Employment". Population Change and European Society delakoari buruzko Sinposiumean aurkeztutako txostena, European University Institute, Florentzia.
- BLUNDELL, R. (1988), "The Changing Structure of the Labour Force: Married Women and Lone Parents". Population Change and European Society delakoari buruzko Sinposiumean aurkeztutako txostena, European University Institute, Florentzia.
- CAGIANO DE AZEVEDO, R. (1989), Pubblica opinione, classe politica e cooperazione internazionale in campo demografico. Affari Sociali Internazionale delakoan, 1. alea. Franco Angeli Editore, Milan.
- CAGIANO DE AZEVEDO, R. (1990), "Modelli di politica familiare". "Popolazione, società e politiche demografiche per l'Europa" batzarrean aurkeztutako txostena. Fondazione Giovanni Agnelli, Turin, apirilak 4-6.
- COMMAILLE, J. (1989), Family policy and population policy. The uncertainties of Frenbch Policy. Family Policy in EEC Countries delakoan, Katholieke Universiteit Leuven. Belgika.
- COMMISSION DES COMMUNAUTES EUROPEENNES (1991), Familles et Politiques. Tendences et Evolutions en 1988-1989. Brussela.
- DONATI, P. (1986), Le politiche sociali nella società complessa. Franco Angeli Editore, Milan.
- DONATI, P. (1987), Famiglia e Politiche Sociali. Franco Angeli Editore, Milan.
- DONATI, P. (1991), "Politique familiale et en matière d'enfance en Europe: problème et perspectives". "Child, Family and Society" Europar Mintegian aurkeztutako txostena, Luxemburg.

- DUMON, W. (1991), Family Policy in EEC Countries. Departement Sociologie, Katholieke Universiteit Leuven, V/677, Leuven.
- EUROPAKO KONTSEILUA (1990), "Séminaire sur les tendances démographiques actuelles et modes de vie en Europe" delakoaren aktak. Strasburg, iraila.
- EUROPAKO KONTSEILUA (1990), Household Structures in Europe. Population Studies, 22. alea, Strasburg.
- F.P.S.C. (Family Policy Study Centre) (1988), The way we were? Family Policy Bulletin delakoan, 5. alea. J. Wheatley (Argit.). Londres, uda.
- F.P.S.C. (1990), Family Policy Bulletin. 8. alea. J. Wheatley (Argit.). Londres, udaberria.
- F.P.S.C. (1989), Children under five, Fact Sheet 7. Londres, apirila.
- F.P.S.C. (1990), One parent family, Fact Sheet 3. Londres.
- GOLINI, A.; CANTALINI, B.; LORI, A. (1990), "Le trasformazioni della popolazione in Europa, Prospettive e problemi demografici e sociali". Istituto de Ricerche sulla Popolazione. CNR. Erroma, urria.
- HOHN, C.(1991), "L'enfant et la Famille". "Child, Family and Society" Europar Mintegian aurkeztutako txostena, Luxemburg, maiatzak 27-29.
- ISTAT (1989), Caratteristiche strutturali delle famiglie nel 1983 e nel 1988. Notiziario, anno X, 13. alea, azaroa.
- ISTAT (1989), Gli incidenti in ambiente domestico. Notiziario delakoan, S.4, F.41, 17. alea.
- KAMERMAN, S.B.; KAHN, A.J. (1978), Family Policy, Government and Families in Fourteen Countries. Columbia University Press, New York.
- KIERNAN, K.; WICKS, M. (1990), Family Change and Future Policy. Rowntree Memorial Trust delakoak Family Policy Studies delakoarekin batera argitaratua, York.
- LASLETT, P. (1991), "Children, Family and Society". Europar Mintegian aurkeztutako txostena, Luxenburg, maiatzak 27-29.
- LENNEER-AXELSON, B. (1990), "Low birth rates in Sweden: a question of changed family ideals and sex roles". Planned Parenthood in Europe delakoan, 18. lib., 2. alea.
- LIVI BACCI, M. (1990), "L'Italia e L'Europa di fronte alle politiche demografiche". "Popolazione, società e politiche demografiche per l'Europa" batzarreko aktak. Fondazione Giovanni Agnelli, Turin, apirila.
- MARC, A. (1990), Fin de l'esclavage. L'Europe en Formation delakoan, Presses d'Europe Argit., Niza-Paris.

- 
- MESZAROS, A. (1990), Birth control in Hungary, Changing legal conditions. Planned Parenthood in Europe delakoan, 19. lib., 2. alea, iraila.
- NASMAN, E. (1990), "Models of demographic policy: the Swedish case". "Popolazione, società e politiche demografiche per l'Europa" batzarrean aurkeztutako txostena. Fondazione Giovanni Agnelli, Turin, apirila.
- PALOMBA, R. (1990), "Le opinioni degli italiani su natalità e politiche demografiche". "Popolazione, società e politiche demografiche per l'Europa" batzarrean aurkeztutako txostena. Fondazione Giovanni Agnelli, Turin, apirila.
- SGRITTA, G.B.; FADIGA ZANATTA, A.L. (1990), "Families et politiques familiales en Italie". Materiali di studi e ricerche, 22. alea. Dipartimento di Scienze Demografiche - Università degli Studi di Roma "La Sapienza", Erroma, apirila.
- WILS, M.; CHESTER, R. (1989), "Family Policy and Population Policy: the United Kingdom Situation". Family Policy in EEC Countries, Katholieke Universiteit Leuven. Belgika.

# 1. TAULA. Pertsona nagusiak sexuaren, adinaren eta familia-egituraren ezaugarrien arabera - Italia 1988 (a)

SEXUA/ADINA	FAMILIA-EZAUGARRIAK			GUZTIRA
	BAKARRIK	BIKOTEAN (b)	BESTE PERTS. BATZUREKIN (c)	
<b>GUZTIZKO DATUAK (MILAKOTAN)</b>				
Gizonak:				
65-74 urte bitartekoak	127	1.686	104	1.917
75 urtez gorakoak	162	856	177	1.195
<b>GUZTIRA</b>	<b>289</b>	<b>2.543</b>	<b>281</b>	<b>3.112</b>
Emakumeak:				
65-74 urte bitartekoak	764	1.264	477	2.505
75 urtez gorakoak	893	431	746	2.069
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.657</b>	<b>1.694</b>	<b>1.223</b>	<b>4.574</b>
Gizonak eta Emakumeak:				
65-74 urte bitartekoak	891	2.950	581	4.122
75 urtez gorakoak	1.054	1.287	923	3.264
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.946</b>	<b>4.237</b>	<b>1.504</b>	<b>7.686</b>
<b>FAMILIA-EZAUGARRIEN ARABERAKO PORTZENTAIK</b>				
Gizonak:				
65-74 urte bitartekoak	6,6	88,0	5,4	100
75 urtez gorakoak	13,5	71,6	14,8	100
<b>GUZTIRA</b>	<b>9,3</b>	<b>81,7</b>	<b>9,0</b>	<b>100</b>
Emakumeak:				
65-74 urte bitartekoak	20,2	66,7	13,1	100
<b>GUZTIRA</b>	<b>36,2</b>	<b>37,0</b>	<b>26,7</b>	<b>100</b>
Gizonak eta Emakumeak:				
65-74 urte bitartekoak	20,2	66,7	13,1	100
75 urtez gorakoak	32,3	39,4	28,3	100

(a) Ikus 1. taulari dagokion oharra.

(b) Talde honetan bikotean bizi diren pertsona nagusiak sartzen dira, beste pertsona batzurekin edo eurek bakarrik bizi direnak.

(c) Talde honetan beste pertsona batzurekin, baina ez bikotean bizi diren pertsona nagusiak sartzen dira.

Iturria: ISTAT

**2. TAULA Ezkontzaz kanpoko jaiotzeak Europan, 1970-1990. Ezkontzaz kanpoko jaiotzeak, guztizko jaiotze-kopuruaren aldean % tan**

<b>HERRIALDEA</b>	<b>1990</b>	<b>1980</b>	<b>1970</b>
Suecia	52	40	18
Danimarka	46	33	11
Norvegia	36	15	7
Alemaniko E.D.	34	23	13
Frantzia	28	111	7
Erresuma Batua	27	12	8
Austria	24	18	13
Finlandia	21	13	6
Belgika	16	4	3
Irlanda	15	5	3
Portugal	15	9	7
Hungria	13	7	5
Luxemburg	13	6	4
Bulgaria	11	11	9
Holanda	11	4	2
SESB	11	9	8
Yugoslavia	11	8	8
Alemaniko E.F.	10	8	6
Espainia	9	4	1
Txekoslovariako Errep.	8	6	6
Suitza	6	5	4
Italia	6	4	2
Polonia	6	5	5
Grezia	2	2	1

*Iturria:* Europako Konzilioa, 1992.

### 3. TAULA Alemaniako Errepublikaren 1967.etik 1971.era bitartean jaiotako ume-belaunaldiaren familia egoera

100 UMEETARIK, BIZI ZIREN...	...ONDOKOEKIN: -4 URTE	5 - 9 URTE	10 - 14 URTE	15 - 17 URTE
Ezkondutako amarekin	0,9	0,7	0,7	0,6
Alargundutako amarekin	0,8	1,4	2,3	3,4
Alargundutako aitarekin	—	0,3	0,6	0,8
Dibortziaturiko amarekin	1,8	3,8	4,7	6,1
Dibortziaturiko aitarekin	—	0,4	0,6	1,2
Bananduriko amarekin	0,5	0,5	1,4	1,4
Bananduriko aitarekin	—	—	0,4	0,5
Guraso ezkonduak hauetarik:	95,4	92,9	89,4	85,9
Ordeko gurasoak (gutxi gorabeh.)	4,0	6,0	11,0	15,0
Guraso biologikoak (gutxi gorabeh.)	91,4	86,9	78,4	70,9

Iturria: Schwarz, 1989

### 4. TAULA 10 urtez beherako semea edo alaba duten emakumeen partaidetza lan merkatuan, Eeko herrialdeetan, 1988

HERRIALDEA	LANDUNAK %		LANGABETUAK %		PARTAI- DETZA- PORTZENTAIA %
Belgika	54	16	12		66
Danimarka	79	32	8		87
Alemania Federala	38	21	6		44
Grezia	41	5	6		47
Espania	28	4	10		38
Frantzia	56	16	10		66
Irlanda	23	7	8		31
Italia	42	5	8		50
Luxemburg	38	10	2		40
Holanda	32	27	8		40
Portugal	62	4	6		68
Erresuma Batua	46	32	8		54
EE	44	17	8		52

(...) Denbora partzialeko enpleguaren proportzioa

Iturria: Moss, 1990

**5. TAULA 5 urtez beherako semea edo alaba duten emakumeen ihar-  
duera-portzentaiak EEko herrialdeetan, 1988**

HERRIALDEA	IHARDUNALDI OSOA		IHARDUNALDI PARTZIALA		LANDUNAK GUZTIRA	
	DENAK	BAKARRIK	DENAK	BAKARRIK	DENAK	BAKARRIK
Belgika	37	32	16	10	53	42
Danimarka	46	39	29	31	75	70
Alemania Federala	16	26	18	15	34	41
Grezia	33	41	6	6	40	47
Espania	24	44	4	6	28	50
Frantzia	38	45	14	8	52	53
Irlanda	19	13	6	4	25	17
Italia	35	53	5	5	40	58
Luxemburg	27	73	9	2	36	75
Holanda	4	7	25	11	29	18
Portugal	54	56	6	9	61	65
Erresuma Batua	11	6	25	12	37	18
EE	25	26	15	11	40	37

*Iturria:* Cohen, 1990

**6. TAULA Sexu eta kondizio berbereko 100 pertsonatarik, lagina egin  
aurretiko urtean zehar etxeke istripuren bat gutxienik jasan  
duten 14 urtez beherako pertsonen portzentaia (Italia, 1989)**

KONDIZIOA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK ETA EMAKUMEAK
Landunak	2,4	4,1	3,0
Enplegu bila	2,2	3,2	2,7
Etxekoandreak	—	6,2	6,2
Ikasleak	1,7	1,6	1,6
Jubilatuak	2,9	7,2	4,9
Bestelakoak	1,8	4,1	2,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>2,4</b>	<b>5,1</b>	<b>3,8</b>

*Iturria:* ISTAT (1989)

---

**JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ**

**CORDÓN**

**Demografia Erakundeko  
Zuzendaria. (Madril)**

*Demografia*

*eta*

*familiarekiko*

*politika*

*Espanian*

## Demografiaren egoera Espainian

Demografiari dagokionez, Europako herrialde aurreratu guztien ezaugarri nagusia heldutasun demografikoa bada ere, herrialdeon artean ezberdintasun adierazgarriak antzematen dira, ugalkortasunaren aldetik, batez ere. Azkenaldiko bilakaerak hirurogeita hamargarren hamar-kadaren erdialdean nagusi zen egoeraren alderantzizkoa sortarazi du: gorenko ugalkortasun-mailak, gaur egun, Europako iparraldeko herrialdeetan ageri dira, Hegoaldeko herrialdeetan (Italia, Portugal, Grezia, Espainia), aitzitik, ugalkortasun-indizeak urriagoak dira eta herrialde hauetako zenbaitetan urrituz doaz oraindik ere (ikus 1. taula eta 1. grafikoa).

### 1. TAULA Ugalkortasun-indize sintetikoak Europan

	1970	1975	1980	1985	1990
Belgika	2,25	1,74	1,69	1,51	1,59
Danimarka	1,95	1,92	1,55	1,45	1,67
Frantzia	2,48	1,93	1,95	1,82	1,80
A.E.F.	2,02	1,45	1,45	1,28	1,45
Grezia	2,34	2,37	2,23	1,68	1,43
Italia	2,43	2,21	1,69	1,41	1,29
Norvegia	2,24	1,98	1,72	1,68	1,93
Espainia	2,84	2,78	2,21	1,64	1,32
Erresuma Batua	2,45	1,81	1,89	1,80	1,84
Suedia	1,94	1,78	1,68	1,73	2,14

*Iturria:* Espainia: Delgado eta Fernández Cordon (1990).

1990: norberaren zenbatespena ENERen behin-behineko datuen bidez.

Gainontzeko herrialdeak: Europako Kontseilua (1991).

Espainian, gerrate-urteetatik hona, ugalkortasunaren bilakaera berezia izan da Europako ipar eta erdialdeko herrialde gehienetan ezagutu denaren aldean. Munduko bigarren gerratearen ondoren Europan nabari den baby-boom delakoa hemen ez da 1955. urterarte gertatzen, eta 1964. urterarte irauten du, urte horretan gehieneko ugalkortasunera heltzen dela emakume bakoitzeko hiru seme-alabarekin. Harrez gero, Mediterraneoko beste herrialde batzutan bezala, Italia, Portugal eta Grezia kasu, ezarian-ezarian gainbehera egiten du 1976.era bitartean, eta horrek Europako gainontzeko herrialdeekiko ezberdintasun nabarmena sortarazten du, sasoi horretan zehar Europako hainbat herrialdetan ugalkortasuna nabarmenki jaitsi baitzen. 1976.ean, Espainiako ugalkortasuna orduko Alemania Federalekoarena baino bi bider handiagoa zen.

Ugalkortasun indize sintetikoa, hau da, emakume bakoitzeko batazbesteko seme-alaba kopurua, asko murrizten da 1977.etik aurrera. 1976.ean 2,8ra iristen zen ia-ia, eta 1990.ean 1,30era<sup>1</sup> baino ez, hots, emakume bakoitzeko 1,5 seme-alaba gutxiago, edo % 53,5eko murrizketa hamalau urteren buruan. Orain Espainia da, Italiarekin batera, Europako ugalkortasunik urriena daukan herrialdea, Europakoa eta mundu osokoa ere bai (Eurostat, 1990). Ugalkortasunaren beheranzko joera ez da oraindik eten, hala ere, 1982.etik 1990.era bitartekoa, 1976.etik 1981.era bitartekoarekin erkatuz gero, beherakada hori moteldu egin dela esan daiteke.

Espainian ez bezala, Europan nolabaiteko birpiztea antzematen da ugalkortasunari dagokionez, lehenengo murrizketak gertatu zireneko herrialde guztietan nabari den birpiztea, alegia, baita oso beheko mailetaraino iritsi ziren herrialdeetan ere, AEF ohian edo Danimarkan, esate baterako. Hortaz Frantzia 1,82ko indizea zegoen 1985.ean eta 1,80koa 1990.ean, Erresuma Batuan, 1,80 1985.ean eta 1,84 1990.ean, gaur egungo arauak kontutan harturik, goiko mailetan mantentzen direla esan daiteke. Alemania Federala zenak ere hazkundera erakusten du, motela baina etengabea, eta horrela, 1990.ean emakume bakoitzeko 1,45 seme-alaba izatera iritsi zen, 1985.ean behea jo ondoren 1,28ko batazbestekoaz (Conseil de l'Europe, 1991). Kasurik ikusgarriena Suediarena da, gaur egun horixe baita Europako herrialde aurreratuenen artean goreneko ugalkortasun-maila daukana (Hoem, 1992).

## 2. TAULA Ezkontzak eta ugalkortasuna Espainian 1986-1990 (Urteko indize sintetikoa)

URTEA	EZKONTZAK (1)	UGALKORTASUNA (2)
1986	0,66	1,60
1987	0,68	1,52
1988	0,68	1,49
1989*	0,69	1,36
1990*	0,68	1,32

(1) Emakume bakoitzeko lehenengo ezkontza-kopurua batazbeste.

(2) Emakume bakoitzeko seme-alaba kopurua batazbeste.

\* Behin-behineko datuak.

*Iturria:* Norberak egina, ENERen datuetan oinarriturik (MNP eta adinaren arabera proiektzioak).

<sup>1</sup> ENERen behin-behineko datuetan oinarritutako zenbatespena.

Espainian gertatu den jaiotza-tasaren beherakadak bi kausa ditu: batetik, urteroko ezkontza-kopuruaren murriztu egin dela eta, bestetik, ezkondu horien ugalkortasuna ere urriagoa dela. Ugalkortasun orokorraren gutxitzea dakarten bi gertaera hauen zergatiak, berriz, ezberdinak dira eta beren demografiarekiko ondorioak ere bai. Eraturik dauden familien ugalkortasunaren murrizketak hirugarren semea edo alaba izateko maiztasunari eragiten dio, batipat, eta are gehiago ezkontza-tasaren urripenak lehenengo semea edo alabaren jaiotza eragozten duen neurrian, ezkontzaz kanpo jaiotakoen kopurua, hots, lehen ez-legebidezko ugalkortasuna zeritzona, aldi berean gehitzen ez bada behinik behin. Zenbait herrialdetan halako jaiotzak gero eta ugariagoak dira. Danimarkan, esate baterako, 1988.ean jaiotakoen artean, % 45 ezkontzaz kanpo jaio ziren eta Frantzian, urte berean, % 26 izan ziren. Espainian, aldiz, proportzioa gehituz doan arren, 1970.eko % 1,4tik 1988.eko (ezagunak diren azken datuak) % 9,2ra, aipatutako herrialdeetako mailetatik nahiko urrun gaude oraindik. Gure herrialdean jaiotzen diren 100 umetarik 81 guraso ezkonduengandik sortua denez gero, ezkontzaren bilakaera funtzeskoa da ugalkortasunak jarraitutako bidea ulertzeko. Herrialde aurreratuenetan ohizkoa den bilakaera bati jarraituz, Espainian ere murrizketa nabarmena antzematen da ezkontza-indizean. 1975.etik 1985.era bitartean, azken urte honetan behea jo zela, % 41eko gutxitzea izan da, 1,05etik 0,62ra. 1980.erarteko beherakada (% 25ekoa), funtsean egutegi mailako aldaketei zor zitzaizela esan daiteke (ezkontzak geroratu egin ziren). Ondorengo urteetan beherakada latzagoa antzematen da, bi urtetako epe laburrean (1983-85) ezkontza-tasa ia % 16an gutxitzen da, eta horrek intentsitatearen murrizketa baten adierazgarri ere izan zitekeen, finean ezkondu egiten diren pertsonen proportzioarena, alegia. Azken urteetan, 1986.etik 1990.era, ezkontza-tasak gora egin du pixka bat, 0,68raino<sup>2</sup> 1990.ean.

Herrialde askotan, ezkontza-tasa gutxitu ahala, gizarteak gero eta gehiago onetsi eta legeriak nahiz jurisprudentziak aintzatetsi eta babestu egiten dituzten ezkondu gabeko bikoteak ugarituz doaz. Espainiako gizarte bizikidetasun-era berri hauen aurrean jasankor agertzen bada ere, arlo honetako iturri urrien arabera, ez dirudi gure herrialdean fenomeno hori horren hedatua denik.

CIS delakoaren 1991.eko inkesta batean azaltzen denez, batasunetako % 2 baino ez dira adostasunezkoak. Ezkondu gabeko bikoteen portzentaia askoz ere handiagoa da gazteen

<sup>2</sup> ENEn behin-behineko datuetan oinarritutako zenbatespena.

artean (ia % 12 20-24 urte dituztenen artean), hortaz, belaunaldizko ondorio bat nabari da, gizarte-fenomeno berria baita, eta baliteke adin-ondorioa ere izatea, zeren bikote hauetako zenbait finean ezkondu egingo baitira (Delgado Pérez, 1991).

Ezkontza-tasaren murrizketak eta ezkontzeko adinaren geroratzeak ugalkortasun orokorrean duten eragina oraingoz ez da zehazki ezagutzen, hein batez ezkontza eta jaiotzei buruzko behin betiko datuak berandu ezagutzen direlako. Aipatu beharra dago, ezen, oraingoa bezalako egoeretan, ugalkortasun urriko egoeretan, alegia, ezkontzeko adinak eragin txikiagoa izan ohi duela bikoteek erdietsitako ugalkortasun-mailari dagokionean. 1987.ean, adibidez, ezkontza bakoitzeko ugalkortasunaren indize sintetikoa 1,77koa zen 20-24 urtez ezkonduetako emakumeentzat eta 1,66koa 25-29 urtez ezkonduetakoentzat. Hortaz, batzutan, ezkontzaren geroratzeak ez du halako eragin nabarmenik ugalkortasunean, baina, dena den, seme-alabak munduratzeko adina geroratu egiten du eta, beraz, abagadunezko adierazleak (ISF) ere unean-uneango gutxitze bat erakutsiko du.

### 3. TAULA Bi ezkondu-kohorteren ondorengoak (emakume bakoitzeko batazbesteko seme-alabak) sei urteren buruan

ADINA EZKONTZEAN	LEHEN JAIOTZA		JAIOTZA-KOPURUA GUZTIRA	
	1974-75	1981-82	1974-75	1981-82
< 20	1,04*	0,88	1,97	1,35
20-24	0,94	0,82	1,70	1,21
25-29	0,90	0,84	1,65	1,31
30-34	0,81	0,78	1,60	1,32
35-39	0,64	0,61	1,18	0,97
<b>MULTZO OSOA</b>	<b>0,92</b>	<b>0,82</b>	<b>1,68</b>	<b>1,24</b>

\* MNP delakoan 1975.ean izan zen aldaketaren ondoren, jaiotza-ordena atxekitzerakoan errakuntzak izan daitezke, batez ere adinik gazteenetan.

*Iturria:* Norberak egina MNP (ENE) delakoaren datuak erabiliz.

Ezkontzen ugalkortasunaren bilakaera aztertzerakoan ere murrizketa bat nabari da, zati batean, behintzat, bikoteengandik jaiotakoan berandutzeari atxeki dakiokiena (ikus 2. taula). 1974-75ean ezkonduak, batazbeste, 2,2 seme-alaba izan dituzte 1987.erarte. Aurreneko 6 urteetan 1,68 seme-alaba izan zituzten; 1979-80an ezkonduak, aldiz, 1,48 seme-alaba izan zituzten eta 1981-82an ezkonduak 1,24 aldi berean. Kohorteen arteko ezberdintasuna ez da horren nabarmena urte gehiagoz ezkondu ziren emakumeen kasuan (ezkontzean 35 urte baino gehiago zituztenen artean izan ezik). Antzemandako murrizketa hori jaiotzen

---

geroratze hutsari leporatuz gero, gehikuntza are handiagoa izan beharko du emakume gazteengan, hura arintzen lagunduz eta, horrenbestez, hipotesia finkatuz.

Jaiotzaren egoerak, aurrean labur-labur aztertu dugun bezala, bi interpretazio onartzen ditu, emakumeei gizartean suertatu zaien egoera berrira egokitzeko bi familia-estrategiari dagozkienak.

Lehenengo interpretazioa jaiotzeen geroratzean datza: seme-alabak geroago munduraten dira, baina finean munduratu egiten dira. Jokabide honen arrazoiak ezberdinak izan daitezke, hala nola, seme-alabarik ekarri aurretik, familiaren ekonomia finkatu (etxebizitzaren erosketa, etxea hornitzea, etab.) eta lanbidea nahiz enpleguaren egonkortasuna, emakumearena batez ere, finkatu nahi izatea. Eta jokabide honen ondorioetako bat zera da, bitzita tarte berezitan zatitzen dela nolabait, hau da, zati batzuk lanari ekiteko dira eta beste batzuk amatasunari, zatitze honek emakumeak batez ere eta, gehienetan, emakumeak soilik ikutzen dituela. Geroratzearen estrategia berezkoa izan daiteke eta ez erabakitakoa, esan nahi baita, amatasuna alde batera utzi ondoren, lanbideren bat duten emakumeak batipat, hogeita hamar urte betetakoan seme-alabak izateko nahia agertzen dela.

Bigarren interpretazioaren arabera, emakume gazteenek seme-alaba gutxiago izango dituzte eta, beraz, etorkizunean ere ez dira areagotuko gaur egungo indizeak. Hipotesi honek emakumeen gizarte-bidezkoketa eremu pribatutik eremu publikora igaro dela edo igarotzen ari delako egitatea du oinarritzat. Gaur egun, emakumeen gizarte-legebidezkotasun bakarra ez da ama izatea eta, beraz, aski da beharrezko seme-alabak izatea norbere amatasunahia asetzeko eta gero eta bigunagoa leunagoa den gizarte-presioari aurre egiteko. Helburu hauek, gaur egun, seme edo alaba bat edo bi izanik bete daitezke eta familia ugariagoa izateko bultzagarriak gero eta bitxiagoak dira.

Demografiaren egungo egoerari buruzko bi irakurketa hauek ez dira bateraezinak. Elkarrekin suerta daitezke, baina bata nahiz bestearen nagusitasuna geroko bilakaerak eta onar daitezkeen baliabideen izaerak ebatziko dute.

Adierazitako ezberdintasunak izanik ere, bi interpretazioak bat datoz puntu batean, hots, emakumeen eginkizun berriek sortarazitako familia-bizitza modernoan eta ugalketa demografikoaren gizarte-antolaketaren arteko kontraesana azaleratu dela. Eremu pribatuko atal bat izaki, tradizioz familien eta, beraz, emakumeen ardura izan den ugalketaren zama, badirudi, orain arteko baldintza berberetz eraman ezina suerta dakiekeela familia berriei eta hauek dutela halakorik onartu nahi. Kontraesan hau gainditzea da, hain zuzen ere, gaur egun planteatzen daitezkeen politika demografikoen helburua.

## 2.

# *Jaiotzarekiko laguntza espainiar legerian*

Espainian indarrean dagoen legerian ez dago jaiotzeen murrizketari aurre egiteko jaiotzeak bultzatzeko xedea aitor dezan araudirik. Hala eta guztiz ere, gure legeriak badauzka, familiarekiko babespen eremuan, zerga-sistemaren bidez eta Gizarte Segurantzako laguntza-sistemaren bidez, amatasuna eta seme-alaben zaintza errazagotu ditzaketen zenbait xedapen.

### 2.1

#### ZERGA-SISTEMA

#### ETA FAMILIA

PFEZ delakoaren helburua, errentaren gaineko edozein zergarena bezalaxe, gastu ahalbi-deak kargatzean datza, horretarako, bere mugatzaile nagusia erabiltzen duela, sarrera maila, alegia. Horrela arrazoitzen da zergaren aurrerakortasuna, zeren, behin oinarritzko beharrianak betetakoan, goiko sarrera-tarteak baztergarriagoa litekeen kontsumorako dirrela jotzen baita. Familia batek bere sarreretatik halako kontsumora zuzendu dezakeen zatia, sarreraren zenbaterainokoak ez ezik, familiakide-kopuruak ere mugatzen du, zalantzari gabe, zeren familia ugari batek sarrera handiagoak behar baititu urriagoa den beste batek bezalako bizitza-mailari eusteko. Seme-alaba gehiago dituzten familiak ez kaltetzearren, ordaindu beharreko kuota, batetik, familiaren sarrera guztiak (den-denak, Estatuarengandik jasotakoak ere bai) eta, bestetik, familiaren tamainua aintzakotzat harturik zehaztu behariko litzateke. Azken hori alde batera utzita, sarrera-mailari soilik erreparatzen zaionean (G.Calot-ek "aduanariaren araua" deitzen dion egoera [Calot, 1992, 65.orr.]), zergaren aurrerakortasuna dela medio, familia ugaria izanik oinarritzko gastuei aurre egiteko baino erabiltzen ez diren sarrera-tarteei karga tasa handiak aplikatzen zaizkie. Arau hau erabat bidegabekoa da, kontribuzio-gaitasuna kargatzen duen tasa seme-alaben kopuruarekin batera gehitzen baitu.

Berdintasuna izango bada, zergen ondoren bizitza-maila berbera duten helduek zenbateko berdina ordainduko dituzte (Calot, 1992), dagokien familiaren tamainua edozein izanik ere. Arau honen honek familia ugariak ez kaltetzea bermatzen du, baina jakina, bizitza-mai-

---

lak parekagarriak izango badira, seme-alaba gehiago dituzten familiek sarrera handiagoak izan behar dituzte. Seme-alaben zama munduratu dituen familiak darama oraindik ere.

Seme-alaben zama dela eta Estatuak familiei benetako laguntza ematen diela esan ahal izateko, familiei ezartzen zaizkien era guztietako kenkariak (zerga arlokoak, gizarte segurantzarengatikoak, etab...) eta kontzeptu guztiengatik jasotzen dituzten transferentziak, parekagarria ez ezik, hau da, familia ugarienen bizitza-maila ez beheragotzeaz gainera, bizitza-mailak parekatzeko helburua ere hurbildu egin beharko luke (Calot, 1992).

Bizitza-mailak parekatzeko sistemaren bidez, tamainu ezberdinetako familiak, zergak ordaindu aurretik sarrera-maila berdina dutenak, zergak ordaindu ondoren ere bizitza-maila berdina izan dezaten lortzen da, hots, bizitza-maila, sarrerek baino ez dezatela mugatu eta ez seme-alaben kopuruak. Calot-en iritziz, bi modalitate hauek, berdintasuna eta parekatasuna, Estatuak familiei emandako laguntzaren bi muturrak izan beharko lukete: berdintasunaren zero gradutik, familia ugarietara inolako kargarik ezartzen ez diona, parekatasunaren goreneko graduraino, seme-alaben zama heldu guztien artean banatzeko logikari erabat jarraitzen diona. Honek zera esan nahi du, familiarentzako zerga-onuren sistema balioztatzeke, kontribuzio-berdintasuna bermatzen duen sistema hartu behar dela erreferentziazat, zerga-neutraltasuna, alegia, eta ez sarreretan soilik oinarritutako zerga-ordainketa, familiaren tamainua kontutan hartzen ez duena, alegia, sistema honekin zenbat eta seme-alaba gehiago izan, orduan eta zerga gehiago ordaintzen baitira.

## 2.2

## ZERGA-ONURAK ESPAINIAN

Espainian ez da Frantziako familia-kozientea bezalako edo antzerarakoa metodorik erabiltzen, oinarri ezargarria familiaren dimentsioaren arabera zuzendu ahal izateko. Horren ordez, Espainiako zerga sistemak kargurako familiakide bakoitzeko kenkari batzuk onartzen ditu kuota zehazterakoan. Ezkontidearengatik ere zenbateko bat kendu daiteke hartzaile bakarreko baterako aitorenpenetan, eta era berean, zergadunarekin bizi den 30 urtez beherako (lehenagoko adin-muga, 1991.eko erreformaz aldatu zena, 25 urtetakoa zen) seme edo alaba ezkongabe bakoitzarengatik, sarrerarik ez daukanean beti ere, zenbateko bat ken daiteke, 1991. urtean kuotako kenkari horrek kargurako seme edo alaba bakoitzeko 20.000 pezeta jo zuen eta 1992. urterarte ez da eguneratuko familia arrazoiengatik bes-

---

te kenkari guztiak bezalaxe, horrela, inflazioa dela medio, zerga-onuren benetako murrizketa bat sortaraziz. Kenkari berbera da seme-alaba guztientzat, zenbatgarrena den aintzat hartu gabe.

Fiskotasunaren eragina, familiaren tamainuari dagokionez, ez da kuotaren kenkarietara mugatzen, kargurako seme-alaben osagarritzko kontsumoa kargatzen duten zeharkako zergak ere (BEZ delakoa batipat) kontutan hartu behar baitira. BEZaren gehikuntzaren eta kenkariaren arteko diferentzia izango litzateke benetako zerga-onura, diferentzia positiboa denean, jakina. Gutxi gorabeherako kalkulu baten bidez (Fernández Cordón, 1990) erakutsi daiteke biztanleriaren zati txiki batek, erdi/behe mailako sarrerak jasotzen dituen, hain zuzen, baino ez duela zerga-onura garbi bat lortzen; behartsuenak eta sarrerarik handienak dituztenek, ordea, zergak ordaintzen dituzte euren seme-alabengatik. Seme-alaba txikien haurtzaindegiko gastuen zati bat zergarintzeko aukera, 1991.eko erreforman sartutako aukera berria, mugatu-samarra da, izan ere, urteroko gehienezko kenkaria 25.000 pezetatan ezartzeaz gainera, beharkizun bikoitza bete behar baita, hots, gurasoek etxetik kanpo lan egitea eta haien sarrera garbiak urteko bi milioitatik beherakoak izatea aitorpena banakakoa denean, eta hiru milioitatik beherakoa baterakoa denean.

Europako Elkarteko zenbait herrialdetan 1990.az geroztik egin diren zerga-erreformek, Espainian bezalaxe, baterako zerga-ordainketatik banakako zerga-ordainketarako aldaketa ekarri dute, familiaren antolamendu berrietara eta emakumeek biztanleria aktiboan duten partehartze gero eta nabarmenagora egokitutako aldaketa, alegia. Aitzitik, herrialde bat ere ez da, kargurako seme-alaben kopuruaren ondoriozko ezberdintasunak zerga bidez arintzeko xedez, haiek bezalako neurririk hartu duenik. Zenbaitetan (Danimarka, Irlanda, Herbehereak eta Erresuma Batua) ez dago kargurako seme-alabarengatik zerga-kenkaririk. Frantzian "splitting" sistema erabiltzen da, beste herrialde baztutan, Belgikan eta Grezian, esate baterako, kenkariak jaiotza-ordenaren arabera gehitzen dira. Beste alde batetik, kenkarien zenbatekoetan ere diferentzia nabarmenak daude. Bi seme-alaba dituen familia baten kasuan, adibidez, guztizko kenketa ia 3.200 Ecu-tara iristen Luxemburgen, 3.000tara Alemanian, 310era Espainian eta 62ra Italian<sup>3</sup>.

---

<sup>3</sup> Pezeta desbalioztatu aurretiko ganbioa.

Familiekiko zuzeneko laguntza, guri interesatzen zaigun arloan, amatasunaren babespean eta kargurako seme-alaben kopuruan oinarritutako familiekiko babespean datza.

Espanian, amatasuna babesteko egungo sisteman erditzerako dohaineko osasun laguntza eta dirulaguntzak sartzen dira. Osasun laguntza horretan, haurdunaldiaren jarraipena, erditzerako laguntza eta semea edo alabarekiko urgazpena osasun-etxetik irten arte. Laguntza hauek jasotzeko eskubidea, oro har, emakume guztiei dagokie, berez Gizarte Segurantzaren kotizatzaileak badira, titular baten kargurako pertsona izateagatik eta, azken finean, herri ongintzaren bidez (Coll Cuota eta Martín Jadraque, 1989).

Dirulaguntza, berriz, lan egiten duten emakumei 16 astetan zehar oinarri arautzailearen % 75eko sorospena ematean datza. Berorren atxikipena betekizun murrizkor batzuren menpe dago, atsedenaldua hasi aurretiko urtean 180 egunez, gutxienik ere, kotizatu izana, besteak beste. Europako gainontzeko herrialdeetan betekizunak Espainian baino askoz ere leunagoak dira.

1985.ean egindako egokitzapenaz geroztik, kargurako seme/alabarengatiko Gizarte Segurantzak egiten duen aldizkako ordainketa baino ez da gelditzen. Horren araubide edo erregimenean ere garrantzizko aldaketak egin ziren Gizarte Segurantzaren kontribuzioz kanpoko laguntzak ere ezarri zituen abenduaren 20ko 26/1990 Legea onetsia izan ondoren. Lege hori indarrean jarri aurretik, familia guztiei hileko 250 pta. (gehi % 25etik % 35era, familia ugaria zenean) ematen zitzairen kargurako seme-alaba bakoitzeko familia-osagarri gisa eta, era berean, 1.050 pta.tatik beherako sarrerak izateagatik laguntza gehigarria, azken honek ordurarte nagusi zen printzipio bat urratu zuela, familia-laguntzen uniformetasunarena, alegia, azken erreformak arau bihurtu duena. Zenbateko hauek, 1971.etik birbaloratu gabekoak, Europako urrienak ziren.

26/1990 Legeak, berriz, Gizarte Segurantzako Sistemaren kargurako seme/alabarengatiko familia-laguntzak aldarazi egin zituen, haien zenbatekoa hilabete bakoitzeko 3.000 pezeta-raino gehituz, jaiotza-ordena aintzat hartu gabe, eta Gizarte Segurantzaren eremuan sartzen ez direnak ere, ordurarte bazterturik zeudenak, barruhartzen dituen kontribuzioz kanpoko modalitate berria ezarriz. Alabaina, eta aurretiaz ez bezala, gehienezko sarrera-mailak ezartzen dira laguntza hauei heldu ahal izateko, eta horrenbestez, familiarekiko babespen izaera garbia galdu eta gizarte arrazoiengatik birbanatzaile-izaera nabarmentzen da.

---

Dirulaguntzaren zenbatekoan dexente gehitu bada ere, Espainia, arlo honetan, Elkarteko herrialdeen zerrendaren azkenburuan ageri da, herrialde horien artean ere, beste arazo batzutan bezala, ezberdintasun nabarmenak antzematen direla. 1991.ean, bigarren seme/alabarengatiko hileko laguntzak, esate baterako, ia 100 Ecu jotzen zuen Belgikan, 87 Frantzian, 23 Espainian eta 9 Portugalen<sup>4</sup>.

## **2.4**

### **FAMILIEN BABESPEN EKONOMIKORAKO SISTEMAREN BALANTZEA**

Kargurako seme/alabarengatiko laguntza sistemaren azken erreforma argi eta garbi urrun-tzen da jaiotzeak bultzatzeko ustezko helburutik, eta, laguntza hauek jasotzeko sarrera-bal-dintza bat ezartzen duenez gero, haren ordeztu, helburutzat sarreraren arteko ezberdintasunak gainditzea duen birbanaketa bertikal klasikoena hobesten du. Baliabide publikoak, funtse-an, familia behartsuenei zuzentzen zaizkie, laguntza jasotzeko eskubidea mugatzen duen gehienezko sarrera milioi batekoa da, pezetatan noski, eta hori arrazoitzeko gizarte birba-naketa aipatzen da, baina, batez ere, behar hainbateko sarrerarik ez izateagatik, PFEZaren aitortpena egiten ez dutelako edo kenkariak baino zerga txikiagoak ordaintzen dituztelako, zerga-onurarik jasotzen ez duten familiei laguntzeko aukera ematen du, Espainian ez baita-go zerga negatiborik edota zerga-mailegurik.

Espainia, Calot-en eskalan, familiaren tamainua kontutan hartzen ez duen aduanariaren araua delakoaren eta berdintasunaren araua delakoaren artean legoke. Ziurtasunez egiaztatzen duen azterlanik ez dagoen arren, ezbairik gabe esan daiteke exakzioen eta laguntzen egun-go sistemak zigortu egiten dituela familiak eta zigor horrek haiek dituzten seme-alaben kopu-ruarekiko lotura zuzena. Egia da, hala ere, zigor hori sarrera-mailarekin batera gehitzen dela eta, beraz, zergaren aurrerakortasuna generatzen zaiola, eta hauxe da, hain zuzen ere, sa-rrerarik handienak dituztenei euren seme-alabengatik are gehiago zerga arintzeko aukera eman ahal diezaien zerga-sistema errefusatzen dutenak erabiltzen duten argudioa, egundoko bidegabekeria izango zelakoan. Hala eta guztiz ere, eztabaidagarria litzateke, jaiotzeen are-gotzea gizarte-helburutzat onartu ahal den unean, zerga-birbanaketarako tresna gisa seme-

---

<sup>4</sup> Pezeta desbalioztatu aurretiko ganbioa.

---

alaben kopuruari eutsi behar ote zaion ala ez. Hala gertatzen da, ordea, zergak ordaintzeko goimailako gaitasun berbera duten bi helduetako batek, seme-alaba gehiago dituenak, alegia, besteak baino gehiago ordaintzen duenean, seme-alabak beste kontsumo-era bat baino ez bailiren. Muga argia ezarri beharra dago, batetik, birbanaketa bertikala, hots, helburutzat zergak ordaindu ondorengo sarrera erabilgarriak orekatzea duena eta, bestetik, birbanaketa horizontala, hau da, helburutzat seme-alaben zama orekatzea duena (horretarako lehenengo urratsa haien araberrako zergarik ez izatea izan daitekeela), bata bestearengandik bereizteko.

## *Lanbide-bizitzaren eta familia-bizitzaren bateragarritasuna*

Lanbide-iharduerari utzi eta epe jakin batez seme-alabak zaintzeko aukera izatea da lanbide-bizitzaren eta familia-bizitzaren arteko bateragarritasuna ahalbidetzeko neurri nagusienetarikoa bat.

1989.az geroztik, amatasunagatiko baimen ordainduak 16 aste dirau, hots, Espainian, Europako Elkarrekin elkartekide diren herrialdeentzat ezarri berri duen 14 astetako gutxienezko epea gainditzen da. Hala ere, Danimarka (28 aste) eta, batez ere, Suediaren aldean nahikoa urri agertzen da, azken herrialde horretan 15 hilabetetako baimena ematen baita, eta gauza bera esan genezake Italiatz, 5 hilabetez.

Baimen honi dagokion ordainketa, Gizarte Segurantzaren kargura, ez da soldata osora iristen lehenago azaldu bezala. Funtzionarioek osakin bat jasotzen dute soldata-galera konpentsatzeko eta zenbait enpresatan ere hitzartutako osakinak izaten dira Gizarte Segurantzak emandakoa gehitzeko, hala ere, hitzarmen kolektiboetako buruzko informazio baturik ez daukagunez, gaur egun oso zaila gertatzen da norainokoak diren jakitea. European, oro har, amatasunagatiko baimenak dirauen artean soldata osoari eusteko joera argia antzematen da.

3/89 Lege garrantzitsuak ekarri zituen aldaketan artean, amatasunagatiko baimenaren iraupena gehitzeaz gainera, seme-alabak zaintzeko hiru urtetako eszedentziaren (soldatarik gabeko baimena) lehenengo urtean zehar lanpostua gordetzeko beharkizuna dago, lan egiten zuten emakumeek lehenetik zeukaten eskubidea. Lehenengo urte hori aintzinasunaren ondoretarako ere zenbatu egiten da eta, 1990.az geroztik, Gizarte Segurantzari aktiboki ordaindutako kotizazio-aldizkat hartzen da ondore guztietarako. Neurri honen bidez, amatasunak emakumeen lanbide-karrerari sortzen dizkion eragozpenak arindu egin nahi dira, nahiz eta hark sortarazitako arazo ekonomikoak ez konpondu.

Aipatutako Legeak ekarri duen beste aldaketa garrantzitsu bat gizonen eta emakumeen ohizko roletan dago. Amatasunagatik eratorritako onurak, haurdunaldiari eta erditzeari zuzenean lotutakoak izan ezik, aitari ere eskaintzen zaizkio. Egungo legeriaren arabera, aita eta ama lanean dihardutenean, amatasunagatiko baimenaren azkenengo lau asteetan aita gozatu daiteke baimenaz (amaren osasuna arriskuan egon ezik), seme-alabak zaintzeko es-

---

zedentzian guraso biak txandaka daitezke, hala nola, jaio ondorengo lehenengo bederatzi hilabeteetan zeharko edoskitzaro-baimenaren eguneroko orduari dagokionez.

Ekarri dituen aldaketa guztiak aintzat harturik, 1989.eko erreforman sexuen arteko berdintasuneranzko bilakaera itzulezina eta gizartearentzat desiragarria dela isladatzen da eta, helburu jakinak zeintzuk diren kontutan hartzeke, bide hori urratzeko lagungarriak eta mesedegarriak diren neurriak bultzatzen ditu. Puntu honetan, seme-alabak munduratu eta zaintzeko, emakumeak, lantegietako eta bulegoetako lanari utzi eta etxeratu daitezzen, edo handik irten ez daitezzen, aldarrikatzen duen planteamenduaren aurka dago, horretarako dirulaguntzak ematea proposatzen dela, dirulaguntza jaso dezan emakumeak ordainduta-ko lanik ez izatekotan, noski (batzutan dirulaguntza hauei "etxekoandreaen soldata" deitzen zaie)<sup>5</sup>. Aitzitik, emakumeek gizonak bezalako lanbide-bizitza izateko eskubidea dutela baieztan da, etxeko lanen banaketa aurrepaitu gabe, erditu den emakumea lanpostutik aldentzea ezinbesteko baldintza bezala ager dadin ekidinez, lanpostua gorde arren, lanbide-bizitzarako kaltegarria suertatu daiteke eta. Familia barneko aldaketak eta emakumeen zeregina finkatuz, egungo araudia lagungarria suertatzen da ugalketa-eginkizunetan eta jaiotzeak gehitzeko mesedegarria izan daiteke, zentzurik hobereanean.

Dena den, bide luzea urratu beharra dago oraingoz, bai eskubideen zabalkuntzari dagokionez, Suedia bezalako herrialde aurreratuengandik urruti baikaude, eta bai pentsamoldeak aldatzeari dagokionez, izan ere, beharrezko aldaketa hori gertatu ezik, araudiak ez bailuke ondore praktikorik ekarriko. Etxe barruko eginkizunen banaketa oso desorekatua da oraindik ere: emakume langileek gizonak baino bi bider denbora gehiago ematen dute etxeko lanetan eta ia bost bider gehiago etxearen mantenimenduan eta seme-alabak zaintzen (Emakumearen Erakundea, 1992, 13. orr.). Guzti honi lan merkatuan, soldatetan eta karrera-aukeretan oraindik badirauten sexuen arteko ezberdintasun nabarmenak generatuz gero, normala da amatasunagatiko baimen eta eszedentziez baliatzen diren gizonen proportzioa horren urria izatea. 1992.eko bigarren sei hilabetekoari dagokion Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestaren arabera, amatasunagatiko baimenaz baliatzen ari zirenetatik 800 gizonak ziren eta 20.000 emakumeak. Baimenak hamasei aste dirauela, gizonak azken lau astez soilik balia daitezkeela kontutan izanik, gurasoetarik % 15, gutxi gorabehera, amatasunagatiko baimenaz txandaka baliatzen direla erakusten dute BAIren datuek.

---

<sup>5</sup> Talde Popularrak 1989.ean Senatuan aurkeztutako Lege proposamenak, gerora baztertu egin zena, halako proposamen bat zeukan.

## *Politika demografiko baten baldintzak*

Agerian utzi da Espainian ez dagoela politika demografiko zehatzik, familia babesteko gizarte-politika baizik, horren aurrerakoia ez den politika gainera, nahiz eta inguruko beste herrialdeetan dagoenaren antzekoa izan. Etorkizunean jaiotzeak bultzatzeko neurri zehatzak sustatu ahal izango diren balioztatzeko, interesgarria da jendeak gai honetaz zer uste duen jakitea eta, aldi berean, indar politiko ezberdinen jarrerak ezagutzea.

### 4.1

### IRITZI PUBLIKOAREN BILAKAERA

Azken urteotan, espainiarrek Estatuak jaiotza-mailan izan lezakeen eskuhartzearen egokitasunaz eta edukinaz dituzten iritziak asko aldatu dira, Centro de Investigaciones Sociológicas delakoak egindako inkestetan agertzen denaren arabera.

Jaiotzeen beharakadari buruzko iritzia da, hain zuzen ere, gehien aldatu direnetariko bat. Izan ere, 1985.ean, gure herrialdearentzat beherakada hori mesedegarria zela uste zuen gehiengo zabal batek (% 57), eta % 27 baino ez ziren kaltegarria zela uste zutenak. 1988.ean, ordea, beherakada kaltegarria dela uste dutenen proportzioa gehitu egiten da eta hura mesedegarrizat daukatenean asko gutxitzen da.

Egiten den balorazioa, berriz, elkarrizketatuen joera politikoak mugaturik dago oraindik, baina, 1985.etik 1988.era bitarteko bilakaeran, dena den, gure herrialdean gai hau desideologizatzeko joera nagusitzen ari dela antzematen da. 1985.ean, jaiotzeen beherakada ideologia guztietatik mesedegarrizat jotzen bazen ere, ezkerreko pertsonen artean askoz ere hedatuagoa zen iritzi hau<sup>◊</sup> eskuineko pertsonen artean baino, eta erdialdeko pertsonen artean jarrerak erakusten zituzten, baina, beti ere, ezkerrekoengandik hurbilago zeuden.

1988.eko egoera arras ezberdina da. Lehendabizi, balorazio negatiboak positiboen gainetik ageri zaizkigu ideologia guztietatiko pertsonengan, lehenak gehitu egin direlako, baina, batez ere, positiboak asko gutxitu direlako, ugalkortasunaren beherakada ez dela ona ez txarra uste dutenen faboretan. Era berean, ideologiaren ikutu nabarmena izanik oso bes-

<sup>◊</sup> Elkarrizketatuek adierazitakoaren arabera.

---

telakoak ziren iritzietatik jarrera berdinsuagoetara eta, beraz, estatistikak erakutsitako errealitateari egokituagoetara iristen da, hots, iritzien konbergentzia bat suertatzen da.

1985.ean Eskuinekoen kezka baino ez zen nabari jaiotzeen beherakadaren aurrean; gaur egun, aldiz, kezka hori zabaldu egin da, ezkerrekoen artean kezka hori onartzearen aurka-ko jarrerak ere ageri diren arren. Aitortu beharra dago, bestalde, ugalkortasunaren bilakaerak ez duela azterketa zientifikoaren berrikuntzarik sortarazi gure herrialdean, eta beraz gai honi buruzko irizpideak ere ezer gutxi berritu direla, irizpideotan Ezkerreko jendeak muzin egiten dien jaiotzeak ugaritzearen aldeko betiko argudioak antzematen baitira oraindik ere. SIGMA-2 delakoak 1988.eko urrian egindako inkesta batean, 89-3-31ko "Gaceta de los Negocios" egunkariak ezagutzera eman zuena, hurrengo galdera egiten zen:

"Gobernuak jaiotzeak nolabait bultzatu behar dituela uste al duzu?"

Erantzun zutenetarik % 46k baietz esan zuten. Portzentaia hau CISEk 1985.ean egindako inkestarena (% 33) baino handiagoa da eta espainiarrek jaiotzeen beharakadaz duten iritzia bilakaerarekin bat dator.

CISEk urte berean egin zuen inkestaren galdera ezberdina zen:

"Estatuak senar-emazteek seme-alaba gehiago munduratzeko neurriak hartu behar ditu edo, aldarantziz, seme-alaba gutxiago izatearen alde jokatu behar du?"

Galdera honek Estatuak familiengan zuzenean eragin dezan iradokitzen du, horregatik jasozuen gehiengoaren gaitzeritzia: % 28 baino ez dira Estatuaren eskuhartzearen alde agertzen, nahiz eta, berorien artean, senar-emazteek seme-alaba gehiago izatearen alde jokatu behar duela uste dutenak askoz ere gehiago diren (% 20).

Horrela bada, paradoxa garbi baten aurrean gaude, hots, gizartea jaiotzeen beherakadari dagokion arazoaz oharturik, beherakada areagotzearen aldeko jarreretatik aldendu egiten da, nabari diren ugalkortasun-mailak ikusirik jarrera horiek arrazoi ideologikoetan baino ez baitira oinarritzen, baina, aldi berean, espainiarren portzentaia handi bat Estatuaren ekinbidearen aurka dago, ez arazoa garrantzizkoa ez delako, baizik eta, arrazoi ideologikoak direla medio, Estatuaren eskuhartzea arbuiatu egiten dutelako.

Hauxe da, hain zuzen ere, Espainiako jaiotzeen beherakadaz espainiarrek dituzten iritzi eta jarreraren bilakaerak agerian jartzen dituen aldaketa garrantzitsuenetariko bat. Duela urte gutxi, oraindik, Estatuaren eskuhartzearen aldeko argudioak, jende asko arazo horretaz ohartu ere egiten ez zela, ugalkortasunaren beherakadaren kalteak ezagutarazi beharrean oinarrituko ziren. Gaur egun, ordea, ideia hori gehienengoak onartzen du eta arazoa,

---

orain, Estatuak inoiz izan den arlorik pribatuenean eskuhartzea bidezkoa ote denari buruzko eztabaidan datza.

## 4.2

## INDAR POLITIKOEN JARRERAK

Demografiaren gainbeheraldia eta Estatuak haren aurrean har ditzakeen neurriak direla eta, ez da garrantzizko eztabaida politikorik izan gure herrialdean, dena den, aspaldi honetan gai honetikiko arreta handiagoa nabari da komunikabideetan eta, noizean behin, zenbait politikari ere mintzatzen da arazo honetaz. Alderdi politikoek hauteskunderako gertuturiko egitarauetan, al-diz, demografia bazterren batean izan ohi da eta zenbaitetan aipatu ere ez da egiten.

Gai hau gehien jorratu duen alderdi politikoa egungo Partidu Popularra da. Hauteskundera-egitarauetan gai honi dagozkion proposamenek nahiko ondo laburbiltzen dute alderdi honen jarrera: demografiaren gainbeheraldiarenganako kezka, familiarekiko babespena Estatuaren jardunaren ardatza den aldetik, emakumea etxekoandre gisa aritzearen aldeko jarrera eta abortoaren gaitzespen ideologikoa.

Jarrera honen ondorio da Senatuako Coalición Popularreko Talde Parlamentariak 1988.eko urrian aurkeztu zuen "Proposición de ley de fomento de la natalidad y protección a las familias numerosas" delakoa, 1989.eko otsailean zokoratu zena.

Zioen azalpenean, jaiotzeen beherakadak ekarritako zahartzea aipatu ondoren, familiaren eginkizun sozial eta ekonomikoa azpimarratzen da. Senatuan aurkeztutako lege proposa-mena xedapen-sorta mardulaz hornitua zen, eta aipagarrienak, besteak beste, hauek ziren: hogeita bost urtez beherako hiru seme-alaba edo gehiago izanik, etxetik kanpoko edozein iharduerari uko egin eta seme-alabak eta etxea zaintzen diharduten emakumeek lanbidear-teko gutxienezko soldata jaso dezaten. Honi beste onura batzuk generatzen zaizkio, hala nola, jaiotzarako asignazio finkoa, lehenengo semea edo alaba izanez gero hilero jaso be-harreko familia-osakina, dohaineko irakaskuntza, tasa akademikoak merketzea, lehentasu-nezko maileguak, etab. Familia ugariaren kontzeptua ere aldatu egiten da, hiru seme-alaba, gutxienik, dituztenak familia ugaritzat jotzen baitira. Lege proposamenak ez du neurri hauen kostua aipatzen, baina neurriok zenbatetsiz gero zifra oso handiak agertzen dira.

Partidu Popularraren talde parlamentariak, halaber, hainbat galdera eta interpelazio egin dizkio Gobernuari eta politika demografikoei buruzko mozioak ere aurkeztu ditu, orduan

---

izan du Exekutiboak ere gai hauen aurrean duen jarrera azaldu eta, aurrerago ikusiku dugun bezala, lehendik hartutako neurriak gogora ekartzeko parada.

Ezkerreko alderdi politikoen artean, PSOEk, Programa 2000ri buruzko manifestuan, ez da somatutako joerei aurre egiteko eskuhartze aktiboaren alde agertzen, aitzitik, joera horiek ekidinezinak direlakoan, egokitze-prozesu baten beharraz mintzatzen da. Ezker Batuak, berriaz, ez dio inondik ere demografia arazoari heltzen jaiotzeen beherakadari eta biztanleriaren zahartzeari dagokionez.

Laburbilduz, Estatu osoan diharduten alderdi politikoen artean, Partidu Popularrak baino ez ditu jaiotzeen aldeko neurri zehatz eta zuzenak proposatzen, eta proposamen hauek eskunaren ohizko planteamenduei jarraitzen diete. Esanguratsua da, bestalde, gainontzeko alderdi politikoek ez dutela beren hauteskunde-egitarauetan neurri haien aurkako jarrerarik hartu; hau da, gai honek ez du eztabaida publikorik sortu eta, finean, argi dago epe luze-rako ondorioak baino ez dituen arren orain ere gatazka sortarazten duen auzi hau ezer gutxi interesatzen zaiena.

Exekutiboari dagokionez, ez dugu demografiaren bilakaerari buruzko analisia eta hartu behar harko lirakeen neurri egokiak zehazten dituen agiri ofizialik aurkitu. Haren jarrera, gai hauek direla eta, Gorteetan egin zaizkion galdera eta interpelazio ezberdinei emandako erantzunen bidez, eta bereziki 1990.eko abenduaren 4an emandakoan azaldu bide da.

Azken erantzun horretatik atera daitekeenez, Gobernuaren gaur egungo jokoera ez da jaiotzeak diruz laguntzearen aldekoa, lehenik, jaiotzeen beherakada ez dela gertaera kezka-garria uste duelako, lehenago hala gertatu baita Europako beste hainbat herrialdetan eta orain alderantziz gertatzen ari baita leku berberetan; bigarrenik, beherakada horren ondorioz ez delako arazo larririk izango hurrengo hogeitun urteetan; hirugarrenik, Gobernuaren ustez ugalkortasunaren gainbeheraldia ez delako aldaketa sakon bat, egutegi mailako egokitzapen hutsa baizik; eta azkenik, halako neurriak, lortu nahi den helburuetariko bat eragozteaz gainera, hau da, emakumeek gizartean parte hartze handiagoa izan dezatela, neurriok ez lirakeelako eraginkorrak izango.

Espainian jaiotzeek azken urteetan izan duten bilakaera, bai ezkontzen murrizketatik, ezkontzaz kanpoko jaiotzeek ez baitute hura konpentsatu, eta bai ezkontzen ugalkortasunaren urritzetik eratorria da. Azterketak erakusten duenez, senar-emazteek geroratu egiten dute seme-alaben munduratzeara eta ez dago lehengo indizeetara iritsiko denik adierazten duen seinalerik, hein batean, erabili daitezkeen datuak zaharrak direlako (behin-betikoko jaiotzeei buruzko azken estatistikak 1988.ean argitaratu ziren).

Bilakaera honek, edozein balorazio eginik ere, agerian jartzen du demografiaren ugalketarako gizarte antolamenduaren eta emakumeek gizartean betetzen duten eginkizun berritik eratorritako familia era berrien artean gero eta kontraesan handiagoa zertzen ari dela. Politika demografikoak kontraesan moderno hau ebazteari ekinez aurkituko du bere eremua. Espainian, familiari laguntzeko gizarte politikaren baitan dauden jaiotzeen aldeko ekinbideak hortik doaz, nahiz eta familientzako atzerakorra den fiskotasuna arindu behar duten eta demografiaren joera aldaraztea lortu duten Suedia bezalako herrialdeetan daudenen aldean oso urriak diren.



## *Bibliografía*

- AGUINAGA, Josune (1991), "Costes sociales de la maternidad. ¿Un hijo es un bien social?", Encuentro de mujeres científicas y profesionales, Madril martxoak 14-15.
- CALOT, Gerard (1992), "Le système des prélèvements obligatoires au Luxembourg", STATEC, Luxembourg.
- CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLOGICAS (1989), "Problemas sociales; actitudes y opiniones de los españoles ante la natalidad, el aborto y la eutanasia", CIS, Madril.
- CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLOGICAS (1991), "Las mujeres españolas, lo privado y lo público". Estudios y encuestas 24 zk., CIS, Madril.
- COLL CUOTA, P. y MARTÍN JADRAQUE, R. (1989), "La protección a la maternidad, de la familia y de la vivienda"; Revista de Economía y Sociología del Trabajo delakoan, 3 zk. Lan eta Gizarte Segurantzza Ministraritza. Madril, martxoa, 67-80 orr.
- CONSEIL DE L'EUROPE (1991), Evolution démographique récente en Europe. Les éditions du Conseil de L'Europe, Strasbourg.
- DELGADO, M. (1991), "Nupcialidad y familia en España en el periodo reciente", Recent Changes in the Process of Family Formation in Europa and the New Role of Women, European University Institute, Florentzia, azaroak 8-9 (itzulpena: Demografia Erakundean, Txostenak Saldoa, 12 zk.).
- DELGADO, M. y FERNÁNDEZ CORDÓN, J.A. (1989), "La fecundidad en España desde 1975", Doc. de Trabajo n.º 2, Demografia Erakundea, CSIC, Madril, 1989.eko iraila.
- DUMON WILFRID (arg.) (1991), "Familles et politiques. Tendances et évolutions en 1989-1990", Nazio familia-politiken Europako behatokia, Europako Komunitateen Batzordea, Brussela.
- DURÁN, M.º Ángeles (1988), "De puertas adentro", Emakumearen Erakundea, Kultura Ministraritza, Madril.
- EMAKUMEAREN ERAKUNDEA (1992), "Mujeres en cifras", Emakumearen Erakundea, Kultura Ministraritza, Madril.
- EUROSTAT (1990), "Estadísticas Demográficas 1990", Eurostat, Luxemburg.
- FERNÁNDEZ CORDÓN, J.A. (1986), "Análisis longitudinal de la fecundidad en España", Tendencias demográficas y planificación económica, Ekonomia eta Ogasuneko Ministraritza, Madril.

- 
- (1987), "La fecundidad reciente en España", *Revista Economistas*, Madril, 1987.eko otsaila-martxoa.
- (1991), "Rasgos estructurales de la natalidad en España", *El reto demográfico de hoy*, Unibertsitate Konplutesearen Udako Ikastaroak, El Escorial.
- FERNÁNDEZ CORDÓN, J.A. y LEGUINA HERRÁN, J. (1990), "Bases para una política demográfica"; *Emakumearen Erakundea: Mujer y Demografía*. Debate Saldoa 10 zk. Gizarte Arazoetarako Ministraritza, Madril, 31-38 orr.
- GONZÁLVIZ PÉREZ, V. (1989), "Crise et contrastes spatiaux de la fécondité espagnole", *Espace Populations, Sociétés*.
- HOEM, Jan M. (1992), "Family policy impacts on recent swedish fertility", in Seminar "From motherhood to parenthood", September 17, Swedish Pavilion, Expo 92, Sevilla.
- IGLESIAS DE USSEL, J. (1988), "La situación de la familia en España y los nuevos modelos familiares", Iglesias de Ussel, J. (arg.): *Las familias monoparentales*. Debate Saldoa 5 zk., *Emakumearen Erakundea*, Madril, 1988. 23-40 orr.
- RAMOS TORRES, Ramón (1990), "Cronos dividido. Uso del tiempo y desigualdad entre mujeres y hombres en España", *Estudios Saldoa 26 zk.*, *Emakumearen Erakundea*, Kultura Ministraritza, Madril.
- SUNDSTROM, Marianne (1992), "Female labour force participation, fertility and public policy in Sweden", *European Journal of Population*, 8. lib., 3 zk., North, Holland

---

**AN-MAGRITT JENSEN**

**Hiri eta Lurralde  
ikerkuntzarako Norvegiar  
Erakundea. Oslo (Norvegia)**

*Gizarte eta*

*familia*

*politikoen*

*eragin*

*demografikoa*

*European*

## Sarrera

Demografia arloan gertaturiko aldaketak oso ezagunak dira. Hiru elementu jorratuko ditut bereziki: ugalkortasunaren gutxitzea, amen lan merkaturatzea eta familia-eredu berriak. Nola ulertzen ditugu aldaketa hauek eta nolako eragina dute umeengan?

Nire txostenak bi iturritatik edango du batipat. Lehena, Hautzaroa Gizarte Fenomeno gisa deritzan nazioarteko proiektua (1990-1992) da. Proiektu honetan, italiar partehartzaileetarikoa batekin batera, Angelo Saporitirekin hain zuzen, estatistikazko bilduma bereizi batean, haurrak azterketa-unitate gisa harturik aldaketa demografikoak irudiz azaltzeaz arduratu nintzen (Jensen eta Saporiti, 1992). Bigarren iturria, berriz, 1988.ean Norvegian egin zen Seme-Alabak dituzten Familiei buruzko azterlan bat da (Jensen eta Moen, 1991; Jensen, 1992). Seme-Alabak dituzten Familiei buruzko azterlana Estatistika Bulego Nagusiko Bjørn Moen-ekin batera egin zen.


1.

## Gerrate-ondoko aldaketak


Ikuspegi historiko batetik, eta hain zuzen ere, 1950.az geroztiko garaia aztertuz gero, hiru aldaketa demografikoak, hau da, ugalkortasunaren beherakada, amen lan merkaturatzea eta familia-eredu berriak, sarritan emakumearen izakera berri bati atxekitzen zaizkio.

### 1. IRUDIA Ugalkortasunaren gutzitza tasa: 1950-55 eta 1986-90eko Jo- erak


EE.BB.




FINLANDIA




GREZIA




MENDEBALDEKO ALEMANIA




ISRAEL




INGALATERRA ETA GALES




DANIMARCA




SUITZA




IRLANDA




TXEKOSLOVAKIA




ESKOZIA




SUEDIA




KANADA




JUGOSLAVIA



## NORVEGIA



## ITALIA



1. irudian, Hautzaroa proiektuko 16 herrialdeetako guztizko ugalkortasun tasan 1950.az geroztik izan diren aldaketak agertzen dira. Ugalkortasunaren beheranzko joera normalizat jo arren, 80. hamarkadako erdialdetik aurrera hazkunde bat antzematen da zenbait herrialdetan (Eskandinaviako herrialdeak). Irudian azaltzen denez, Italia, Mendebaldeko Alemania eta Greziak erakusten dute guztizko ugalkortasun tasarik txikiena 1985.etik 1990.era bitartean. Proiektu honetan erabilitako datuak, bestalde, Europako aldaketak gertatu aurretik bildu zirela esan beharra dago. Hortaz, Mendebaldeko Alemania eta Jugoslavia nazio-entitatetzat hartzen dira, Txekoslovakia bezalaxe.

### 1. TAULA Lan ordaindua egiten duten amen haurrak asteko lanordu-kopuruaren arabera

HERRIALDEA	ADINA	● eta ●	●
Suedia (1988)	0-16	88,0	40,8
Danimarca (1987-88)*	0-17	77,8	54,1
Norvegia (1988)	0-16	72,0	32,0
Kanada (1988)**	0-14	67,8	37,9
Eskozia (1985)	0-19	48,1	17,4
Israel (1983)	0-17	40,9	24,7
Estatu Batuak (1988)***	0-17	39,8	
Mendebaldeko Alemania (1989)	0-15	39,3	
Italia (1983)	0-17	36,0	

\* Urteen batzbestekoa

\*\* Aita eta ama dituzten haurrak baino ez

\*\*\* Aitak eta amak lan ordaindua dute

● Lansaio erdia

● Lansaio osoa

Iturria: Jensen eta Saporiti, 1992

1. taulan, etxetik kanpo lan egiten duten amen seme-alaben portzentaia agertzen da. Kasu honetan, beraz, estatistika-unitatea "haurrak" dira eta ez "amak". Ikus dezakegunez, herrialdeen arteko ezberdintasunak nabarmenak dira. Bigarren mailako datu-iturriak erabiltzen ditugunez gero, informazioa jaso genueneko urtea aldatu egiten da. Italiari buruzko datuak, esate baterako, 1983. urtekoak dira.

2. taulan, ugalkortasun mailak eta amen enplegua familia-ereduekin lotzen dira. Herrialdeak bata bestearekin erkatuz egoerari buruzko ondorio bakarra ateratzea zaila iruditzen zaigu. Errazagoa gerta dadin, egoera oso ezberdinak erakusten dituzten lau herrialdez baliatu naiz: Suedia, Norvegia, Mendebaldeko Alemania eta Italia.

## 2. TAULA Ugalkortasunaren gutzizko tasa, amen enplegua eta guraso biek dituzten familien seme-alabak lau herrialdeetan

HERRIALDEA	UGALKORTASUNA 1985-1990	AMEN ENPLEGUA %	SEME-ALABAK BI GURASOTAKO FAMILIETAN %
Suedia	1,91	88*	80*
Norvegia	1,77	72*	86*
Mendeb. Alemania	1,38	39**	90****
Italia	1,32	36***	95***

\*1988; \*\*1989; \*\*\*1983; \*\*\*\*1985

*Iturria:* Jensen eta Saporiti 1992, Qvortrup 1992b.

Taula honetan ikusten denez, Eskandinaviako bi herrialdeetan, ugalkortasun tasa nahiko handia izateaz gainera, amen enpleguak ere maila handia erakusten du eta familia-ereduak tradizionalak dira. Beste alde batetik, bai Mendebaldeko Alemanian eta bai Italian ugalkortasun tasa txikia da, amen enplegu maila bezalaxe, eta familia-ereduak tradizionalak dira. Hortaz, herrialdeok erkatuz, ez dirudi ugalkortasun mailak, amen enplegua eta familia-ereduak zuzenean elkarloturik daudenik.

Familia-ereduen aldaketek eragin nabarmena izaten dute gizarte politikan eta, bereziki, familia-politikan eta, beraz, nire txostena aldaketa horien inguruan mamituko da.

## *Haurtzaroaren feminizazioa*

Nire teoriaren arabera, familien osakeran gertaturiko aldaketak "haurtzaroaren feminizazioa" izenburuaz adierazi genezakeen aldaketa orokor baten zati bat dira. Ez naiz hipotesi hau aldeztu ihardungo, beste toki baten arrazoitu bainuen (Jensen, 1993). Argudio nagusia honetan datza: emakumeek haurrenganako interes gero eta handiagoa erakusten duten bitartean, haien eta gizonen arteko harremana gero eta ahulagoa dela.

Txosten hau familia-mota ezberdinak aztertuko ditu batez ere. Hala ere, "haurtzaroaren feminizazioa" delako hipotesia ugalkortasunari loturik ere erabili daiteke. Bi puntu aipatuko ditut ideia hau argitzeko.

Sexualitatearen eta jaiotzeen arteko lotura gizonen kontrolpean izatetik emakumeen ardurapean izatera igaro da. "Antisorgailuen aroan" emakumeak babesturik daude haurdunaldiariaren aurrean, bestelakorik ezartzen ez den artean, behinik behin (O'Brien, 1981). Emakumeen aldeko mugimenduen eskakizun nagusienetarikoa bat emakumeek, jaiotzei dagokienez, euren gorputza kontrolpean edukitzeko aukera izatea izan da. Aldi berean, gizonak emakumeen esku utzi dute kontrol hau. Gizonak orain, Suedian adibidez, "aurrikusi gabeko aitatasuna" delakoari aurre egiteko antolatzen hasiak dira, semea edo alaba bai, baina senarrik nahi ez zuten emakumeek iruzur egin omen diotelakoan. Horrelako antolakundeak orain ugalkortasuna emakumeen kontrolpean izatearen adierazgarri izan daitezke. Adierazgarria da, halaber, seme-alaben deituretan antzemandako aldaketa. Norvegian, ezkontzean, emakumei senarraren deitura atxekitzen zaie automatikoki. 1964.ean, ordea, emakumeek ezkontzean ezkondu aurretiko deiturari eusteko eskubidea lortu zuten, eta 70. hamarkadan jarrera hau zabalduz joan zen. Seme-alabek aitaren deituraz jarraitzen zuten. 1979.ean, aldiz, seme-alabek besterik gabe amaren deitura har dezaten erabaki zen, beti ere, aita bere deitura ezartzea deliberatu ez dezanean.

Aldaketa hauek, bestalde, ezkontzak familia eratzeko erakunde gisa zeukan garrantzia galduz joan den garai batean gertatu dira. Ezkontza aitatasunaren ziurgabetasun biologikoa gainditzeko gizarte erakundetzat jotzen da (O'Brien, 1981). Lehenengo semea edo alaba jaiotzean familia, ezkontza eratzearen baiezpena aldatzen ari da (Gillis, 1992). Gauzak horrela, "Iraultza Isil" bat ere gertatu da haurrak munduratzeko gelan. 50. hamarkadan % 10 aita baino gutxiago izaten ziren haurraren jaiotzearen lekuko Britainia Handian. 80. hamarkadan, % 70 bertan ziren haurra jaiotzean (O'Brien, 1992). Baliteke zirraren aldetik aiten

---

eta seme-alaben arteko lotura estuagoa izatea, baina zirrara lege loturak baino hauskorragoa da.

Ezkontzari gero eta garrantzi gutxiago atxekitzen zitzaien, lehenengo semea-edo alabaren jaiotza familia bat eratzearen gertakizun adierazgarri bihurtzen joan zen neurrian. Ezkontzaz betetzen zen eginkizun nagusienetako bat, hau da, gizonaren ondorengoaren legeztatzea, ez dago horren argi jadanik.

Aldaketa honen eragina Norvegian ezkontzaz kanpo jaiotako haur-kopuruaren hazkunderan ikus daiteke.


3.

## *Ezkontzaz kanpoko jaiotzeak*

Norwegian, tradizioz, ezkontza, ugalkortasuna eta aitasuna hertsiki elkarloturik izan dira. 50. hamarkadan hurren % 3 besterik ez ziren ezkontzaz kanpo jaiotakoak (Moen, 1989). Semea edo alaba ezkontzaz kanpo izateak ezkongabeko ama izatea zekarren, zoritarreko egoera, alegia. Gizarte-arau hertsiek debekatu egiten zioten ezkontza haurdun zegoenari. 1970.ean oraindik, nerabeen ugalkortasunak gerrate-ondoko mailarik gorena jotzen zue-nean ere (% 10 gutxi gorabehera), ezkontzari zegokion ugalkortasunaren monopolioa. Ehun haurretarik 95 gutxi gorabehera ezkontutako gurasoengandik jaiotzen ziren. Harrez gero, ezkontza eta jaiotzea elkarrengandik gero eta bananduago ageri zaizkigu.

2. Irudian, Norwegian ezkontzaz kanpo jaiotako haur-kopuruaren hazkunde gero eta nabarmenagoa azaltzen da.

### **2. IRUDIA Ezkontutako gurasoengandik eta ezkontu gabekoengandik jaiotako seme-alabak Norwegian. 1970-1990**



Zifrek 1970.etik 1990.era bitartean jaio diren hurren guztizko kopurua erakusten dute. 1970.ean jaio ziren haurretarik ia denak (60.000) ezkontutako gurasoen seme-alabak ziren, gutxiengo bat (4.000) baino ez zen ezkontzaz kanpo jaio. Egoera hau zeharo aldatu da azken bi hamarkadetan. 1985.az geroztik, ugalkortasuna areagotzen hasi zenetik, ezkontutakoen ugalkortasunak beherantz egin zuen eta ezkontzaz kanpo jaiotakoak % 40 izatera iritsi ziren 1990.ean.

## *Ezkontzaririk gabeko bizikidetza*

Egun jaiotzen diren haurretarik % 40 ezkondu gabeko amengandik sortzen badira ere, honek ez du esan nahi bikoterik gabeko amengandik sortuak direnik. Bizikidetza, hein handi batez, estatistika ofizialetatik at izan ohi denez, eragozpenak izan ditugu haurra jaiotzean familiak zeukan osakerari buruzko ondorioztapenak ateratzea.

Lehenago aipatu den bezala, 1988.ean, seme-alabak zituzten familiei buruzko azterlana egin zen<sup>1</sup>. Azterlan honetan, besteak beste, haurra jaiotzean, haren haurtzaroan eta elkarriketak egin zirenean familiak zeukan osakerari buruzko xehetasunak daude.

Familiak haurra jaio zenean zeukan osakerari erreparatzen badiogu, bikoterik gabeko amengandik jaiotako umeen portzentaia, azken finean, 50. hamarkadan zegoen berbera dela dakusagu. Haur guztietarik % 95 aitak eta amak osaturiko familien baitan jaiotzen dira. Dena den, gutxitan formalizatzen da aitasuna ezkontzaren bidez. Joera berbera aurkitzen dugu Danimarkan eta Suedian, non bikoterik gabeko amengandik jaiotako haurrak % 3 eta % 6 diren, hurrenez hurren; herrialde hauetan, halaber, bi haurretarik bat ezkontzaz kanpo jaio ohi da (Christoffersen, 1989; Statistics Sweden, 1989).

Bizikidetza ezkontza ordezkutzen du, honek familiaren osakeran eraginik izan gabe? Esan daiteke haurrengan, adibidez, elkarrekin familia baten moduan bizi izaten badira, behinik behin, ez duela eragin nabarmenik gurasoak ezkonduak izateak. Alabaina, bizikidetza eta ezkontzaren artean bada, gutxienik ere, ezberdintasun bat, hots: egongaiztasuna. Beste ezberdintasun bat ere aipa dezakegu, hau da, aitak seme-alabak beretzat hartzeari dagokiona.

<sup>1</sup> Azterlana 1972, 1978 eta 1984ean jaiotako haurren ausazko lagin bat du oinarri. Taldeak urte horietan izaniko aldaketa demografikoen arabera hautatu ziren. 5.000 umeetarik, 3.066rengandik informazio osoa lortu genuen, hots, laginaren % 60. Lagin hau amak lehenengo semea edo alaba erditzean zeukan adinari, haurren eskualde-banaketari eta sexuari buruzko beste zenbait iturriekin alderatu da eta nahikoa adierazgarritzat jotzen da. Hiru taldeetako haurrek 16, 10 eta 4 urte zituzten datu-bilketa egin zenean. Datuok, haurraren ordeztasuneko heldu batek erantzun zezan eskatzen zuen postaz bidalitako inkesta baten bidez lortu ziren.

## *Bizikidetzaren egongaitasuna*

1988.eko Seme-Alabak zituzten Familiei buruzko azterlana behatuz, ezkonduko gurasoen seme-alaben aldean, ezkondu gabe elkarrekin bizi diren gurasoen seme-alabek familiaren zatikaketa jasateko arrisku handiagoa dute, bi edo hiru bider handiagoa hain justu. Gurasoetako hainbatek, portzentaia nabarmena, lehenengo semea edo alaba jaio ondoren ezkontzen direla azpimarratu beharra dago. Helduen artean egin zen familia-ereduei buruzko azterlan batek erakusten zuenez, lehenengo semea edo alaba jaio zenetik bost urte igarotakoan, elkarrekin bizi izan ziren gurasoetako % 60 ezkondu zirela, % 20 bizikidetzari eusten zioten eta gainontzeko % 20 bananduak ziren (Estatistika Bulego Nagusia, 1991). Suedian arestian argitaratu den txosten batean (Sweden Statistics, 1992) 1985.ean haur guztiei zegokien familia-ereduak aztertu ziren. Norvegian bezalaxe, ezkondu gabe elkarrekin bizi ziren gurasoen seme-alabek, ezkonduko gurasoenek aldean, familia zatikaturik ikusteko bi edo hiru bider arrisku handiagoa zeukatela egiaztatu zen.

Lehenengo semea edo alaba adostasunezko batasun baten baitan jaiotzea gero eta ohikoagoa den arren, halako batasunak behin-behinekotzat jo izaten dira oraindik ere. Bikoteirik gehienak lehenengo semea edo alaba munduratu eta laster ezkontzen dira, baina, era berean, portzentaia handi batez, gerora harremana desegin egiten da. Seme-alaben ikuspegitik, beraz, familia-egoera hauskorragoa izan ohi da bera jaio aurretik gurasoak ezkondu gabe daudenean.

## *Seme-alaben legezko eskubideak*

Seme-alaben legezko eskubideei dagokienez, ezberdintasunik al dago gurasoak ezkondu-rik daudenean edo ezkondu gabeko bizikide direnean?

Norvegiako adingabekoei buruzko 1981.eko legearen arabera, ezkondu gurasoek seme-alabak jaiotzen diren unean, automatikoki, haien zaintza bereganatzen dute bien artean. Ezkondu gabe elkarrekin bizi diren gurasoen kasuan, berriz, haurra munduratzeko den unean, automatikoki, amari ematen zaio haren zaintza, beti ere, aitak berari ere eman dakion eskatzen ez duenean. Ezkondu gabeko aiten artean, oso gutxi ekiten diote seme-alaben zaintza konpartitua eskatzeari. Horrela bada, desegitea gertatzen denean, ezkondu gabe aitarien egoera bestelakoa da ezkondu gabeko aitarien aldean. Amarekin batera seme-alaben zaintza automatikoki bereganatzen duen ezkondu gabe aita ez bezala, ezkondu gabeko aita auzitegietara jo behar du bere eskubideak erdiestera. Printzipioz, auzitegian eskaera aurkeztutakoan, ezkondu gabe aiten eskubide berberak bermaturik dauzka. Dena den, ezkondu gabeko aiten artean oso gutxi dira beren eskubideak galdatzen dituztenak.

Seme-alabak dituzten Familiei buruzko azterlanetan, halaber, familia desegin ondorengo zaintzari dagozkion gurasoen arteko akordioetan ere, ezkondu gabe aitarien eta ezkondu gabe elkarrekin bizi direnen artean ezberdintasun nabarmenak daudela ikus dezakegu. Ezkondu gabeko bikotea osotzen duten amek euren gain hartu ohi dute seme-alaben zaintza (% 87), ezkondu gabe aitarien, ordea, baterako zaintzari heldu ohi diote (% 63). Horrez gainera, ezkondu gabeko aitek oso gutxitan jotzen dute auzitegietara seme-alaben zaintzaren eske (% 5), ezkondu gabe aitek, berriz, gehiagotan (% 24).

Bizikidetzak generoen arteko harremanetan eragina duten bi aldaketa garrantzitsu dakartza: alde batetik, bizikidetzaren bidez gizonak ez du bere bizikidearekiko hornitzaile-eginkizuna bete beharrenean zama jasaten, baina, era berean, seme-alabarekiko eskakizun-ahalmena ahulagoa izaten da. Puntu honetara iritsiz gero, galdera interesgarri bat egin daiteke, zergatik onartzen dute hainbeste gizonak aiten eta seme-alaben arteko legezko lokarriak ahultzen direneko familia-eredua?

Ugalkortasunaren beherakadarekin batera, familia-ereduak seme-alabentzat eta amentzat mesedegarriagoak eta aitentzat kaltegarriagoak bilakatu ziren. Aitek, nahi izanik ala nahi izan gabe, seme-alabekiko kontrolari uko egin ziotela pentsa dezakegu. Gizonen traiziotzat jo ote daiteke jarrera hau - seme-alabekiko erantzukizunak alde batera uzten ari bailiren? Ez

halabeharrez. Jarrera honek, dena den, seme-alabek ekonomiaren aldetik daukaten garrantzian izandako aldaketaren erakusgarri ez ote den galde genezake, jarrera horren bultzagarri ez ote den aitentzat ez dela jadanik horren garrantzitsua seme-alaben legezko kontrola eskuratzearen alde burukatzea delako ustea.


Hortaz, bizikidetzak "haurtzaroaren feminizazioa" bultzatu eta areagotzen laguntzen du. Familiaren desegitea bezala.

7.

## *Familiaren desegitea*

Guraso bien presentzia eskatzen duen familia da arruntena Norvegiako haur gehienentzat. 18 urtez beherako bost umeetarik lau bere aita eta amarekin bizi izaten dira. Hala ere, ezarritako familia-eredua hainbat eraso jasaten ari da. Dibortzioari dagokionez, familia arloko aldaketen bestelako alderdi batzutan bezalaxe, Norvegia Eskandinaviako gainontzeko herrialdeak baino beheragoko maila batean ageri zaigu. Dena den, dibortzio-tasak gehitzen ari dira. Alabaina, ez da horren erraza dibortzioari buruzko estatistiketatik ondorioak ateratzea, desegiten diren batasunetako (adostasunezko batasunak) portzentaia nabarmen bat, gero eta handiagoa, estatistika ofizialetatik at geratzen baitira.

### 5. IRUDIA Guraso biek bizi diren haurren portzentaia. 1972, 1978 eta 1984.ean jaioetako haur norvegiarrak



---

Seme-Alabei buruzko azterlanean, familien desegiteak aztertzerakoan ez zen gurasoen egoera zibila aintzat hartu. Argi dago umeez gero eta lehenago ezagutzen dutela familiaren zatiketa.

Lau urte bete dutenerako, 1984.ean jaiotako hurrek, 1978.ean jaiotakoek 6 urte betetakoan eta 1972.ean 8 urte betetakoan ezagutu zuten maila berbera ezagutu dute familiaren zatiketari dagokionez (Jensen eta Moen, 1989).

1984.ean jaiotako haurren artean, 16 urte bete aurretik hiruren batek euren gurasoak banandurik ikusiko dutela kalkulatu da. Nolanahi ere, guraso bakarreko familietan beste pertsona heldu bat ere izaten da sarritan. Bere jatorrizko familia aldatu ikusten duten bi haurretarik ia batek beste aldatetaren bat ezagutu du handik lasterrera. 10 urte betetzen dutenerako, gurasoak banandu zaizkien haurrak bost urtez bi gurasoekin bizi izan dira, hiru urte 1/2 amarekin bakarrik eta gainontzekoa familia mistoarekin (Jensen eta Moen, 1991). Familia harremanetan gertatzen diren aldaketan artean, familiakideen "ordezkatea" eta, bereziki, familia desegin ondoren bere aita biologikoarekin gero eta harreman eskasagoa izatea dira funtsezkoenak haurrentzat.

## 8.

### *Guraso bakarreko familiak*

Herrialde industrializatuetan bi aldaketa nabarmen antzematen dira haurtzaroan: ugalkortasunaren beherakadaren ondorioz, haurrak haur gutxiko familietan bizi izateko gero eta ahalbide gehiago dutela, eta guraso bakarreko familian denboraldi batez bizi izateko joera. Askotan, joera biak batera agertzen dira, izan ere, gurasoak gehiagotan banantzen baitira hurrek neba-arrebarik ez dutenean.

Hala ere, honek ez du esan nahi haurrak neba-arrebarik gabe hazten direnik, izan ere, gurasoek familia harreman berriak eratzeko joera izaten baitute, eta harreman berri horietan beste haur batzuk izaten dira tarteko, nolabaiteko neba-arreba bihurtzen diren haurrak, alegia.

## *Familiaburua emakumea deneko etxeak*

“Hautzaroaren feminizazioa”, adibide gisa erabiltzen ari naizen Norvegian ez ezik, gai nontzeko herrialde industrializatu guztietan ere gertatzen ari ote den galde genezake. Mendebaldeko herrialde askotan, gero eta ohizkoagoa da familiaburua emakumea deneko familia-eredua. EE.BB.etan, esate baterako, 80. hamarkadaren hasieran jaiotako bi umeetarik batek, gutxi gorabehera, bere hautzaroan familia-unitatearen desagitea ezagutuko duela kalkulatu da (Bumpass eta Sweet, 1989). Kanadan, berriz, 70. hamarkadaren hasieran jaiotako lau haurretarik baten gurasoak banandurik egongo dira haurrak hamar urte bete dezanean (Marcil-Gratton eta Lapierre-Adamcyk, 1990). Suedian eta Danimarkan, Norvegian bezalaxe, hiru haurretarik batek ez du bere hautzaro osoa guraso biekkin batera eman go (Statistics Sweden, 1989; Quotrup, 1992).

Guraso bakarreko familia gehienetan familiaburua emakumea da. Norvegian, gurasoak bananduz gero, hamar haurretarik bederatzi amarekin geratzen dira. Gurasoek baterako zaintza dutenean ere hala izan ohi da. Seme-Alabak dituzten Familiei buruzko azterlanaren arabera, bananduriko gurasoen hiru haurretarik bat baino ez zen bere aitarekin egona azterlana egin aurretiko hilabeteen, “bisita-akordio arruntak” deiturikoen bidez (astean behin eta asteburu bat hamabost egunik behin). Lau haurretarik bat ez zen bere aitarekin egona hilabete horretan. EE.BB.etan egindako azterlan batek erakusten zuenez, dibortziatu ondoren, lau aitetarik batek ez zituen bere seme-alabak bisitatzen, ez eta elikadura pentsiorik ordaintzen (Seltzer, 1989).

Ezaugarri hauek eragina dute gizarte eta familia-politikan.


Jakina denez, hala ugalkortasunari loturiko erabakiak, nola familia-ereduei buruzkoak, emakumeek hartu ohi dituzte. Zoritxarrez, emakumeak eta semeak edo alabak osotzen duten ardatz hau ekonomi galera bati loturik egon ohi da.

Gerrate-ondoko garaian, oro har, bizimailaren hobekuntza orokorra ezagutu da, umeentzat ere mesedegarria suertatu dena, noski. Emakumeen enpleguak eragin handia izan du aurrerapen honetan, haren bitartez familiaren dirusarrerak nabarmenki gehitu baitira. Aldaketa honen ondorioz, lehen errenta batez bizi ziren familiak, gero eta nabarmenago, bi errenten menpe egotera igaro ziren. Hala ere, haurren kasuan, aldaketa honek halako ekonomi galera bat ekarri duela pentsa genezake, zeren amek ekoizpenaren eta ugalketaren zama bikoitza jasaten baitute. Lan munduan gero eta emakume gehiagok diharduten arren, haur txikiak dituzten emakume norvegiarren heren bat lan merkatutik at dago oraingoz - eta ez du inolako dirulaguntzarik jasotzen. Horrez gainera, 16 urtez beherako seme-alabak dituzten emakumeek denbora partzialeko lanetan aritzeko joera dute eta aitek baino ikasketamaila eskasagoa izan ohi dute. Hortaz, seme-alabak dituzten familien per capita errenta seme-alabarik ez duten familia baina eskasagoa izaten da sistematikoki, eta horrenbestez, hurrek errenta eskasak dituzten familietan bizi izateko ahalbide gehiago dituzte bestelako biztanle-taldeek baino.

4. irudian agertzen denez, egoera hau ez dagokie Norvegiako hurrei bakarrik.


#### 4A. IRUDIA Errentaren banaketa: haurrak helduekin eta adinekoekin erkaturik

Kanada (1987)



Pertsonak, adinaren eta per capitako familia-errenta garbiari dagozkion deziletan neurtutako familia errentaren arabera


Israel (1986-87)



Gurasoekin bizi diren haurrak eta helduak, per capitako familia-errenta garbiari dagozkion deziletan neurtutako errentaren arabera


#### 4B. IRUDIA Errentaren banaketa: haurrak helduekin eta adinekoekin er- katurik

Danimarka (1988)



\* 26 urtez beherako seme-alabak  
Helduak eta haurrak per capitako familia-errentari dagozkion dezil-multzoan

Norvegia (1987)



\* 0-15 urte bitarteko haurrak; \*\* 16-64 urte bitarteko helduak  
Familia-errentaren banaketa, adin-multzo ezberdinentzat hautaturiko bosnakoien arabera (Kontsumo-unitate bakoitzeko familia-errenta erabilgarria OECD delakoaren definizioa: Heldua = 1,0; la heldua = 0,7; 17 urtez beherakoa = 0,5)

Haurrak ekonomi egoera ez horren erosoan duten familien baitan bizi izaten badira ere, familia eta gizarte-politika hein txiki batez baino ez zaie hurrei zuzentzen.

Haurtzarora deritzan proiektuan ikus dezakegunez, Norvegian 1986.ean gizarte ongizatean erabilitako diru guztiaren bostena baino gutxiago zuzendu zen hurrekin nolabaiteko erlazioa zuten ihardueretara. Gastu hauek zehazkiago aztertuz gero, erdiak lehen mailako hezkuntzarako direla ikusten da. Gastuok alde batera utzita, hurrei gizarte ongizaterako aurrekontu osoaren ehuneko 10a baino gutxiagoa zuzentzen zaiela egiaztatzen dugu. Gastu hauen zatirik handiena seme-alabengatikoa familia-laguntzari dagokio. 3. Taulan, gizarte ongizaterako aurrekontuaren kargura eginiko transferentziak agertzen dira adin-taldeka.

### 3. TAULA Errenta transferentziak laguntzaren eta adinaren arabera, ehunekotan (1986)

LAGUNTZA-MOTA	GUZTIRA	ADINA		
		0-16	17-66	67-99
Osasun laguntzak	11	1	4	6
Pentsioak (*)	63	7	14	42
Gaixotasunagatikoko laguntzak	12		12	
Bestelako laguntzak	6		6	
Bestelako laguntzak (**)	9	2	5	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>10</b>	<b>41</b>	<b>49</b>

(\*) Norvegiako zerbitzu publikoaren Pentsio Fondoa, adinekoentzako pentsioak, seme-alabengatikoko laguntzak eta bestelako laguntzak sartzen dira.

(\*\*) Estatutik udaletara eginiko hainbat transferentzia sartzen dira. Gizarte Segurantza, esate baterako, hemen-txe sartzen da, hala nola, kulturagintzarako transferentziak eta garraio laguntzak.

Haurtzaroko laguntza zerbitzuak har daitezke ongizatearen estatuak hurrei eskaintzen dien arreta eskasaren erakusgarri gisa. Amen enpleguari esker zerga-ordainketak iturri berri bat izan arren, ezer gutxi egin da ofizialki, hurrei kendutako baliabide hura ordezkatzeko. 1986.ean, haurtzaroko laguntza zerbitzuetarako gastu publikoa ez zen emakumeek zergatan ordaindutako dirutzaren hamarrenera ere iritsi. Azken hamarkadetan haurtzaindegia askotxo gehitu badira ere, haien eskaintzak ez du oraindik dagoen eskaria betetzen. 7 urte baino gutxiago dituzten hiru haurretarik bik soldatapeko lanen batean diharduen ama du, haurtzaindegietara doazen haurrak, aldiz, hirutik bat dira (Frønes etab., 1990). Eskaintza eta eskariaren artean nabari den hutsunea akordio pribatuen bidez betetzen da, ohizkoena haurra zaintzen duen pertsona bati aldarik eman gabe ordaintzea izaten delarik. Izan ere, haurrak zaintzea garrantzizko lan bihurtu da ofizialki lan merkatutik kan-

---

po dauden amentzat. Norvegiako ongizatearen estatua, Eskandinaviako beste herrialde batzutan baino nabarmenago emazteak etxean geratzen direneko familia-ereduan oinarritzen delarik, Danimarkak eta Suediak baino zerbitzu-eskaintza kaskarragoaz ageri zaigu haurrentzako etxetik kanpoko laguntza zerbitzuei dagokienez (Knudsen, 1990). 1986.ean, hartzaindegiei gizarte ongizaterako aurrekontu osoaren % 2a baino gutxiago zegokien. Gizarte-arauek, oraindik ere, amak haurrei lehentasuna ematera bultzatzen dituzten bitartean, eta gizarteak hartzaindegi zerbitzu egokiak gogoz kontra eskaintzen dituelarik, harri-garria da arau horiei jarraituz hartutako erabakiak bai amaren eta bai haurraren ongizate ekonomikoa kolokan jartzea gurasoak banantzen direnean. Lan merkatuko iharduna eta ama izateari dagokion eginkizuna elkarri egokituz familia-erantzunbeharrei aurre egiteko nahiak, ama seme-alaben hornitzaile bakarra izatera beharturik dagoenean, finean, txiro-tasunera daramatza bai amak eta bai seme-alabak ere.

Ugalkortasunaren beherakada, emakumeen enplegua eta familia-ereduen aldakuntza, emakumearen burujabetasun handiagoari eta gizonarekiko menpekotasun txikiagoari lotzen zaizkion emakumearen jokamolde berria aipatuz azaltzen diren aldaketa demografikoak dira. Deskripzio honek egiaren zati bat adierazten badu ere, beste alde batetik, emakumeen erantzukizuna seme-alabekiko areagotu egin dela uste dut.

Egungo haurtzaroaren ezaugarri bat zera da, haurren zirrarezko beharrianak, ekonomi mailakoak zein praktikoak emakumeen ardurapean gelditu direla, ezaugarri honek azkena jotzen duelarik amak eta semeak edo alabak osotutako familia-eredu berrien kasuan. Munduan gero eta gehiago dira amarekin bakarrik bizi diren haurrak. Egoera honi "txirotasunaren feminizazioa" deitu zaio (Garfinkel eta McLanahan, 1985). Opping-ek "amatasunaren krisisa" eta "amen pobretzea" aipatzen ditu, seme-alaben presentziari lotzen baitzaio txirotasuna (Opping, 1988, 43. orr.). Egitatez ama/seme-alabak binomioa izaten denez, haurtzaroaren feminizazioaz mintzatzea hobetsi dut. Joera horrek, zoritxarrez, "haurtzaroaren pobretzea" ere erakusten du. Hainbat azterlan ezberdinetan frogatu da haurrei gero eta partaidetza txikiagoa dagokiela gizarte ongizatearen baliabideetan, eta egoera hau familia-eredu aldakorrei ez ezik, gizartearen zahartzeari ere egozten zaio (beste batzuren artean, Preston, 1984; Palmer etab., 1988).

Haurtzaroaren feminizazioak haurren bazterreratze bat sortarazi du gizarte mailan, eta honenbestez, badirudi edozein gizartetako gizarte egituraren osagai garrantzitsu eta erabilgarrienetako bat haurtzaroa dela berraitortu beharra dagoela. Hortaz, familia eta gizarte arloetako politiken norabidea haurrengana zuzentzea garrantzizkoa dela ematen du, horrela haurrak familia-segada ekonomikotik "askatzeko" eta euren kabuz mantentzeko gai ez diren beste biztanle-talde batzuk bezala, adinekoak esate baterako, gizarte ongizatearen baliabideen zati egoki batez gozatzeko eskubideak gauzatzeko.

## *Bibliografia*

- BUMPASS, L.L. eta J.A. SWEET (1989), "Children's Experience in Single-Parent Families: Implications of Cohabitation and Marital transitions". NSFH Working Paper 3. alea, Wisconsin-go Unibertsitatea-Madison.
- CENTRAL BUREAU OF STATISTICS (1991), Family and occupation Survey 1988, NOS B 959, Oslo.
- CHILDHOOD AS A SOCIAL PHENOMENON (1990-1992), A Series of National Reports. 36+36.1-36.18 zk.ko saldoak European Centre: Viena.
- CHRISTOFFERSEN, M.N. (1989), "Eksempler på alarmerende indikatorer på børns levekår i Danmark". (Danimarkako haurren bizimailaren adierazle alarmagarriak). Qvotrup-en 1989: Børn i statistikken, Sydjysk Universitetscenter og Nordisk Ministerråd. 47. alea, Esbjerg.
- FRØNES, I.A.M.; JENSEN eta A. SOLBERG (1990), *Childhood as a Social Phenomenon*. National Report, Norway. Eurosocial Reports, 36/1 alea, Viena.
- GARFINKEL, I. eta S. McLANAHAN (1985), *The Nature, Causes and Cures of the Feminization of Poverty*. Population Association of America delakoaren Urteroko Ihardunaldian aurkeztutako txostena, Boston.
- GILLIS, J. (1992), "Bringing up Father. Britiske faderidentiteter fra 1750 til i dag" ( Britainiar aitasun identitateak 1750.etik egun arte), *Den Jyske Historiker* delakoan, 58-59, 149-176 orr.
- JENSEN, A.M. eta B. MOEN (1989), "Far og mor - søster og bror" (Aita eta ama - arreba eta neba). *Tidsskrift for samfunn - sforskning*, 5/6 zk.
- JENSEN, A.M. eta B. MOEN (1991), *Enebarn, delebarn, stebarn? Barns familier i 70 og 80 åra* (Seme-alabak bakarrik, seme-alabak konpartiturik, semeordeak-alabaordeak? 70 eta 80. hamarkadetan seme-alabak zituzten familiak). S.E. Clausen-ekin elkarlanean, NIBR 1991:14.
- JENSEN, A.M. (1993), "Feminization of Childhood" Qvotrup, J., M. Bardy, G. Sgritta eta H. Wintersberger (argit.), *Childhood Matters*, Westview/Campus, Munich.
- JENSEN, A.M. (1992b), *Det vaklende faderskapet. Barns familier etter samlivsbrudd* (Aitasun hauskorra. Seme-alabak dituzten familiak banandu ondoren), NIBR-report 9. alea, Oslo.
- JENSEN, A.M. eta A. SAPORITI (1992), *Do Children Count? A statistical Appraisal of Childhood*. Eurosocial Report 36/17. European Centre: Viena.

- KNUDSEN, R. (1990), Familieydelser i Norden 1989 (Ipar herrialdeetako familia laguntzak 1989). Nordisk statistisk sekretariat, Tekniske rapporter 52. alea, Kopenhage.
- MARCIL-GRATTON, N. eta E. LAPIERRE-ADAMCYK (1990), "The Impact of New Adult Lifestyles on Children in Canada". A.R. Pence (argit.). *Childhood as a Social Phenomenon*. National Report. Canada Eurosocial report 36/6. Viena.
- MOEN, B. (1989), Husholdningsstørrelse og -sammensetning 1960, 1970 og 1980. Noen utvalgte alderstrinn (Familia-etxearen osakera eta tamainua 1960, 1970 eta 1980.ean). *Estatistika Bulego Nagusia, Rapporter, 15. alea*.
- NÄSMAN, E. (1992), *Childhood as a Social Phenomenon*. National Report. Sweden Eurosocial report 36/6. Viena.
- O'BRIEN, M. (1981), *The Politics of Reproduction*, Routledge & Keagan Paul, Londres.
- O'BRIEN, M. (1992), "Changing conceptions of fatherhood", Bjørnberg, U (argit.), *European parents in the 1990s. Contradictions and Comparisons*, Transactions Publishers, New Brunswick and London, 171-180 orr.
- OPPONG, C. (1988), "The effects of Women's Position on Fertility, Family Organization and the Labour Market: Some critical issues". IUSSP Conference on Women's Position and Demographic Change in the Course of Development delakoan aurkeztutako txostena, Oslo.
- PALMER, J.L., T. SMEEDING eta B.B. TORREY (1988) argit, *The Vulnerable*. The Urban Institute Press, Washington, D.C.
- PRESTON, S. (1984), "Children and the elderly in the U.S.", *Scientific American* delakoan, abendua, 251. lib., 6 zk., 36-41 orr.
- QVORTRUP, J. (1992a), *Childhood as a Social Phenomenon*. Dumon (argit.), *Children, Family and Society*. Konferenziaren txostena. Brussela: Europako Komunitateen Batzordea.
- QVORTRUP, J. (1992b), *Børn og unge. En international perspektivering SUM-programmets erfaringsopsamling*. (Haurrak eta gazteak. SUM egitaraua nazioarteko ikuspegi batetik). Sydjysk Universitetscenter/Socialforskningsinstituttet, Rapport 92:19, København.
- SELTZER, J.A. (1989), "Relationship between Fathers and Children who Live Apart". NSFH Working Paper 4. alea.
- STATISTICS SWEDEN (1989), *Barns levnadsvillkor*. (Haurren bizimaila). *Levnadsförhållanden*, Rapport 62. alea Stockholm.
- STATISTICS SWEDEN (1992), *Barnens familjeförhållanden år 1985*. (Seme-alabak dituzten familiak 1985. urtea). *Statistiska meddelanden* (juli).

---

**MONTSERRAT SOLSONA PAIRÓ**

**Demografia Ikerketarako  
Zentroa. Bartzelonako  
Unibertsitate Autonomoa**

*Lan iharduera  
eta familiaren  
eraketa.*

*Erkaketa  
azterlana*

*Elkarteka*

Zeharkako ebakizko hainbat azterlanetan lan ihardueraren eta ugalkortasunaren artean alderantzizko erlazioa dagoela behin eta berriz adierazi den arren, zenbait demograforen iritziz halako datuak ez dira bidezkoak dinamika iraunkor batez loturik dauden eta, beraz, emakumeen biografian zehar elkaturik edo txandaka suertatzen diren prozesu gisa aztertu beharreko bi fenomenori, hau da, lan iharduerari eta familiaren eraketari heldzerakoan (Sweet, 1982, Oppenheimer, 1982, Kempeneers eta Lelievre, 1991b). Apurka-apurka, luzetarako ikuspegia, familia-bizitzaren zikloaren perspektibatik, eta atzeranzko inkestak nagusituz joan dira, emakumeen iharduera, ezkontza eta ugalkortasuna direla-eta antzematen diren jokamoldeak argitzeko biderik egokienak direlakoan (Toelke, 1986, Bernhardt, 1987, Joshi, 1989, Kempeneers eta Lelievre, 1991a).

Illo horretatik, Ugalkortasunari buruzko Munduko Inkesta oso garrantzitsua izan da, zeren haurdunaldien eta ezkontzen historial osoaz gainera, gomendatu zen oinarritzko galdeketa elkarrizketatutako emakumearen lan historialari buruzko atal bat ere sartu baitzen (Lloyd, 1990). Proiektu honen barruan, Espainian 1978.ean bildu zen lehen aldiz sistematikoki emakumeen ugalkortasunari eta iharduerari buruzko atzeranzko informazioa. 1985.ean Espainiako Ugalkortasunari buruzko bigarren Inkesta burutu zen, hemen aurkezten den azterlana egiteko erabili diren datuak hartatik hartu direla. Bi ekitaldiotan bildutako informazioari esker, familiaren eraketari dagozkion etapa ezberdinak emakumeen lanbide-bizitzari dagozkion etapei lotu daitezke eta, horrenbestez, familiaren eraketa-bideko gertaera ezberdinek emakumearen lan merkatuko iharduketan duen eragina eta alderantziz ere aztertzeko aukera izan dezakegu, hots, lan historial jakin batek nola baldintzatu dezakeen ezkontzarekiko nahiz seme-alabak munduratzearerako jokamoldea.

Honako azterlan honetan jorratzen den emakumeen lan iharduerari buruzko analisi biografikoak, 18 eta 49 urte bitarteko 8.476 emakume elkarrizketatuz gauzatu zen 1985.eko Ugalkortasunari buruzko Inkestan lan historiari dagokion 6. atalean bildutako informazioa du oinarri. Atal horren egiturari jarraituz, banandurik azter daitezke honako emakume-taldeok: 1) noizbait ezkonduak edo bikote egonkorra osatu dutenak izanik, seme edo alabaren bat munduratu duten emakumeak, laginaren % 61,75a (5.234 emakume); 2) noizbait ezkonduak edo bikote egonkorra osatu dutenak izanik, seme-alabarik munduratu ez duten emakumeak (554 emakumeak, guztizkoaren % 6,45a); 3) ezkondu gabeko emakumeak, bikoterik osatu gabekoak, seme edo alabaren bat munduratu dutenak (laginaren % 0,47a), eta 4) ezkondu gabeko nahiz bikotea osatu gabeko emakumeak izanik, seme-alabarik ez dutenak (2.648 emakume, elkarrizketatutako emakume guztien % 31,24a). Lan iharduera, batetik, eta hemen ezkontzaz edo batasunaz (garrantzizkoa ekontideen egoera baita, ez egoera zibila) eta lehenengo semea edo alabaren jaiotzaz mugatu dugun familiaren eraketaren hasierako prozesua, bestetik, batera aztertuko baditugu, lehen taldera baino ezin dezakegu jo; hortaz, azterketa talde horretan oinarrituko da.

Azterketaren oinarrizko informazioa familia zikloko hiru etapetan lan iharduera izateari ala ez izateari dagokio, hots: ezkontza edo batasunaren aurretik; ezkontza gertatzen denetik lehenengo semea edo alaba jaioa arte; eta lehenengo semea edo alaba jaiotze ondoren. Informazio horretatik abiatuta, zortz lan ibilbide ezberdin moldatu daitezke, noizbait ezkonduak edo norbaitekin bikotea osatuak izanik, seme-alabaren bat izan duten emakumeentzat. Ibilbideok moldatzerakoan, galdeketan agertzen diren honako galderotan oinarritu naiz: 1. Zure lehen ezkontza edo batasuna baino lehenago lan egin zenuen? (602. galdera), 2. Ezkondu edo bikotea osatu ondoren eta lehenengo semea edo alaba izan bitartean lan egin zenuen? (605. galdera) eta 3. Lehenengo semea edo alaba izan ondoren lan egin zenuen? (606. galdera). Horrez gainera, 601. galdera: Soldataz ala soldatarik gabe inoiz lan egin duzu lan ihardunaldi arruntaren 1/3 gutxienik? eta 603.a: Zure lehen ezkontza edo batasunaren ondoren lan egin zenuen?, galbahe gisa erabili dira. Hortik ateratako zortzi lan ibilbideek edo familien lan norabideek aukera-sorta adierazgarria osatzen dute, familia zikloko hiru etapetan lan egin duten emakumeak (1. ibilbidea) nahiz ezein etapetan lan egin ez duten emakumeak (8. etapa) barruhartzen dituenak (ikus eskema 1. taulan).

---

Emaitzak aurkeztu aurretik, zenbait ohar egin beharra dago. Aurrena, Ugalkortasunari buruzko Inkestak eskaintzen duen informazioa, galderak nola eginak diren aintzat harturik, ez dela horren zehatza kontutan izan behar dugu. Zehazgabetasun horren erakusgarri zera da, ez dela iharduera-kondizioan gertatutako aldaketen egutegi zehatzik ezagutzen eta, beraz, ezinezkoa dela iharduera ala iharduerarik gabeko egoera bakoitzaren iraupena jakitea (aurrerantzean, iharduera eta lana baliokidetzat joko ditugula kontutan hartu). Adibidez, ez dakigu zenbat denbora igaro ote den lehenengo semea edo alaba jaio denetik eta haren ama lan merkatuara sartu edo itzuli arte: hileak? urteak?. Ama, agian, ez da lanera itzuli seme edo alabarik txikiena adin jakin batera iritsi arte; edo lan merkatuan hainbat aldiz sartu eta irten beharra suertatu zaio; edo, agian, seme edo alaba bakoitza jaiotakoan amak 6 urte eman du laneratu gabe. Ez dakigu.

Era berean, ez dakigu ezkondu ondoren eta lehenengo semea edo alaba izan bitartean ere lan iharduerarik izan ote duen. Aztergaiaren iraupenari dagokion galdera bakarra 604.a dugu: "zenbat urtez lan egin duzu lehenengoz ezkondu edo batu ondoren?". Gainontzeko galderak nola planteatu diren aintzat harturik, galdera honek eskainitako informazioa ez zaigu oso erabilgarria gure helburuei begira, ez baita ukagu inolako irizpiderik lanean emandako urteak familia zikloko etapa bati zein besteri atxikitzeko. Eskuardean dugun erreferentzia bakarra ezkontzatik lehenengo semea edo alaba jaio artean igarotakoaren iraupena da, baina ez da nahikoa. Ugalkortasunari buruzko Munduko Inkesta oinarritzat harturik egin diren beste zenbait azterlanetan, berriz, ezkontza nahiz batasunaz geroztik lanean emandako denbora-proporzioa erabili da adierazle gisa (Jones, 1982). Izan ere, adierazle hau oso egokia da ezkontza-kohorte berbereko emakumeen esperientziak alderatzeko, baina ez elkarrengandik oso urrun dauden belaunaldiak edo ezkontza-egutegi ezberdinak izan dituztenak konparatzeko.

Bigarren ohar bat. Ugalkortasunari buruzko Inkestari erantzun zioten emakumeak, 1985.eko ekainaren 31n, 18 eta 49 urte bitartekoak ziren, beraz, 32 urtetako belaunaldi ezberdinetakoak ziren, 1935.eko uztailaren 1etik 1967.eko ekainaren 31ra bitartean jaiotakoak (egutegiko 33 urte ezberdinetan). Horrela bada, inkesta oinarritzat harturik berregin daitekeen biografiaren zatia ezberdina da belaunaldi bakoitzari dagokionez. Ezberdinatsun hori bi alderditan gauzatzen da, batetik iraupena eta, bestetik, kasu bakoitzean azter daitekeen etapa. Inkesta egin zenean belaunaldirik zaharrenak osatzen zutenak ugalkortasun-aldiaren amaierara helduak ziren; gazteenak, ordea, aldi horren hasieran baino ez ziren. Hortaz, belaunaldi helduen kasuan lan iharduerak ezkontzaren egutegian izan dezakeen eragina

---

aztertzea erabat bidezkoa bada ere, gazteenen kasuan, behin-betiko proposamenak egiteko goizegi da.

Emaitzak aztertzean, gerratea bukatu ondoren (1940-45 bosturtekoan) jaiotako belaunaldien jokabidea eta 60. hamarkadako jaiotza-hazkunde nabarmena gertatu orduko, hau da, 1955.etik 1960.era bitartean jaio ziren belaunaldien jokabidea aipatuko ditut batipat. Belaunaldi bi hauen artean 15 urte igaro dira, tarte egokia dirudi azken bi hamarkadetan zehar Espainiako emakumearen gizarte eta familia-egoera nola aldatu den ebaluatzeko.

Hirugarren eta azken oharra. Biografiak berregitekotan, abiapuntu bakarra zegoen, hots, grabatutako zintati zuzenean ateratako datu indibidualak, ENE delakoak argitaratutako datuak ez baitzitzaion planteatutako arazoari egokitzen. Zuzeneko ustiapen honi esker, lan ihardueraren eta familia-eraketaren arteko erlazioa planteatu ahal izan da beste hainbat ezaugarri soziodemografiko ere (ikasketak, status sozioekonomikoa, habitat) kontutan harturik, eta ezaugarriok emakumearen berezitasun iraunkortzat hartu beharrak bere akatsak dituen arren, beste alde batetik, horrela giza-talde ezberdinen arteko bereizketa egiteko aukera izateaz gainera, lan ibilbide bakoitzari emakume-mota jakin bat ote dagokion somatu daiteke. Aldagai hauek, bestalde, elkarrizketaturiko emakumeari inkestaren unean datxekion ezaugarriak baino ez dituzte adierazten, eta beraz, ezin aztertu daiteke erdi-mailakotzat joko ditugun aldagai hauek zer nolako eragina izan lezaketen gure aztergaiari dagokionez, nahiz eta jakin badakigun denek dutela nolabaiteko eragina emakumeen lan eta familia-biografietan. Eginkizun dago, beraz, emakumeen familia eta lan-biografiaren nondik norakoan biltzen diren norberaren, gizartearen eta testuinguruaren askotariko dimentsioei buruzko azterketa sakonagoa, zeren, gai hau dela eta gizarte demografiaren arloan egin diren azterlan ugarietan argi eta garbi azaldu den moduan, lanaren eta familiaren arteko erlazioaz hitz egitea arazoaren alderdi bati eustea baino ez baita (Terry, 1975, Sweet, 1982).

## 2.

# *Espainiar Estatu osoari dagokion emaitzari*

Iharduera-aldi bakoitzaren iraupena ezagutzeko akatsak izanik ere, zortzi ibilbideak mugatuz lortu diren emaitzek belaunaldizko aldaketa garrantzitsuak gertatu direla erakusten dute.

### 2.1

#### **IBILBIDE NAGUSIAK ETA BIGARREN MAILAKOAK**

1. taulan, aztertua izan den taldean sartzen diren lagineko emakumeen banaketa azaltzen da ibilbideka eta bosturteko belaunaldi-taldeka, belaunaldirik gazteena izan ezik, berone-tan urtebeteko bi belaunaldi bakarrik sartzen baitira.

Hala aztertutako belaunaldien multzoa (1935.etik 1967.era bitartekoak) hartuz gero, nola aukeratutako bi belaunaldietara (1940-45 eta 1955-60) soilik joz gero, ibilbide nagusiak 1a (bizitzako hiru etapetan zehar lanean dihardutenak), 4a (ezkondu aurretik baino ez dihardutenak) eta 8a (hiru etapetan zehar lan iharduerarik ez dutenak) dira, baina ordena aldatu egiten da kasu bakoitzean.

Belaunaldi guztiak hartuta, emakumeetarik % 30 (1.549 emakume, taldearen % 29,75a, hain zuzen osatzen dutenak) 4. ibilbidean ageri zaizkigu, emakume hauek ezkondu aurretik lan egin, ezkondukoan lanari utzi eta harrez gero lan iharduerarik izan ez dutenak dira. Iharduera "iraunkorra" adierazten duen 1. ibilbidean, —zentzu hertsian, iharduera iraunkorraren orde, aztertutako bizitzako hiru etapetan zeharko iharduera bada ere— emakume guztien % 29,4a (1.531 emakume) ageri da, aurrekoaren antzera, beraz. Azkenik, 8. ibilbidean, garrantziaren aldetik hirugarrena, aztertutako taldearen laurdena sartzen da (1.262 emakume), hauek lan iharduerarik inoiz izan ez duten emakumeak dira.

8. ibilbidearen 100erainoko osagarriak emakumeen lan ihardueraren intentsitatearen luzetarako adierazle bat eskaintzen digu, hau da, bizitzan zehar noizbait lan egin duten emakumeen portzentaia adierazten digu (1.gotik 7.era bitarteko ibilbideen batuketa). Aztertuak izan diren belaunaldien multzoari dagokionez, emakumeen ihardueraren intentsitateak % 75,76ra iristen da. Nagusienetatik hasi eta 1955.etik 1960.era bitarteko belaunaldien jokatubidearen bi-

lakerari erreparatuz gero, ihardueraren intentsitatea areagotu egin dela ikusten da, hots, etxe-koandre-kopurua (8. ibilbidea) gutxitu egin dela. Belaunldirik gazteenak (1961-67) hartuz gero, ordea, inkestari erantzun ziotenean 25 urte bete gabe zeukatenen kasuan, alegia, intentsitatea ahulagoa da, eskolatzetasak oso handiak baitira. Ibilbidea, ezkondu aurretiko lan iharduera (4. ibilbidea), klasiko edo ohizkotzat jo izan dena, alegia, beheranzko joeraz ageri da; familia-zikloko hiru etapetan zeharko lan iharduera, aldiz, emakumeen adinari lotzen zaio, hots, zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta ugariagoa da (1960.az geroztik jaiotako kasuan izan ezik).

Gainontzeko bost ibilbideak (2, 3, 5, 6 eta 7.a) ez dira horren garrantzitsuak, emakumeetarik % 17 baino ez baitituzte barruhartzen. Ibilbide hauen artean bereizketa bat egin beharra dago, batetik, ezkondu aurretiko lan iharduera barruhartzen dutenak (2 eta 3. ibilbideak) eta, bestetik, ezkondu aurretik lan esperientziarik izan ez zuten emakumeek osatzen dituztenak (5, 6 eta 7. ibilbideak). Lehenengo multzoan (2 eta 3. ibilbideak), taldeko emakumeetarik % 12 sartzen dira, 2. ibilbidean sartzen diren emakumeek lehenengo etapen eta bigarrenetan lan ihardueraren bat izan zuten, baina hirugarrenean ez, hau da, lehenengo semea edo alaba jaio ondoren ez zioten lanari eutsi, horrelako emakumeek aztertu ditugun belaunaldi guztietako % 5a edo osatzen dute, alabaina, ezberdintasunak nabari dira belaunaldien artean: gazteenek, seme-alabak seguruaski aureskolan dituztenak, portzentaia handiagoak erakusten dituzte. 3. ibilbideak, hau da, ezkondu aurretik eta lehenengo semea edo alaba jaio ondoren bai, baina haurdunaldian lan iharduerarik ez zegoela agertzen dutenak, laginaren % 7a, gutxi gorabehera, barruhartzen du eta alderantzizko aldaketarako joeraz ageri zaigu, hots, emakumeak zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta gutxiago agertzen dira ibilbide honetan. Iraupen ezberdinetako bizitzak erabiltzen ari garela gogoratu beharra dago, eta gazteenak, inkestari erantzun ziotenean 4. ibilbidean (ezkondu aurretiko lan iharduera) zeudenak, alegia, etorkizunean 3. ibilbidean ager litezkeela, lan iharduerari berrekinez gero. Ezkondu aurretik lan iharduerarik izan ez zuten emakumeak biltzen dituen bigarren ibilbide-multzoari (5, 6 eta 7. ibilbideak) dagokionez, oso emakume gutxi barruhartzen dituzte (guztira taldeko % 5a baino ez). 6. ibilbidean, esate baterako, emakume guztien % 0,19a baino ez dago. Horrek zera adierazten du, erabat ezohizkoa dela ezkondu ondoren eta lehenengo semea edo alaba jaio bitartean bakarrik lan egitea. 5. ibilbidean, berriz, taldeko % 1,67 sartzen dira. Bigarren eta hirugarren etapen bai, baina ezkondu aurretik lan iharduerarik izan ez zuten emakumeak dira hauek. Lehenengo semea edo

---

alaba izan ondoren lanean aritu diren emakumeak biltzen dituen 7. ibilbidean emakume gehixeago ageri zaizkigu, % 3,15, gutxi dira, dena den.

Laburbilduz, ezkondu aurretik lanean aritu ez diren emakumeak, familiaren eraketari ekin ondoren lanean hasteko oso aukera gutxi izango du. Nolanahi ere, bizitza osorako etxeako andrea ez da emakumeri arruntena izan Espainian (lau emakumeetarik bat baino ez). Emakume gehienak ohizko ereduari, hots, ezkonduakoa lanari utzi egiten zaiola erakusten duena, eta iharduera "iraunkorra" adierazten duen ereduari ageri zaizkigu.

## 2.2

## BELAUNALDIZKO ALDAKETA

Gerratea bukatu ondoren jaiotako emakumeen kasuan, esperientziarik arruntena 4. ibilbidea litzateke: belaunaldi honetako hiru emakumeetarik batek lanean ziharduen ezkondu aurretik eta gerora behin-betiko utzi zion lanari. Bigarren tokian etxeako andreak (8. ibilbidea) ditugu, hauek belaunaldi honetako emakume guztien % 28ra iristen dira —hortaz, intentsitateak % 72a jotzen du, aztertutako belaunaldi-multzoarena baino pixka bat txikiagoa—. Azkenik, 1. ibilbidean, hau da, familia-zikloko hiru etapetan zeharko lan iharduera adierazten duena, belaunaldi-multzoan baino eragin eskasagoa du (emakume guztietatik % 23). 1955.etik 1960.era bitartean jaiotako belaunaldiek, lan adinera hirurogeitamargarren hamarkadaren azkenaldera iritsi zirenak, alegia, egoera arras ezberdina erakusten dute: belaunaldi hauetan, ezkondu edo batu ondoren seme nahiz alabaren bat izan duten 10 emakumetarik 4 ezkondu aurretik, ezkondu ondoren eta lehenengo semea edo alaba izan ondoren ere lanean aritu dira (1. ibilbidea). Bigarren tokian ohizko ereduari, klasikoari, dago eta hirugarrenean nolabaiteko garrantzia duen 8. ibilbidea (inolako lan iharduerarik gabekoa). Emaitzak, beraz, gerratea bukatu ondoko urteetan jaiotako belaunaldiaren aldean, guztiz ezberdinak dira, belaunaldi horretako 10 emakumetarik 2 baino ez baitzuten lan historia iraunkorra izan. Beste alde batetik, 4. ibilbideak, 1940.etik 1945.era bitartean jaiotakoentzat ohizkoena zena, emakume guztien % 25a biltzen du.

Emakume hauek 25 eta 30 urte bitartekoak ziren elkarrizketatuak suertatu zirenean (1985), gerrate ondoan jaiotako belaunaldikoek, aldiz, 40 urte beteak zituzten jadanik; hots, 1955.etik 1960.era bitartean jaiotako belaunaldiko emakumeek lan iharduerari berrekin diezaioketela 40 urte bete baino lehen. Hala eginez gero, klasikoari edo ohizkoena deri-

---

tzaion ibilbidearen batazbesteko eragina are gehiago murriztuko litzateke, etorkizunean emakume hauetako zenbait 3. ibilbidean agertuko lirateke eta, adin gehiagoko belaunaldiaren aldean urriago ageri den 3. ibilbidean, alegia (ezkondu aurretik eta lehenengo semea edo alaba izan ondorengo lan iharduera, baina ez haurdunaldian zehar).

Belaunaldi honen lan ihardueraren intentsitatea, emakume guztien % 80,5arena bezalako, gerrate ondoan jaiotako belaunaldiarena baino handiagoa da, 8 puntuz handiagoa hain zuzen. Eta seguruenik, emakumeen laneratzea gero eta handiagoa izateko egungo joerak irauenez gero, belaunaldi gazteago honi mende amaieran inkesta berri bat egingo bagenio, hots, 40 urte beteak izan ditzatenean, hau da, 2000. urtean, 40 eta 45 urte bitartekoak izan daitezenean (gerrate ondoko belaunaldiak zeukan adina Ugalkortasunari buruzko Inkestari erantzun ziotenean), belaunaldiarteko ezberdintasunak are nabarmenagoak izango lirateke. Izan ere, urte batzuk igarotakoan, lehenengo semea edo alaba jaio ondoren ez zutela lan iharduerarik izan adierazi zuten emakume gazteak, lan ihardueraren bat izan baitezakete etorkizunean. Ezkondu aurretik lanean aritu ziren emakume guztiek (2, 4 eta 6. ibilbideak) 2000. urtea baino lehenago birlaneratuko balira eta, aldi berean, lan iharduerarik inoiz izan ez dutenak ere (8. ibilbidea) lan merkatuan noizbait sartuko balira, zera auresan daiteke: binakako ibilbideetan, 2, 4, 6 eta 8.an ez zen inor ere agertuko eta berrogeitamargarren hamarkadako bigarren erdialdean jaiotako belaunaldiaren lan ihardueraren intentsitatea % 100eko balio hipotetikora iritsiko litzateke. Banakako ibilbideak, berriz, honela banatuko lirateke: 1. ibilbidean (iharduera "iraunkorra") % 47,34a; 3. ibilbidean (familia zikloko lehenengo eta hirugarren etapetan dihardutenak) % 29,23a; 5. ibilbidean (haurdunaldian zehar baino ez dihardutenak) % 1,7a; eta 7. ibilbidean (lehenengo semea edo alaba izan ondoren bakarrik lan egiten dutenak) % 21,7a.

Hau zenbakizko ariketa bat baino ez da, zeren, egia esateko, 1955-60ko belaunaldia-  
rentzat etorkizunean arruntenak izan daitezkeen ibilbideak, "zure lehenengo semea edo alaba jaio ondoren lan egin zenuen?" galderari ezetz erantzun zioten emakumeen jokabideari baino gehiago, belaunaldi honetako gainontzeko emakumeen jokabideari lotuta baitago, hots, inkesta egin zen unean ezkondu nahiz batuta egonik seme edo alabaren bat zeukaten emakume-taldetik at zeudenei, emakume guztien % 45 horretatik at zeuden emakumeen jokabideari, alegia. Alde horretatik, kontuan izan behar dugu belaunaldi horretako emakume guztietarik % 31 ezkondu gabe zeudela 1985.ean, eta Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestan (BAI) agertzen denez, urte horretan, emakume hauen iharduera tasa au-

---

rreko belaunaldietakoek adin berberaz zeukatena baino askozaz ere handiagoa zela. Hor-taz, zilegi da oraindik ere nabarmenagoak izango diren belaunaldizko aldaketen zain egotea.

Horrez gainera, beste belaunaldi batzurentzat egindako zenbatespenen arabera, aldaketa hori gero eta argiago ageri zaigu: 1950.etik 1955.era bitartean jaiotako belaunaldiari ere, 1985.ean berorietako % 82 ezkonduak edo batuak eta seme edo alabaren bat zeukatenean taldekide zirela, bere ondorengo belaunaldiari (1955-60) bezalako joera nabari zaio, intentsitate orokor handi batez (% 80,5 noizbait lanean arituak dira) eta lan ibilbide iraunkorrean presentzia nabarmenaz (% 34,07 1. ibilbidean).

## **2.3**

### **LAN IBILBIDEAK, IKASKETA-MAILAREN, EGOERA SOZIOEKONOMIKOAREN ETA HABITAT DELAKOAREN ARABERA**

Belaunaldi ezberdinen ibilbidekako banaketak, inkesta egin zen unean elkarrizketatuei edo haien ezkontideei zegozkien ondoko ezaugarri sozioekonomikook aintzakotzat harturik, hots: emakumearen eta ezkontidearen ikasketa-maila, ezkontidearen egoera sozioekonomikoa eta ohizko egoitza dagoen udalerria kontutan harturik egindako banaketak zera adierazi nahi du, emakumea lan merkatuari nola lotzen zaion ulertzeko, ez dela aski hura familia zikloko zein etapatan dagoen jakiteaz, baizik eta, gizarte egituran dagokion kokapena ere kontutan hartu beharra dagoela. Ondoren agertzen diren emaitzak aurreko lan batetik atera dira (Solsona, 1991).

### **2.3.1**

#### **IKASKETA-MAILA**

Aztertu diren belaunaldi guztiengan antzeman da: a) lan ihardueraren intentsitatearen eta ikasketa-mailaren artean erlazio negatiboa dagoela; eta b) konbinazio ezberdinak daudela ikasketa-mailaren, lan ihardueraren eta familia-eraketaren arabera.

Intentsitateari dagokionez, 8. ibilbidearen garrantzia (inoiz ere lan egin ez dutenak) ikasketa-maila igo ahala jaitsi egiten dela ikus daiteke, hau da, intentsitatea gehitu egiten da: ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak baino ez dituzten 100 emakumetarik 75 noiz-

bait lanean arituak dira; goimailako ikasketak dituzten emakumeen artean, berriz, % 85era iristen dira. Ibilbideei dagokienez, zera ikusten da: 1) Ikasketa-maila zenbat eta goragokoa izan, orduan eta aukera gehiago daude hiru etapetan zehar lanean aritzeko (1. ibilbidea), emakume analfabetoen kasuan izan ezik, hauek hautsi egiten baitute joera hori. Hortaz, goimailako ikasketak dituzten 10 emakumetarik 6 1. ibilbidean ageri dira, lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen artean, aldiz, 10etik 2 edo 3 baino ez dira ibilbide horretan agertzen; 2) "ohizko" ibilbidea, ezkondu aurretik bakarrik lan egin dutenena, ikasketa-maila jaitsi ahala ugaritzen da: goimailako ikasketak dituzten 100 emakumetarik 8 baino ez dira 4. ibilbidean ageri, emakume guztiak harturik portzentaia % 30era iristen dela; 3) goimailako ikasketak dituzten emakumeen artean "iraungabeko" ibilbideak nagusitzen dira, emakume hauetako % 24a barruhartzen dituztela eta emakume guztiak hartuta % 16ra iristen direla.

Azken emaitza honetatik zera atera daiteke: ikasketa-maila zenbat eta goragokoa izan, orduan eta kokaleku hobea lortuko da lan merkatuan, edo gutxienik ere sarbide erosoagoa. Horrela bada, malgutasun gutxiko (Erdialdeko Europako herrialdeen aldean) lan merkatu batean, amatasunarekin bateraezina suertatzen zaielako edo beste arrazoi batzurengatik beren lan iharduera eten egiten duten emakumeen artean, heziketaz hornituenak direnak etorkizunean birlaneratzeko aukera gehiago dituzte.

1940-45eko belaunaldiak eta 1955-60ko belaunaldiak banandurik aztertuz gero, batzbestearikiko desbiderapen batzuk somatzen dira. Gerrate-ondoko belaunaldian, ikasketa-mailarik behereneko (analfabetoak eta ikasketarik gabekoak) emakumeen ihardueraren intentsitatea eta hurrengo mailakoena (lehen mailako ikasketak) erkatuz gero, haien aldeko diferentzia nabarmenagoa da. Belaunaldi honetan, bestalde, ikasketa-maila edozein dela, ibilbide klasikoa edo ohizkoa (lanean ezkondu aurretik baino aritu ez direnak) arruntagoa da beti; salbuespen bat besterik ez dago, hots, goimailako ikasketak dituzten emakumeak, hauetako % 50ek familia zikloko hiru etapetan zehar lan egin baitute. Emakume hauek, halaber, presentzia handiagoa dute ezohizko ibilbideetan, hain zuzen ere, emakume hauen artean 10etik 3 ibilbide horietan aurkitu ditzakegu.

Belaunaldi gazteenari dagokionez, bi ezaugarri azpimarratu daitezke: 1) ikasketa-mailak ez du eraginik ihardueraren intentsitatean. 8. ibilbidearen 100erainoko osagarriak zera adierazten du, erdietsitako heziketa-maila edozein dela, 10 emakumetarik 8 noizbait lanean aritu direla; 2) 1. ibilbidea (iharduera "iraunkorra") da arruntena, lehen-mailako ikasketak dituztenen kasuan izan ezik.

### 2.3.2

## SENARRAREN EDO LAGUNAREN IKASKETAK ETA EGOERA SOZIOEKONOMIKOA

Senarraren ikasketa-mailari ez zaio emakumearen intentsitatearekiko nahiz lan ibilbidearekiko lotura zuzenik antzematen; alabaina, senarraren egoera sozioekonomikoa emakumeak jarraitutako lan ibilbidearekin zerikusirik baduela somatu daiteke. Horrez gainera, interesgarria da, belaunaldiz belaunaldi, senarraren status sozioekonomikoaren eta emakumearen lan ihardueraren arteko lokarria nola aldatu den egiaztatzea.

Gerrate-ondoko belaunaldian, lan ihardueraren intentsitate txikiena nekazaritzako langileen emakumei dagokie, eta ondoren, zuzendarien, kudeatzaileen eta goimailako lanetan ari direnen emakumei (portzentaiarik gorena 8. ibilbidean, % 35aren inguruan). Beste muturrean, lan intentsitate handienaz (% 80), soldatapeko langilerik gabeko enpresarien emakumeak ageri dira, eta hauekin batera, nekazaritzako kooperatiba-kideen nahiz euren kabuz lan egiten dutenen emakumeak. Honenbestez, belaunaldi honetako emakumeek ezkondu ondoren lan iharduerarik izatekotan, gehienetan laguntzaile gisa, familiaren iharduera edo negozioren batek (nekazaritzako zein bestelakoa) tartean izan behar duela dirudi.

Belaunaldi gazteenetan (1955-60ko belaunaldia), ordea, soldatapeko langilerik gabeko enpresarien, euren kabuz lan egiten dutenen edo kooperatiba-kideen emazteak dira zifrarik handienak erakusten dituztenak 8. ibilbidean (emakume hauetako % 30ek ez du inoiz ere lanik egin); zuzendarien, kudeatzaileen eta goimailako lanak dituztenen emazteen artean, aldiz, % 90 noizbait lanean aritu dira.

### 2.3.3

## HABITAT

Udalerrriaren tamainuak duen eragina aztertzerakoan, gerrate-ondoan jaiotako belaunaldiko kasuan, oro har, faktore honen eragina ezer gutxi nabari da intentsitatean eta jarraitutako lan ibilbideetan: intentsitatea beti dabil % 75aren inguruan eta ibilbiderik arruntena klasikoa da (4. ibilbidea). Salbuespen bakarra udalerrri txikienek erakusten digute (10.000 biztanle baino gutxiago dituztenak), batzbesteko intentsitate iristen ez direlako (% 65); udalerrri txiki hauetan, alabaina, ibilbide "iraunkorra" (1. ibilbidea) udalerrri handiagoetan baino askoz ere ugariagoa da. Hemen, agian, penintsularen iparraldeko nekazaritzaren eragina nabari daiteke, bertako emakumeen lana funtsezkoa baita familia-ustiapenei eusteko.

---

Belaunaldi gazteenen kasuan, ihardueraren intentsitatea udalerrriaren tamainuarekin batera hazten da. Era berean, egoitza dagoen hiria handiagoa den neurrian, ibilbide "iraunkorra" nagusituz doa, 50.001etik gorako eta 500.000tik beherako biztanleria duten udalerrietan izan ezik, hauetan ibilbide ezberdinen arabera banaketa ñabarragoa baita.

## **2.4**

### **LAN IBILBIDEA, EZKONTZAK ETA UGALKORTASUNA**

Lan-familia ibilbide ezberdinak ezkontzeko eta ugaltzeko jokabide ezberdinei lotzen bazaizkie jakin asmoz, inkesta egin zenean ugalkor izateari uztekoan zegoen gerrate-ondoko belaunaldia eta ibilbide nagusiak harturik, ezkontzen eta ugalkortasunaren egutegia eta ugalkortasunaren intentsitatea aztertu ditut. Horretarako, lehenengo ezkontzaren adina eta ugalkortasunarekin zerikusirik duten lau aldagai, hau da, lehenengo semea edo alaba jaio zenean emakumeak zuen adina, 25 urte igarotakoan metaturiko ugalkortasuna, munduratutako seme-alaben kopurua eta nahi izandako seme-alaben kopurua, kontutan hartu ditut.

Lortutako emaitzak aztertzerakoan (ikus 2. taula), lan iharduerak ezkontzan eta ugalkortasunean duen eragina, emakumeak lan egin dueneko bizitzako unearen arabera dela ikusten da. Lanean ezkondu aurretik baino aritu ez diren emakumeak (4. ibilbidea), lanean inoiz ere aritu ez direnak baino geroago ezkontzen dira, eta lehenengo semea edo alaba ere urtebeteko atzerapenez izan ohi dute, 40-45 urtez munduratutako seme-alabei dago-kenez, ordea, kopuru berdintsuak agertzen dituzte. Hau da, gertaerak (ezkontza eta ugalkortasuna) geroratu egiten dira, eta 25 urte igarotakoan metaturiko ugalkortasuna neurtuz ere nabari da geroratze hori, nahiz eta ugalkortasunaren behin-betiko intentsitatea (erdietsitako familia-tamainua) ez aldatu.

Hala ere, aztertu diren familia-zikloko hiru etapetan zehar lan egin duten emakumeek (1. ibilbidea), aurreko bi emakume-taldekoek baino seme-alaba gutxiago munduratu dute azken finean. Aitzitik, familia-zikloaren hasierako etapari dagokion egutegian (ezkontzeko adina eta lehenengo semea edo alaba munduratu zeneko adina) edota 25 urte igarotakoan metaturiko ugalkortasunean ia ez da ezberdintasunik antzematen etxekoandreen (4. ibilbidea) jokabidearekiko.

Laginaren mugak direla medio, lan historialari eta familia-zikloari buruzko lurraldekako azterketa biografikoa ez da nahi bezain zehatza gertatu. Lagin hau Autonomia Elkarreetako egoeraren erakusgarri izan zedin taitu zen, hala ere, azterlan honen xede den analisi biografikoa inkestaren biztanle-talde mugatu bati (seme-alabak dituzten emakume ezkonduk) dagokionez gero, eta talde hori, halaber, askotariko irizpideen arabera galbahatua gertatu denez, kasu-kopurua gero eta urriagoa suertatzen zaigu. Irtenbide bat, emakumeak lan merkatuan zuen partaidetza-maila edo antzerako irizpideak erabiliz, 17 Autonomia Elkarreak eskualde handi batzutan biltzea izan zitekeen; baina, horrela atera ziren bost eskualdeen artean ezberdintasun oso nabarmena ageri zen biztanle-kopuruaren aldetik, eta horrenbestez, nire zenbatespenen fidagarritasun-mailak gorabehera handiegiak izan zezakeen eskualdeen arabera. Gauzak horrela, 17 Autonomia Elkarreei heltzea hobetsi dut, nahiz eta analisi biografikoa hurrengo alderdiotara mugatu behar izan dudana, hots: a) belaunaldien lan ihardueraren intentsitatea Autonomia Elkarteka; b) ezkontzean lan iharduera eten egiten dela erakusten duen tradiziozko jokabidearen eragina; eta c) familia bizitzaren zikloak dirauen bitarteko lan iharduera iraunkorragoa erakusten duen lan ibilbidearen ezarketa.

### **3.1 INTENSITATEA ETA LAN HISTORIALA AUTONOMIA ELKARTEKA (BELAUNALDI GUZTIAK)**

Aztertuak izan diren belaunaldi guztientzat (1935.eko uztailaren 1etik 1967.eko ekainaren 30era bitartean jaiotakoak), intentsitaterik handiena Katalunian nabari da, non seme-alabak dituzten emakume ezkonduetarik % 90 euren bizitzan zehar noizbait lanean aritu diren (8. ibilbidea = % 12) (ikus 3. taula eta 1. mapa). Balearreetan, Murtzian, Nafarroan, Euskadin, Valentziako Elkarrean, Errioxan eta Aragoan, ordena honen arabera, noizbait lanean aritu diren emakumeak % 80tik eta % 90era bitartean daude (estatuko batzbestekoaz gaindi, beti ere), beraz, elkarte hauetan ere emakumeen lan iharduera handia dela esan daiteke. Emakumeen lan ihardueraren luzetarako adierazlea, aitzitik, estatuko batzbestetik behera ageri zaigu honako elkarteotan: Kanarietan, non 10 emakumetarik 7k lan egin duten; Gaz-

---

tela-Mantxan, Asturiasen, Andaluzian, Kantabrian eta Galizian, % 70etik % 60ra bitarteko portzentaiez. Azkenik, Estremadura dugu, emakumeen lan iharduera bitxiagoa den elkarte: bi emakumetarik 1ek besterik ez du lanik egin aztertutako emakume-taldeari dagokionez. Nahikoa harrigarria deritzogu Galiziako egoerari, izan ere, zeharreko adierazleek, edozein iturritakoak direla (Nekazarien erroldak BAI delakoarenak baino zenbatespen handiagoak ematen ohi baititu, eta azken horrek Biztanleen erroldarenak baino handiagoak), larrogeigarren hamarkadan zehar beti erakutsi baitigute Galiziako emakumeen iharduera-tasa Espainiako gainontzeko eskualdeetako tasen gainetik zegoela.

### 3.1.1

### IBILBIDEAK AUTONOMIA ELKARTEKA

Ibilbide ezberdinek Autonomia Elkarte bakoitzean duten garrantziaren eta aipatu berri dugun iharduera-intentsitatearen arteko lotura ez da horren argia. Hortaz, Galizian, esate baterako, eta ez horren nabarmen baina Baleareetan ere bai, iharduera iraunkorra adierazten duen 1. ibilbidea nagusitzen da argi eta garbi. Katalunian eta Valentziako Elkartean, berriz, ezkondukoan lanari uzteko ohizko jokabideari jarraitzen dio elkarrizketatutako emakumetaldako % 30ek, baina 1. ibilbidea da nagusi hemen ere. Aragoan, Murtzian, Errioxan, Madrilan, Nafarroan eta Euskadin, ordea, intentsitate nabarmena erakutsi duten arren, ibilbiderik arruntena tradiziozkoa da.

Harrigarria badirudi ere, Asturiasen, Gaztela-Mantxan eta Kanarietan, 10 emakumetarik 7 lanean aritu direla, emakume hauetako 7tik 6 bi ibilbide nagusietan (1. goan eta 4. ean) ageri zaizkigu nahikoa parekatuak. Azkenik, % 60 emakume lanean aritu direneko Kantabrian eta Gaztela-Leonen 4. ibilbidea dugu hornituena, Andaluzian eta Estremaduran bezalaxe. Azterlan honen helburua ez da lan jokabideari dagokionez lurraldez lurralde nabari den bereizketa argiaren arrazoiak mugatzea; eskualde bakoitzaren produkzio-egiturak eta lan aukerak, bai gizonentzat eta bai emakumeentzat, faktore garrantzitsuak izango dira seguruenik, arazo horretan; nolana ere, datu hauek Espainiako eskualde ezberdinetan emakumeari familiaren baitan eta gizartean suertatu zaion zeregina nolabait erakusten digute.

Gerrate-ondoko belaunaldiko emakumeen ihardueraren intentsitatea azaltzen duen mapan ikusten denez, lurraldeen artean ezberdintasun nabarmenak ageri dira intentsitate horri dagokionez, hala ere, lurralde bakoitzean berdintasuna da nagusi emakumeen lan partaideztari dagokionez.

Intentsitaterik handiena erakusten duten lurraldeak, hau da, 8. ibilbidean (lanean inoiz ere aritu ez diren emakumeak) zenbateko urriena agertzen dituztenak, intentsitate-mailarik gorenetik hasita, honako hauek dira: Nafarroa, % 89ko intentsitate batekin eta Murtzia, Valentziako Elkartea, Baleareak, Katalunia, Asturias eta Euskadi, % 80tik 85era bitarteko intentsitateekin (ikus 2. mapa). Beste muturrean Estremadura dago, non 1940.etik 1945.era bitartean jaiotako emakumeen artean, lanean noizbait aritu direnak % 42 baino ez diren; eta ondoren Gaztela-Leon, % 50aren inguruko intentsitatearekin eta Kantabria % 60koarekin daude.

Gainontzeko eskualdeak, 2. mapan agertzen den bezala, tarteko portzentaiak dituzte. Deigarria da, puntu honetan ere, Galizia 1985.ean iharduera-tasarik urriena erakusten zituena Gaztela-Mantxaren ondoan ikustea. Baina, noizbait lanean aritu diren emakumeen banaketari erreparatzean, Galiziak 1. ibilbide oso hornitua erakusten duela dakusagu, hots, bizitza osoan zehar lan egin duten emakume asko dauzkala, eta gainontzeko lurraldeetan ibilbide-dibertsifikazio orekatuagoa ageri dela.

Gauzak honela, emakume galiziarren laneratzea ahalbidetzen duten ekonomi iharduera guztiak familiari lotuak direla eta, horrenbestez, iharduera horiei ekiten dieten emakumeek bizitza osorako lana dutela esan daiteke. Emakume galziarrak nekazaritzako familia-ustiapenetan betetzen duen zereginaz ari gara, noski. Iharduera horietatik kanpo geratzen diren emakumeak, ordea, ez dute bestelako lan aukerarik.

Lan ibilbide "iraunkorra"-ren eta ibilbide klasiko edo ohizkoenaren lurraldez lurraldekako ezarketa erakustearren, emakume langileak ibilbide nagusietan nola banatzen diren azaltzen duen 4. taula egin dut. Familia-zikloko hiru etapetan zehar, hau da, ezkondu aurretik, ezkondu ondoren eta lehenengo semea edo alaba ekarri aurretik eta lehenengo semea edo alaba munduratu ondoren, lan egin duten emakumeak biltzen dituelako "iraunkorra" deritzan 1. ibilbidean sartu diren Autonomia Elkartea bakoitzeko emakumeen portzentaiak Galizian jotzen du goia (% 70) eta Aragoan behea (% 9). 1940-45eko belaunaldiko emakume-

---

ei dagokienez, Galiziako 10 emakume langiletarik 7 ibilbide honetan ageri zaizkigu, 4. ibilbidean, aldiz, tradiziozko edo ohizko ibilbidean, hain zuzen, Galiziako emakume langileen % 2,2a baino ez dago.

Intentsitate oso nabarmenak erakusten dituzten Katalunian eta Balereetan ere (Mediterraneo aldean) 1. ibilbidea nagusitzen da. Valentziako Elkartean, berriz, 1. eta 4. ibilbideek antzerako portzentaiak dituzte, belaunaldi horretako emakume langileen herena baino gehiago barruhartzen dituztela. Gaztela-Mantxan ere, aintzakotzat hartu den familia-zikloko hiru etapetan zehar lanean aritu diren emakumeek eratzten dute ibilbiderik arruntena (% 55,5). Nolanahi ere, eskualde askotan tradiziozko moldea da ugariena. Estremaduran, adibidez, ezkontzean lanari uztea da ohizko jokamoldea, hala egin dute belaunaldi horretako 10 emakumetarik 7k. Aragoan eta Andaluzian ere zenbateko berdintsuak ageri dira (% 65,2 eta % 57,4 hurrenez hurren). % 50etik % 55era bitarteko zenbatekoekin hurrengo elkarteak ditugu: Madril, Murtzia, Nafarroa, Euskadi eta Kanariak.

### **3.3**

#### **BERROGEITAMARGARREN HAMARKADAREN BIGARREN ERDIAN JAIOTAKO BELAUNALDIEN NONDIK-NORAKOA**

1955.etik 1960.era bitartean jaiotako belaunaldiaren intentsitatea eta hark jarraitutako ibilbideen banaketa elkarterik elkarte aztertu aurretik, ezkontzari eta seme-alabak munduratzeari dagokionez belaunaldi honek lurraldez lurralde erakusten dituen jokabide bereziak ikustea merezi du.

#### **3.3.1**

#### **EZKONTZAK ETA UGALKORTASUNA LURRALDEEN ARABERA**

Ezkontzari dagokionez, 1955-60ko belaunaldiak 25-30 urte betetakoan, Andaluzia eta Kanariak erakusten dute ezkongabeen portzentaiarik urriena Galizia eta Errioxarekin batera (% 20 gutxi gorabehera) (ikus 5. taula). Barneko zeharreko zerrendak, Gaztela-Leon eta Estremadura eta Euskadiren eta Kantabriaren zati bat barruhartzen dituen, ezkongabe-indi-

---

zerik handiena adierazten du, % 38tik 40ra; Nafarroa, Aragoa eta Madril ere % 35etik hurbil daude.

Estatuko batazbestearekin, hots, 20-24 urtetako 10 emakumetarik 7 ezkonduak nahiz egonkortasunez batuak eta 3 ezkongabeak direla, Asturias, Baleareak, Gaztela-Mantxa, Katalunia eta Murtzia ageri dira. Hau da, Espainiako ezkontzei buruzko eskualdekako azterlanetan azaldu ohi den mapa ikus daiteke, hots, kostaldeko eskualdeetan (Kantabrian eta Euskadin izan ezik) halako goiztartasun bat nabari dela ezkontzerakoan, eta aipatutako bi eskualde horietan nahiz penintsulako barrualdeko eskualdeetan ezkontza geroratu egiten dela.

Seme-alabak munduratzeari dagokionez, arlo honetan ere Andaluzia eta Kanariak gailentzen dira, izan ere, belaunaldi horretako (1955-60) emakumeen artean, % 64k eta % 65ek, hurrenez hurren, ezkondu edo batuta egoteaz gainera, gutxienik seme edo alabaren bat baitzuten (estatuko batazbestekoa % 55era iristen da) (ikus 4. mapa). Nafarroa, aldiz, beste muturrean ageri zaigu, emakume-talde horretan belaunaldi berbereko % 42 sartzen direla.

Mediterraneo aldean, berriz, seme-alabak dituzten emakume hauek osaturiko taldeak ordezkaritza gutxiago dauzka, baina hori ez da ezkontza geroratzearen ondorioz gertatzen, adin horretako ezkonduen ugalkortasuna oso txikia delako baizik, edo beste modu batez esateko, seme-alaben jaiotza berandutu egiten delako. Katalunian, esate baterako, inkesta egin zenean, emakume-talde honek % 51a baino ez zuen biltzen, nahiz eta belaunaldi horretako 100 emakumetarik 71 ezkonduak ziren; emakume horietako % 20k ezkondu egon arren ez zeukan seme-alabarik (ikus 5. mapa). Valentziako Elkartean, Errioxan eta Balearetan Katalunian bezalako egoera aurkitzen dugu. Euskadin eta Aragoan, aldiz, ezkontza eta seme-alabak munduratzeari elkarloturik daudela ematen du: ezkonduak emakumerik gehienek seme-alabak zituzten, baina, hala ere, belaunaldi horretako ehun emakumetarik 40 inguru ezkongabeak ziren. Kantabrian eta Gaztela-Leonen ere egoera berbera nabari da.

### 3.3.2

#### LAN INTENSITATEA LURRALDEEN ARABERA

1955-60ko belaunaldiaren lan intentsitatea azaltzen duen 3. mapa gehiago hurbiltzen zaio zeharreko ebakizko datu batuen bidez antzematen diren eskualdekako pautei, hots, errolda eta inkestetatik ateratako aldian aldiko iharduera-tasaren zenbatespenei, eta larogeigarren hamarkadaren amaierako ekonomi abagadunearen mapari. Izan ere, intentsitatearen luzetarako adierazlea ehuneko 90etik gora ageri zaigu beti Madrilen eta baita, espainiar esta-

---

tuaren eremuan, ekonomia dinamikoa erakusten duten Iparekialdeko eskualdeetan, hots: Balearreetan, mediterraniar arkuko eskualdeetan (Katalunia, Valentziako Elkartea, Murtzia) eta Ebro ardatzean (Nafarroa eta Aragoa). Euskadi eta Errioxa ez dira portzentaia horretara iristen baina oso hurbil daude (% 89,4 eta % 86,9, hurrenez hurren).

Andaluzian eta bi Gaztelatan, aurreko lurraldeak baino portzentaia askoz ere txikiagoak dauden arren, belaunaldi aldaketa oso nabarmena izan da; gerrate-ondoko belaunaldiaren lan intentsitatearen aldean, komunitate hauetako emakumeen laneratzea nabarmenki areagotu da. Alde honetatik, gehikuntzarik deigarriena Gaztela-Leoni dagokio, non gerrate-ondoko belaunaldiaren % 51ko intentsitatea % 72eraino iritsi den 1955-60ko belaunaldian. Estremaduran ere aldaketa positiboa nabari da, baina, hala eta guztiz ere, eskualdekako zerrendaren azken tokian dago.

Iparmendebaldeko lurraldeen ekonomiaren atzerapena argi eta garbi azaltzen da belaunaldi berri hauen lan iharduera erakusten duen mapan. Izan ere, Galizian eta Kantabrian, belaunaldi gazteenen intentsitatea 1940-45eko belaunaldiarenaren antzekoa da, eta Asturiasen, nekazaritzaren gainbeheraldia eta gazteentzako aukera-eza direla medio, belaunaldi aldaketak aurrerapenik ekarri beharrean atzeranzko joera garbia erakusten du: 1940-45eko belaunaldiko 5 emakumetarik 4 bizitzan zehar noizbait lanean arituak diren bitartean, belaunaldirik gazteena (1955-60) osatzen dutenen kasuan, 3 emakumek lan merkatuan badihardute, beste 2 etxeakoandreak dira.

### 3.3.3

### LAN HISTORIALA

Aztertu den emakume-taldeko (1955-60ko belaunaldiak) langileen ibilbideei eta Autonomia Elkarteei begiratuz gero, gerrate-ondoko belaunaldian zeukan garrantzia aintazt harturik, Gaztela-Mantxan izan ezik (hemen % 38tik % 24ra jaitsi baita), gainontzeko Autonomia Elkarate guztietan 1. ibilbidearen garrantzia areagotu egin dela ikus daiteke (6. taula). Nolanahi ere, hedatuz joan den arren, 1. ibilbidea ez da oraindik 1955-60ko belaunaldiaren ibilbide nagusia Autonomia Elkarate guztietan; alabaina, iharduera "iraunkorra" adierazten duen ibilbide hau ohizkoena da belaunaldi honentzat estatu osoa kontutan hartuz gero.

Errioxan eta Kantabrian, 1. ibilbidea eta 4. ibilbidearekin parekatu ageri zaigu. Gaztela-Mantxan eta Estremaduran, ezkondukoan lanari uzteko joera tradizionalari jarraitu dioten 10 emakume badira, beste 5 familia-zikloko hiru etapetan zehar aritu dira lanean. Gaztela-Leo-

---

nen, Murtzian eta Andaluzian, emakumerik gehienek jokabide klasikoari (4. ibilbidea) jarraitzen diote, honen ondo-ondoan 1. ibilbidea dagoela. Egia esateko, Andaluzia eta Kanarietako lan ihardueraren gehikuntza ekarri duten modalitateak ohizkoenak diren bi ibilbideetan (iharduera iraunkorra —1. profila—, eta tradizionala —4. profila—) nahiz jarraigabeko lan historialak adierazten dituzten ibilbide bereziagoak (gainontzeko profilak) sartzen dira.

Penintsulako iparrekialdeko eskualde guztietan, Balearreetan eta Madrilen, berriz, lan intentsitatearen gehikuntza, lan historial iraunkorraren areagotzearekin batera gertatzen da. Hots, iraganean ere emakumeek etxetik kanpo lan egitea ohizkoa zeneko eskualdeetan, ezkondu ondoren lanari eutsi dioten emakumeen portzentaia beste eskualde batzutan baino askoz ere handiagoa dela. Esan nahi baita, ezen, emakumeentzako lan aukerak izateak, berez, produkzio-lana eta ugalketa-lanaren arteko bateraezintasuna arintzen lagundu bide duela.

Lehendabizi, familiaren eraketari ekin aurretiko lan esperientzia funtsezkoa da. Hortaz, ezkondu aurretik lan egin ez duten emakumeek gerora ere lan egiteko oso aukera gutxi izaten dute.

Bigarrenik, azterlan honen emaitzen bidez argi eta garbi egiaztatzen da ezkontzeak eta lehenengo semea edo alaba munduratzeko eragin negatiboa dutela emakumeen iharduerari dagokionez. Adineko belaunaldiengan, batez ere, ezkontzak emakumeen lan ihardueran izan duen eragin murriztailea oso nabarmena izan da. Belaunaldi gazteenengan, berriz, eragin horrek badirau oraindik, baina gero eta ahulago; berorren ordean, iharduerari uztearen geroratze bat nabari da gero eta gehiago, hau da, familia-zikloko bigarren etapara iritsi arte eusten zaio lanari, lehenengo semea edo alaba jaio arte, alegia.

Hirugarrenik, lan ibilbide iraunkorrak seme-alabak izaterakoan duen eragin negatiboa gerrate-ondoan jaiotako belaunaldiarentzat ere zenbatetsi da. Nolanahi ere, etxekoandreak aintzat harturik, izandako seme-alaba kopuruen arteko diferentziaren bidez neurtutako eragin hau oso eskasa izan da (2,71 versus 2,98).

Azkenik, 1955-60ko belaunaldia aldaketa-belaunaldia dela egiaztatzen da. Ekonomiaren atzerapenak emakume gazteenak, bereziki, ikutu ditueneko penintsulako lparmendebaldeko eskualdeetan izan ezik, belaunaldi honetako emakumeen lan ihardueraren intentsitatea handiagoa da gainontzeko Elkarte guztietan, eta intentsitatearen areagotze hori familia bizitzaren zikloko hiru etapetan zeharko lan iharduera "iraunkorraren" hedapenari lotzen zaio.

## *Bibliografia*


- BERNHARDT, E. (1987), Labour force participation and childbearing: The impact of the first child on the economic activity of Swedish women, *Stockhola Research Reports in Demography* 41.
- BERNHARDT, E. (1989), Fertility and Employment, *Stockhola Research Reports in Demography* 55.
- CAMBOIS, M.A., LELIEVRE, E. (1988), Durée de l'activité et interruption de carrière des femmes âgées de 45 ans à 69 ans à 1981, *Population* 3 669-675 orr.
- DAVIS, K. (1984) Wives and Work: The sex role revolution and its consequences, *Population and Development Review* 10/3, 397-417 orr.
- HOEM, J. (1990) Social Policy and Recent Fertility Change in Sweden, *Population and Development Review* 16/4, 735-748 orr.
- JONES, E.F. (1982), Ways in wich childbearing affect women's employment. Evidence from the US National Fertility Studies, *Population Studies* 36/1, 5-14 orr.
- JOSHI, H. (1989), The changing form of women's economic dependency, JOSHI, H. (arg.), *The chanching population in Britain*, Basil Blackwell, Oxford. 157-176 orr.
- KEMPENEERS, M. eta LELIEVRE, E (1991a), Women's work in the EEC: Five career Profiles, *Demografiari buruzko Europar Biltzarra*, Paris.
- KEMPENEERS, M. eta LELIEVRE, E (1991b), Analyse biographique du travail féminin, *European Journal of Population* 7, 377-400 orr.
- KEYFITZ, N. (1986) The family that does not reproduce itself, a *Population and Development Review* 12 (suplement), 139-154 orr.
- LLOYD, C. (1990), Understanding The Relationship Between Women's Work and Fertility: The contribution of the World Fertility Survey, *The polpulation Council*, New York.
- MOTT, F.L. eta SHAPIRO, D. (1983) Complementary of Work and fertility among youngs American mothers, *Population Studies delakoan*, 37/2, 239-252 orr.
- NI BHROLCHAIN, M. (1986), The interpretation and role of work-associated accelerated Childbearing, *European Journal of Population* 2, 135-154 orr.
- OPPENHEIMER, V.K. (1982), *Work and the Family. A study in Social Demography*, Academic Press, New York.
- SOLSONA, M. (1991), *Analisi demgràfica i territorial de l'activitat femenina. Espanya 1970-1986*, Bellaterra, Universitat Autònoma de Barcelona (tesi doctoral).

- 
- SWEET, J. (1982), Work and Fertility: The Childbearing decisions, a FOX, G.L. (Arg.), Fertility Attitudes and Behavior Sage Publications, 197-218 orr.
- TERRY, G.B. (1975) Rival explanations in the Work-Fertility relationship, Population Studies delakoan, 29/2, 191-205 orr.
- TOELKE, A. (1986), Effects of Marriage and childbirth on Women's Labor Force, International Conference: Application of Event History Analysis in Life Course Research, Berlin.

**1. TAULA Seme-alabak dituzten emakume ezkondu nahiz batuen bana-  
keta lan ibilbide ezberdinen arabera. Espainia. 1935-39tik  
1965-67ra bitarteko belaunaldiak**

BELAUNALDIAK	ADIN MULTZOAK	LAN IBILBIDEAK								GUZTI.
		1	2	3	4	5	6	7	8	
7/65 - 6/67	18-19	4	0	0	3	1	0	0	11	19
7/60 - 6/65	20-24	58	16	8	67	2	2	17	89	259
7/55 - 6/60	25-29	298	60	36	185	8	5	17	147	756
7/50 - 6/55	30-34	354	68	69	331	16	0	21	180	1.039
7/45 - 6/50	35-39	324	45	84	369	20	1	28	261	1.132
7/40 - 6/45	40-44	248	38	79	331	19	0	37	290	1.042
7/35 - 6/40	45-59	245	26	75	263	21	2	44	284	960
<b>7/35 - 6/67</b>	<b>18-49</b>	<b>1.531</b>	<b>253</b>	<b>351</b>	<b>1.549</b>	<b>87</b>	<b>10</b>	<b>164</b>	<b>1.262</b>	<b>5.207</b>

*Iturria:* Norberak egina ENEren datuetan oinarriturik (Ugalkortasunari buruzko Inkesta, 1985).



===== lan ihardueraduna

===== lan iharduerarik gabekoa

*Iturria:* Norberak egina, 1985.eko Ugalkortasunari buruzko Inkestan Lanbide-Historiari dagokion 6. Atalean oinarriturik

## 2. TAULA Lan historia eta familia-zikloa seme-alabak dituzten emakume ezkonduak nahiz batuak. 1940-45eko belaunaldiak

ALDAGAIA	LAN IBILBIDEA		
	1	4	8
Lehenengoz ezkondu zeneko adina	24,08	24,19	23,71
Lehen seme/alaba jaiotzeko adina	25,04	25,18	24,11
25 urtetan metaturiko ugalkortasuna	0,77	0,72	0,87
Munduraturako seme-alaba kopurua	2,71	2,97	2,98
Nahi izandako seme-alaba kopurua	2,70	2,83	2,84

*Iturria:* Norberak egina ENEren datuetan oinarriturik (Ugalkortasunari buruzko Inkesta, 1985).

## 3. TAULA Seme-alabak dituzten eta noizbait ezkonduak nahiz batuta egon diren emakumeak, lan ibilbideka eta Autonomia Elkartek 1937/7tik 1967/6ra bitartean jaiotako belaunaldiak

AUTONOMIA ELKARTEAK	LAN IBILBIDEAK								GUZTI.
	1	2	3	4	5	6	7	8	
Andaluzia	19,76	2,90	6,13	31,86	1,19	0,17	3,41	34,58	100
Aragoa	20,94	2,99	9,40	42,74	0,85	0,43	2,14	20,51	100
Asturies	24,58	2,54	5,93	25,42	3,39	0,00	6,78	31,36	100
Baleareak	44,67	7,11	3,55	21,32	2,03	0,00	8,12	13,20	100
Kanariak	25,51	3,64	6,88	25,51	3,24	0,40	4,86	29,96	100
Kantabria	18,68	3,85	8,24	24,73	2,20	0,00	4,95	37,36	100
Gaztela-Leon	23,91	3,42	1,86	26,71	1,86	0,00	1,55	140,68	100
Gaztela-Mantxa	30,08	1,13	5,26	28,95	0,75	0,00	3,01	30,83	100
Katalunia	38,83	9,28	7,90	29,04	1,72	0,00	1,20	12,03	100
Valentziako Elk.	36,30	7,03	11,48	28,10	0,94	0,00	1,87	14,29	100
Estremadura	15,09	0,47	1,42	31,13	0,47	0,47	0,94	50,00	100
Galizia	40,90	2,64	5,01	10,29	4,49	0,79	5,54	30,34	100
Madril	29,06	9,38	6,18	34,32	1,37	0,23	2,52	16,93	100
Murtzia	25,89	3,13	10,71	40,63	1,79	0,45	3,57	13,84	100
Nafarroa	33,52	3,91	8,38	39,11	0,00	0,00	1,68	13,41	100
Euskadi	34,07	5,99	5,36	36,91	0,63	0,32	2,21	14,51	100
Errioxa	25,14	5,59	11,17	37,43	1,12	0,00	3,35	16,20	100
<b>GUZTIRA</b>	<b>29,40</b>	<b>4,86</b>	<b>6,74</b>	<b>29,75</b>	<b>1,67</b>	<b>0,19</b>	<b>3,15</b>	<b>24,24</b>	<b>100</b>

*Iturria:* Norberak egina ENEren datuetan oinarriturik (Ugalkortasunari buruzko Inkesta, 1985).

**4. TAULA    Seme-alabak dituzten eta noizbait ezkontuta nahiz batuta egon diren emakumeak, lan ibilbidearen arabera eta Autonomia Elkarteka. 1940tik 1945era bitartean jaiotako belaunaldiak**

AUTONOMIA ELKARTEA	NOIZBAIT LANEAN ARITU DIREN EMAKUMEAK LAN IBILBIDEKA (%KOTAN)					A + B + C + D GUZTIRA
	NOIZBAIT LANEAN ARITUTAKO EMAKUMEAK (%KOTAN)	(A) EREDU TRADIZIONALA (LANA EZKONDU)	(B) ETENALDIA (EZKONDU AURRETIK ETA 1.ABA JAIO OND.	(C) "IRAUNKORRA" (LANA FAMILIA ZIKLOKO 3 ETAPETAN ZEHAR)	(D) BESTE LAN IBILB. BATZUK 3 + 5 + 6 + 7. IBIL	
	8. IBILBIDEA	4. IBILBIDEA	2. IBILBIDEA	1. IBILBIDEA		
Andaluzia	60,0	57,4	1,6	24,6	16,4	100
Aragoa	62,0	65,2	0,0	8,7	26,1	100
Asturies	82,5	45,2	4,8	23,8	26,2	100
Baleareak	84,0	29,0	3,2	41,9	25,8	100
Kanariak	71,0	55,5	5,5	22,2	16,7	100
Kantabria	58,0	44,4	5,5	27,8	22,3	100
Gaztela-Leon	51,0	42,8	5,7	34,3	17,2	100
Gaztela-Mantxa	68,0	27,8	2,8	55,5	13,9	100
Katalunia	83,5	36,7	8,0	43,8	12,5	100
Valentziako Elk.	85,0	37,1	4,8	33,9	24,2	100
Estremadura	42,0	70,0	0,0	20,0	10,0	100
Galizia	65,0	2,2	4,4	69,0	24,4	100
Madril	76,8	51,3	9,2	22,4	17,1	100
Murtzia	85,0	52,9	2,9	20,6	23,6	100
Nafarroa	89,0	53,1	6,2	34,4	6,3	100
Euskadi	80,6	53,7	5,5	31,5	9,3	100
Errioxa	76,0	54,3	2,8	17,2	25,7	100
<b>GUZTIRA</b>	<b>72,2</b>	<b>44,0</b>	<b>5,0</b>	<b>33,0</b>	<b>18,0</b>	<b>100</b>

*Iturria:* Norberak egina ENEren datuetan oinarriturik (Ugalkortasunari buruzko Inkesta, 1985).

**5. TAULA Ezkontza eta ugalketarekiko jokabideak elkarteka. Emakume-  
taldeen banaketa Autonomia Elkarteka 1955.etik 1960.era bi-  
tarteetan jaiotako belaunaldiak (1985.eko Adina: 25-30 urte)**

<b>AUTONOMIA ELKARTEA</b>	<b>EZKONDUA SEME-ALABEKIN</b>	<b>EZKONDUA SEME-ALABARIK GABE</b>	<b>EZKONGABEA SEME-ALABEKIN</b>	<b>EZKONGABEA SEME-ALABARIK GABE</b>	<b>GUZTIRA</b>
Andaluzia	65,0	9,0	1,3	24,7	100
Aragoa	55,1	10,2	0,0	34,7	100
Asturies	58,0	11,1	0,0	30,9	100
Baleareak	48,0	22,0	4,0	26,0	100
Kanariak	64,3	12,5	0,0	23,2	100
Kantabria	46,3	14,6	2,4	36,7	100
Gaztela-Leon	45,7	15,0	0,0	39,3	100
Gaztela-Mantxa	58,0	10,0	1,2	30,8	100
Katalunia	51,0	20,4	0,0	28,6	100
Valentziako Elk.	52,0	16,3	0,7	31,0	100
Estremadura	55,0	8,0	0,0	37,0	100
Galizia	67,4	11,2	1,0	20,4	100
Madril	51,0	14,2	0,0	34,8	100
Murtzia	59,5	8,5	0,0	32,0	100
Nafarroa	42,3	23,1	0,0	34,6	100
Euskadi	50,5	9,7	0,0	39,8	100
Errioxa	53,5	26,6	0,0	20,9	100
<b>GUZTIRA</b>	<b>54,8</b>	<b>14,0</b>	<b>0,6</b>	<b>30,6</b>	<b>100</b>


*Iturria:* Norberak egina ENEren datuetan oinarriturik (Ugalkortasunari buruzko Inkesta, 1985).

**6. TAULA    Seme-alabak dituzten eta noizbait ezkontuta nahiz batuta egon diren emakumeak, lan ibilbidearen arabera eta Autonomia Elkarteka. 1955etik 1960era bitartean jaiotako belaunaldiak**

AUTONOMIA ELKARTEA	NOIZBAIT LANEAN ARITU DIREN EMAKUMEAK LAN IBILBIDEKA (%KOTAN)					A + B + C + D GUZTIRA
	NOIZBAIT LANEAN ARITUTAKO EMAKUMEAK (%KOTAN)	(A) EREDU TRADIZIONALA (LANA EZKONDU AURRETIK)	(B) ETENALDIA (EZKONDU AURRETIK ETA 1. HAURRA JAI AURRETIK)	(C) "IRAUNKORRA" (LANA FAMILIA ZIKLOKO 3 ETAPETAN ZEHAR)	(D) BESTE LAN IBILB. BATZUK 3 + 5 + 6 + 7. IBIL.	
	8. IBILBIDEA	4. IBILBIDEA	2. IBILBIDEA	1. IBILBIDEA		
Andaluzia	7,10	39,4	7,0	36,6	17,0	100
Aragoa	92,6	28,0	16,0	48,0	8,0	100
Asturies	61,7	31,0	3,4	37,9	27,7	100
Baleareak	95,8	17,4	0,0	78,3	4,3	100
Kanariak	75,0	26,0	14,8	44,4	14,8	100
Kantabria	63,2	33,3	8,3	33,3	25,1	100
Gaztela-Leon	72,1	45,2	6,4	48,4	0,0	100
Gaztela-Mantxa	76,1	57,1	2,8	31,4	9,7	100
Katalunia	93,7	21,6	13,5	60,8	4,1	100
Valentziako Elk.	92,5	19,3	14,5	56,4	9,8	100
Estremadura	59,5	62,5	0,0	31,2	6,3	100
Galizia	67,2	18,6	0,0	58,2	23,2	100
Madril	91,6	25,4	16,4	49,0	9,2	100
Murtzia	96,0	45,8	8,3	41,6	4,3	100
Nafarroa	90,9	15,0	10,0	70,0	5,0	100
Euskadi	89,4	26,2	16,6	50,0	7,2	100
Errioxa	86,9	35,0	15,0	35,0	15,0	100
<b>GUZTIRA</b>	<b>80,5</b>	<b>30,4</b>	<b>9,8</b>	<b>48,9</b>	<b>10,9</b>	<b>100</b>

*Iturria:* Norberak egina ENEn datuetan oinarriturik (Ugalkortasunari buruzko Inkesta, 1985).

**1. MAPA Seme-alabak dituzten emakume ezkonduak nahiz batuak izanik, noizbait lanean aritu direnak. 1935.etik 1967.era bitarteko belaunaldiak (Portzentaiak)**



**2. MAPA Seme-alabak dituzten emakume ezkonduak nahiz batuak izanik, noizbait lanean aritu direnak. 1940.etik 1945.era bitarteko belaunaldiak (Portzentaiak)**



**3. MAPA Seme-alabak dituzten emakume ezkonduak nahiz batuak izanik, noizbait lanean aritu direnak. 1955.etik 1960.era bitarteko belaunaldiak (Portzentaiak)**



**4. MAPA 25-30 urtez seme-alabak dituzten emakume ezkonduak nahiz batuak, 1955-60ko belaunaldikoak (Emakume guztiekiko portzentaieiz)**



**5. MAPA 25-30 urtez seme-alabarik ez duten emakume ezkonduak nahiz batuak, 1955-60ko belaunaldikoak (Emakume guztiekiko portzentaiez)**



**6. MAPA Seme-alabak dituzten emakume ezkonduak nahiz batuak izanik, 25-30 urtez familia zizloko hiru etapetan zehar lanean aritu direnak, 1955-60ko belaunaldikoak. (Noizbait aritutako emakume guztiekiko portzentaiez)**





---

**BEGOÑA ARREGI GOROSPE**  
Euskal Herriko Unibertsitateko  
Soziologia Saila. (Bilbo)

*Euskadiraiko*  
*politika*  
*demografiko*  
*baterantz?*

## *Sarrera gisa*

Euskadiko ekonomiak azken hamabost urteetan zehar jasan izan duen atzerapena, aurreko mende-laurdenean izan zen biztanle-hazkundearen oinarritzko adierazleak diren jaiotzeen eta etorkinen murrizketa nabarmenarekin batera gertatu izan da. 80. hamarkadako lehenengo bosturtekoan zehar, Euskadin migrazio-saldoaren zeinuaren alderanzketa ezagutuko da, eta bigarren bosturtekoan, berezko biztanle-hazkundearen zeinuarena. Bilakaera honek demografian duen eragina hain nabarmena izan dela, gure Herriko biztanle-kopurua apurka-apurka murriztuz doa. 1991.eko<sup>1</sup> Erroldaren aurre-datuek argi eta garbi erakusten dute prozesu hau: 1981.etik 1991.era bitartean Euskadiko zuzenbidezko biztanleriak behera egin du 2,25 portzentai puntutan.

Demografiaren azken urteetako bilakaerari dagokionez, gizarteak erakutsitako jarretan, nolana ere, kontraesanak ageri dira. Gure gizartean seme-alabak ez izateko erabakiarekiko onespena<sup>2</sup> oso zabaldua den arren, azken urteetan erakundeek aldarrikatu eta komunikabideek baliabide ugariak erabiliz argitaratu dituzten iritziak oso latzak dira.

Demografiaren egoera, alabaina, noiz iristen da kritikoa izatera? Biztanle-egoera bakoitza esperientzia historiko konkretuen ondorio da, eta talde bakoitzak biziraupenari begira gerorako dituen igurikapenak mugatzen dituzten gizarte, kultura eta ekonomi inguruabarren elkarretarena ere bai. Erkidego edo komunitate bakoitzak bere pentsamoldeak ditu ona eta txarra bereizteko eta, halaber, ugalketa arloan zer den eginkorra erabakitzeke, eta prozesu hau ugalketaren aurrean norberak jarraitzen duen jokabidean gauzatzen da, jokabide horrek, azkenean, biztanleriaren hazkundera<sup>3</sup> izan dezakeen eragina kontutan hartzeke.

Ugalkortasunari gero eta gehiago begiratzen zaio, baina hori ez da harritzekoa. Etorkizuna ilun-samar antzematen da ekonomiaren aldetik eta horrek biztanleriaren aldentzea ekarri ohi du, hortaz, erakundeek, ekonomiak gerora aurre egiteko ezinbestekoa den esparruan biztanleriaren hazkunde iraunkorra ere sartu behar dela uste badute —migrazio-saldo negatibodun egoera hau dela medio—, ugalkortasunaren jokaera, besterik gabe,

<sup>1</sup> BIZTANLERIA ETA ETXEBIZITZA, behin-behineko emaitzak/POBLACIÓN Y VIVIENDA, resultados provisionales, EUSTAT, 1991:51.

<sup>2</sup> Ikus Informe Social del País Vasco y Navarra 1990, IKEI 1992, eta Mujer y Familia gaiari buruzko inkesta, IKEI-Emakunde, 1991.

<sup>3</sup> Munduko alde honetan, Atlantikora begira dagoen Euskal Herrian batez ere, ezkontza berantkorrek, biztanle askoren ezkongabetasuna eta migrazioak, hala nola jabetza zatitzeko ezintasunari dagokion legeria elikagaiekiko presioa leundu eta familiaren etxean gelditzen zirenek bizirauteko aukera hobekak izateko mesedegarri suertatu ziren.

---

biztanleriaren ustezko hazkundera bermatzeko lehentasunezko gai bihurtuko da. Testuinguru honetan, berriz, arrisku bat dago, hots, erakundeek berriro ere emakumeek amatasunaren aurrean agertzen dituzten jokaera eta jarrerai begira jartzea, eta lehenagoko garaietan bezala, dirudenez oraindik erabat ahaztu ez direnak, beren "birbalorazioa" moralari eta gizarte erantzukizunari lotzea. Jokaera honek, halaber, emakumeen kultura, lan eta gizarte arloetako susperketa bultzatzera zuzendutako prozesu historiko eta sozialaren gaitzespena ere badakar, prozesu hori kaltegarria omen delako demografiaren nondik-norakoari dagokionez<sup>4</sup>.

Baina horren txikia ote da gaur egungo ugalkortasuna? Euskadin seme-alabak izateko benetakako eragozpenak daude, edo moda kontua ote da, seme-alabak izateko "nahi izatea aski da eta"? Galdera hauei erantzuten saiatuko gara, euskal demografiaren egoera dela eta erabilitako argudioak emakumeen lan partaidetzaren ikuspegitik aztertuz.

---

<sup>4</sup> Jaiotzeak eta ugalkortasuna sinonimotzat jo ohi dira. Halaz ere, jaiotzeak aipatzen direnean, jaiotakoak zenbat diren biztanle guztien aldean adierazi nahi izaten da. Demografiaren errealitatea ezer gutxi mugatzen duen adierazlea da. Komunitate ezberdinen demografia alderatzeko oso erabilia denez gero, interpretazio-mailako okerrak sortarazten ditu, adierazle honetan ez baita adin-egituraren eragin diferentziala kontutan hartzen. Dena den, alde onik ere badu, hots, oso erraz aurkitzen dela. Ugalkortasunak, berriz, adin ugalkorreko (19 urtetik 45-49 urtera bitarteko) emakumeengandik jaiotako umeen kopurua adierazten du. Jaiotakoak amari dagokion adin-multzoaren arabera sailkatzen dituen Ugalkortasunaren Indize Sintetikoa erabiltzen da, gehien bat, ugalkortasunaren abagadunezko joera neurtzeko.

## *1975.az geroztiko demografiaren bilakaera*

Baby Boom deitutako fenomenoaren sortarazi zuen jorkaera demografikoa historia bihurtu da honez gero, zenbaitek nostalgiaz gogoratzen dutena. Ekonomia eta biztanleriaren hazkunde ikusgarria eta, aldi berean, lan eta kontsumo-igurikapen gero eta handiagoak ezagutu zireneko sasoi hura iragana da jadanik. 1991.eko biztanleentatik % 15ek gutxi gorabehera (15 urtez beherakoak) ez dute prozesu hori zuzenean ezagutu. Beste alde batetik, 1975.ean 15 urte edo gutxiago zituztenek, 1991.eko euskal biztanleriaren % 25a, hain zuzen, data horretatik aurrera bizi izan dituzte euren nerabezaro osoa eta helduaroaren hasiera, hau da, ekonomiaren gainbeheraldi gero eta nabarmenagoarekin eta lanpostuei heltzeko aukera urriekin igarotzen ari den garai zimel honetan zehar, etorkizunerako igurikapen ilunetara nola egokitu ikasten ari direla. Gauzak honela, nola egokitzen zaio ekonomiaren egoera berria demografiaren joerari?

1976.az geroztik, jaiotza-kopurua (1976.ean bizirik jaiotakoak = 41.476) sistematikoki gutxitu zen, oraingoz behera jo ez badu ere (1990.ean bizirik jaiotakoak = 16.361). 1975.era-ko, amaren adinaren arabera ugalkortasun-tasa bereziki erakusten zuten ugalkortasunaren beheranzko joera adin-multzo guztietan, gazteena salbu. Prozesu hau areagotu egin zen hamarkadaren amaieran, adin guztietako emakumeen ugalkortasuna ikutz. Baby Boom delakoaren garaian gero eta gazteago erditzeko joera zena alderantzizko joera bihurtzen da larogeigarren hamarkadaren amaieran: amatasunaren esperientzia gero eta gehiago lotzen zaie hogeita hamarretik berrogei urtera bitarteko emakumeei, hots, ugalketa-zikloko erdialdeko adina dutenei (1. taula).

Amatasuna geroratzeko joera argitu egiten da 1985.az geroztik, urte horretan, aurreko hogeita urteetan ez bezala, adin-multzo guztien ugalkortasunik oparoena 30-34 urte dituzten emakumeei baitagokie, aldi berean, 35-39 urte dituzten emakumeen ugalkortasuna ere 25-29 urteko emakumeenarekin parekatzen ari dela. Gaur egun, 20-24 urte dituzten emakumeen ugalkortasuna (1960.etik 1980.era bitartean adin-multzo guztietatik oparoena zena) orain hamar urtekoaren herena da, eta 25-29 urte dituztenena orduan zutenaren erdia baino ez da. Zifrek erakusten digutenez, ugalkortasunaren beherakadak eragin txikiagoa izan du hogeita hamar urtez gorako emakumeengan gazteagoengan baino, hortaz, pentsa dai-

teke ugalkortasunaren zatirik handiena nahi den familia tamainua osatzearren zertzen dela eta ez familia eratzen hastearren, alabaina, 1975.az geroztik lehenengo jaiotzeei gero eta proportzio handiagoa dagokie guztizko jaiotzeen artean eta horrek alderantzizkoa erakusten du<sup>5</sup>.

Ugalketari begira ezkontzak erreferentziazko esparru gisa izan duen garrantzia kontutan harturik, gero eta beranduago gertatzen den ugalketaren beheranzko joera honek zuzeneko lotura du 50-55 urteetan jaiotako belaunaldien ezkontza-tasaren beherakada itzelarekin. DBIren arabera (EUSTAT, 1986), 1986.ean, 1966.etik 1970.era bitartean jaiotako hamar emakumeetarik bi baino ez ziren ezkondu 20-24 urtez.

### 1. TAULA Ugalkortasunaren bilakaera emakume-belaunaldika. (Jaiotzeak mila emakumeko)

BELAUNALDIA	*SEME- -ALABA KP.	**1990 1986	1985 1981	1980 1976	1975 1971	1970 1966	1965 1961	1960 1956	1955 1951	(%) EKU
1975-71*	0,01	1,4								
1970-66	0,09	15,5	2,5	0,1						30,5
1965-61	0,41	54,4	24,9	3,6						15,7
1960-56	1,18	86,7	91,7	53,2	4,2					6,1
1955-51	1,76	42,0	101,4	141,0	62,1	5,0	0,4			5,0
1950-46	2,20	11,4	52,1	137,3	185,4	51,1	2,6			4,8
1945-41	2,40	1,7	19,6	71,9	159,1	180,1	46,1	2,1		4,3
1940-36	2,66	0,1	3,5	31,9	93,4	176,7	180,1	43,8	3,0	5,7
1935-31	2,67		0,4	7,2	44,7	120,3	195,4	139,2	25,5	6,6
1930-26	2,57			0,5	8,7	55,0	124,9	166,8	124,9	9,0
1925-21	2,73				0,6	15,1	70,3	136,0	166,5	10,4
1920-16	2,56					1,8	18,6	65,2	123,3	12,5
1915-11	2,52						2,3	17,8	71,3	14,2
1910-06	2,69							0,8	17,9	15,0
	<b>ISF</b>	<b>1,07</b>	<b>1,48</b>	<b>2,23</b>	<b>2,79</b>	<b>3,02</b>	<b>3,20</b>	<b>2,86</b>	<b>2,66</b>	

EKU: Ezkontzaz kanpoko ugalkortasuna (lehenengo jaiotzeen portzentaiez).

\* Zenbatespenak

Iturria: Demografiako eta Balidazioko Inkesta 1986, EUSTAT, Vitoria-Gasteiz.

<sup>5</sup> Lehenengo jaiotzei jaiotze guztietan dagokien zenbatekoa sistematikoki gehituz joan da azkenengo 15 urteetan zehar. 1975.etik 1990.era bitartean, jaiotako guztien ehuneko 40,3 izatetik ehuneko 53,7 izatera iritsi ziren.

## 2. TAULA Ezkontzen bilakaera. (Ezkontzak mila emakumeko)

BELAUNALDIA	*1990 1986	1985 1981	1980 1976	1975 1971	1970 1966	1965 1961	1960 1956	1955 1951
1975-71*	1,2							
1970-66	19,7	2,4						
1965-61	54,6	28,9	6,0					
1960-56	26,1	56,9	63,7	6,6				
1955-51	5,9	17,6	75,0	72,8	6,1			
1950-46	1,9	3,5	22,1	96,8	56,9	5,1		
1945-41	1,0	2,0	6,7	25,5	92,5	55,9	4,1	
1940-36	0,6	0,7	1,8	6,7	31,6	93,3	52,9	3,9
1935-31		0,6	1,8	4,0	10,3	42,0	96,0	30,5
1930-26			0,6	1,0	5,1	15,4	45,7	80,4
1924-21				1,0	2,3	5,3	17,6	42,8
1920-16					1,8	2,2	5,1	14,7
1915-11						1,6	3,2	10,4
1910-06							2,7	1,7
1905-01								0,6
<b>SMAMS**</b>	<b>27,8</b>	<b>25,6</b>	<b>23,5</b>	<b>23,1</b>	<b>23,7</b>	<b>—</b>	<b>24,9</b>	<b>—</b>

\* Zenbatespenak.

\*\* Epealdiko azken urteari dagozkie.

Iturria: Demografiako eta Balidazioko Inkesta 1986, EUSTAT, Vitoria-Gasteiz.

Datu hauen aldean, zeharo bestelakoak dira 1951-55 eta 1956-60 urteetan jaiotako emakumeenak, hauen kasuan hamarretik zazpi (lehenengoak) eta hamarretik sei (bigarrenak) ezkonduak baitziren adin horretarako. Hortaz, 1960.etik 1975.era bitartean bi urtetan emakumeen kasuan eta hirutan gizonezkoen kasuan gutxitu ziren SMAMS<sup>o</sup> direlakoak, harrez gero, lau urtetan gehitzen dira (emakume nahiz gizonei dagokienez) (2.taula).

Ugalkortasunaren gainbeheraldi honetan zehar —hirurogeita hamargarren hamarkadan eta larogeigarrenaren hasieran Mendebaldeko Europako tokirik gehienetan gertatu zena— demografiarekiko jokamolde berrien ezarian-ezarian ezartzeko saiok egin ziren. Ezkontza ez zen aurrerantzean sexuen arteko batasunaren eta ugalketaren erreferentzia bakarra izango. Era berean, egonkortasuna ezkontzari eta bikote bakarrari lotuta zegoelako ideia ere desagertu egin zen dibortzioen ugartitasunaz, horrenbestez, helduaroan zehar bikote-batasun bat baino gehiago eratzeko aukera baitzegoen.

<sup>o</sup> SMAMS (Singulate Mean Age at Marriage) edo ezkontzeko batzbesteko adina, John Hajnalen metodologiaren arabera standarizatua (1956).

---

Euskadin, berriz, ofizialak ez ziren batasunekiko eta sexu-askatasunarekiko jasankortasun gero eta handiagoa nabari zen belaunaldirik gazteenengan 80. hamarkadan zehar<sup>7</sup>. Hala ere, DBI86 delakoaren datuek erakusten dutenez, ugalkorrak ziren emakumeetarik % 1 ere ez zen bizikide data horretan, beraz, jasankortasun nabarmen hori ez dator bat benetako jokamoldeekin. Batasun aske hauetako gehienak (% 83,5) 1951.az geroztik jaiotako emakumeen artean suertazten dira, hots, inkesta egin zenean 25-35 urte zituzten emakumeak (talde honetako emakume guztien % 3a). Arlo honetako jokamoldea, halaber, oso bestelakoa da mendebaldeko Europako lurralderik gehienetan, hala ezkondu eta familia eratu aurretiko urratsa izan ohi den bizikidetzari dagokionez, nola beronen ezarketari dagokionez, izan ere, bizikidetzara oso arrunta baita 24 urtez beherako bikoteen artean, urteak bete ahal apurka-apurka gutxitzen dela (Schwarz, 1988).

Larogeigarren hamarkadaren hasieran, adin berbereko emakume bizikideen portzentaia ehuneko 6aren inguruan zegoen Erresuma Batuan (1979), ehuneko 7koa zen Frantzian (1981), ehuneko 14koa Holandan (1982), lehenago ere Euskadiko joerarekiko alde nabarmena zela argi dago, beraz, eta zer esanik ez Danimarkako % 34az (1981) edo Suediako % 45az (1981)<sup>8</sup>. Gauza bera gertatzen da ezkontzaz kanpoko jaiotzeak direla eta: ez dira oso ugariak, baina gero eta gehiago dira, 1975.etik 1990.era bitartean, jaiotako guztien ehuneko 3,2tik ehuneko 7,4ra gehitu dira. Datu hau adierazgarria da oso, intentsitatearen aldaketaz gainera, fenomenoaren egiturarena ere erakusten duelako. Ezkondu gabeko amen adin-egituran izandako aldaketa ugalkortasun orokorraren adin-egituran izandakoarekin batera suertatu da: 25 urtez gorako ama ezkongabeen proportzioa gorantz doa 60. hamarkadan arruntagoak ziren 24 urtez beherako emakumeengandik ezkontzaz kanpo jaiotakoen tokia hartzen ari direla. Gertaera honek espero gabeko amatasuna ezkontzaz kanpo aukeratutako amatasun bihurtu dela iradokitzen du.

Euskadin, beraz, ez gara Europan barrena nagusituz doazen demografiarekiko jokamoldeez aparte geratu, alabaina, haien eragina eskasa da oraindik mendebaldeko herrialdeen jokamolde ezberdinen joeren aldean, eta beraz, gaur egungo ugalkortasun urriaren errua demografiarekiko jokamolde berrien onartze orokorrari egozten dion argudioak ez du inolako zentzurik Euskadiri dagokionez. Gure demografiaren geldotasuna ezin zaio inola ere sexu eta familiarekiko jokamolde berrien onarpen orokorrari egotzi. Gainera, Europako demo-

---

<sup>7</sup> Ikus Euskal Gazteriari buruzko 1986 eta 1989.eko azterlanak, Eusko Jaurlaritza.

<sup>8</sup> Ikus Kiernan, 1989.

grafiari begiratzuz gero, ezohizko eredu demografikoen hedapenak ez duela nahitaez ugalkortasuna eragozten ikusten da, izan ere, bizikidetzaz eta ezkontzaz kanpoko jaiotza-porzentaia-rik nabarmenenak dituzten herrialdeak baitira gaur egun aldian-aldiko ugalkortasunik handiena eta emakumeen lan partaidetzarik handiena dituztenak<sup>9</sup>.

<sup>9</sup> Ugalkortasunaren Indize Sintetikoak (UIS), Dibortzioarenak (DIS), Ezkontzaz Kanpoko Jaiotzeen Tasak (EKJ: jaiotze guztiekiko portzentaiaz) eta Bizikidetzakoak (BT: 18-49 urte bitarteko emakume ezkongabeen portzentaiaz) gorantz doaz Mendebaldeko Europan. 1989.eko adibide batzuk:

	<b>FRANTZIA</b>	<b>ALEMANIA</b>	<b>INGALATERRA</b>	<b>ITALIA</b>	<b>SUEDIA</b>	<b>HOLANDA</b>
UIS	1,81	1,39	1,87	1,29	2,02	1,55
DIS	31,2	32,2	41,5	6,5	40,8	28,6
EKI %	19,6	10,2	25,6	6,1	51,8	11,2
BT %	22,3	25,5	21,0	—	18,7	—

*Iturria:* European Population: Country analysis, J.L. Rallu y A. Blum (arg), John Libby EUROTTEXT, Paris, 1991.

## *Euskal emakumeen lan partaidetza*

Emakumeek lan merkatuan duten partehartze gero eta handiagoa izan da, hain zuzen ere, mendebaldeko herrialdeetako ugalkortasunaren beheranzko joera sekularra eta Baby Boom-aren ondoren ugalkortasunean nabari izan zen gainbeheraldia arrazoitzeko erabili den argudioa. Gerora, belaunaldiz belaunaldiko estatistika datuak eta bizimoduzko historia sozio-demografiko osotuak erabiltzeko aukera hobeak izanik, Europan hirurogeitamargarren hamarkadan zehar aldian-aldiko ugalkortasunean nabari izan zen murrizketa, funtsean, amatasunaren egutegiari dagozkion aldaketengatik gertatu dela ikusi da, emakume-belaunaldi horien ugalkortasunaren aldaketa nabarmenik ez dela izan, alegia (Höhn, 1983).

Jokamolde-hipotesi hau sarritan erabili izan da Euskadin egungo ugalkortasun urria arrazoitzeko, emakumeek nekez eta astiro lan merkaturatu direlako eta lan antolaketa familia-erantzukizunetara eta beharrianetara egokitu gabea delako, ekonomiaren hedapenaldirik oparoenetan ere emakumeen lan partaidetza txikia izan dela kontutan hartu gabe<sup>10</sup>.

Azken hamarkadan zehar Euskadin izan den ekonomi bilakaera gainbegiraturuz gero, emakumeen ekonomi iharduera, heziketa-mailak erabat baldintzapeturik ere, sistematikoki areagotu dela ikusten dugu (4. grafikoa). Emakumeen ekonomi iharduerari dagozkion tasak heziketa-mailari loturik gehitzeko joeraz ageri zaizkigu, hortaz, goimailako heziketa duten emakumeak dira ekonomian iharduteko gogotsuen ageri direnak. Alde horretatik paradoxi-koa da, izan ere, 70. hamarkadako erdialdeaz geroztik sortutako egoera, hots, gero eta kualifikatuagoa zen emakumezkoen eskulanaren eskaintzaren gehikuntza ekonomi krisialdiaren ondoriozko eskari-murrizketarekin batera gertatzea<sup>11</sup>.

Garai horretan, langabeziaren arazo gero eta latzagoa euskal gizartearen funtsezko ezau-garri bihurtzen da. 1975.etik 1986.era bitartean enplegu garbiaren ehuneko 10etik gora galtzen da, langabeziak lan-adineko piramidearen bi muturrak, batez ere, ikutzen dituela,

<sup>10</sup> Population Reference Bureau delakoaren 1991.erao datuen arabera, Norvegiak eta Suediak 1,9 eta 2,1eko UISa eta ehuneko 71eko eta ehuneko 81eko Lan Partehartze Tasa dituzte, hurrenez hurren.

<sup>11</sup> Datu hauek engainagarriak dira. Goimailako hezkuntza erdietsi duten emakumeak espezializazio-maila gorenak dauzkatenak dira eta, horrenbestez, gainontzeko emakumeak baino egoera hobea dute lan merkatuan. Eskulanaren eskaria urritu egiten denean, beheerako hezkuntza-mailako emakumeen ahalbideak ere estutu egiten dira lanean iharduteari dagokionez, eta gauzak horrela, etsita lan bila aritzeari utzi egiten diote, horregatik ekonomi ihardueraren zifren beherakadan talde hauetako emakumeak agertzen dira legokiekeen proportzioz gora. Etsipen hori izanik ere, soldatapeko ihardueraren bat balego, emakumeek helduko liokete, noski.

---

hau da, gazteen iharduera (25 urtez beherakoak) eta zaharrenena (55 urtez gorakoak), egoera hau are larriagoa da 1980.etik aurrera<sup>12</sup>. Belaunldirik gazteenak lan merkatuan sartzeko gero eta muga gehiago daudenetik, familiarekiko menpekotasun ekonomikoa luzatu egiten da eta norbere familia eratzeko aukerak murriztu egiten dira.

1985.az geroztiko susperraldi ekonomikoari esker enplegua maila guztietan areagotu zen, emakumeen enplegu-kopurua nabarmenki gehitu zela; hala eta guztiz ere, emakumeen enpleguratzeko hau ez da ekonomi ihardueraren hazkundea bezain azkar gertatzen, 1980.az geroztik emakumeen langabezia tasek aldatu gabe dirautela. Ageriko desoreka hau, nolatan ere, enplegu aukerak ez direlako soldatazko ihardueraren bat lortu nahi duten 25 urtez gorako emakumeen kopurua bezainbat gehitzen gertatzen da (3. taula).

---

<sup>12</sup> Ekonomiaren krisialdia nolakoa den aintzat harturik, hau da, industria eta siderometalurgia sektoreak are gehiago jo dituen krisialdia izanik, enplegu-galerak nabarmenagoak dira gizonezkoen lan merkatuan, beronetan 1975.etik 1986.era bitartean enpleguaren ehuneko 16a galdu baita. Gizonezkoen lan ihardueraren irtenbidea, berriz, langabeziaren benetako eragina leuntzen duten jubilazio aurreratuez hornitutako egitarauak masiboki erabiliz aurkitu nahi izaten da. Horren ondorioz, 1983.etik 1988.era bitartean, 54 urtez gorakoen lan iharduera neurtzen duen tasa ehuneko 42,7tik ehuneko 31,7ra jaitsi zen (murrizketa hau, gainera, seguruenik laster areagotu egingo da, siderurgia sektoreak bizirauteko aukerak oso mugatuak baitira).

### 3. TAULA Lan partehartzearen bilakaera Euskadin, 1985-92

	1985	1986	1987	1988	1989	1990	1991	1992
Emakumeen lh. Tasa	33,0	35,5	36,4	36,4	37,1	36,8	38,8	38,7
16-24	52,5	52,9	51,7	52,8	50,1	45,1	46,0	44,4
25-34	55,7	63,4	66,0	68,4	74,3	75,5	78,3	79,2
35-44	34,1	36,8	40,8	41,7	44,0	47,2	53,6	55,8
Gizonen lh. Tasa	70,6	71,4	71,7	70,4	68,7	67,6	68,2	67,9
16-24	49,8	53,1	55,3	53,1	49,3	44,8	46,3	44,9
25-34	94,5	95,6	95,9	95,8	94,5	94,3	94,6	93,7
35-44	96,0	98,6	98,5	98,0	98,1	97,6	97,5	98,1
Emakume Lan. Tasa	22,9	24,6	25,0	25,2	26,0	27,2	27,9	23,7
16-24	23,9	25,2	25,3	26,2	23,6	24,2	23,2	22,1
25-34	41,0	44,8	46,6	46,8	52,6	55,2	57,7	57,4
35-44	26,8	29,0	30,4	33,5	35,4	38,2	40,3	41,1
Gizon Lan. Tasa	59,4	59,7	59,8	58,8	60,1	60,5	60,7	59,5
16-24	23,9	27,0	28,8	28,5	30,1	30,1	30,3	27,3
25-34	78,6	80,1	79,4	77,2	80,2	81,3	82,4	80,5
35-44	89,9	91,3	92,3	92,1	93,1	93,8	93,4	92,6
Emakumeen Lang. T.	30,6	30,8	31,3	30,8	29,8	26,2	28,0	29,6
16-24	54,5	52,3	51,1	50,3	52,9	46,3	49,5	50,4
25-34	26,5	29,3	29,5	31,6	29,3	26,8	26,3	27,5
35-44	21,4	21,3	25,5	19,8	19,5	19,1	24,8	26,4
Gizonen Lang. Tasa	15,9	16,4	16,6	16,6	12,6	10,6	10,9	12,4
16-24	52,1	49,1	47,9	46,4	38,9	32,8	34,7	39,2
25-34	16,8	16,2	17,2	19,4	15,2	13,8	12,9	14,1
35-44	6,3	7,5	6,6	6,4	5,1	3,9	4,2	6,0

*Iturria:* PRA-BIA (1985-91 urteroko batzbestekoak; 1992 lehenengo lauhilekoaren batzbestekoa), EUSTAT.

Larogeigarren hamarkadan zehar gazteen ekonomi ihardueran nabari den murrizketa —sexu biak berdintsu ikutzen duena— eskolaldiaren luzapenari eta, beraz, gazte askoren eskolatzea beranduago amaitzeari zor zaio elkarloturik dauden bi faktoreen ondorioz. Batetik, profesionalizazio-maila egokitzeko egiturazko joera bat dago, praktikan eskolatze-aldiaren luzapena eskatzen duena, eta, bestetik, ekonomi krisialdian enplegua lortzeko dauden berezko eragozpenek gazteria hezkuntza-erakundeetan luzaroago egotea dakarte.

Lan merkatuan bigarren mailako zeregina izan ohi duten bi talde hauei, gazteak, oro har, eta emakumeak bereizirik biltzen dituztenak, gainontzeko biztanleei baino gehiago antze-man ohi zaie ekonomi gorabeheren eragina: egoera hau emakumeengan, batez ere, nabari da, eta horrela, 80. hamarkadako lehenengo urteetan, adibidez, langabezia gero eta larriagoak sortarazitako adoregabeziaren ondorioz, emakumeen iharduera tasak behera egiten duela ikusten da, eta 1987.ean, alderantziz, langabeziaren arintzearekin batera eta lan aukera gehiagorekin, iharduera tasa biziki gehitzen da.

---

Lan merkatuan parte hartu eta enplegu bat lortzerakoan aurkitzen dituzten oztopoak direla medio, emakumeek eta belaunaldi gazteenek jasaten duten prekariotasun ekonomikoa da, hain zuzen ere, gaur egungo bilakaera demografikoaren ardatza. 1975.az geroztiko al-dian-aldiko ugalkortasunaren gainbeheraldia, funtsean, 1955-60az geroztik jaiotako emakume-belaunaldien ugalkortasun eskasari zor zaio. Belaunaldi hauexek dira, bestalde, 1975.az geroztiko langabeziaren erasorik larriena jasan behar izan dutenak, izan ere, ekonomiaren aldetik aktiboak ziren 25 eta 34 urte bitarteko gizonen ehuneko 14a, gutxi gorabehera, eta 16 eta 24 urte bitarteko gizonen heren bat lanik gabe baitzegoen 1990.ean (3.taula).

Enplegu tasen bilakaerak (adin-multzo bateko pertsona enplegatuen eta multzo berorretako biztanle guztien arteko erlazioa) hobeto argitzen du lehenago adierazitako prosesua. 1990.ean, 16 eta 24 urte bitarteko hiru gizonetarik bik eta lau emakumetarik hiruk (eta 25 eta 34 urte bitarteko bost gizonetarik batek eta bi emakumeen erdiek) ez zeukaten burujabe bizitzeko eskuarterik.

Emakumeen laneratzea da ugalkortasunaren gainbeheraldia arrazoitzeko erabiltzen den "betiko leloa", alabaina, oso logikoak diruditen arren, argi dago arrazoibide horiek ez dutela errealitatea isladatzen.

## *Lana eta familiaren eraketa*

Emakumeek lan merkatuan duten partehartzearen eta ugalkortasunaren artean alderantzizko erlazioa balego, adierazle demografikoek ere erakutsiko lukete erlazio hori. Emakumeen iharduera tasak txikiak dira 60. hamarkadako urteetan eta 70. hamarkadaren hasieran, nahiz eta urte horiek, aldian-aldiko ugalkortasunaren aldetik, 30. hamarkadaz geroztiko oparoenak izan, 70. hamarkadaren amaieran eta 80.aren hasieran, aitzitik, denok ezagutzen dugun ugalkortasunaren beherakada larriarekin batera, emakumeen iharduera tasek gora egiten dute sistematikoki. Dena den, iharduera tasen bilakaera edozein izanik ere, 1975.az geroztik izan diren emakume landunen portzentaiak inoiz ere ez dira ugalkortasunaren beheranzko joeraren eragile bakarrak izateko bezain garrantzizkoak gertatu (ikus 4. taula).

Alde horretatik, 1986.eko Inkesta Demografikoaren datuetan antzeman daitekeen emakumeen lanaren eta ugalkortasunaren arteko erlazioak adina delako aldagaiari erabat loturik dagoen prozesu bat adierazten du. Emakume-belaunaldi ezberdinek batazbeste munduraturako seme-alaben kopuruaren bilakaera haien soldatapeko lanarekin duten loturaren arabera (gaur egun lanean ari diren emakumeen eta inoiz ere aritu ez direnen artean) aztertuz gero, lanean aritutako emakumeen batazbesteko ugalkortasun txikixeagoa ia-ia ez da nabaritu ere egiten 50. hamarkadan jaiotako emakume-belaunaldien jokamolde demografiko berri eta hedatuen ondoan.

Emakumeen belaunaldi hauek, inkesta egin zenean 35 urte edo gutxiago zituztenak, demografia ordezkatzeko mailaz behera zeuden, lanean arituak ziren ala ez kontutan hartzeke. 1946-50 urteetan eta 1951-55 urteetan jaiotako emakumeek batazbeste izandako seme-alaben kopuruak haien lan egoeraren arabera erkaturik ere, diferentzia berdintsuak ageri zaizkigu hiru emakume-talderentzat (0,6koa inkesta egin zenean lanean ari ziren emakumeentzat; 0,5ekoa inoiz lanean aritu ez direnentzat eta 0,4koa noizbait lanean arituak direnentzat). Soldatapeko lanik izan ala ez izanik ere, horren antzerako jokamoldeak agertzeak gizarteari, oro har, eragin dion eredu demografiko berria dagoela iradokitzen du, ugalkortasun txikiagoa, geroagokoa eta tartekatuagoa erakusten duen eredu demografiko berria, alegia, eta taldeen artean ugalkortasun mailan dauden diferentziak (belaunaldi hauen hasieratik ugalkortasun txikia kontutan harturik) ezkontzeko egutegi ezberdinetatik abiatuta arrazoitu litezke oraingoz.

#### 4. TAULA Familiaren batzbesteko tamainua, amen adina eta jaioturtearen eta soldatapeko iharduerarekiko egoeraren arabera, 1986

ADINA	BELAUNALDIA	L	IEL	ELA	BSA
16-20	1970-66	0,4	0,6	0,3	0,01
21-25	1965-61	0,6	0,9	0,8	0,2
26-30	1960-56	0,9	1,4	1,3	0,8
31-35	1955-51	1,5	2,0	1,9	1,6
36-40	1950-46	2,1	2,4	2,3	2,2
41-46	1945-41	2,3	2,7	2,6	2,4
46-50	1940-36	2,7	2,9	2,7	2,7
51-55	1935-31	2,6	2,9	2,8	2,7
56-60	1930-26	3,1	2,8	2,5	2,6
61-65	1925-21	2,9	3,2	3,0	2,7

L: Inkesta egin zenean lanean ari zen. IEL: Inoiz ere ez da lanean aritu. ELA: Inkesta egin zenean ez zen lanean ari. BSA: Batzbesteko seme-alaba kopurua amaren adinaren arabera.

Iturria: DBI1986 (2), EUSTAT.

Aurreko datuak, nire iritziz behinik behin, ez dira harrigarriak ekonomi talde bakoitzak erakusten duen ugalkortasun ezberdinarengatik, baizik eta, talde bakoitzaren hasierako ugalkortasun txikiagatik, hain zuzen. Inkesta egin zenean ugalkortasun-aldiaren amaierara helduak ziren emakumeen belaunaldien kasuan ere (1936-40 urteetan jaiotakoak), batzbesteko azken ugalkortasuna Baby Boom-aren zeharko ugalkortasunaren behetik zegoen. Datu hauen daturik adierazgarriena, bestalde, ez da belaunaldikako batzbesteko seme-alaba kopurua dela eta taldeen artean nabari den diferentzia, berau txikia baita, baizik eta taldeok ugalkortasunarekiko egutegi berberaz agertzen direla eta, horrenbestez, ordezkatzeko-mailaz behera kokatuak direla aldi berean: ekonomi iharduerarekiko egoera edozein izanik ere, ordezkatzeko-mailaz behera ageri zaigun lehenengo belaunaldia 1951-55 urteetan jaiotako emakumeek osatzen dutena da, urteetan zehar belaunaldiz belaunaldi ugalkortasunak behera egin duela erakustiz. Izan ere, ugalkortasunaren batzbesteko beharakada berdintsua baita (0,5 seme-alaba inguru, hiru talderen artean) belaunaldi honen eta berorren aurreko bien (1941-45, 1946-50 eta 1951-55) artean.

Datu guztiak garamatzate, soldatapeko iharduerarekin duten lotura edozein izanik ere, ugalkortasunaren beharakadan emakume guztiak parte hartzen dutela ikustera, eta funtsean halako iharduerarik gabeko emakumeek, berauek baitira emakume ugalkorren gehiengo osoa osatzen dutenak. Jokamolde honek, egoera sozio-ekonomikoa edozein dela, ugalkortasun txikirako joera eta ideologia orokorrak dirauela adierazten du eta, era berean, Euskadiko

ugalkortasun gero eta eskasagoaren atzetik, ekonomiarekin zerikusirik ez duten arrazoiak ere badirela iradokitzen du.

Bilakaera honen arabera, hezkuntza arloko standar egokiagoak eta sekularizazio-prozesua finkatu direnetik eta, halaber, haiek 50. hamarkadako urteetan jaiotakoen artean gehiago zabaldu direnetik, lanean arituak nahiz hezituak diren ala ez berdin dela, emakume-talde ezberdinen artean demografiarekiko jokamoldearen konbergentzia ekartzeko mesedegarri suertatzea espero liteke, eta abiapuntuko ugalkortasun urria aintzakotzat harturik, taldeen artean antzematen diren demografiarekiko jokamolde ezberdinak, azkenean erdietsitako ondorengoaren ondorio izan beharrean, amatasunaren egutegiko aldaketei lotuagoak izan daitezten.

Beste alde batetik, Mendebaldeko Europako beste herrialde batzutan azken urteetan emakumeen partehartzeak eta ugalkortasun-mailak izan duten bilakaera ikusirik, berriro ere agerian gelditzen da arrazoibide ekonomizistaren funtsik eza. Mendebaldeko Europan, emakumeek lan merkatuan duten partehartzea areagotuz joan da 1975.az geroztik (ikus 5. taula), eta areagotze horrekin batera, aldian-aldiko ugalkortasuna ere sistematikoki areagotu da larogeigarren hamarkadan zehar.

## 5. TAULA Emakumeen lan partehartzea (ELP) eta ugalkortasunaren indize sintetikoa (UIS) Europako zenbait herrialdetan 1975.etik

	1975		1980		1985		1991	
	ELP	UIS	ELP	UIS	ELP	UIS	ELP	UIS
Frantzia	49,9	1,9	52,5	2,0	52,1	1,8	56	1,8
Alemania	49,6	1,5	50,0	1,5	49,6	1,3	55	1,5
Britainia Haund.	55,3	1,8	58,5	1,9	57,5	1,8	65	1,8
Belgika	43,9	1,7	48,0	1,7	49,4	1,5	52	1,6
Holanda	30,5	1,7	34,1	1,6	42,3	1,5	51	1,6
Italia	34,6	2,2	39,8	1,7	44,0	1,4	44	1,3
Espania	31,6	2,8	31,9	2,2	34,2	1,6	41	1,3
Portugal	51,8	2,6	55,7	2,2	58,1	1,7	60	1,4
Euskadi*	28,1	2,6	29,6	1,8	33,0	1,3	39	0,9

ELP: Ekonomian dihardutenen portzentaia lan adineko biztanleriarekiko.

Iturria: 1975-85eko LBG, OCDE (1985). 1991eko ELP, PRB (1991). 1975-90eko UIS, INED (1991).

\* 1975, 1981, 1986. urteetarako UIS eta 1991erako aurrikuspena.

Aurreko taulako datuetan ere ikus daitekeenez, emakumeen lan partehartzerik handiena duten herrialdeak dira, era berean, aldian-aldiko ugalkortasunik handiena dutenak gaur egun, eta iparreko herrialdeetan, gainera, emakumeen soldatapeko lanaren eta ugalkortasunaren

---

arteko tartea are nabarmenagoa da. Gauzak horrela, ugalkortasunaren eta soldatapeko lanaren arteko erlazio negatibo hutsaz gainera, bestelakorik ere badago mendebaldeko familia-antolamenduan. Dauzkagun datuen arabera, badirudi aldian-aldiko ugalkortasunaren tasak ez direla belaunaldien azken ugalkortasuna erakusteko adierazlerik egokienak ezkontzaren antolamenduan gorabeherak edo aldaketak somatzen direnetan, eta oraingoz behintzat, ez litzatekeela ugalkortasunaren jokamoldeei buruzko aurreritzirik ezarri behar-ko, aldi berean ezkontzaren jokamoldea aintzakotzat hartu ezik.

Euskal demografiaren egoera aztertzerakoan, halaber, deigarriena ez da eskuartean erabili ohi diren indize demografikoen maila handiagoa ala txikiagoa, baizik eta nola erabiltzen diren indizeok. Demografiaren jokabidea azaltzerakoan azken muga jo duen egoera erakusten zaigu sistematikoki, eta horrenbestez, euskal biztanleria beti agertu ohi da mendealdeko herrialdeetako antzuen, zaharrena, biztanle-dinamismorik txikiena duena... bailitzan. Edozein aztergai jorratzeko, errealitatea erakusteko era abosolutu hau, gutxienik ere, partziala da. Elkarrengandik bereizitako datuetara heltzeko dauden eragozpen argiak dira medio, analisirako unitate alderagarritzat ezin har daitezkeen arloetako emaitzak aurkezten dira bata bestearen ondoan. Azterketa alderagarriko erreferentziatzat Estatuko agregazioak erabili beharrean, antzerako bilakaera kultural, ekonomiko eta soziala izan duten Europako eskualdeak hartuz gero, seguruenik Euskadiko iraulketa demografikoen antzerako bat baino gehiago aurkitu genituzke. Hala gertatu da, adibidez, Italiako iparraldeko eskualde industriadunetan. Alderaketarako abiapuntutzat, Espainiaren kasuari nolabait egokitzen zaiolakoan, eskualdearteko ezberdintasun nabarmenak eta Ipar eta Hegoaren arteko dikotomia kultural eta sozioekonomiko garbia erakusten dituen estatu bat harturik, Italiako iparraldeko eskualdeen esperientzia demografikoa erreferentzia gisa erabil dezakegu euskal demografiaren jokabidea jendeak jasotako informazioetik atera daitekeenari egokitzen ote zaion jakiteko, hau da, ia benetan Europako esperientzia demografikoen muga dagoen ala ez jakin genezake, demografiaren jokabidea alderatzeko abiapuntutzat har genezake, hain zuzen.

Italiako demografian berezko hazkundearen murrizketa ageri da hirurogeigarren hamarkadaren amaieraz geroztik, alabaina, multzo horretan, Ipar/Erdi aldean berezko hazkunde negatiboa hirurogeita hamargarren hamarkadaren amaieran hasten da antzematen, larogeigarren hamarkadan zehar areagotu egiten dela<sup>13</sup> (6.taula).

<sup>13</sup> Italiako iparraldean daude italiar industriaren funtsezko kokaguneak (Piamonte, Lombardia eta Liguria) izan dira nekazaritzan, batez ere, ihardun ohi duten erdialde eta hegoaldeko etorkinen eta, halaber, herbesteratzeko joera izan ohi duten Alpeetako eskualdeetatiko (Val de Aosta, Trentino) migrazioen ohizko helmuga. Biztanleriaren Berezko Mugimenduak larogeigarren hamarkadan iparralde horretan izan duen bilakaera negatiboak ere argi eta garbi erakusten digu zernolako eragozpenak izan diren eskualde industrializatuetan goranzko joera demografikoa eusteko.

## 6. TAULA Egoiliarra den biztanleriaren berezko mugimenduaren bilakaera, Italiako eskualde zabaletan, 1981-88 (datuak milakotan)

	1981	1982	1983	1984	1985	1986	1987	1988
I/E	-41,2	-38,3	-69,1	-62,1	-72,7	-84,3	-76,3	-67,1
Mezzo	128,5	135,9	118,2	124,0	112,4	101,1	101,6	107,4
Italia	87,3	97,0	49,1	61,9	39,7	16,8	25,3	40,3

*Iturria:* Le Regione in Cifre, ISTAT, Italia, 1990.

Gainbehera doan ugalkortasunak prozesu honetan duen eragina nabarmena da: Ipar/Erdi aldea ordezkapen demografikoari dagokion mailara heldua da 1971.era, hegoaldean (Mezzogiorno) baino hamar urte lehenago. Liguriak, hain zuzen ere, UIS=1 inguruko ugalkortasun maila gorabeherakorrari eusten dio 1980.az geroztik, eta bertako hiriburua, Genova, biztanleria urritzen hasi zen larogeigarren hamarkadan zehar<sup>14</sup>. Datu hauek, beraz, euskal lurraldean ez ezik, demografiaren gainbeheraldia beste toki batzutan ere nabari dela erakusten dute, baina daturik interesgarriena, agian, jokabide hori, gizarte baten egoera ekonomikoa edozein izanik ere, testuinguru arras ezberdinetan eta alderantzizko egoera ekonomikoak dituzten gizarteetan gerta daitekeela ikustean datza. Italia adibide argigarria dugu: iparraldean aurkitzen baitira Italiako bilgune ekonomikorik bizkorrenak eta teknologia aurreratuenak dutenak.

Erabili ohi den beste argudio bat —gaur egungo ugalkortasun eskasaren ondorioei buruzko ikuspegi are ezkorragoa hedatzeko balio izan duena— biztanleriaren zahartzeko joerari adin-egituraren oinarrian nabari zaion desoreka darabilena dugu. Gogoan izan behar dugu, hala adin-egituraren bilakaera, nola 60 eta 80 urtez gorako biztanleen eragina, bai

<sup>14</sup> Prozesu honen ondorio garbia hiririk garrantzizkoenen biztanle-kopuruaren gutxitzea da. Liguriako (Genoa), Piemonteko (Turin) eta Lombardiako (Milan) hiriburuetan hirurogeita hamargarren hamarkadan zehar, jadanik, biztanleriaren murrizketa absolutuak nabaritzen hasiak ziren, Italiako zenbait eskualde eta hango hiri nagusienetako Biztanleriari buruzko 1971, 1981 eta 1983. urteetako datuak milakotan biltzen dituen ondoko taulak erakusten duen bezala:

	1971	1981	1983		1971	1981	1983
Liguria	1.061,9	995,2	974,9	Genoa	816,9	762,9	746,8
Lombardia	2.507,8	2.369,2	2.317,5	Milan	1.732,0	1.604,8	1.561,4
Piemonte	1.558,3	1.505,8	1.454,5	Turin	1.168,0	1.117,2	1.069,0

*Iturria:* Un quadro di sintesi della situazione demografica italiana: Profili demografici regionali, "Rapporto sulla Situazione Demografica en Italia", CNR-IRP, 1985eko ekaina, Erroma.

gaur egungoa eta bai hurrengo etorkizuneko, aurretiko etapa demografikoek eragindakoa direla eta, beraz, berorien jokabidea, lotzekotan ere, ezer gtxi lotzen zaiola ugalkortasunaren geroko jokamoldeari. Gauza berbera gertatzen da adin-egituraren gainontzekoekin, beronen biztanle-kopurua migrazio prozesu batez baino ezin aldatu daitekeela. Euskadin gaur egun dagoen biztanleria helduari dagokionez, 1950-70 urteetako berrindustrializazio-prozesuan zuzenean parte hartu zuten eta bertan gelditu, ezkondu, familia eratu eta zahartu ere Euskadin zahartu diren etorkin-belaunaldien adina aurrerantz doala ikusten dugu.

## 7. TAULA 60 urtez gorako biztanleria Europako Elkarteko zenbait herrialdetan, 1985-2025 (portzentaiak)

EUROPAKO ELKARTEA	60 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLERIA				80 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLERIA			
	1985	1990	2000	2025	1985	1990	2000	2025
<b>GUZTIRA</b>	<b>18,8</b>	<b>19,6</b>	<b>21,1</b>	<b>28,5</b>	<b>2,9</b>	<b>3,2</b>	<b>3,3</b>	<b>5,2</b>
Danimarka	20,1	20,3	20,6	30,0	3,2	2,6	4,0	5,8
Frantzia	18,2	18,9	19,9	27,0	3,3	3,5	3,2	4,7
Alemania	20,2	20,9	23,8	32,6	3,1	2,6	3,6	6,6
Grezia	17,8	19,5	23,1	27,5	2,4	2,7	3,5	5,5
Italia	18,4	19,9	22,4	29,6	2,5	2,9	3,2	5,7
Holanda	16,8	17,5	19,0	31,3	2,6	2,9	3,3	5,4
Portugal	17,0	18,0	19,3	24,8	2,1	2,3	2,7	4,0
Erresuma B.	20,7	20,6	20,4	27,5	3,2	3,5	3,7	4,7
Espainia	17,1	18,4	19,6	26,1	2,4	2,6	2,9	4,6
<b>Euskadi*</b>	<b>15,2</b>	<b>17,7</b>	<b>21,4</b>	<b>25,6</b>	<b>2,04</b>	<b>2,3</b>	<b>2,9</b>	<b>4,8</b>

*Iturria:* IRP, Erroma, W:P 10/90, 1990:54. Nazio Batuen datuetan oinarriturik egindakoa.

\* Euskadiri buruzko datuak Documentos de Economía 7 delakoan, 1990:70.

“Hirugarren adina” deitutako taldean sartzear dauden belaunaldiak etorkinen belaunaldi hornitu hauek dira, eta hauen ondoren gerrate-ondoko “belaunaldi txikiak” sartuko dira; hortaz, 65 urtez gorako belaunaldien bolumena arintzen hasiko da 25-30 urte igarotakoan eta berriro gehitzen hasiko da “Baby Boom” delakoan jaiotako belaunaldi hornituak talde horretan sar daitezenean.

Europako Elkarteko datu batuak ikusirik, Euskadin nabari den gaztetetasun-maila (edo nahia-go bada zahartasun-maila) eta Europako beste zenbait eskualdetan nabari dena, oraingoz behintzat, berdintsuak direla esan daiteke. Herrialde guztiak antzerako neurrian zahartzen ari dira, izan ere, demografiaren bilakaera ere berdintsua izan baita herrialdeotan.

## 5.

# Ondorioztapen gisa

Erakundeetatik, jaiotzeak areagotzeko politikak bultzatu asmoz, biztanleriak bere ugalketahikundeak antolatzerakoan izan ditzakeen helburu zehatzen aurka jotzeak baditu bere arriskuak. Batetik, jokabide horri jarraitzeko benetako arrazoiak ondo aztertu gabe, gerora ama bihur daitezkeenei amatasunarekiko ustezko interes faltaren (dagozkion adierazleak tarteko) errua eta familiaz kanpoko iharduerak (soldatadunak ala ez) lehenestea egozteko arriskua dago. Jarrera honek, alde batetik, erreferentzia gisa ohizko familiarena hartuz, familiak gizarteari begira duen garrantzia azpimarra dezake, eta era berean, emakumeak etxean betetzen duten zereginak duen garrantzia, emakumeok euren gizarte-eginkizunik funtsezkoena bete dezaten, hots: amatasuna.

Demografiaren hazkundearekiko lotura positiboa duten elementutzat jaiotzeen bilakaera eta inmigrazioa hartzen direla, beste edozein baztertuz, hazkundeari lotuta dagoen hirugarren elementu baten eragina mozorrotzen da, dexente luzatu den biztanleriaren bizitza-itxaropena<sup>15</sup>, alegia. Gertaera hau, "biztanleriaren zahartzea" ere deritzaiona, azken hamarkadetan mendebaldeko biztanleriaren bizimoduetan suertatu den aurrerapen sozioekonomikoaren eraginari zor zaio. Praktikan, adin guztietan hilkortasun txikiagoa izatea ekarri du, gizakien bizitza biologiarren mugetara gero eta gehiago hurbiltzen ari dela gorputz eta buru-baldintza egokiagoz.

Gizakien biziraupenaren luzapen hau hutsaldu egiten da, gizartearen lorpenetat hartu beharrean, paradoxaz, gizartearentzako zama bihurtuz<sup>16</sup>, ekonomi ekoizpenaren iharduereetatik aparte kokatzen den talde batean biltzen baita. Horrela, demografiaren egungo gainbeheraldiaren arrazoiak ere hutsaldu egiten dira, geroko ekoizle edo produktore-eza dela

<sup>15</sup> Jaiotzean dagoen bizitza-itxaropena dexente luzatu da azken hamarkadetan EAEko hiritarrentzat. 1975.az geroztik, bizitza-itxaropena 2,5 urtez luzatu da gizonentzat eta 3,5 urtez emakumeentzat:

	1975	1980-81	1985-86
Gizonak	69,6	71,9	72,1
Emakumeak	76,5	78,9	79,9

*Iturria:* Documentos de Economía, 7, 1990-18 (1975); Indicadores Demográficos 1, 1991:37,87 (1980-81, 1985-86).

<sup>16</sup> Gizaki jaio berriak beren muga biologikoetara buru eta goputz-baldintza egokiez gero eta gehiago hurbiltzea ahalbidetzen duen bizitza-luzapena, paradoxaz, gizarte eta ekonomiarentzako zama bihurtu da, gure bizitza osoaren bostena beteko duen etapa honetan sortutako arazo eta beharrian berriei (gizarte, maitasun nahiz ekonomi mailakoei) erantzun egokia ematen jakin izan ez delako

---

medio, gure bizitzaren iraupen luzeagoak kostu ekonomiko gehigarria sortarazten duelako arazoa hitzetik hortzera erabiltzen baita.

Igurika daitezkeen kasuetarik hoberena aintzat hartuta, hau da, ordezkapen-mailari dagokion batazbesteko ugalkortasunarena, beharrezkoa da emakumeek 30-35 urte dirauen ugalkortasun-aldia izaten dutela azpimarratzea. Ugalkortasunari dagokionez, argi dago, nolana ere, gaur egun nabari den jokamoldea ez datorrela bat euskal emakume eta gizonen nahiekin. Nahi den familia-tamainua ere azken ugalkortasunaren adierazlerik egokiena ez bada ere, gaur egun familia eratzerakoan burutzen ez diren nahien erakusgarri izan daiteke. Amatasunera gero eta adin aurreratuagoetan heltzeko joeraren eta aipatutako nahiaren artean ez dago kontraesanik, alderantziz, agerian jartzen dena zera da, emakumeek eta berorien senar edo lagunek hogeitaz hamar urte lehenago pentsatu ere ezin zitezkeen adinez ekin nahi izaten diotela familiaren eraketari edo haren behin-betiko osakerari.

Testuinguru honetan, gizartearentzako mesedegarritzat jo daiteke ekonomiaren krisialdiarekin batera sexualitatearekiko eta familiaren eraketarekiko jasankortasunean oinarritutako ideologiaren nagusitzea gertatu izana. Horrela, ugalketarako jokabidean ohizkoak ziren familia eta gizarte-igurikapenak mugatuagoak direnetik, familia eratzeko ezintasunaren kostu pertsonala ere arindu egin da (IKEI, 1990 eta IKEI-Emakunde, 1991). Argi dago Euskadiko bikoterik gehienak, ahal izanez gero, ezkondu eta seme-alabak izaten dituztela (eta ahal bada bat baino gehiago izan ere). Eta argi dago, halaber, ezkontza eta ugalketa "noiz" eta "non" burutuko ziren mugatzen zuten ohizko mekanismo erritualak ere alde batera utzi direla honez gero, eta demografiaren adierazleek gorabeherek horixe erakusten dute. Gaur egun, oraindik ere, ez da helduarora iritsi diren gazteen enplegu-mailak goratzea ahalbidetu dezakeen ekonomiaren susperraldia somatzen eta, beraz, enplegu arloan emakumeei egotzi zaien bigarren mailako tokia aintzat harturik, belaunaldi gazteenetan generoen arteko iharduera eta enplegu-ezberdintasunak gutxitzen ari badira ere, familia bat eratzeko benetako aukerak, funtsean, gizonen lan merkatuan duten egoeraren menpe daude oraingoz. Hortaz, prozesu hau estatistika soziodemografikoetan ez agertzeak ez du esan nahi gizarte edo erakunde mailako arazo bihurtu beharra dagoenik. Baina, nolana ere, Herri honetako emakume eta gizonen familia eratzerakoan aurkitzen dituzten eragozpenak ezin zaizkie inola ere emakumei leporatu. Gaur egungo ugalkortasun eskasaren ondoriozko epe ertain eta luzerako arazoak edo emakumeen laneratzeko ugalkortasunean izan dezakeen eragin negatiboa oinarritzat hartzen dituzten arrazoibideetara behin eta berriz jotzea ere arriskutsua gerta daiteke, izan ere, bide horretatik emakumeek azken hamarkadetan zehar

---

gizartean nahiz lanbide-mailan erdietsitako hobekuntzen sendotasuna eta egonkortasuna kolokan jar daitezke eta.

Familiaren eraketarako ahalbideak oztopatu ahal izan dituzten eragozpen nagusiak zehaztu gabe, auzi hau behin eta berriz astinduz, ekonomiaren krisialdiak prozesu honetan izan zezakeen eraginari jaramonik egingabe beste arazo batzutura jotzen da, eta horrenbestez, emakumeak kolektibo gisa prozesu honen eragile nagusiak direla uler daiteke. Ekonomia luzaroan kokildurik dagoenean, berriz, ugalkortasuna areagotzeko interesa zenbait erakunde publikotan, gizartean familiaren biziraupenaren zutabe nagusizat jo ohi diren gizonen enplegu-maila goratzeko, emakumeak etxeko eginkizunetara itzultzea bidezkotzat jotzen dela ulertzeko bide eman dezake. Behin-betiko argitu beharko litzatekeena zera da, emakumeak, oro har, sistemaren arazoak konpontzeko gizarte eta ekonomi erreserbako armada gisa, eta kasu honetan ugalketarako erreserba gisa ere bai, beste behin erabili izanagatik, ez dela arazo horien konponbidea aurkituko.

## *Bibliografía*

- ARREGI, Begoña eta del VALLE T. et al. *La Mujer Vasca. Imagen o realidad*, Antrophos, Barzelona, 1986.
- "Evolución Demográfica y Cambio Socioeconómico" del Valle (arg.). *La Mujer y la Palabra*, Baroja, Donostia, 1987.
- "The evolution of fertility in the Basque Country: 1950-1985", argitaragabeko doktore-tesia, Southampton-go Unibert. Ingalaterra, 1989.
- Demografía vasca: ¿Cambio cultural o crisis económica?, II Congreso Vasco de Sociología, Vitoria-Gasteiz, 1992.eko apirila.
- BOURGEOIS-PICHAT, Jean, "The Unprecedented Shortage of Births in Europe", *Population and Development Review*, A Supplement to Volume 12:3-25, 1986.
- DELGADO PÉREZ, Margarita, "La Fecundidad en España por grupos de edad 1975-85", Serie Documentos de Trabajo 3, CSIC, Madril, 1990.
- eta FERNÁNDEZ CORDÓN, J.A., "La Fecundidad en España desde 1975", Serie Documentos de Trabajo 2, CSIC, Madril, 1989.
- EUSTAT, Eusko Jaurlaritz, Vitoria-Gasteiz. Demografiako eta Balidazioko Inkesta - Encuesta Demográfica y de Validación, 1,2,3 lib., 1990.
- Series Demográficas Homogéneas 1970-85, 1990.
- Biztanleriaren Berezko Mugimendua - Movimiento natural de la Población (\* behin-behinekoko emaitzak), (1981, 1986, 1991\*).
- FERNÁNDEZ CORDÓN, J.A., "L'Espagne/Spain" in Rallu J. and Blum A. (arg.) *European Population 1. Country Analysis*, INED, John Library Eurotext, 1991.
- IKEI, Donostia, "Escenarios Demográficos. Horizonte 2016", Documentos de Economía 7, Eusko Jaurlaritz, Vitoria-Gasteiz, 1990.
- (1990) Informe Social 1990, IKEI.
- (1991) *Mujer y Familia*, IKEI-EMAKUNDE, Vitoria-Gasteiz.
- INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA, INE, Madril, Encuesta Nacional de Fecundidad (1977, 1985).
- Censo de Población (1970, 1975, 1981, 1986).
- Movimiento Natural de la Población (hainbat urte).
- JOWELL R., WHITHERSPOON S. eta BROOK L. (arg.), *British Social Attitudes. Special International Report*, Gower, England, 1989.

- 
- KIERNAN KATHERINE E., "The family: Formation and Fission" in Joshi H. (ed.) *The Changing Population of Britain*, Basil Blackwell, Oxford, 1989.
- LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA. *Papeles de Economía: Economía de las Comunidades Autónomas 9*, Madril, 1990.
- LESTHAEGHE Ron, "A century of Demographic and Cultural Change in Western Europe: an Exploration of Underlying Dimensions", *Population and Development Review*, 9(3):411-435, 1986.
- eta MEEKERS D., "Value changes and the dimension of familis in the European Community", *European Journal of Population*, 2(3-4):225-268, 1986.
- MONNIER Alan, "The Demographic situation of Europe and the developed countries overseas: an annual report", *Population English Selection*, 2:231-242, 1990.
- OCDE, *La integración de la mujer en la economía*, Informes OCDE, Lan eta Gizarte Segurantzza Ministraritza, Madril, 1985.
- PRIOUX Frank, "Fertility and family size in Western Europe" *Population English Selection*, 2:141-162, 1990.
- SANTOW Gigi, "A sequence of events in fertility and family formation?" *Internation Population Conference, Delhi: Proceeding*, 1989.
- SARDON J.P., "Le remplacement des générations en Europe depuis le début du siècle" *Population*, 6:947-967, 1990.
- SCHWARZ K., "Household Trends in Europe after World War II" in Keilman N., Kuijsten A. eta Vossen A. (arg.) *Modelling Household Formation and Dissolution*, Clarendon Press, Oxford, 1988.
- SIMONS John, "Culture, Economy and Reproduction in Contemporary Europe" in Coleman and Schofield (arg.), *The State of Population Theory*, Basil Blackwell, Oxford, 1986.
- TEZANOS J.F., "Cambio social y modernización en la España actual", *REIS* 28, 1984.
- WATKINS S.C. eta COALE A. (arg.), *The Decline of Fertility in Europe*, Princeton, Princeton University Press, 1986.
- WERNER B., "Fertility Trends in the UK and in thirtheen other developed countries 1966-86", *Population Trends*, 53:18-24, 1988.
- WESTOFF C.F. (1986), "Perspectives on Nuptiality and Fertility", *Population and Development Review*, A supplement to Volume 12:155-170, 1986.

---

**GOTZONE MORA TEMPRANO**  
Euskal Herriko Unibertsitateko  
Soziologia Saila. (Bilbo)

*Emakumeen*

*eremuan*

*eragina duten*

*gizarte-politikei*

*buruzko gaur*

*egungo birplan-*

*teamenduak*

---

## *Sarrera*

Gobernuek gizarteari begira mugatu dituzten gizarte-politikek, gaur egun, azterketa sakon eta iraunkorra eskatzen dute politika eta ekonomiaren inguruan izan diren azken gertakizunak eta Gizarte Ongizateaz arduratzen direnen jarrera teorikoak aintzat hartzen badira, behinik behin.

Hitzaldi honetan ez dira Ongizate Egoera deritzanari buruz behin eta berriz esandakoak azaldu nahi berriro ere. Gure helburua, aitzitik, edozein gizarte politikak bere testuingururik zabalenean onartu behar dituen betekizunak zehazten saiatu eta, etorkizunari begira, emaitza haiek aztertzean datza.

Horretarako, lehenengo zatian Ongizate Estatuaren krisialdia sortarazi duten faktoreak baliotzatuko dira, gizarte-sektorerik desbabestuenenganako ondoreak zehazten ahaleginduko garelarik. Azalpen honen bigarren zatian, berriz, herri egitarauetara lotutako gizarte-politiken formulazio eta burutzapenean gizarte-eragileek nahiz gizataldeek duten garrantzia adieraziko da. Hirugarren atalean, zenbait pentsalariren eritziak jaso ondoren, larogeitamargareneko hamarkadako Gizarte Zerbitzuek beharrezkoak dituzten baldintzak biltzen dira eta, azkenik, aurretiaz azaldutako betekizunak direla eta zenbait proposamen egiten dira.

## *Krisialdiaren zergatiak eta ondorioak*

Sektore ezberdinak ahalegindu dira krisialdia herrialdeen ekonomia eta finantza arloetako arazoen ondorio hutsa dela azaltzen. Alabaina, azterketa sakonagoa eginez gero, gainbehera hori nahasiagoa dela eta unean-uneango finantza eta ekonomiaren inguruko arazoe-kin batera, filosofia, ideologia, gizarte eta abarrei loturiko faktoreen ondorio ere badela esan daiteke.

Faktore-multzo honetxek, hain zuzen, erreferentzia eremua eskaintzen digu, besteak beste:

- Herrialde ezberdinen garapen-bideak mugatzeko.
- Estatuari iratxikitzen zazkion zeregin eta betekizunak taiutzeko eta horrenbestez.
- Gizarteak azaltzen dituen beharriaz aurre egiteko gizarte zerbitzuen politikak, estrategia, arauak eta ereduak eratzeko.

Iritzi hau arrazoitu nahi bada, E.E.E.ko herrialde ezberdinek Gizarte Ongizatearen arloan onetsi dituzten proposamen eta plangintzak azter daitezke, edo Gobernu-mota batetik beste batera igaro den Estatu batenak, hots, Suediarenak, non Gobernu Sozial-Demokrata bat izatetik Kontserbadore kutsua duen beste batera igaro diren.

Ikus daitekeenez, lehenago aipatutako faktoreen arteko loturak herri politikei dagozkien elkartze edo aliantzak gertatzen dituzten politikagileen bitartez gauzatzen dira. Osagaietako bat gizarte politikak ditugu, une hauetan, krisialdia dela medio, birbideratze bat behar duena. Birbideratze hau are beharrezkoagoa da Gizarte Zerbitzuak Kudeatzeko Eredu batzuek aurre egin dioten funtsezko kontraesana aintzat harturik. Hau da, alde batetik, azken hamarkadan hasita, gaur egungo joera teorikoei jarraitzen dien paradigma berri baten finkapena ezagutu dugu, nagusituz joan dena, herrialdeetako gehienek, hasiera batean behinik behin, haren funtzesko postulatuak onetsi arte nagusitu ere, hau da:

- Zerbitzuen estalduraren hedapena.
- Aurreneurritzko politiken erabilpena.
- Baliabideen arrazionalizazioa kostu-kalitate erlazio egokia eskaini ahal izateko.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen sustapena.
- Taldeko partaidetza.
- Herri bakoitzaren beharriaz azterketak oinarriztat hartzen dituzten estrategiaiei jarraitzea.

---

Aurreritzi hauexek onetsi zituen Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak ere 1990.eko azaroan "Política de Bienestar Social para Euskadi en la Europa del 93" izenburupean argitaratu zen "Documento de Bienestar Social n.º 30" delakoan.

Beste alde batetik, hau da, benetako egoeraren ikuspegitik, bi gogoeta-mota aurki ditzakegu, bata gizarte-arazoetarantz jotzen lukeena, eta bestea Gizarte Zerbitzuen ezaugarriak aztertuko lituzkeena. Lehenengoari heltzen badiogu eta Euskal Autonomia Elkartera mugatuz gero, bertan historiaren, gizartearen, ekonomiaren, politikaren eta kulturaren berezitasunak nabari direla antzeman daiteke. Dena den, ekonomiaren garapenak, industrializazioak, ekarritako aldaketak eta azken bi hamarkadetan gizartean izandako eraldaketa-prozesuek, eragin itzela izan dute bertako komunitate-egituran eta, hain zuzen ere, bizimoduetan. Gazteen delinkuentzia, indarkeria eta istripuak bezalako arazoak asko gehitu dira eta bizimodua aldatu denetik, gaixotasunak ere aldatu egin dira nolabait. Hortaz, cardiologia arazoak, hainbat motatako tumore xarrak, menpekotasunak, sexuaren bidezko gaixotasunak, buru-arazoak eta bestelakoak aurkitzen ditugu. Heriotz tasak eta bizitza igurikapena ere aldatu egin dira eta, horrenbestez, gizatalde batzuk gero eta ugariagoak dira, berauen artean adinekoak aipa daitezkeelarik. Emakumeei dagokienez, gizonen aldean, hilkortasun tasaren beherakada nabari da adin-tarte gehienetan; dena den, gaixotasunak eragin handiagoa du emakumeengan eta hauek gehiagotan jotzen dute laguntza-zerbitzuetara. Nerabezeroak, bestalde, emakumeen artean, zenbait berezitasun agertzen ditu, aztertu beharreko berezitasunak alegia; besteak beste, istripuak, indarkeria, drogak hartzea eta arrisku handiko haurdunaldiak aipa daitezke.

Aipatutako arazoez gainera, emakume izatetik datozkion inguruabarrak ere badira, eragina izan ohi dutenak. Bere egoera sozioekonomikoa, esaterako; jakina denez, menpekotasun-mota jakin bat sortarazten baitio. Eta menpekotasun honen erakusleeta bat ugalketa-prozesuaren arduradun nagusi bihurtzen gaituen eta, aldi berean, hura kontrolatzeko eskubidea ukatzen digun printzipio-bitasuna da. Arau hau, kultur baloreekin eta konplexuekin nahasturik, behin eta berriz agertzen da gizartean, dela erabakiak hartzeko beharrezkoak diren argibideak eragotziz, dela norbere erizpideak aintzat hartu gabe, baldin eta bikotekidea bat ez badator. Arazoa, beraz, emakumeari bere gorputzarekiko kontrola kendu nahi izatean datza, horretarako "goi-mailako" hainbat arrazoi erabiltzen direlarik, norberaren printzipioei jarraituz jokatzeak askatasunari uko eginez. Ildo horretatik doaz berriki-tan garatutako teknika sofistikuak, ernalketa artifiziala kasu, zeinetan emakumeak, sarritan, gizartearen eta, hain zuzen ere, erabat teknifikaturik dagoen eta emakume-talde askok

---

defendatutako norbere kontrol eta zaintzarako neurriak gutxiesten dituen medikuntza tradizionalaren eragina jasaten duen elementu pasiboa baino ez den.

Gizarte Zerbitzuen ezaugarriei dagokionez, herritarren Ongizatera zuzendutako gizabaliabideak, materialak zein dirutzak oraindik ere desorekaturik daudela ikus dezakegu, bai kualitatiboki eta bai kuantitatiboki desorekaturik, gehienak arlo mugatu batzutara eta arazoaren unerik larrienari soilik aurre egiteko ihardueretara biltzen direlarik. Beste alde batetik, sektorekako zatiketa dakarren politika zentralizatuari eusten zaionez gero, gizartea bere osotasunean aintzat hartzen duen ikuspegia desagertu edo, gutxienez, gutxietsi egin da.

Honelako Ereduen bitartez izandako esperientziak erakutsi eta Nazioarteko Erakundeen Lankidetzarako Bileretan adierazitakoaren arabera, "gizarte" delakoaren sektorekako zatiketarekin zerikusirik duten hiru arazo-mota daude:

- a) Gizarte prestazioen izaera eta grabitazioa gizarte arloko politikan.
- b) Estatuak administrazioaren bidez eskainitako ondasun eta zerbitzuetara heltzeko bidea.
- c) Gizarte arloaren egituraketa." (1).

Gizarte Politikak, bestalde, zentralizatu ala zentralizatu gabea izanik ere, kontutan hartu beharreko bi iradokizun azaltzen ditu:

- 1. Gizarte prestazioak izango badira, burokrazia iraunkorrek behar dira.
- 2. Ondasun eta zerbitzuen asignazioa dela medio, haietara heltzeko bidea eta eskaintza burokratikoaren eta gizataldeen eskariaren arteko lotunea zail eta korapilotsuak gertatu ohi dira." (2).

Gai hau aztertzen dugunean, arrazionaltasun-erizpideak erakutsi ditzaketen irtenbideak birlatu beharra dago, aldi berean, berezikeriak edo bakoizkeriak ekidinez. Horrez gainera, iharduketa-mailak eta egitarauak elkarlotu behar dira, iharduerak erabiltzailearentzako tokirik egokienean burutuz eta komunitatearen ongizatea bultzatuz.

Funtsezko beste alderdi bat Gizarte Zerbitzuen Herrialdekatzea da eta baita haien Sektorekatzea ere, beronek, gizarte-politiken ikuspegi kontzeptuala erakustez gainera, politika horiek burutzeko jokabideak ere eskaintzen baititu.

Kontzepzio honek, lehenengo eta behin Ereduaren Antolaketari erantzun nahi dio, arazo honi biztanleriaren ongizatea areagotu eta komunitatearen parte hartzea bultzatzeko baliagarria izan daitekeen disziplina-arteko ikuspegitik aurre egiteko aukera emanik.

## *Gizarte zerbitzuak eta biztanle-guneen parte hartzea*

Gizarte Zerbitzuen arteko loturak, eremu geografiko mugatu bateko biztanleriari erantzuten dion Sistema gisa antolatutik, Nazioarteko Erakundeek "Toki Sistemak edo Gizarte Ongizateko Barrutiak" deitutakoak baieztatu behar ditu. Konplexutasun ezberdineko zerbitzuak eskaintzen dituzten azpisistema mailakatuak dira, komunikazio-bideak, erabiltzaileen erreferentzia eta berrereferentzia-bideak erabat zehazturik dauzkatenak; horrela, informazioaren elkartrukea ahalbideratzen delarik eta, era berean, norbanakoak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik Zerbitzu Bereziuetara eta alderantziz ere igaro daitezke.

Kontzeptu honek funtsezko bi alderdi kontutan hartu behar ditu:

- Lurralde mugatu baten kokatutako biztanleria.
- Profesionariak eta Komunitatea norbanako eta taldeko Ongizatearen alde elkarlanean aritzeko gaitasuna, oraingoa edo litekeena.

Argitu beharreko bigarren elementua Sektoreartekotasuna dugu, hau da, sektore bakoitzaren helburuak, estrategiak, iharduerak eta baliabideak, gainontzeko sektoreen helburuetan, estrategietan, ihardueretan eta baliabideetan izan ditzaketen eraginaren eta ondoreen araberako kontutan hartzen diren prozesua.

"Desde el punto de vista conceptual, la Intersectorialidad supera la noción segmentada en la formulación de las políticas sociales; cuestiona la estructura administrativa caracterizada por los Ministerios o Consejerías en cada sector; los mecanismos de asignación de recursos según partidas sectoriales y fundamenta un criterio integrado de la planificación social.

Desde la perspectiva operativa de las políticas, la Intersectorialidad no solo afecta a la estructura horizontal en cuanto a la toma de decisiones, o a la relación entre Consejerías o Departamentos; sino que también lo hace en la dimensión vertical, especialmente, lo relativo a proyectos o programas sociales en el plano local" (3).

Ikus daitekeenez kontzeptu honetan hurrengook sartzen dira:

- Erakundearteko koordinazioa.
- Kontzeptuen eta baliabideen bateratze praktikoa.
- Erakundeak aurre egin beharreko arazoetara egokitzea.
- Komunitateak integratze-gaitasuna izatea bere eskakizunak bideratu ahal izateko.

Azken atal honi dagokionez, funtsezkotzat jotzen den alderdi bat aipatu beharra dago, hau da, "komunitatearen parte hartzea". Parte hartze hori prozesu bat bezala definitua izan da: "Prozesu honetan zehar, komunitate bateko gizakiek, beharrezkoa zaiena mugatuz, arretaz eta kontuz eztabaidatzen dute, ondoren euren beharritzanei erantzun diezaizkieten ekintza orokorrak planifikatzeko." (4). Nolanahi ere, parte hartze hori eraginkorra izango bada, zentzu horizontalean garatu behar da, komunitateko sektore guztiek parte hartu behar dute, talde eratuak zein eratu gabekoak. 1989.ean "Biztanleriaren parte hartzea osasun-ekintzetan" delako gaiaren inguruan Madrileko Komunitatearen hiriburuko alde batetan egin zen ikerlanean hurrengo datuok bildu ziren:

### 1. TAULA Zure auzuneak osasun-ekintzetan parte hartzeko moduak (%tan)

ERAKUNDEAK	ORDENA		
	1.A	2.A	3.A
Auzo elkarteak	45	19	10,53
Udala	12,5	35,14	26,32
Osasunetxea	30	24,32	31,57
Ospitalea	—	8,11	5,26
Auzune osoa	12,5	13,52	26,32
Ez du parte hartu behar	—	—	—
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Ikus daitekeenez, erazko taldeak kontutan izanik, Auzo Elkarte (% 45), Udala (% 35,14) eta Osasunetxea (% 31,57) dira komunitate horrek parte hartzeko biderik egokienentzat jotzen direnak. Informazio honi, aspaldi honetan komunitatearen parte hartzearen onurak direla eta agertu diren ebazpenak, adierazpenak, eztabaidak eta abarrak generatzen badizkio, gaurko egoera aldarazteko abiapuntu sendoa daukagu. Hala ere, errealitatean ez da halakorik izan; hots, berriro ere, profesionariak eta erakunde ofizialak hitzetan geratu gara eta, arrazoi ezberdinak direla medio, ez dugu ekintza erraztu:

Biztanleriaren parte hartzea ahalbidetzeko bideak, benetan, sortu al dira?

Komunitatea suspertu al da parte hartze hori garatzeko?

Norbanakoengana edo eratu gabeko taldeengana heldu eta beraien ongizaterako mezuak zabaltzeko ahaleginik egin al da?

Ekintza horiek emakumeentzako egitarauetan duten eragina ezagutzen al da?

Eta beste hainbat galdera ere egin genitzake. Costa eta López-ek adierazten duten bezala: "Parte hartzeko jokatubidea funtsezko elementua da komunitatearen ekintzetan eta ezin espe-

---

ro dezakegu magia sortzea. Parte hartzeko jokabidea, beste jokabide asko bezala, ikasi egin daiteke, ikasi eta urratu, bai hiritarren aldetik eta bai Zerbitzuetako langileen aldetik ere. Hortaz, ikasketa horretara bultzatu ditzaten programak prestatu behar ditugu." (5). Kontzeptu hauek aplikatu ahal izateko, Sistemaren berrantolaketa beharrezkoa da, haren oinarriaren berratonketa, toki-unitateak eratu behar dira, haietan pertsonak eta erakundeak elkarloturik ihardun dezaten.

### 3.

## *Gizarte zerbitzuen funtzionamendurako betekizunak*

Paganini eta bere laguntzaileen iritziz, "larogeitamargarreneko hamarkadako Gizarte Zerbitzuek bete beharreko baldintzak lehentasunezko arazoen eta inguruko gizarte eta ekonomiaren joeren ezaugarri nagusiei dagozkien lau betekizun-bikotez laburbil daitezke. Elkarloturik dauden bikoteok hauexek dira:

- Berdintasuna - Kalitatea.
- Demokratizazioa - Gizartearen Parte hartzea.
- Garapena - Eraldaketa.
- Eraginkortasuna - Teknologia egokia" (6).

Ondoren, funtsezko kontzeptu hauek argituko ditugu:

**BERDINTASUNA - KALITATEA:** Berdintasuna lortzea da, hain zuzen ere, Gizarte Ongizate arloko helburu nagusienetako bat. Baina, zer da berdintasuna? Espainiako Erret Akademiaren zera dio "Justicia natural por oposición a la letra de la Ley Positiva" (7). Aurreritzi hau onetsiz gero, norbanako edo gizatalde kaltetuenek gizarte-laguntza hobek izateko beharrezkoak diren baldintzak sortzea berdintasunezkoa edo ekitatezkoa litzateke. Ikuspegi honetatik, berdintasunaren gakoa gizarte-beharrizana zehaztean datza, eta kontzeptu honen iguruan hiru ikuspegi izan ohi dira, beti bat ez datozenak eta definizio ezberdinak eman ditzaketenak:

- a) Alde batetik, "Gizarte Zientziak" ditugu, gizartearen beharrizanak mugatzerakoan dauden pentsamoldeetako bakoitzaren erizpideak erabiltzen dituztenak.
- b) Bestetik, Gizarte Zerbitzuen arduradunak (Administratzaileak) daude, hauentzat, beharrizana delakoa, erabil daitezkeen baliabideen araberako zerbaite da, gehienezko erabilera eta kosturik urriena lortzen saiatzen direlarik.
- c) Hirugarrenik, gizatalde ezberdinak ditugu, hauek beren iritzia dute euren gizarte-beharrizanei buruz. Nahasmendua areagotzeko, talde honetan ikuspegi ezberdinak izan ohi dira, eta sarritan istilu-gune bihurtzen da, gizatalde bakoitzak bere iritzia nagusitzea nahi izaten baitu.

Beharrizana delakoaren definizioari dagokion egituraketa honetan ikuspegi akademikoak eta administraziokoak nagusitu dira, batez ere, batzutan biztanleriarengan eragin nabar-

---

mena izateraino nagusitu ere. Gauzak horrela, ekintzen zenbatekoan, batipat, oinarritutako planteamenduari jarraitu zaio, funtsean Zerbitzuen eskaintzari dagokiona eta baliabideak biztanleriaren arabera abiarazten dituzten adierazleei ere bai. Ikuspegi honetan ez dira gizatalde ezberdinen beharrian eta arriskuen arteko diferentziak aztertzen; ez eta haien konpontzeko baliabideen antolaketa edo prozesuen ezaugarriak eta eraginak, nahiz eta elementu guzti hauek berdintasunerako funtsezko osagaiak izan. Zenbatezko azterketari loturik gauden bitartean ezin daiteke berdintasunaz mintzatu, horrek kalitatea eta kantitatea bateratzea eskatzen baitu.

Areago, kalitatea teknikaren aldetik egokiak diren zerbitzuak ematea baino zerbait gehiago da. Nola ematen diren ere kontutan izan behar da. Mainette-k dioen bezala, "Emaile eta jasotzailearen arteko lokarriaren gizatartzea Zerbitzuen eta Gizartearen arteko harreman-kide bien arteko benetako jakintza-besteganaketa batetan gauzatu behar da".

DEMOKRATIZAZIOA - GIZARTEAREN PARTE HARTZEA: Partaidetzazko demokraziaz ari gara, biztanleria berorretan sartu eta goi-mailako erakundeetatik moldatutako ekintzak kontrolatu ahal izateko behar diren baliabideak sortuz. Hurrengo gizataldeok parte hartu beharko lukete:

- Erazko gizataldeak, egitasmo eta programa zehatzak praktikan jarri behar dituztenak. Hauek agintaritza dute eta Udal Korporazioak, Gizarte Zerbitzuetako profesionariak, eta abarrak izan ohi dira.
- Auzo Elkarteak, ideologia konkretuak eta aurretiaz ezarritako helburuak dituztenak.
- Komunitateko leader edo aintzindari banakoak, euren inguruko onospena izan ohi duten iradokizun edo iritziak azaltzen dituztenak.
- Komunitatea bera, batzutan, oharkabea, helburu eta interes amankomunez agertzen baita.

Gizatalde guzti hauek Gizarte Ongizate arloko ekintzetan parte hartu eta haien kontrolatzeko ahalbidea eskaini ditzaten zenbait instantziaz baliatzeko aukera izan behar dute.

GARAPENA - ERALDAKETA: Baliabideak eta haien produktuak areagotzeaz gain, aldi berean, areagotze hori sistemaren erabiltzaile guztientzat onuragarria izan dadin, gizarte-egituraren gauzatu beharreko eraldaketari ekin behar zaio.

ERAGINKORTASUNA - TEKNOLOGIA EGOKIA: Gogoeta hauen testuinguruan, eraginkortasuna aipatzen denean, ahalegin edo baliabide jakin batzuk erabiliz lor daitekeen gehieneko emaitza ulertu behar da. Helburua ez da kostua edozein dela ere nolabaiteko kalitatea lortzea, kalitate-maila horretara kosturik txikienaz heltzea baino. Kalitate-maila bati

---

dagokion kosturik txikiak "teknologia egokia" delako kontzeptura garamatza, teknologia sinpletuarekin zerikusik ez duena. Hortaz, teknologia egokia, herrialde bateko baliabide eta ezagutza erabilgarriak baliabideen eta emaitzen arteko erlazio ezinhobea lortzeko moduan erabiltzean datza. Horrela, Gizarte Zerbitzuen Eredua osotzen duten konplexutasun-maila ezberdinak entitate zatietan eta erabat orekatuaren itxuraz agertzen dira.

Lehenago ere azaldutako gogoeta hauek eta azken hamarkadan ikasitakoak datozen urte-etarako erronka batzuk planteatzera garamatzate:

- a) Berdintasuna edo Ekitateari dagokionez: dauzkagun baliabideak hobeto erabiliz eta gizataldeen parte hartzea areagotuz.
- b) Eraginkortasunari dagokionez: Gizarte Zerbitzuak hobetuz, ez, ordea, haiek gehituz edo murriztuz.
- c) Kalitateari dagokionez: lortu nahi den kalitatea zera dela, "dauden ezagutzen arabera-ko teknologiarik egokiena erabiliz eta arazoa duen edo duten pertsonaren edo pertsonen parte hartze ahalik eta handienaz ahalik eta emaitzarik hoberena lortzea".
- d) Taldeko Lanari dagokionez: disziplinarterkoa eta disziplinazgandikoa izan beharko duela.
- e) Baliabideei dagokionez: giza-baliabideen antolaketa malguak eta trebakuntza iraunkorra mugatuz eta, gainera, baliabide materialak nahiz finantza arlokoak ere behar bezala erabiliz.
- f) Emakumeen Rolari dagokionez: prozesu osoan, oro har, eta euren Ongizateari dagokion guztian, bereziki, parte hartzeak duen garrantziaz oharraraziz.

Guerra Dk.ak dioen bezala, "agiritan bokantzaz eta asmo onez hornitutako esaldiak lotan dauzkagun bitartean, egoera honen zama daramagu kontzientziaren gainean. Tamalez, beharrezko aldaketak ez dira gutxiengo pribilegiatu baten borondate onari esker etorriko. Hitzak gizarte-ekintza bilakatzeko, Gobernuak arazko erabakiak hartu behar dituzte, herrialde bakoitzeko lege esparruan gauzatu eta, horretarako borondatea erakutsiz, ekintza-programak burutzeari ekin behar diote. Eta batez ere, funtsezkoa da emakumeengan ekintzarako eta aldaketarako gogoia itzartzea, eta bizitzak eskaintzen duen eskubide eta duintasunezko ondarearen alde burrukatzea bultzatzea." (8). Helburu hauek lortuko bada, emakumeon laguntza oso garrantzitsua da; noiz eta non: geure hitza eta ekintza daukagu.

---

## *Bibliografia*

- (1) MATUS, C., "Politika, Plangintza eta Gobernu". Osasunerako Mundu Erakundea. Geneva. 1989.
- (2) BOISIER, S. eta SILVA, V., "Gizarte Politiken Deszentralizazioa eta Lurralde-Deszentralizazioa". Gizarte Sistemen Ikerkuntzari buruzko Nazioarteko Mintegia. UNESCO. 1989. 49. orr.
- (3) PALMA, E., "Gizarte Politiken arloko joerak". Nazioarteko Lankidetzari buruzko Bilerak. Brussela. 1989.
- (4) BATTEN, T.R., "Komunitateak eta euren Garapena". Kultura Fondo Ekonomikoa. Mexiko. 1990.
- (5) COSTA, M., eta LÓPEZ, E., "Komunitate-Osasuna". Martínez Roca argitaletxea. Barcelona. 1986.
- (6) PAGANINI, J.M. et al., "Tokiko Sistemak: Kontzeptuak, Metodoak-Esperientziak". OME. 1990.
- (7) ESPAINIAR ERRET AKADEMIA, "Ekitatea". Espainiar Hizkuntzaren Hiztegia. 19. argitarapena. Madril. 549. orr.
- (8) GUERRA, M., "Emakumearen Nazioarteko Eguna". 1989. urtea.